

SAKANAKO HIZTEGI DIALEKTOLOGIKOA

Jose Luis Erdozia Mauleon





“Lan honek 2001ean Irungo Udalaren Jose Antonio Loidi beka jaso zuen”.

Liburuaren izenburua: SAKANAKO HIZTEGI DIALEKTOLOGIKOA

Liburuaren egilea: Jose Luis Erdozia Mauleon

Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Sustatzailea eta banatzailea

Nafarroako Gobernuaren Argitarapen Fondoa

(Komunikazio Zuzendaritza Nagusia)

Navas de Tolosa kalea, 21

Tf.: 848427121

Faxa: 8484274123

Posta elektronikoa: fondo.publicaciones@cfnavarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

31002 IRUÑA

Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

tel. 94 415 81 55

Fax: 94 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.net

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.net>

© Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS.S.L.
San Miguel Industriagunea
31132 VILLATUERTA
Nafarroa / Navarra

ISBN: 84-95438-17-8

Legezko Gordailua: NA-88-2004

AURKIBIDEA

Sakanako hiztegi dialektologikoa

Aurkezpena: <i>Frantzisko Ondarra</i>	IX
Hitzaurrea: <i>Jose Luis Erdozia</i>	XIII
Hiztegian erabilitako laburdurak	XVI
Hiztegiko zenbait sarreratan emandako erreferentzien laburdurak.....	XVI
 <i>Sakanako hiztegi dialektologikoa: A-Z</i>	1
<i>Sakanako hiztegi dialektologikoa: aurkibidea</i>	321

AURKEZPENA

Liburu hau ez da Jose Luisen lehenbiziko lana, eta besterik ere ikusi ahal izango dugu, noski. Azken bolada honetan Sakanako zenbait herritan euskararen inguruko ikerketek loraldi bizi bat eskaintzen dute. Dela hiztegia, dela toponimia etab. biltzen, antolatzen, aztertzen eta plazaratzen ari dira bertako emakumezkoak eta gizonezkoak.

Egia esan, izan du aurrelari eta hastapenik oraingo euskaltzaleen lanak.

Euskal Herriko beste toki askotan bezala, hemen ere L. L. Bonaparte printzea izan da bidegile eta aurrelari trebea. Fonetika, morfologia, lexikoa, aditza, itzulpenak, mapagintza etab. urratu eta lantzen ditu. Bonaparteren ondotik Arturo Campión ageri da, *Orreaga* izeneko balada Sakanako hainbat herritako aldaeretan argitaratzen duela. R.M. Azkue ikusten dugu hurrengo eta, besteak beste, haren *Hiztegi hirukoitza*, bertan hitz edo horien aldakien multzo galanta sartzen duela. Mila eta gehiagoko kopurura ailegatzen da Ziorditik Irurtzuneraino hedatzen diren herrietan bildu zuen euskal berben altxorra.

Victoriano Huizi etxarriarrarekin eta Blas Alegria lakuntzarrarekin topogegiten dugu gero. Hark 1899an euskal gramatika plazaratzen du, bertan Etxarriko hitzak etab. sartzen dituela. Alegriak, haren ikasle izanak, bere literatura folklore eta etnografiarekin hornitzen eta aberasten du.

Aipa ditzagun Euskaltzaindiak 1983an Lakuntzan eta 1999an Etxarri Alegria eta Huiziren gorazarretan egin zituen bilerak, sakandarren gogo-bihotzetan euskararen suarekin pizturik mantentzeko. Ez dezagun ahaztu Lakuntzan urte horretan ospatutako omenealdian antolatu zen liburu eta eskuizkribu erakusketa. Herriko parrokiaren gordetzen diren hainbat euskal testu ikusteko

aukera ezin hobea eta egokia eskaini zen bertan. Lakuntzako parroko zen Eugenio Ulaiar nabarmendu zen Lakuntzako ospakizun eta ekitaldi hauetan.

Ez zen lehenbiziko aldia Euskaltzaindia Sakana aldera etortzen zela. Izan ere, sortu berria zelarik, 1923an Etxarrin *Euskal Jaiak* antolatu zituen, euskarari eutsi, euskara balioetsi eta bere erabilera gizartean sustatzeko.

Bitartean, Aita Donostiaren laguntzaileak aritu dira abesti / kantaitak eta folklorea biltzen. Bestalde, Damaso Intzakoak 1920tik aurrera alderdi hauetako aditz-jokoak jasotzen saiatu da. R.M. Azkuek Euskaltzaindiarekin hamarkada horretan *Erizkizundi Irukoitza* bultzatu eta burutzen du, gero Ana Maria Echaidek paraturik argitaratua, 1984.

Ana Maria Echaidek 1965ean ekiten dio Nafarroako euskara aztertzen duen bere inkestari. F. Ondarrak Bakaikuko hitz eta toponimomultzo bat eta Kandido Izagirrek Altsasuko hitz pila bat argitaratzen dituzte 1966 eta 1967 urteetan. Pedro Yrizarrek aditzaren eremu arakatzen du. Euskaltzaindiak euskararen atlas linguistiko eta etnografikoa antolatu eta bururatzen du.

Jose Maria Jimeno Juriok koordinaturik, *Nafarroako Toponimia eta Mappingintza* argitaratu du Nafarroako Gobernuak. Rosa Miren Pagolak zuzendurik eta Deustuko Unibertsitatearen eskutik, L.L. Bonapartek argitara eman gabe utzi zituen hainbat testu azaldu dira. Euskalerrria Irratiak eta Mugikak prestatuak, hor ditugu *Nafarroako euskaldunen mintzoak*.

Azkeneko urte hauetan askok ikertu edo aipatu dute hemengo hizkera. Horien artean I. Camino, I. Gaminde, J.I. Hualde, K. Mitxelena, R.M. Pagola, K. Zuazo etab. ditugu.

Alegriaren antzera, izan da alderdi honetan jaiotako beste euskal idazlerik. *Zeruko Argia* aldizkariaren hasierako urteetan Ladislao Ihabarkoa Martin Jose Goldarazena Urritza ageri da idazleen artean, eta gerra aurreko azken urteetan Felix Arbizukoa Jesus Flores Goñi. Gerra ondoren Inozentzio Aierbe eta Santiago Ezkerrak idazten dute aldizkarian.

Idazleetan handiena eta ugariena dudarik gabe Jose Maria Satrustegi izan da. Literaturan sortzaile izan dugu, baina besterik ere erruz egin du. Eskuizkribu zaharrak ezagutarazi ditu, magnetofonoz bilketak egin ditu, herriarengandik era askotako gaiak jaso eta eman ditu: direla lexikoak, direla euskal tradizioak gorde dituen aspaldiko kontuak. Etab.

Ez dugu uste, hala ere, hau guztia nahikoa izan denik. Batetik, ez da izan gizarte oso baten bihotzetik ateratzen den oihua. Bestetik, protagonista horietako asko ez dira sakandarrak. Baina bultzagile eta oinarritzat hartu behar ditugu. Horiek gure kultura eta nortasunaren ezaugarri handienari zioten maitasun eta estimuak akuilatzen gaituztela, horiek bildu, gorde eta aztertu zutena harrobi jator bezala aprobeztatu behar dugu.

Aipatu ditugun lan, ekitaldi eta langileen ondotik edo horiekin batean gaur egun euskaltzale multzo berri bat ari da hemendik lanean. Oraingo hauek Sakanakoak ditugu: Arakama, Karasatorre, Maiz, Mundiñano, Solis, Ulaiar etab.

Jose Luis Erdozia doktorea ez dago, beraz, bakarrik eta maiz ikusi ditugu argitara eman dituen lanak, toponimia jaso eta aztertuz, Sakanako dotrina eta herrietako euskara aldaerak ikertu eta baita bestearekin erkatuz, etab. Begien aurrean dugun liburua urte hauetan egindako lanaren adierazgarri ederra dugu. Gaurko euskara hartu ohi dugun maiz langai, agirietakoa alde batera utzi gabe. Horixe egin du hemendik ere, hots, gure artean bizi direnen lekukotasunaz baliatu da, baina aprobeztatu ditugun argitaratutako dauden lexikoak ere. Herriaren ahotik jasotzen ditugun hitzak eta hitz inguruak, erreminta bezala euskara batua erabiltzen duela eta *Orotariko Euskal Hiztegia* hitz bakoitzak duen sarrerara bidaltzen gaituela.

Uste dugu Sakanako euskaltzale hauen lana gizaldi eta giro berri baten fruitua dela, gizarte komunikabideen, herri aldizkari, herri irratia eta abarren oihartzuna.

Iruñea, 2003.eko azaroa

Frantzisko Ondarra Erdozia, euskaltzain osoa

HITZAURREA

Esku artean dugun lan honetan, lexikoa biltzea izan da helburu nagusia, Nafarroako mende baldean, Araba eta Gipuzkoarekin muga eginez, dagoen Sakana haraneko hizkeretako, hain zuzen ere. Lexikoa biltzeaz gain, jasotako hitzak aztertu dira, sarrera bakoitzari buruzko hainbat datu esanguratsu bertan bildu direlarik, hiztegi itxura emanez, aurrerago, sarrera bakoitzaren egitura azaltzerakoan, ikus daitekeen moduan.

Ez dira gutxi izan lanaren eremu geografikoan egin diren ikerketa filologikoak, horietako gehienak oso eremu murriz edo lokalekoak izan badira ere. Hortxe ditugu, besteak beste, Bitoriano Huizi etxarriarraren *Manual de Gramatica Bascongada* (1899), Francisco Ondarra bakaikuarraren *Voces vascas de Bacaicoa* (1965), Candido Izagirreraren *Altsasuko euskeraren gai batzuk* (1967), Rafael Karasatorreren *Barranca-Burunda* (1993), Karasatorre beraren eta beste bi etxarriarren (Eugenio Ulaiar eta lan honen autorea bera) *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia* (1991), Koldo Zuazoren *Burundako hizkera*, Gregoria Solis lizarragatarraren *Lizarragako euskararen azterketa* (1993), ... Eta hori azken ham ar urte otan egindakoak aipatu gabe utzirik.

Zuazorena eta Karasatorreren azkena ez beste guztiak, oso lokalak dira eta, horretaz gain, lexikoa lantzen dutenak, alfabetikoki ordenatutako hitzen zerrenda baino ez dute jaso, gaztelaniako ordaina atxiki zaiolarik bakoitzari.

Bestalde, *Erizkizundi Irukoitza* (1983) galdetegiaren emaitzak ditugu Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte-Arakil eta Irañetan jasoak, baina hauek ez dute, inondik inora ere, era egokian islatzen herri horietako lexikoa, K. Mitxelenak berak, emaitza orokorrei dagokienez, esan zuen moduan:

“Si el fruto de esta encuesta no ha sido mayor en el terreno de la geografía lingüística, ello se debe a dos causas. A la finalidad, en primer lugar, porque el cuestionario se redactó con el objeto de proceder a una especie de plebiscito: (...). En segundo lugar, los datos recogidos sólo se publicaron de forma muy imperfecta. (...)” (1991, «De dialectología vasca», *F.L.V* 58, 183).

Lan honetan, dena den, hemen aipaturiko guztiak izan dira kontuan, gero garrantzirik handiena gaurko egoera zertan den jasotzeari ematen bazaio ere. Sakana haranean bizi-bizirik dugu bertako hizkera hainbat herritan (Urdiainen, Bakaikun, Etxarri-Aranatzen, Lizarragan, Dorraon, Unanun, Arbizun, Lakuntzan eta Arruazun) eta bizirik, besterik gabe, beste hainbatetan (Altsasun, Iturmendin, Uharte-Arakilen eta Irañetan), baina berrogei urtetik beherako euskaldun gehienek euskara batua erabiltzen dute, hizkera bakoitzaren ezaugarri nagusiak eta, batez ere, bertako lexikoa erabat galtzen ari direlarik. Oso lexiko aberatsa da, egun oraindik, hirurogei urtetik gora, herriarrek baliatzen dutena, haien gaztaroko bizimoduak pasarteak gogoratuz barra-barra agertzen zaielarik. Horrela ikusi zuen lehen aipatutako K. Mitxelena hizkuntzalariak eta horixe ere izan da lan honen zioa:

“Valdría la pena de comprobar la exactitud de algunos términos de interés muy especial recogidos en Bacáicoa (...). Cada vez tengo más motivos para pensar que, en materia de léxico vasco, son ciertas zonas del oeste de Navarra, mal estudiadas, las que nos pueden deparar mayores sorpresas”. 1962, *Euskera*, 58.

Horrela, lan honen emaitza *Sakanako hiztegi dialektologikoa* izan da. Hiztegi honek ia sei mila sarrera jasotzen ditu eta, sarrera bakoitzak, ondorengo informazioa eskaintzen du: sarrera beraren egungo ahozko burutzapena, beltzez, lexema soilik eta eraberrituak agertzen delarik; zein herritan erabiltzen diren, parentesi artean; kategoria gramatikala, etzanaz; euskara batuan duen ordaina eta azalpen laburra; *Orotariko Euskal Hiztegi*ko erreferentzia, parentesi artean, bertan izango balitz (parentesiaren aurretik, etzanaz, *Orotarikoko* sarrera honek burutzapen ezberdina badu; bestela, berdina bada, sarrera gabe); beste hiztegiekiko erreferentzia zehatza, parentesi artean; sarreraren testuinguramendua eta honen ordaina euskara batuan; eta, azkenik, gaztelaniako ordaina. Lexemak berak esanahi bat baino gehiago duenean, sarrera bakarrik jarri da, zenbaki etzanen bidez esanahiak bereizi direlarik. Horrela, izen edo izenondotik eratorritako aditzak jatorrizko sarreraren sartu dira. Burutzapen berdina, baina lexema desberdina denean, aldiz, sarrerak desberdindu dira, aurretik ordena zenbakia jarritz.

		kategoria		
	Sakana osoan			1. esanahia Batuko ordaina
Sarrera soilik, <i>ago</i> Mugatua, <i>ague / agua</i>	Ago, -ue/-ua (Sak) <i>iz.</i> 1. Ahoa. (II, 189; V, AN, L-côte-sar, B, Ae, Sal). <i>Ago ixilik, ago aundiyo!</i> (Hago isilik, ah o h andi hori!). “Boca”.			OEHko sarrera, II.liburuan, 189. orrian; zein euskalkitan erabilia. Burutzapen berbera denez, ez da jarri etzanaz OEHkoa, parentesiaren aurrean
Sarrera nagusitik sortutako azpisarrera	-AGOTI ORTZIA!: <i>esam.</i> Ahotik hortzera! <i>Geyo pensatu bee, agoti ortzia bota zioban!</i> (Gehiago pent satu gabe, ahotik hortzera bota zioan!). ‘Decir algo a la cara sin pensarlo, de sopetón’.			Adibidea eta batuko ordaina.
	-AGO TXULUA BEIRE (YON)!: <i>esam</i> Aho zulora begira (egon)!, ‘Estar admirando a alguien, estar prendado de’.			
	2. esanahia		2. Zenbait tresn a eb akitzailereren ertz zorrotza. “Filo de algunas herramientas”.	
	-AGO TXIKIYAKI / AUNDIYAKI E-SAN: <i>ad.per.</i> Aho t xikiarekin / han-diarekin esan. Ziurtasun osoz edo zalantza handiz esan zerbait. <i>Goizien eyauben, ba, ori esaten ago aundiyki!</i> (Goizean ez huen, bada, hori esat en aho handiarekin!). “Decir algo con pleno convencimiento, o con muchas dudas o reservas”.			Gaztelaniako ordaina

‘Ago’ (aho), beraz, Sakana osoan erabiltzen den burutzapena dugu, izena da eta horrelaxe ageri da jasoa OEHko II. liburuko 189. orrialdean. Aipatu hiztegi dialektologikoan agertzen denez, bizkaieran (V), goi-nafarreran (AN), lapurterako *côte* eta *sar*-eko hizkeretan (L-côte-sar), baztaneran (B), aezkeran (Ae) eta zaraitzueran (Sal) erabiltzen dute edo erabilia izan da, gutxienez. Jarraian, haren esanahia hobeki ezagutzen lagun dezakeen adibidea dator, hau da, esaldi batean kokaturik agertzen zaigu, honen batuko ordaina ere parentesi artean agertzen zaigularik. Azkenik, gaztelaniako ordaina dugu.

Hiztegia erabilitako laburdurak:

<i>ad.</i>	aditza	<i>izond.</i>	izenondoa
<i>ad.par.</i>	aditz partikula	<i>izord.</i>	izenordaina
<i>ad.per.</i>	aditz perifrasi	<i>junt.</i>	juntagailua
<i>adlg.</i>	aditzlaguna		Lak Lakuntza
<i>adond.</i>	aditzondoa	Liz	Lizarraga
Alts	Altsasu	Lizgb	Lizarragabengoa
Arb Arbizu		<i>lok.</i>	lokuzioa
Arr Arruazu			Naf Nafarroa
Bak Bakaiku		Ol	Olazti
Bur Burunda		orok	orokorra
Do Dorrao		<i>part.</i>	partikula
<i>erak.</i>	erakuslea	<i>posp.</i>	posposizioa
Erg Ergoiena		Sak	Sakana
<i>esam.</i>	esamoldea	Sak-erd	Sakana erdialdea
Etx Etxarri-Aranatz		Uh	Uharte-Arakil
Hir Hiriberri		Un	Unanu
<i>interj.</i>	interjekzioa	Urd	Urdiain
Ir Irañeta		Urritz	Urritzola
It Iturm	endi	<i>zenb.</i>	zenbatzailea
<i>iz.</i>	izena	Zi	Ziordi
<i>izlg.</i>	izenlaguna		

Hiztegiko zenbait sarreratan emandako erreferentzien laburdurak:

OEH Luis	Mitxelena, <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>
HLEH Ibon	Sarasola, <i>Hauta-lanerako Euskal Hiztegia</i>
BB Rafael	Carasatorre, <i>Barranca-Burunda</i>
Irib	José María Iribarren, <i>Vocabulario navarro</i>
Ond Francisco	Ondarra, <i>Voces vascas de Bakaicoa</i>
Izag Cándido	Izagirre, <i>Altsasuko euskeraren gai batzuk</i>
BS Nafarroako	Gobernua, <i>Basogintza Sakanan</i>

Eskerrak em an nahi dizkiet hiztegi hau burutzerakoan lagundu didaten guztiei, haien laguntzarik gabe ezinezkoa suertatuko baitzitzaidan halako hitz pila metatzea. Hala ere, guztien izenak hem en jasotzea oso zaila denez, gehien lagundu didatenak aipatuko ditut berezi ki hasiera batean: Mikel Galartza urdiaindarra (pazientzia handiz parekatu ditu nik em andako hitz zerrenda eta Urdiaingo burutzapenak); Pedro Miguel Kintana bakaikuarra; Miguel Markotegi etxarriarra; Patxi Flores lizarragabengoa rra; Tim oteo Beraza irañetarra; Gorka

Ovejero arruazuarra (nire esku utzi du berak paratutako Arruazuko hitz bilduma); Iñaki Uriz lakuntzarra (aurrekoak bezala); eta, azkenik, Gurutze Uharte hiriberritarra.

Hauetaz gain, gogoratu nahi nituzke *Sakana erdialdeko euskara* tesi lana burutzerakoan herriz herri (Uharte-Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga eta Etxarri-Aranatz) izan nituen inform atzaileak eta hauengandik hitz sorta ederra jasotako al izan nuela. Bihoakie herri hauetako informatzaile guztiei nire eskerrik beroena. Eta bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi Domingo, Juanito eta Miguel Angel anaiak eta, Etxarri-Aranatzen bertan, astebururo, taberna zuloan elkar ikustera koan, ama, aita, osaba, izeba edo etxeke nagusiren bati hartutako hitz berriren ba tekin behin eta berriz hurbildu zaizkidan Eusebio Markotegi, Andrex Garm endia, Pablo Zabala, Karm elo Goñi, Patxi Huizi, Juan Jose eta Angel Erdozia, ...

2003ko azaroa

Jose Luis Erdozia

A

- A** (orok) *interj.* *A! A, ze politte!* (A, zer polita!). “Interj. ección para expresiones de asombro”.
- Aa(n)gati(k)** (Etx) *junt.* Har(en)gatik, honengatik, horregatik. (II, 403; ... Larramendi *por eso, por ende* y Azkue *por esta razón* ...). *Zeengati esaten dek ori? Aagati!* (Zerengatik esaten duk hori? Hargatik!). “Por eso, porque sí”.
- Aaki, -ye/-ya** (Etx, Li zgb) *iz.* Haga mehea, txondorrean sartzen dena sua behar bezala hartzeko. *Agaki* (I, 250). *Txondarreko suetxie piztutzeko aaki geyoo bier zittubau! Oik aakitaa tieferraaki faten ttuk!* (Txondorreko suetxea pizteko hagaki gehiago behar ditiagu! Ho riek ag akitara tiraferrarekin joaten dituk!). “Ram as delgadas para prender la carbonera”.
- Aako** (ikus **alako**).
- Aakusi** (Arb, Do, Un) (ikus **yakusi**)
- Aan** (Arb, Do, Un) (ikus **yan**)
- Aanion** (Arb, Do, Un) (ikus **yaniaun**)
- Aarkera** (Lizgb, Lak) *iz.* Agerkera, agian. Itxura edo irudia, beti txarra, em aten duen kei nu, jarrera edo portaera. *Tabernan zoden bi mutikuaik aarkera txarra zakabien!* (Tabernan zeuden bi mutiko haiek agerkera txarra zeukaten!). “Impresión, facha, pinta”.
- A(a)sa** (Etx, Lizgb, Urd) *iz.* Arasa, apala. (II, 327; V, G; ... *Als (arasi)*) (Ond. 27; *arasa*). (Izag. 51; *bi arasa*). *Ataa ttak platerak aasati meya paatzeko!* (Atera itzak platerak arasatik mahaia paratzeko!). Urdi ainen ez da bokal irekia g eminatzen: *asa, -ia*. “Balda, estante, alacena”.
- Aaskillo** (Lak) (ikus **pokillo**)
- A(a)txe, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Aratxe. Behikumea, bai arra nola emea. *Aratxe* (II, 331; L, B, AN-erro-egüés, BN). (Irib. *arachea* Baztan). Bakaikun et a Al tsasun *txal*. (Izag., 82). *Beyorrek atxe ederrak eitten zittuk!* (Behi horrek aratxe ederrak egiten dizkik!). “Ternero, indistintamente macho y hembra”.

- Aaztiyen** (Arb, Lizgb) *adond*. Lehen(txe)ago, arest ian. *Aaztiyen pasatu duk almintia!* (Arestian pasatu duk al mi(ra)ntea (aguazila)!). Lakuntzan *aestiyen*. “Hace poco, hace un momento”.
- Abaaju, -be/-ba** (Sak-erd) *iz*. Makailoa, abadejua. Irañetan *abaaxue*. *Abaajube tomatieki eman ziobe!* *Lengoonien giñakan abaajuba afaltzeko, beya, etzoon amaan umeik ura jaan zeenik!* (Abadejua to-m atearekin eman ziotek! Lehengo egunean geneukan abadejua afaltzeko, baina, ez zegoen amaren um erik hura janen zuenik!). “Bacalao, abadejo”.
- Abar, -rra** (orok) *1. iz*. Adar edo m akila mehea, sua egi teko bal io duena. (I, 71). (Izag. *abarrak* “las ramillas para hacer el fuego”). (Irib. *abarras* Arteta). *Abar batzuk bier zittunau sube eitteko!* (Abar bat zuk behar dizkinagu sua egiteko!). “Rama o palo delgado”. *2. (Etx, Arr) izond*. Ugari, zerbaitetik asko duena. *Zeiten zur(re) ta iriñetan abar(ra)!* (Zaitan zur eta irinetan abar!, Sakanako esaera). “Abundante, que tiene mucho de algo”.
- Abarkei, -ye** (Etx) *iz*. Alferrik galtzea, dirua esat erako. Neurri rik gabe gastatu. *Makiñaat diru fan zikiyok abarkeyen!* (Makina bat diru joan zaiok abarkerian!). “Derroche, gasto inútil”.
- Abaro, -ue/-ua** (orok) *iz*. Animaliak itzalean eguzki arengandik babesean daudean. *Abaro egon* (I, 77; AN-larr). *Abaruen ziek ardiyek!* (Abaroan zeudek ardi ak!). “Som bra para el ganado”.
- ABARUEN YON: ad.per.* Abaroan egon. *Earki gaudela abaruen, ni re yonen nittuken!* (Ederki gaudela abaroen, ni ere egonen ni tuan!). “Estar a la sombra, descansando”.
- Abatz, -a** (Etx) *iz*. Esnea gatzatzeko egurrezko ontzia, ezki egurrezkoa gehienetan. (I, 82). *Eziok esneik abatzien!* (Ez zegok esnerik abatzean!). “Cuenco de madera, de tilo generalmente, para cuajar la leche”.
- Abazpi 1.** (Urd, Lak) (ikus **rafe**). *2. -ye/-ya iz*. Hormen artea. Seguru aski ‘habe’ eta ‘azpi’ dira bere osagaiak. (BB, 51; abazpiye: hueco entre paredes, puede ser pequeño o grande, como una habitación). “Espacio entre paredes”.
- Abeastu** (Alts) (ikus **abiastu**)
- Abeats** (Alts) (ikus **abiats**)
- Abelauli** (Un) (ikus **mandauli**)
- Abemai** (Urd) (ikus **abemarie/a**)
- Abemarie/-a** (Sak-erd) *iz*. Abemaria. (I, 89). *Aitte-guriat eta bi abemarie bota zizkiek apezak errezatzeko!* (Aitagure bat eta bi abemaria bota zizkidak apezak errezatzeko!). Urdiainen bokal arteko dardarkaria galdurik eta *-a* organik korik gabe: *abemai, -a*. “Avemaría, rezo”.
- Abendu, -be/-b(u)a** (orok) *iz*. Abendua, azken hilabetea. ... *abenduko gau luzetan, ...* (I, 91; V, G, L-côte, AN, BN-bard, Ae, Sal). (Etxarriko ‘Urteberri’ kantaren zatia). Urdiainen ez da ezpai netako kontsonante ozenaren epentesirik suertatzen: *abendu, -a*. “Diciembre”.
- Abere, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz*. Zaldia eta behorra, bestiak ganadua. ‘Azi enda’ ere esaten zaiola. Li zarragabengoan baserri edo etxeetan ekoizpenerako hazten diren animaliak genituzke. (I, 98; gral). *Zaldi ta manduek aberiek ttuk, beste geñakuek, ganadue!* (Zaldi eta mandoak abereak dituk, beste gainekoak ganadua!). “Ganado caballar”.
- Abi, -ye/-ya** (Sak) *iz*. Zuhai xka, *Vaccinium myrtillus*. (Izag. 48). (BB, 52). “Arándano”.

- Abiastasun, -e/-a** (Sak-erd, Urd) *iz.* Aberastasuna, ondasuna. *Aberastasun* (I, 94; V, G, AN, L, BN). *Barra-barra gastatzen segitzen beezubie, laster aittuko ttuk zuen abiastasunek!* (Barra-barra gastatzen segitzen baduzue, I aister ahi tuko dituk zuen aberastasunak!). “Riqueza”.
- Abiastu** (Sak-erd, Urd) *ad.* Aberastu, ondasun handi ak l ortu. *Aberastu* (I, 95). (Izag. *abeastuta doo*). *Abiastu eiz nunbeitt, guuki eztek ezee jakin nei ta!* (Aberastu haiz nonbait, gureki ez dut ezer jakin nahi eta!). “Enriquecer(se)”.
- Abiats, -a** (Sak-erd, Urd) *izond.* Aberatsa, ondasun handi ak di tuena. *Aberats* (I, 96). (Izag. *abeatsa* “el rico”). *Arbizun abaatsa. Abiastuik oso bueltatuek Ameiketati!* (Aberasturik oso bueltatu duk Am eriketatik!). “Rico, hacendado”.
- Abion, -a** (Sak) *iz.* Hegazkina, abioia. (I, 120). *Abion aundi betien fan giñuban Ameiketataa!* (Abioi handi batean joan genuan Ameriketara!). “Avión”.
- Abixetu** (Sak-erd) *ad.* Abisatu, gaztigatu. *Gaztietu* ere erabiltzen dute aiton-amonek Etxarrin. *Abisatu* (I, 120). *Eta abisatu* ere bai Urdiainen. *Eziobabien garais abixetu!* (Ez ziotean garaiz abisatu!). “Avisar, notificar”.
- Abixu, -be/-b(u)a** (Sak-erd) *iz.* Abisua, gaztigua. *Abisu* (I, 121). *Abixuik eye pasatu aspaldi!* (Abisurik ez diate pasatu aspal di!). “Aviso, notificación”.
- Abiyedure/-a** (Sak-erd) *iz.* Abiadura. Gehiago entzuten da *belozidede*. (BB, 52; *abi adura: vent aja para correr, velocidad en A.*). *Abiyedura earra ziamik, ez tik yozeñek arrapatuko!* (Abiadura ederra zeram ak, ez dik edozeinek harrapat uko!). “Velocidad”.
- Abiyetu** (Sak-erd) *ad.* Abiatu, irten, atera. *Abiatu* (I, 115; G, L, AN, BN, S). *Abiyeturi lenbeilen, iye bidien arrapatzen deken!* (Abiatu hadi lehen bailehen, ea bi dean harrapat zen duan!). “Partir, salir”.
- Abogau, -be/-ba** (Sak) *iz.* Abokatua. *Abogadu* (I, 125). Urdiainen kontsonante epent ikorik gabe: *abogau, -a. Gaurko egunien erabat bierreskue dek abogaube uraitzie!* (Gaurko egunean erabat beharrezkoa duk abokatua edukitzea!). “Abogado”.
- Abolba** (Sak) *iz.* Laborea. Irañet an *agolbe. Agolba* (I, 305; “Al holva” Ond *Bac*). (Irib. *abolba* Iruñerria-Erdialdea-Mendialdea). Urdi ainen *arolba, -ia. Aurten abolba poleki ai da atiatzen!* (Aurten abolba poliki ari da ateratzen!). “Alholva, cereal”.
- Aborrigarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Aspertu edo ‘aburritu’, eta zenbaitetan nazkatu ere bai, egiten duena. “Asqueante, aburridor”.
- Aborrittu** (Sak-erd) *ad.* Aspertu, ‘aburritu’, nazkatu. “Aburrit, asquear”.
- Abuztu** (Alts, Bak, Uh) (ikus **aguztu**)
- Adabuteko-larru** (Un) (i kus **buukolarru**)
- Adan, -a** (Etx, Urd) *izond.* Baldar, janzkera ez egoki a duen pertsona. *Guu mutikuau oso adana da!* (Gure mutiko hau oso adana da!). “Desastrado”.
- Adar, -rra** (orok) *iz.* 1. Adarra, zenbait animaliarri ateratzen zai ona. (I, 140). (Izag. *adarra* “el cuerno”). “Cuerno”. 2. Zuhaitzei enborretik ateratzen zaizkien besoetako bakoitza. “Ram a de árbol”. 3. Aizkolariei, enborrak moztetakoan, ateratzen zaizkien korapiloak, aizkoraren lana oztopatuz. *Nazabalek suerte txarra uraittu dik, bi adar atia zizkiyok azkeneko trunkuten!* (Nazabalek suerte txarra eduki dik, bi adar at era zai zkiok

- azkeneko trunkuetan!). “Nudo, fallo en los troncos”.
- Adarkazo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Adarkada, adarrez jot ako kol pea. (BB, 53; adarkada). “Cornada”.
- Adarke, -ie** (Etx) *iz.* Animalia b aten adarrak, multzo m oduan hart urik. “Cornamenta”.
- Adarmakur, -rre/-rra** (Sak) *izond.* Adar okerrak, arkuaren moduakoak, dituena. (BB, 53). “De cuernos torcidos, arqueados”.
- Adarmotz, -a** (Sak) *izond.* Adarrak mozturik edo bat faltan duenari esaten zaio. (B B, 53). “C ornicoorto, de un único cuerno”.
- Adaro, -ue** (Etx) *iz.* Labea garbi tzeko tresna, txondorretan erabiltzen den *pelaki*-a bezalako, ilargi erdiaren itxurakoa. (I, 147; L, B N. ...”rast ro que usa para limpiar el horno, separar la nieve, desbrozar cam inos, etc.”). (Izag. 51; *araru* ‘la pala de m adera para recoger el t rigo de la era’). *Adaruau erabat zartuik ziok dauneko!* (Adaro hau erabat zahart urik zegok dagoeneko!). “Medialuna para limpiar el horno”.
- Adarra jo** (orok) *ad.* Trufatu, zirikatzen ibili. (I, 144). (BB, 53; fastidiar, tomar el pelo). *Baabil, adarra jotzen!* (Bahabil, adarra jotzen!). “Tom ar el pelo, burlarse”.
- Adiazi** (Arb) *ad.* Adierazi, ezagutarazi. (BB, 53; adiazi: dar a conocer, ‘zaudie ix ilik, b estela adiazikozubie denâi’). Lakunt zan *adiyeezi*. “Mostrar, dar a conocer”.
- Adin, -ñe/-ña** (Sak) *iz.* Adina, izaki bizidunek bi zi dut en denbora. *Galde in yok nei beek, beya eztuk nolanei adiñik esaan!* (Galde egi ok nahi baduk, bai na ez duk nol anahi adinik esanen!). “Edad”.
- Adiyeezi** (Lak) (ikus **adiazi**)
- Adiyo** (Sak) (ikus **aiyo**)
- Ados yon** (Etx) *ad.* Ados egon, bat etorri, conforme egon. *Adostu* (I, 231). *Gu dee ados gaudek esan dezubienaki!* (Gu ere ados gaudek esan duzuenarekin!). “Estar de acuerdo, conforme”.
- Afai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Afaria, eguneko azken jatordua. *Afari* (I, 240; V, G, AN, L, BN). (Izag. *afaiya patu* “poner la cena”). *Afaye jokatu yau Nagoreen alde!* (Afaria jokatu dugu Nagoreren alde!). “Cena”.
- Afaldu** (orok) *ad.* Eguneko azken otordua egin. (I, 237; V, G, AN, L, B N, Ae). (Izag. *afaldu zaun* “cenemos”). *Afaldu, olluek pixe nola eitten debien ikusi, ta guatzia!* (Afaldu, oiloak txiza nola egiten duten i kusi, et a ohera!). “Cenar”.
- Afolabaiku** (Alts) (ikus **ajolabeko**)
- Aga** 1. (Sak) *iz.* Makila luze eta lodi samarra. Txerria hil eta garbitu ondoren ‘haga’ bat ean i zaten zen zintzilik. (I, 248). (IHM 17, 31). (Izag. *Agi* “la vara” para derri bar castañas; *agaat, bi aga*). Urdi ainen *agai, -a*, eta bai ta konposaket an ere: *atalai, gatzinagaia*. (Irib. Goñi-Mendialdea-Obanos). *Bi o iru egunes urai ber dik txerriye agati txintzilikan!* (Bi edo hi ru egunez eduki behar di kt xerria hagat ik zintzilikan!). “Palo l argo y bast ante resistente, tranca”.
- AGABETIEN (YON): *adlg.* ‘Aga batean’, estu, era desegoki an (egon). “(Estar) tenso, agarrotado”.
2. **-tu** (Etx, Li zgb) *ad.* Galgatu, balaztatu, aseguratu, lotu. (I, 250; AN-erro, BN, “prensar la harina en el saco”). *Gurdiye aungi agatu bierra zikonau!* (Gurdia ongi galgatu beharra zeukanagu!). “Frenar, asegurar”.
- Agai** (Urd) (ikus **aga**)
- Agertu** (orok) *ad.* Azaldu, ageri. (I, 266). (Izag 48; *agertua berriz* “ha aparecido

- nuevamente”). *Agertuakik norbeitt?* (Agertu zaik norbait?). “Aparecer”.
- Agetaa bota** (Sak-erd) *ad.* Gaixotu, erabat ahuldu. *Ageta* (I, 270; “*ageta botariko*a, decaído, deshecho (G-nav) Inza *RIEV* 1928, 151”). Lizarragabengoan *a(g)eta fan* ere bai. *Agetaa botaik zio*k gizonoi! *Etzazula zizoi jan, aetaa fan bee!* (Hagetara botarik zegok gizon hori! Ez ezazula ziza hori jan, haget ara joan gabe!). “Estar decaído, enfermo, debilitarse considerablemente”.
- Agii** (Sak-erd) *1. ad.* Ageri, ikusi. (I, 251). *Aspaldiyontan eztek iyore agii!* (Aspaldi honetan ez duk inor ageri!). “Ver, aparecer”. *2. -ye/-ya izond.* Ageri, argi. “Visible, claro”.
- Agii danes/danien** (Etx, Li zgb, Lak) *esam.* Esaten dutenez, dirudienez, ageri denez. Lizarragabengoan *agi danien.* Lakunt zan *agi denien. Agi danez* (I, 270; G-t o). *Agii danes, eztikobau eze eittekoik! Zuen launek itxiaa allaatu min zian da, agi danien, leyo guziek zabalik zoden!* (Ageri denez, ez zeukaguk ezer egitekorik! Zuen lagunak et xera ai legatu omen ziren eta, ageri denean, leiho guztiak zabalik zeuden!). “Por lo visto, según parece”.
- Agiiyen** (Sak-erd) *adond.* Agerian, ikusteko moduan. *Agerian* (I, 255; AN-larr, L). *Ipurdi agiiyen geldittuek!* (Ipurdia ageri an gel ditu duk!). *Agii-agiiyen geldittuek bee apijana!* (Ageri-agerian gel ditu duk bere azpijana!). “Al descubierto, en evidencia, al aire, a la vista”.
- 1. Agin, -ñe** (orok) *iz.* Hagina. (I, 274; G, AN, L, BN, Ae, Sal, R, S). Burundan palatalizatu eta asimilatu gabe: *agin, -a. Bi agin besteik ezizkiek gelditzen!* (Bi hagin besterik ez zaizkidak gelditzen!). “Muela”.
- 2. Agin, -ñe** (orok) *iz.* Agina, zuhaitza. (I, 277; V, G, L, S [?]). Burundan aurrekoan bezala. *Taxus baccata.* “Tejo”.
- Agindu** (Urd) (ikus **ainddu**)
- Agittu** (Etx) *ad.* Hauteman, som atu, nabaritu. *Agitu* (I, 301; AN). *Emendi agiitzen zittubet kurrillubaa*n otsak, *egueldi txarra elduek!* (Hem endik agitzen dizkiat k urri loen h otsak, eguraldi txarra zeto rrek!). “Percibir, notar”.
- Ago, -ue/-ua** (Sak) *iz. 1.* Ahoa. (II, 189; V, AN, L-côte-sar, B, Ae, Sal). *Ago ixilik, ago aundiyo!* (Hago isilik, aho handi hori!). “Boca”.
- AGOTAN IBILLI/YON:** *ad.per.* Ahotan ibili/egon. *Mundu agotan zillek kontuboi!* (Mundu guztiaren ahotan zebilek kontu hori!). “Estar en candelero, en boca de todos”.
- AGOTI ORTZIA!:** (Etx) *esam.* Ahotik hort zera! *Kristonak bota zizkiyok agoti ortzia!* (Kristorenak bota zizkiok ahotik hortzera!). ‘Decir algo a la cara sin pensarlo, de sopetón’.
- AGO TXULUA BEIRE (YON):** (Etx) *esam.* Aho zula ora begi ra (egon). *Aittune istoiyek kontatzen asten danien, guu mutikue ago txulua beire yoten dakiyo!* (Aitona i storioak kontatzen hasten denean, gure mutikoa aho zula ora begi ra egot en zaio!). ‘Est ar adm irando a alguien, estar prendado de’.
- AGO TXIKIYAKI / AUNDIYAKI ESAN:** (Etx) *ad.per.* Aho txikiarekin / handiarekin esan. Zi urtasun osoz edo zalantza handiz esan zerbait. *Goizien eyauben, ba, ori esaten ago aundiyaki!* (Goizean ez huen, bada, hori esaten aho handiarekin!). “Decir algo con pleno convencimiento, o con muchas dudas o reservas”.
- AGOS GUA:** (Lizgb) *adond.* Ahoz gora. *Etzin aai agos gua!* (Etzan hadi

- ahoz gora!). “B oca arri ba, posición decubito supino”.
2. Zenbait tresna eb akitzailereren ertz zorrotza. *Laban orrek bi ago dazka, beya zein beño zein aketzouba!* (Laban horrek bi aho dauzka, bai na zein baino zein aketzagoa!). “Filo de algunas herramientas”.
- Agobel, -a** (Etx, Arr) *iz.* Zurrumurrua, zeresana. *Aho-uhál* (II, 200; ‘*Aougal* (*aoubal*), rienda’). Seguru asko *aho + uhal*-etik dat or, bai na dagoeneko hemen esandako esanahiarekin geratu zaigu. *Ori agobela paatuekena! Nik, bintzet, eniek nei agobeletan yotie!* (Hori agobela parat u duana! Ni k, behintzat, ez nukék nahi agobeletan egotea!). “Rumor, habladuría, estar en boca de todos”.
- Agobeltz, -a** (Sak) *izond.* Hitz itsu si eta gogorrek esaten dituenari esaten zaio. *Ze gertatuakik? Lenuo eyitzen ain agobeltza!* (Zer gertatu zaik? Lehenago ez hintzen hain ahobeltza!). “Malhablado, blasfemo”.
- Agobiyurke** (Etx) *adond.* Ahoa okert uz, keinuak eginez. (BB, 56; *agobiyurka*). “Hablar torciendo l a boca, gesticulando”.
- Agolbe** (Ir) (ikus **abolba**)
- Agomena** (Lak) *iz.* Erromerietan herri guztiari em aten zaio ardoa eta ogia gaztarekin. Hori xe dugu ‘agomena’, jateko zerbait. “Reparto gratuito de pan con queso en las romerías”.
- Agopien** (Etx) *adond.* Ahopeka, ahopean. *Gauz guziek agopien esaten tuzubie!* (Gauza guztiak ahopean esaten dituzue!). “Susurrando, hablando bajo”.
- Agorril** (Lak) (ikus **aguztu**)
- Agortu** (orok) *ad.* Lehortu, idortu, bukatu. (I, 310). Lakuntzan *akittu. Agortu ttuk guu espiantza guziek!* (Agortu di tuk gure esperantza guztiak!). “Secarse, agotarse”.
- Agottiki, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Hitz gutxi egi ten duenari esat en zai o. Izengoiti m oduan ere bizirik dago. “Callado, de pocas palabras, mote”.
- Agotz, -a** (Sak) *iz.* Lastoa, l agotza, gariarena bereziki. *Lagotz* ere entzun daiteke. (I, 311; V, G, AN, B , Ae, Sal). (Izag, 61; ... *edozeinek etzakiyen geo biltzen agotza*). *Ganboikue agotzes beteik zikobau!* (Ganbara goikoa ahotzez bete rik zeukaguk!). “Paja, heno, especialmente de trigo”.
- Agozabal, -a** (Sak) *izond.* Hitzontzi, berritsu, ahohandi. (B B, 56) “Habrador, bocazas”.
- Agozabalkan** (Sak) *adond.* Aharrausika, aho zabal ka, l ogura edo asperraldia dela eta. *Aguezabalkan eta aguazabalkan* ere entzun daitezke. *Egun guzie pasatu yet agozabalkan! Goiz guzie daabiyet ague zabalkan!* (Goiz g uztia d arabilt ah o zab alka! Egun guztia pasatu diat ahozabalka!). “Bostezando”.
- Agozbei** (Ir, Hir, Arr) (ikus **baye**)
- Agozikin, -ñe/-ña** (Sak) *izond.* ‘Agobeltz’-en parekoa. (B B, 56). “Malhablado, blasfemo”.
- Agoztei, -ye** (Etx, Urd) *iz.* Lagoztegia, lagotza gordetzeko lekua. *Agoztegi* (I, 312; V-arr, B , Sal). (Izag., 71; *lastateiyan* ‘en el pajar’). Urdiainen *agoztaia*. “Lugar para guardar la paja, pajar”.
- Agudo** (Sak) *adond.* Azkar, orai ntxe bertan, berehala, l aister. Agi ndu moduan erabiltzen da. (I, 316; V, G, AN). (Izag., 79; *Pédro agúdu zala*). *Ein zak ori agudo!* (Egin ezak hori agudo!). “Ya, rápido”.
- Ague/a zabalkan** (Sak) (ikus **agozabalkan**)
- Aguerdi** (Alts) (ikus **eguerdi**)
- A(g)ujeta** (Sak-erd) *iz.* Kateorratza, botoi edo kremlera izan ezean itxitura duen orrat z m akurra. *Botonik ez paakan atorriako paa yon a(g)ujeta*

ttikiin bet! (B otairik ez badaukan atorrarako para iezaion agujeta txikiren bat!). “Imperdible”.

Agurtu (orok) *ad.* Agur egi n, agurtu. (I, 328). *Mextrube agurtuek?* (Maisua agurtu duk?). “Saludar, despedir”.

Aguztu, -be/-b(u)a (Sak-erd, Urd) *iz.* Abuztua, zortzigarren hi labetea. (I, 136). Lakuntzan badirudi garai batean *agorri* erabiltzen zutela. (Ond., 3; *abuztu*). Urdi ainen kont sonante epentetikorik gabe mugatzerakoan. *Aguztuben izeten die guai Etxarriko festak!* (Abuztuan izaten dira orain Etxarriko festak!). “Agosto”.

1.Ai, -ye/-ya (orok) *iz.* Edozein motatako irinez eta esne edo urez egiten den orea. “Papilla”.

2.Ai (Alts) (ikus **aide/a**)

Ai (izen/izan) (Sak) *ad.* Ari (izan). *Ai* (II, 435; AN-ul z, Ae, S). *Bei gustua ai zariela!* (Bai gustura ari zaretela!). “Estar haciendo (algo)”.

Aiaupenani (Sak-erd) *interj.* Aiene, harridura agertzeko erabiltzen da. *Ai + (h)au + pena + ni(k)* di ra bere osagaiak. *Aieneni* ere entzun dai teke. *Aiaupenani! Nola detteke ori?* (Aiaupenani! Nola dai teke hori?). Lakuntzan herri al dizkariaren izena. Urdiainen *aiaupenia*, *aiene* eta *aienebada*. “Expresión de asombro, tristeza”.

Aiaupenia (Urd) (ikus **aiaupenani**)

Aida (Sak) *esam.* Behie aurrera egiteko esaten zaien *esam* oldea, aurrera. (I, 334; V, G, AN). (Irib. Iruña-Erdialdea-Mendialdea). *Aida nuanei!* (Aida noranahi!). “Voz que se utiliza para indicar que avance al ganado vacuno, ¡Arre!”.

1.Aide/-a (Sak-erd) *iz.* Txerrikotia, normalean ikuiluaren barruan egoten dira. Urdiainen eta Arruazun *ei, -a*. *Ei* (VI, 502; G-bet -to, AN-gi p-araq-ulz). (Izag. 49; *aiya* ‘la pocilga’ *sartu aira* ‘entra a la pocilga’). *Ii*

kuartuonek aide ematen dik! (Hire kuarto honek ai da ematen dik!). “Pocilga”.

2.Aide, -ie/-ia (Et x, Lizgb) *iz.* Seni dea, ahaidea. *Ahide* (I, 5). *Beste askok bezela, guk ee bazizkobau aidiek Ameiketan!* (Beste askok bezala, guk ere bazeuzkaagu ahaideak Ameriketan!). “Familiar”.

3.Aide, -ie/ia (Sak-erd) *iz.* Aire. Urdiainen *aire, -ia*. *Zoon aizieki aidien ibilduek papera, lurria allaatu bee!* (Zegoen haizearekin airean ibili duk papera, lurrera ailegatu gabe!). “Aire”.

-AIRE EMENDIK: (Urd) *esam.* Alde hemendik. “Fuera, a paseo, con viento fresco”.

Aide beltz, -a (Etx) *iz.* Behazuneko mina. *Makiñaat jende il dek aide beltzes!* (Makina bat jende hi l duk ahai de beltzez!). “Enfermedad de la hiel”.

Aidetasun, -e (Etx) *iz.* Ahaidetasuna, senidetasuna. (I, 8). *Eztikonau erriyen iyorezekin aidetasunik!* (Ez zeukanagu herri an inorekin ahaidetasunik!). “Relación familiar, parentesco”.

Aidien (Sak) *adond.* 1. Airean. (I, 398). Urdiainen *airien*. *Aidien jaso zeen arriyure!* (Airean jaso zuen harri hura!). “Fácilmente, rápidamente”. 2. Pikutara. *Aidien bieldu diau!* (Airean bidali dugu!). “Con viento fresco”. 3. (Etx) Gorputzeko zenbait atalen mina edo egoera ez egokia. “Estado enfermo de alguna parte del cuerpo”. *-ORTZAK AIDIEN URAI: ad.per.* Hortzak airean eduki, hortzetako mina, ez haginetakoa, izan. “Tener dentera”. *-NERBIYUEK AIDIEN URAI: ad.per.* Nerbioak airean eduki. “Estar de los nervios”.

Aiene, aienebada (Urd) (ikus **aiaupenani**)

Aieneni (Sak-erd) (ikus **aiaupenani**)

- Aik** (Sak) *erak*. Haiek. *Beixee, aik izen ber!* (Berriz ere, haiek izan behar!). “Ellos, aquellos”.
- Ailatu** (Bur) (ikus **allatu**)
- Ailtzur** (Urr) (ikus **aitzur**)
- Ailubi** (Urd) (ikus **marrubi**)
- Ain** (Sak) *adond*. Hain, hi rugarren graduko kantitate aditzondoa. (I, 346). *Eniyan uste ain txikiye zanik!* (Ez nian uste hain txikia zenik!). “Tan”.
- Aina** (Urd) (ikus **aiñe**)
- Ainbeste** (Bur) (ikus **aunbeste**)
- Ainbet** (Sak) *adond*. Adinbat, ad ina. *Ainbat* ere entzun daiteke. *Ainbat* (I, 180; V-ger ap. A). *Ik ainbet zikik arrek!* (Hik adinbat zek ik hark!). “Tanto como”.
- 1.Ainddu** (Sak-erd) *I. ad*. Agindu. Unanun *manatu* eta Urdiainen *agindu*. *Agindu* (I, 279; V, G, AN; ... *Asp Leiz2 (ainyu)*...). *Asperturik nakak beti aintzen!* (Asperturik naukak beti agintzen!). “Mandar, ordenar”. 2. – **be/-ba** *izond*. Agindua, beste norbaiten esanetara dagoena. *Nai ez esan eze, ainddu bet neiz!* (Niri ez esan eze ere, agindu bat naiz!). “Mandado”.
- 2.Ainddu** (Sak-erd) *ad*. Hitzeman, esandakoa beteko dela adierazi. *Autua utziko dookela ainddu dook, ortas, utzi iin berko dook!* (Autoa utziko dioala aginduko, hortaz, utziko egin beharko diok!). “Prometer”.
- Aingera** (Sak) *iz*. Aingira, arraina. (I, 377; V-gip, AN). (Ond., 4). Arruazun *ingera*. *Makiñaat aingera ikusten ittuben lenuo ibeiten!* (Makina bat aingira ikusten hituen lichenago ibaietan!). “Anguila”.
- Aingeru, -be/-ba** (orok) *iz*. Aingerua. (I, 371; V, G, AN, L). *Aingeru ederra ago i eiñik!* (Aingeru ederra hongo eginik!). “Angel”.
- Aingiriken iin** (Ir) (ikus **iyeketu**)
- Aingurei** (Ir) (ikus **i(n)gurei**)
- Aino** (Bur) (ikus **año**)
- Aintxume** (Uh) (ikus **antxume**)
- Aintzineko** (Alts) (ikus **aurreko**)
- Aiñe/-a** (Sak-erd) *part*. Adina. Uharten *eiñe* eta Urdiainen *aina*. Altsasun *dina* (Izag 48; *aita dina in da semi el hijo se ha hecho tanto como el padre*). *Zuek aañe lan ezetik bestiatek ein!* (Zuek adinaren ezetik beste bat egin!). “Tanto como”.
- Aipetu** (orok) *ad*. Aipatu, komentatu. Urdiainen *aitatu*. *Aipatu* (I, 387; G, AN ap. A). *Eztik iyorezek eze aipetu!* (Ez ditek inork eze aipatu!). “Mencionar, comentar”.
- Aire** (Urd) (ikus **aide**)
- Airetu** (Arb, Lak, Arr) (ikus **erakatu**)
- Airien** (Urd) (ikus **aidien**)
- Aita** (Bur) (ikus **aitte/a**)
- Aitagiareba** (Bur) (ikus **aittaiarreba**)
- Aitaiarra** (Urd) (ikus **aittaiarreba**)
- Aitaj(a)un** (Alts, Ol) (ikus **aittun**)
- Aitapuntako** (Bur, Liz) (ikus **aittejunteko**)
- Aitaponteko** (Urd) (ikus **aittejunteko**)
- Aitatu** (Urd) (ikus **aipetu**)
- Aittaiarreba** (Sak-erd) *iz*. Aitagarreba. *Aitagarreba* (I, 411; G, AN (-g- en gral. perdida), Ae (-g- perdida), R (-g- vacilante), Sal (*aitagarreba*)). (Izag. 49; *aitagierra* ‘el suegro’). Urdiainen *aitaiarra*. (Ond. 4; *aita-giar*) *Oso aungi konpontzen nok aittaiarrebaaki!* (Oso ongi konpontzen nauk aitagarrebarekin!). “Suegro”.
- Aitte/-a** (Sak-erd) *iz*. Aita. Uharten *eite*. Burundan palatalizatu gabe: *aita*. *Aita* (I, 407). (Izag. 48; *aita dina in da semi el hijo se ha hecho tanto como el padre*). *Aizkorazale amurretube yauben guu aitte!* (Aizkorazale amorratua huen gure aita!). “Padre”.
- Aittegutxi** (Ir) (ikus **aittejunteko**)
- Aittejunteko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz*. Haren besoetakoa, gizonetako. Aitaordea, aitapontekoa. Uharten *ettegutxi*, Irañetan *aittegutxi* eta Lizarragan

atsepunteko. Aita ponteko (I, 408; V, G). (Izag. 49; *aitapuntako* ‘el padrino (de bautismo)’). Urdiainen *aitaponteko, -ua*. (Ond. 4; *aitapuntako*). *Aittejunteko paatube dek mutikuo!* (Aitaponteko parat ua duk mutiko hori!). *Aittefunteko* ere entzun daiteke. “Padrino”.

1.Aittu (Sak) *ad. I.* Aditu, en tzun. Burundan palatalizatu gabe: *aitu. Aitu* (I, 199; G, AN, B, L, B N, Ae; ... Iz *To (aittu), ... Ulz (aittu)*). *Azkeniako kristoonak aittu ttu!* (Azkenerako kristorenak aditu ditu!). “Oir”.

-EZ AITTUBAANA (E)IN: esam. Ez adituarena egin, entzun ez duenarena egin. *Bee kulpa zala quartu zani en ez aittubeena iin zeen!* (Bere kulpa zela ohartu zenean ez adituarena egin zuen!). “Hacerse el despistado”.

2. Usaimenaz sum atu. *Emendi asita aitzen yet useye!* (Hemendik hasi ta aditzen diat usaina!). “Percibir el olor, oler”.

2.Aittu (Sak) *ad.* Ahitu, bukatu, gastatu. *Ahitu* (I, 440; V-gip, G, AN-gip-errolarr, L). *Aittu zizkieguk aitzeki guziek!* (Ahitu zai zkieguk aitzeki guztia!). “Acabar(se), consumir(se)”.

3.Aittu (Sak) *ad.* Aritu, jardun. *Lengoonien baatze baztarreko sasiyek austen aitu nitzen.* (Lehengo egunean baratze bazterreko sasiak haustu en aritu nitzen). “Estar haciendo al go, realizar una actividad”.

Aittun, -e/-a (Sak-erd) *iz.* Aitona, aitajauna. Uhartan *eittune* eta Olaztin *aitajuna. Aiton(a)* (I, 425; G, AN; ... *VocB (aituna), ... Iz Als (attuna) ... Ulz (attuné)*). (Izag. 49; *aitajauna zan pixkat buruti nastutxu; 53, attuna*). “Abuelo”.

-AITTUN AUNDIYA: iz. (Arb) ihauterietako pertsonaia. “Personaje del carnaval de Arbizu”.

Aittun(a)zar, -rra (Etx, Lizgb) *iz.* Aitona edo amonaren aitababua. “Bisabuelo”.

Aitu (Bur) (ikus **aittu**)

Aitzarri (Urd) (ikus **argor**)

Aitzeki, -ye/-ya (Sak-erd) *iz.* Aitzakia. Burundan bokalasi milaziorik gabe: *aitzaki, -ia. Aitzakia* (I, 445; G, AN, L; ... *aitzeki, atzeki* (Urt Gram 7)). *Bei, zuek aitzeki franko!* (Bai, zuek aitzaki frango!). “Excusa, pega”.

Aitzera (Sak) *I. iz.* Entzutea, ospea. Urdiainen *aditzera. Aitzera txarrekue dek etorri berri dan gizonoi!* (Aditzera txarrekoa duk etorri berri den gizon hori!). “Fama, oídas”.

-ADITZERIA BOTA: (Urd) ad.per. Zeharka jakitera eman. “Dar a entender”.

-AITZERA EMAN: (Lizgb) ad.per. Neurritz kanpoko eran jantzi, hitz egin edo ibili jendearen aurrean nabarmentzeko. *Beti aitzera ematen ibil bedeela re, guaixea illa gorritu, gioxoo arropa falakoik jantzi, ...* (Beti aditzera ematen ibili behar duela ere, oraintxe ilea gorritu, geroxeago arropa falaka horiek jantzi, ...). “Llamar la atención”.

2. **izen/urri** *ad.per.* Aditzera izan/eduki. Zerbaiten berri izan, zerbait entzuna dugula adierazteko. Lakuntzan *aitzia urri. Kontuboorren aitzera banean, beye eneen uste tartin ziñenik!* (Kontu horren adierazte zera banuen, bai na ez nuen uste tartean zinenik!). “Conocer, tener noticia”.

Aitze(ra)s (Sak-erd) *adond.* Entzuteaz, aditzerez. *Aitzeras besteik eyau ezautzen!* (Aditzerez besterik ez diagu ezagutzen!). “De oídas”.

-AITZIAS JAKIN: (Lak) ad.per. Aditzerez jakin. *Aitzias dekik Baztanen ola eetten dubiela, beño emen ez, ezen usetzen.* (Aditzerez dakit Baztanen horrela egiten dutela,

- baina hemen ez, ez zen usatzen).
 “Saber de oídas, tener oído”.
- Aitzur, -rre/-rra** (orok) *iz.* 1. Nekazaritzako tresna. Arruazun, Uharten eta Irañetan *eltzur*, Urritzolan *aitzur* eta Urdiainen eta Altsasun *aitxur* (Izag., 49). (I, 487; G, B, BN, Ae, Sal). *Aitzurre soruen aztuakigu!* (Aitzurra soroan ahaztu zaigu!). “Azada”. 2. Mozkorra. “Borrachera”.
- Aitzurkezo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Aitzurkada, aitzurrez emandako kolpea. Urdiainen *aitzurkazo, -ua*. (BB, 58; *aitzurkada*). “Azadazo”.
- Aitzurpiko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Aitzur handia, aho estua baino luzea. *Aitzurphiko* (I, 490; BN ‘pic’, ... ‘*Atxur pikotx*’ (R)). *Errekoi aitzurpikue ta pikatxonaaki atia diau!* (Erreka hori aitzur pikoa et a pi katxonarekin at era dugu!). “Azada de boca estrecha pero más larga”.
- Aixe** (Sak) *adond.* Erraz, m odu erosoan. *Aise* (I, 401; G, AN, L, B N). Lizarragabengoan *aixa* ere bai. *Aixe ein yauben ori, guu launtzaaki!* (Aise egin huen hori, gure laguntzarekin!). “Fácilmente, cómodamente”.
- Aixetu** (Sak-erd) *ad.* Lasaitu, atsedean hartu. *Aixatu* (I, 496). *Aixeturi pixkaat, bestela belexe eroikueiz!* (Haizetu hadi pixka bat, bestela berehalaxe eroriko haiz!). “Tranquilizar(se), descansar, reposar, relajarse”.
- Aixi, -ya** (Lizgb) *iz.* Atsedena, lasaitasuna. *Au aixiya lanoi uztien, alde earra! Au aixiya, pixakurriek lertzen ningonen!* (Hau aisia lan hori uztean, alde ederra! Hau aisia, txizagurak lehertzen nengonan!). “Descanso, tranquilidad”.
- Aixkide, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Adiskidea, laguna. (I, 187). (Izag., 49; *aixkire gutxi* ‘pocos amigos’). “Amigo”.
- Aixkidetu** (Sak) *ad.* Adiskidetu, lagun bihurtu. (I, 197). *Aspaldi asarre yondu badie dee, azkenia aixkidetu ttuk!* (Aspaldi haserre egon badira ere, azkenera adiskidetu dituk!). “Hacerse amigos (de nuevo)”.
- 1.Aixkol** (Lak) (ikus **ider**)
- 2.Aixkol, -a** (Lak) *iz.* Gezurra. *Ze aixkola bota duken!* (Zer gezurra bota duan!). “Mentira”.
- Aixkolto, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Aizkora txikia. *Aixkolta* (I, 517; R-uzt, S ap. A, BN ap. H). Ergoienan eta Irañetan *aizkora txikiye/-ya*. *Aga txikiyok moztutzeko neikuek aixkoltue!* (Haga txikiok mozteko nahi ko duk aizkora-txoa!). “Hacha pequeña”.
- Aiyo** (Sak) *esam.* Adio, agur esateko erabiltzen den esamoldea, ‘adios’-etik datorrena. *Adio* (I, 184; ... Cf. <Irib> VocNav: “ARIYO. Adi ós; sal udo de despedida. Es voz vasca que equivale a: “Voy o vete ligero, libre, alegre”. (Tierra Estella)”). *Ariyo* eta *adiyo* ere entzun daitezke. “Adios”.
- Aizale, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Entzule, adizale. *Tabernan itzeitten danak, aizale franko izeten dik!* (Tabernan hitzegiten denak, adizale franko izaten dik!). “Oyente”.
- 1.Aize, -ie/-ia** (orok) *iz.* Haizea. (I, 499). *Aizie muittuik, azkenontan!* (Haizea mugitu dirik, azken honetan!). “Viento”.
- AIZEBILDU, -BE/-BA:** (Etx, Alts) *iz.* Sorgin-haize, haize-zurrumbiloa. (Izag., 49; *ai zebildubak ‘las ventiscas’*). “Viento arremolinado”.
- 2.Aize, -ie/-ia** (Sa) *iz.* Ehiza. *Aiz* (VI, 510; G-nav). (Izag., 49; *aizea fan*). Urdiainen *eize, -ia*. *Aizia fan die goizter zuen launek!* (Ehizara joan dira goizter zuen lagunak!). “Caza”.
- Aizetu** (Sak) *ad.* 1. Haizatu, haizetara bota zenbait labore alea eta zikinak bereizteko. *Ho rrela erabili zu en Urritzolako B autista Et xarrenek: “... ta aizea balin bazabillen, aizetu ta garbittu”*. “Aventar ciertas labores”.

2. Airez puztu, gurpi l bat en neumatikoa esaterako. “Inflar”.
- Aizegorri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Haize hotza. (I, 508). (Izag. *Aizegorriya* “el viento que viene de Francia, el más frío”). (Ond. 4; ...”viento muy frío del NE”). “Viento muy frío”.
- Aize-txakur, -rre/-rra** (Sak) *iz.* Ehiza-txakurra. (VI, 511). *Guu etxien aize-txakurrek besteik ezizkobau!* (Gure etxean ehiza-txakurrak besterik ez zeukaguk!). “Perro de caza”.
- Aizeztul, -e** (Etx) *iz.* Eztul leu na, korronkarik gabekoa. *Haize-eztul* (I, 508; V-gip, ‘tos nerviosa’ A. ‘Catarro, tos sin flema. *Aise estula daukat*’). *Eztakik erabat pasatzen aizeztul xinplio!* (Ez zaik erabat pasatzen haizeztul simple hori!). “Tos suave”.
- Aizien ibilli** (Sak-erd) *ad.* Ehizan ib ili. *Negu guzien ibiltzen die aizien!* (Negu guztian ib iltzen d ira ehizan!). “Cazar”.
- Aizkan** (Urd, Alts) (ikus **arriken**)
- Aizkolai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Aizkolaria. “Persona que practica el deporte del hacha, cortador de troncos”.
- Aizkora** (orok) *iz.* Egurrak m ozteko tresna, aizkora. (I, 517). *Australietik ekar zitubiek aizkora berriyek!* (Australiatik ekarri d izkiate aizk ora berriak!). “Hacha”.
- Aizkorapustu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Aizkolapustua. “Apuesta de hachas”.
- Aizkorazo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Aizkorakada. *Lau aizkorazotan moztu dik kanerdikuo!* (Lau aizkorakadatan moztu dik kana erdi ko hori !). “Hachazo”.
- Aizpe/-a** (orok) *iz.* Ahizpa, gurasoki de emea neskarentzat. *Ahizpa* (I, 520). *Aizpen artien asarratu ttuk guaikuen!* (Ahizpen artean haserretu dituk oraingoan!). “Hermana de hermana”.
- Aizpore** (Lizgb) (ikus **ezpore**)
- Aiztai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Ehiztaria, ehiza atsegina duena. *Aiztari* (VI, 512; G-nav). (Izag. *aiztaiyak* “los cazadores”). Urdiainen *eiztai, -a*. *Gio ta aiztai gutxiyoo gelditzen die!* (Gero eta ehiztari gutxiago gel ditzen di ra!). “Cazador”.
- Aje, -ie/-ia** (orok) *iz.* Gehiegikeriak, normalean, eragindako ondorio txarra, mina edo ezi negona. Gorput zaren ondoeza, adinarekin lotua normalean. (I, 526; V-m -och-gip, G, AN-5vill, B). (Irib. *Ages Zaraitzu-Erronkari*). *Bein edadiates kios, aje besteik ez!* (Behin edade batez gero, ajea besterik ez!). “Dolencia, achaque”.
- Ajola** (Sak) *iz.* Ganora, axola. (III, 504; G, AN). *Ajola gutxi yaaku ye guai artio!* *Ajola zikiyok orri daallen arue!* (Axola gutxi erakus di ate orain artio! Axola zai ok horri dabi len aroa!). “Fundamento, interés, preocupación”.
- Ajolabaiko** (Bur) (ikus **ajolabeko**)
- Bala** (Sak-erd) *iz.* 1. Bospasei espalez osaturiko uzta-sorta lotua. Espala gari multzoa da, eta baletan eramaten zen eultzira gurdi berezietan, *gurdibal(a)etan.* (III, 775; V, G). *Zortzi gurdibala bete zitunau aurten soruontan!* (Zortzi gurdi bala bete dizkinagu aurt en soro honet an!) “Conjunto d e gavillas”. 2. Su-armetako jaurtikigai. (III, 775; V, G, S). “Bala”.
- Balanza** (orok) *iz.* Balantza. *Balantza* (III, 780). *Guaño eztikiyau ze aldetaa artuko deen balanza!* (Oraino ez zekiagu zer al detara hart uko duen balantza!). “Balanza”.
- Balanzakan** (Etx) *adond.* Balantzaka, mozkorturik. *Ttilinbulun* ere bai. (Irib. *bilinchi balancha* Zaraitzu). *Balanzakan allaatuek etxia bart!* (Balantzaka ailegatu duk etxera bart!). “Dando t umbos, t ambaleándose, borracho”.
- Baldar, -rra** 1. (orok) *izond.* Moldakaitz, itxurarik gabe ibiltzen dena. (III, 783; V, G). *Ze baldarra dan mutikuoï jazten!* (Zer bal darra den mutiko hori jazten!). “Torpe, desastrado”. 2. -**tu** (Lizgb) (ikus **baldarratu**).
- Baldarratu** (Sak) *ad.* 1. Desegin, txikitu, baldartu. *Aiziek txabola baldarratu zieguk* (Haizeak txabola baldartu ziguk). “Descom poner, dest artalar, lisiar”.
- BALDARRATU ARTIO:** *esam.* Baldartu arte. Asko, gehi egi. *Baldarratu artio jan yau!* (Baldartu arte jan di agu!). “M uchísimo, gran cantidad, hasta baldar(se)”.
2. Nekat. *Baldata* (III, 785; G, Sal, Sc ap. A). Lizarragabengoan *baldartu. Erabat baldarratuik eldu niok laneti!* (Erabat bal daturik hel du nauk lanetik!). “Cansar, baldar”.
- Baldaxka** 1. (Etx, Bur) *iz.* Zuhaitz zulatuen barru aldeko egur zat ia edo egurra, best erik gabe. B Sn horrel a jaso dut e: “B aldaska (Burunda) iz. Egur zat ia. B aldokan (Sakana erdialdean), enborrak lehertuz txikitu. ‘A gajos’ (J.L.Erdozi a, 2001, 375)”. “Leña, trozo de madera del interior de los árboles huecos”. 2. (Etx) *izond.* Baldar, itxura gabekoa. “Torpe, desastrado”.
- Baldimes** (Lizgb) (ikus **bal(d)inbes**)
- Bal(d)in** (orok) *part.* Bal din. (III, 787; AN-egüés-olza-ulz, L, BN, Sal, R-uzt, S). *Ematen baldin badubet zintaraan bat ...!* (Ematen bal din badi at zintadaren bat ...!). “Partícula condicional”.
- Bal(d)inbes (ee)** (Sak) *part.* Zerb ait gertatzea edo ez gertatzea nahi dugunean. (III, 790; AN-araq). Lizarragabengoan *baldimes. Ez al da eze gertatuko, baldinbes ee!* (Ez ahal da ezer gertatuko, baldinbes ere!). “Malo sea, esperemos que (si/no) ...”
- Baldo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Egurrari egokitua zatia edo atala. *Egur guzie trunkuten bierrien, baldotan ekar ziegubiek!* (Egur guzt ia enborret an beharrean, bal doetan ekarri zigutek!). “Trozo, gajo”.
- Baldoka(n)** (Sak-erd) *adond.* Enborrak lehertuz txikitzeari esaten zai. (III, 792; G). “Cortar troncos a gajos”.
- Baldragas, -a** (Sak) *izond.* Baldarra, itxura ez egoki a duen pert sonari esaten zai. (Irib. Iruñerria-Zangotza-

- Agoitz). *Baldragas parebekue ago i eiñik!* (Baldragas paregabekoa hago hi eginik!). “Persona de aspecto deja-do, desastrado”.
- Balenti, -ye/-ya** (orok) *iz.* Balentria. *Balentia* (S ap. Lrq; III, 796). “Valentía, fanfarronada”.
- Balete, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Balaz osaturiko pi loa, m eta. *Lenoo gariye ebai ta baletetan uzten yauben metatuik!* (Lehenago garia ebaki eta baletetan uzt en huen metaturik!). “Montón de haces de gavillas”.
- Baliyetu** (Sak-erd) *ad.* Baliatu . *Balietu* (III, 800). Horrel a dakar Gast esik (FLV 49, 62) jasori k: *balietuqueuion bere peticioa: ... Urdi ainen baliatu.* “Servirse, aprovechar”.
- Baliyo, -ue/-ua** (orok) *ad.* Balorea. *Balio* (gral; III, 805). *Baliyo gutxikuek ttuk!* (Balio gutxikoak dituk!). “Valor”.
- Baliyo (izen)** (orok) *ad.* Balio izan . Urdiainen *balio izan. Zenbat baliyuau etxiorrek?* (Zenbat bal io du et xe horrek?). “Valer”.
- Balkon, -a** (Naf) *iz.* Balkoi. *Balkon* (R ap. A; III, 813). Urdi ainen –a organikoduna dugu burut zapen hau: *balkona, -ia. Guu etxeko balkoneti primeran ikusten dek kioskue!* (Gure etxeko balkoitik primeran ikusten duk kioskoa!). “Balcón”.
- Balon, -a** (Naf) *iz.* Baloi. *Balona* (III, 813). *Guaiko aurrek, denak zikobiek balona!* (Oraingo hurrek, denek zeukatek baloia!). “Balón”.
- Baltietzeko, -ue** (Etx) *iz.* Balak tiratzekoa. *Luxintxa*-ren (intsusa) makilari muina kenduz lortutako hodi a, barruan *mullube* (ezpartua) presioan sartuz eta airea konpri mituz, jaurt ikitzeko. (Ond. 19; *ziziku*: tiratacos, taco, trabuco). “Tirabalas”.
- Balzerra** (Bak) *iz.* Gurdiaren al boetako estaka edo makil luzea. Arruntei *zerra* esaten zaie B akaikun et a *txarrantxa* Etxarrin. “Varas largas de sujeción de la hierba en los carros”.
- Bana** (orok) *izond. I.* Bat zenbatzailearen banatzailea. *Bana* (III, 820). “Distributivo del num eral uno”. **2.** Batera berdi ndu. *Etxarri ta Alsasu bana geldittu die.* “Empate a uno”.
- Banatu** (Urd, Lizgb) (ikus **partittu**)
- Bano, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond.* Ahul, beratz. *Bano* (L, BN, S; III, 845). *Banuek ttuk oso!* (Oso banoak dituk!). “Débil, indolente, flojo”.
- Bara** (Bur) (ikus **bare**)
- Barandoi** (Urd) (ikus **biro**)
- Barasare** (Urd) (ikus **basare**)
- Barau** (Urd) (ikus **baru**)
- Barbasku, -ue** (It) *iz.* Lihorearen hari a, kalitate ertainekoa. Ho nekin arro pa arrunta, maindireak, et a horrel akoak egiten ziren. (IHM 18, 30). “Hi lo de estopa de m ediana calidad, amarillento”.
- Barbero, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Bizargin. Bizarra kenfidu eta ilea m oztu egiten duen pertsona. Etxarri-Aranatzen etxe izenak daude i zen honeki n: *Bixentebarberuena* eta *Barbazonekue* (Barbero zaharrenekoa). “Barbero, peluquero”.
- Barbosta** (Lak) (ikus **borbosta**)
- Barbu, -be/-ba** (orok) *iz.* Barbo. *Barbu* (AN-olza-ilzarb-egüés, R ; IV, 27). *Barbubek besteik ez ttuzubie artu!* (Barboak besterik ez dituzue hartu!). “Barbo”.
- Bare, -ie/-ia** (orok) *iz. 1.* Bare, an imalia. *Bare* (V, G, B, L; IV, 28). (Izag., 55; *bara gutxi* ‘pocos l imacos’). “Limaco”. **2.** Gorputz organua. *Bare* (gral. (-rh- BN, S); IV, 28). (Ond. 6; *bara*). “Bazo”.
- Baretz** (Urd) (ikus **beyetz**)
- Barezko** (Urd) (ikus **beyesko**)
- Barga** (Sak) *iz.* Sakana osoan, gut xienez, hedatua dagoen t oponimoa. Urbasa eta Andi a m endien gai netik haranera bitartean dagoen basoari esaten zaio

- barga*, hots, Sakanaren hegoalde de guztiari. Arabako eki aldeko l autadan ere, Egi no eta Andoinen gutxienez, erabiltzen dute: *La Barga* (CT4, 163), *Bargaristo* (CT4, 165). Iruñaldean ere ezaguna da toponimian (NTM, 1992). *Barga* (IV, 32; G-nav). (Izag, 55; *barga gaiztu, gerba gaiztu, bargagainin* ‘en lo alto del derrumbadero?’). “Pendiente, derrumbadero”.
- Barkamen, -a** (orok) *iz.* Barkazioa. “Perdón”.
- Barkatu** (orok) *ad.* Barkatu. *Barkatu* (V-gip, G, AN; -kh- L, B N, S; IV, 41). “Perdonar”.
- Barkaziyo, -ue/-ua** (orok) *iz.* Barkamena. *Barkazio* (AN; IV, 44). *Eskatzen al dook barkaziye!* (Eskatzen ahal diok barkazioa!). “Perdón”.
- Barkillo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* 1. Zilarrezko ki kara. *Auzate*-etan ardoa edateko erabiltzen diren zidarrezko ontzi txikiak. *Barkillo* (IV, 46). Iribarrenek (1997) horrela jaso zuen: “En Arbizu dan este nombre a cada uno de los seis t azones de plata, del siglo XVIII, que posee el Ayuntamiento y que en las fiestas son utilizados por todos los vecinos para beber en ellos el vino que regal a el Municipio. Existe la creencia de que los recipientes de plata no transmiten enfermedades a los que beben en ellos”. “Tacitas de plata”. 2. Jateko gaileta modukoa, garai batean jaietan baino i kusten ez zena herrietan. *Barkillo* (V-gip; IV, 46). “Barquillo”.
- Barkin, -ñe** (Lak) *iz.* Arraopa eram ateko erabiltzen zen ‘zare’ edo saskia. “Cesto para llevar la colada”.
- Barko, -ue/-ua** (Sak-erd) Itsasontzia. *Barko* (V-gip; IV, 46). *Guaño enok sekule barkuen ibiltzen allaatu!* (Oraino ez nauk sekula barkoan ibiltzen ailegatu!). “Barco”.
- Barna, barne** (Sak-erd) 1. *iz.* Barrena, barru(ko). *Barna* (AN-ilzarb-olza-egüés; IV 48). *Barne* (G, AN, L, BN, R, S; IV 55). Olaztin eta Altsasun *barru* (Izag., 81; *Eta subandarrak bajukak zuluik barruan?*). *Barnen gelditu die!* (Barruan gelditu dira!). “Interior”. 2. *posp.* Zehar, aurreko hitza i nesiboan darama. *Mendiyeen barna ibildu gettuk egun guzien* (Mendian barrena ibili gaituk egun guztian). “Por, a través de”.
- Barnekalde, -ie/-ia** (Sak-erd) Barnealde. *Barnealde* (IV; 68). “Parte de dentro”.
- Barra-barra (ein) (yon)** (Sak-erd) 1. *ad.* Hautsi, txikitu. “Romper, destrozar”. 2. *ad.* Burutik jot a egon, erot u. *Mutilloi barra-barra einda zio aspaldi!* (Mutil hori barra-barra eginda zagok aspaldi!) “Est ar loco”. 3. *adond.* Asko, ugari. (BN-baig; IV, 71). *Auskias barra-barra eitten ye erriyortan!* (Euskaraz barra-barra egiten diate herri horretan!). “Mucho, abundante, a espuestas, a tope”. 4. *adond.* Nekatuta, neka-neka eginda. “Exhausto, muy cansado”. 5. (Lizgb) (ikus **borra-borra**).
- Barrabas, -a** (orok) Barrabas, bi hurri. *Barrabas* (IV, 72). *Ori mutikuen barrabasa dakazubien!* (Hori mutikoaren barrabasa daukazuen!). “Travieso”.
- Barrabaskei, -ye/-ya** (orok) Barrabaskeria, bi hurrikeria. *Barrabaskeria* (IV, 72). “Travesura”.
- Barrastadan** (Etx) *adond.* Bapatean, dena batean. *Gurdikadoi egurre barrastadan etor zikieguk geñaa!* (Gurdikada hori egurre barrastadan etorri zai guk gai nera!). “De golpe, todo a la vez”.
- Barrastako, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* 1. Erantzun bizi eta eraxtarrean emandakoa. Urdi ainen *parrastako, -ua*. “Respuesta acalorada y brusca”. 2. Bustialdia. (BB, 109). “Remojón”.

- Barratu** (Sak) *I. ad.* Barreiatu. *Barratu* (AN-ulz-egüés-5vill; IV, 76). *Alooya ongi sekatzeko obiaa bier bezela barratzia.* (Alubia ongi sekatzeko hobe da behar bezala barratzea). “Esparcir”.
- BARRATU ARTIO:** *adond.* Ugari, asko, barra-barra. *Auskias barratu artio aitzen dek Etxarrin!* (Euskaraz barratu arte adi tzen duk Etxarrin!). “Abundante, mucho”.
- 2. ad.* Desegin. **Barraiatu** (L ap. A; IV, 78). “Desahacer”.
- Barre** (Bur) (ikus **far**)
- Barreyetu** (Etx) Sakabanatu, zabaldu. *Barreyetuik ziook dauneko erri guzien!* (Barreiatuik zegok dagoeneko herri guztian!). “Esparcir”.
- Barrike/-a** (orok) B arrika, upel. *Barrika* (V-gip; IV, 97). “Barrica”.
- Barriyo, -ue/-ua** (orok) Barrio, auzo. *Barrio* (IV, 98). *Lenuo erriko barriyo bakiutek bee autzetxie zikoban!* (Lehenago herriko barrioko bakoitzak bere ahuntzetxea zeukaan!). “Barrio”.
- Barru** (Bur) (ikus **barne/a**)
- Barrunbe, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Gorputzaren barru aldea. *Sobree, barrunbie izurretuik zikobaan gizon gizajuarrek!* (Sobera ere, barrunbea izorraturik zeukaan gizon gi zarajo hark!). “El interior del cuerpo, entraña”.
- Bart** (orok) Pasa den gauean, bart. *Bart* (V, G, AN-gip, B; IV, 117). (Izag., 55; *bart gaubin* ‘en la noche pasada’). *Bart gaubien izenduek!* (Bart gauean izandu duk!). “Anoche, la pasada noche”.
- Bartan, -a** (Naf) Azpantar. *Bartan* (Gnav, AN-5vill, B; IV, 119). (Irib. Leitza-Mendialdea). *Zatak janzterakoan oinak estaltzeko oi hala edo artilezko gal tzerdim odukoa. Sorua zatabartaneki fan berdik!* (Sorora zatabartanekin joan behar dik!). “Polaina”.
- Bartotz** (Uh) (ikus **gurtzii**)
- Bartubela** (Sak-erd, Urritz) Uztarriko zatia, l arruzko sokaz egindakoa, bertan gurdiaren endaitza sartu eta lotzeko. Horrela jasodute Urritzo lan (EAEL II, 198): “... béien bartubeletik sartú, andaitz oi, ta geo, ...”. Irañetan *bartugela*. Urdiainen *gurtera*. (Izag. 66, *gurtera* ‘dos aros de cuero para meter el timón del carro’). *Bartubelai errepaaten ez badook, gurdiik pee gelditukueiz!* (Bartubelari erreparaten ez badiok, gurdirik gabe gel dituko haiz!). “Parte del yugo donde se ensarta el timón del carro”.
- Baru, -be/-ba** (Sak) Barau. *Baru* (V-gip, AN, B; IV, 15). (BB, 109). Urdiainen *barau*. *Guu txakurrek baruik ziiltziek aspaldiyontan!* (Gure txakurrak baraurik zebiltzak aspal di honetan!). “Ayuno”.
- BARUBE AUTSI:** baraua ek idin, moztu. “Desayunar, romper el ayuno”.
- Baruik** (Sak) *adond.* Baraurik. (BB, 109). *Guaño baruik niok!* (Oraino baraurik nagok!). “En ayunas”.
- Basa** *iz.* *1.* (orok) B asan. Konposaketan erabiltzen den hitza, hezigabea adierazten duen arik. (BB, 109). *Basakatu, basagizon, basurde, baserri, basuso, ...* “En com posición, silvestre, salvaje”. *2.* (Etx) Ibaiek gainez egiterakoan, soroetan edo bazterretan uzten dut en zaborrari (hosto, egur, lur, ...) esaten zaio. *Basa* (V-ple-m-gip, L-ain; IV, 121). “Lodo, barro, tierra de aluvión”.
- Basagizon, -a** (orok) B asoan ohi tu den gizona, hots, basoan lan egiten duena. *Basagizon* (G-goi-nav; IV, 125). “Persona que trabaja en el monte”.
- Basakatu, -be/-ba** (orok) *iz.* Basakatu. *Basakatu* (V, G, AN, Ae, Sal, R; IV, 127). (Izag., 55; *basokatuba*). “Gato montés”.

- Basalo, -ue/-ua** (Etx, Li zgb, Arb) 1. iz. Artoaz egindako ogia. *Basalo, basole* (G-nav, AN-araq; IV, 153). *Ez tet sekule basaloik jan!* (Ez dut sekul a basalorik jan!). “Pan de maiz”. 2. izond. Inozo, tentel. *Ez ayela basalue izen!* (Ez hadi basalooa izan!). Palatalizaturik ere erabiltzen da, *baxalo*. Et xarrin horrel ako esaera erabiltzen zen m utikoei ilea m otz-motza uzt erakoan esat eko: *Kaxkalo buxkalo, ogeitaat baxalo!* “Tonto, estúpido”.
- Basare, -ie/-ia** (Sak) iz. Txerria hil eta senide edo l agunei t xerrikiren bat (gibela, solomoa, odolkia, ...) ematen zitzaien, *basare*-an bi lduta. Gutxienez, tx erriaren tripako sarea izango genuke. Urdi ainen *basasare*. (Ond. 6; *ba(ra)sare*). “Red mantecosa del cerdo, peritoneo?”.
- Basauntz, -e/-a** (orok) iz. Basahuntz, orein. *Basahuntz* (V-gip, G, L-ain, AN; IV, 137). “Cabra montés, ciervo”.
- Baseper, -rra** (Sak-erd) iz. Eperra. *Baseper* (AN-araq-ulz; IV, 140). “Perdiz”.
- Baserri, -ye/-ya** (orok) iz. Baserri. *Baserri* (V, G, AN; IV, 140). “Caserío”.
- Basetxe, -ie** (Etx) iz. Baserri. *Basetxe* (V, G-to; IV, 144). *Artxuloko basetxie*. “Caserío”.
- Basigurei, -ye/-ya** (Sak) iz. Basozaina, ‘*baso + inguru + zain*’ izan daitezke bere osagaiak. (BB, 110; *basigurayes*, “merienda a l os basi gurayes”, 1878 cuentas de Si món Goñi). “Guarda de monte, monteró”.
- 1.Baso, -ue/-ua** (orok) iz. Oi han. *Baso* (V, G, AN; IV, 148). *Beko basuen ontto asko atia die!* (Beheko basoan onto asko atera dira!) “Monte”.
-*BASUE ATIA*: (Etx) *ad.per.* Basoa atera, egurra basotik atera udalak salduta. “Sacar a la venta árboles del monte”.
- 2.Baso, -ue/-ua** (orok) iz. Edalontzia. *Baso* (gral; IV, 151). *Eman nazan basuat uts!* (Em an nazan baso bat url!). “Vaso”.
- Basurda** (Bur) (ikus *basurde*)
- Basurde, -ie/-ia** (orok) iz. Basurde. (IV, 157; gral). Urdi ainen *basurda*. (Izag. 55; *basurda*). “Jabalí”.
- Basuso, -ue/-ua** (orok) iz. Basuso, basoko usoa. *Basuso* (V, G, B, AN-m er; IV, 159). *Oik basusuek ttuk!* (Horiek basusoak dituk!). “Paloma torcaz”.
- Bat** (orok) *zenb.* Bat. /a/, /e/ eta /o / bokalez amaituriko hitzekin sortutako sandhietan ezpai netako heskari ahostunaren galera jasaten du, izenari eransten zaiolarik: *amaat* (am a bat), *umiat* (ume bat), *bestiat* (beste b at), *astuat* (asto bat). “Un, -o, -a”
-*BATE(R)E(Z)*: batere (ez). Burutzapen dardarkari duna, bai ezko zenbai t esalditan ent zun dai teke. *Batere* (G, AN, L, BN, S; IV, 201). *Eztakat batee gogoik! Txertuboi eztek batere ona!* (Ez daukat bat ere gogori k! Txert u hori ez duk batere ona!). “Algun, -a, -o (nada)”.
-*BATETEKI!*: (Lak) *esam.* Batek daki! “¡Vét e a saber!, ¿Qui én lo sabe?”.
- Batayetu** (orok) *ad.* Bataiatu. *Bataiatu* (G, L, B; IV, 191). Urdi ainen bokal asimilaziorik gabe. “Bautizar”.
- Batayu, -be/-ba** (Sak-erd) iz. Bataio. *Bataio* (G, L, AN, B N; IV, 194). Urdiainen *bataio*. “Bautizo”.
- Batia** (Sak-erd) *adond.* Batera, elkarrekin. *Aspaldi ibiltzen ttuk batia!* (Aspaldi ibiltzen di tuk bat era!). “Junt os, a la vez, al mismo tiempo”.
-*BAT-BATIA*: hal ako bat ean, bat-batean. (BB, 110). “De pronto”.
- Batiatu** (Sak-erd) *ad.* 1. Bateratu. *Bateratu* (IV, 200). “Junt ar”. 2. Adiskidetu. *Batiatu ttun azkenien!* (Bateratu ditun azkenean!). “Reconciliarse”.

- Bationbat** (Sak) *izord.* Norbait, baten bat, bat edo bat. (IV, 181; A, Elexp *Berg*). (Izag. 55; *bateonbatek baso bat ardo eman, ...*). *Yon zettezie lasei, agertukua eta bationbat!* (Egon zaitezte lasai, agertuko da et a bat en bat!). “Alguno, alguien”.
- Batta** (Sak-erd) *iz.* Batekoa, kart etako jokoan. *Zenbat batta dazkazu?* (Zenbat bateko dauzkazu?). “As”.
- Battakurre, -ie** (Etx) *iz.* Biren art eko lehian, hi rugarren bat ek ateratzen duenean et ekina, honi esaten zaio. Normalean ‘gertatu’ edo ‘atera’ aditzekin perifrasi burutzen du. “Cuando sale beneficiado un tercero”.
- Batteko, -ue/-ua** (orok) *iz.* Batekoa, kartetako jokoan. *Batteko* (gral; IV, 199). Urdi ainen *battiko*. *Batteko urrie, batteko beltza, batteko kopa, batteko ezpata*. “As de ...”
- Batza** (Bur) (ikus **baatze**)
- Batzarre, -ie/-ia** (orok) *iz.* Batzar. *Batzarre* (G, AN-ulz; IV, 216). “Asamblea de vecinos”.
- Batzuk** (orok) *zenb.* Batzuk. /a/, /e/ eta /o/ bokalez amaituriko hitzekin sortutako sandhi-etan ezpai netako herskari ahostunaren galera jasaten du, izenari eransten zaiolarik: *amaatzuk* (ama batzuk), *umiatzuk* (um e batzuk), *bestiatzuk* (beste bat zuk), *astuatzuk* (asto bat zuk). *Batzuk* (V, AN-gi p, B, R; IV, 222). “Algunos, -as”.
- BATZUTEN:* *adond.* Batzuetan, noizbehinka. (B B, 112). Urdi ainen *batzutan*. “Algunas veces, a veces”.
- Baunbako, -ue** (Etx) *iz.* Danbatakoa, atek ematen duten kolpea, hitz onomatopeikoa. “Golpe (de l as puertas, por ejemplo), onomatopeya”.
- Baxaka** (Sak-erd) *iz.* Basurdekume. Jendeari ere egokitzen zaio. *Basurdie zazpi baxakakin ikus yau!* Basurdea zazpi baxakarekin ikus diagu!). “Jabato”.
- Baya** (Bur) (ikus **beye**)
- Baye/a** (Sak-erd) *1. iz.* Bahea. Lekari, labore, zein hondarra berei zteko erabiltzen den tresna, hondo sareduna eta zuezko uztaia duena. *Bai* (III, 666; V, G, AN-ulz) (Izag. 55). (Irib. Otsagabia). *Bei* erabiltzen da Arbizun. Arruazun, Irañeta n et a Hi riberrin *beye/a* osagaitzat harturik: *agozbeye/a* (bahe handia) eta *larrubeye/a* (bahe txikia). *Aize pixkaat bier din alubiyek bayen pasatzeko!* (Haize pixka bat behar din alubiak bahean pasatzeko!). “Cedazo, tam iz”. *2. -tu ad.* Zerbait bahean pasatu. Li zarragabengoan *eaalgi*. *Alubiyek ezpattun aungi bayetzen, iye gio nola sartu ber tunen eltzien!* (Alubiak ez badi tun ongi bahetzen, ea gero nola sartu behar ditunan eltzean!). “C ribar, pasar por el cedazo”.
- Bazkai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Bazkari. “Comida, almuerzo”.
- Bazkaldu** (orok) *ad.* Bazkaldu. *Bazkaldu* (orok; IV, 232). “Comer, almorzar”.
- Baztanga** (Lak) (ikus **naparrei**)
- Baztar, -rra** (Sak-erd) *iz.* Bazter, txoko. *Baztar* (V, G, AN, L-ai n; IV, 246). *An ibilli giñubaab Japonn baztarrak ikusten.* (Han ibili genian Japonen baztarrak ikusten). “Orilla, rincón”.
- BAZTARRAK NASTU:* *ad.per.* Istilua sortu, jendea aztoratu. *Oriek, ori, baztarrak nastu ta gio iyessi!* (Hori duk, hori, bazterrak nahastu eta gero ihesi!). “Crear m al ambiente, revolver”.
- Baztarreko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Beheko suan, aldeetan, jartzen den enbor handia. *Baztarreko* (G-nav, AN-ulz; IV, 256). Bakaikun eta Urdiainen *supila*. (Irib. Erroibar). “Tronco para el fuego bajo, que se coloca en el lateral”.
- Baztarriatu** (Sak-erd) *ad.* Bazterreratu, bai norbait, nola zerbait, zein helburu bat alde batera utzi. *Bazterreratu* (IV, 256). *Baztarriazak autuoi, bidie ixten*

ai yeiz ta! (Bazterrera ezak auto hori, bidea ixten ari haiz eta!). “Arrinonar, apartar, marginar”.

Bazartu (Sak) *ad.* 1. Baztertu. *Bazartu* (V-gip; IV, 257). *Pillota primeran bazartzen dik Lasak.* (Pilota primeran baztertzen dik Lasak). “Arrinonar”. 2. Alde bat era utzi, burutik kendu. *Asierako asmo guziarik bazartu zittunet!* Hasierako asm o haiek guztiak b aztartu d itinat!). “Desistir”.

Bea (Urd) (ikus **beye**)

Beade (Arr) (ikus **biare**)

1.Bear (Alts) (ikus **belar**)

2.Bear (Urd) (ikus **bier**)

Bearreztana (Urd) (ikus **bierreztankei**)

Bearrien (Urd) (ikus **bierrien**)

Beatu (Bur) (ikus **bia(z)tu**)

Beazun (Bur) (ikus **biezein**)

1.Be(e) (Sak) *iz.* **-ie** Behe. *Ondatuik zio k erabat bie!* (Hondaturik zagok erabat behea!). “Bajo”.

2.Be(e) (Etx) *part.* Bage. *Bage* (VIII, 86; V, G, AN-i lzarb, R-uzt-vid). Ondorengoa da bere bilakabidea: *bage* > *bae* (bokal art eko herskari belare ahost unaren galera) > *bee* ($V_1V_2 > V_2V_2$). Lakunt zan *bae* eta *bai*. Ergoienan *bai*, hurrengoa delarik bere bi lakabidea: *bage* > *bae* > *bai* (disimilazioa). *Ez asi eitten esan be!* (Ez hasi egiten esan bage!). “Sin”.

3.Be(e) (Sak-erd) *izord.* Bere. Baina *berie*, mugatzen dugunean. *Au ez da be etxie! Ori da berie!* (Hau ez da bere etxea! Hori da berea!). *Beekaus eroi zan!* (Bere kabuz erori zen!). “Su”.

-BERETAN: adond. Bere erara, aldatu gabe. *Ori beretan zioban da beretan segitzen dik!* (Hori beretan zegoan eta beretan segitzen dik!). “En l o suy o, centrado”.

-BEE KAUS: (ikus **kaus**)

-BEE KIXES: (Lizgb) (ikus **kise**)

-BEE ALDIKO, -UA: (Lizgb) *izlg.* Sekulako, i karagarritzko, i zugarrizko.

Bee aldiko inundaziyuek izendu min ttuk España aldien! (Bere aldiko inundazioak izan omen dituk Espainia aldean!). “Terrible, gran”.

Bedeinkatu (ikus *beriket*)

Bedratzi (Naf) *zenb.* Bederatzi zenbaki a. *Bedratzi* (V-arr-arrig-ger-oro-z-gip, G-azp-nav, AN-egüés-erro-ilzarb-larr-olza-ulz, B, Ae, Sal ; IV, 360). (Izag. 85; *bederátzi*). *Goizeko bedratziten atiako gettuk.* (Goi zeko bederatzietan aterako gaituk). “Nueve”.

Bedratzienaun (Sak-erd) *zenb.* Bederatzirehun zenbaki a. “Novecientos”.

Bedratziurren, -a (Sak-erd) *iz.* Bederatziiurren. *Bedratziur-reen* (V-gip; IV, 366). “Novenario”.

Beeka (Sak-erd) *adond.* ‘Bee’ eginez, ardiak m arruma eginez. (Izag. 70; *jamaz doo ardiya* ‘está bal ando l a oveja’). “Baland”.

Begein, -ñe (Etx) 1. *iz.* Hautaketa, alerik hoberenen sai lkapena et a haut aketa. “Selección”. 2. **-(d)du** (Etx) *ad.* Uztaren alerik hoberenak banat u, hautatu, sai lkatu. Senar-emazteen banaketari egokiturik ere erabiltzen da. Li zarragabengoan *beraaindu.* *Ar zazkin alubiyok eta begeindu!* (Har itzan al ubi hori ek et a begeindu!). “Seleccionar, separar”.

Begi, -ye/-ya (orok) *iz.* 1. Begi. “Ojo”.

-BEGITEN ARTU: ad.per. Begitan hartu, norbai t gogoko ez izan, gorrotatu. *Asi daneti enkargatu fabriken, makiñaatek artu dik begiten dauneko!* (Hasi denet ik enkargat u fabrikan, makina bat ek hart u di k begitan dagoeneko!). “C aer m al, odiar”.

-(NORBEITT)EN BEGITETI IKUSI: esam. (Norbait)en begi etatik i kusi, beste bat ek esat en duena egin, harengan konfi dantza osoa duelako. *Amak guu arrebaan begiteti ikusten dik!* (Amak gure arrebaen begi etatik

- ikusten di kl). “Est ar supedi tado a otro, hacer lo que dice otro”.
2. Zenbait nekazal tresnaren zuloa girtena jartzeko eta baita zubien zuloak ere. **Begi** (IV, 417; V, G, B, L, Sal, R). *Exarriko ibeiko zuuyek iru begi zizkok!* (Exarriko i baiko zubi ak hiru begi zeuzkak!). “Agujero para enmangar, ojo de la aguja”.
- Begibakar, -rra** (orok) *izond.* Begi bakarra duena. *Begi-bakar* (IV, 426; V, G, AN). (B B, 113; *begiokerra*). Irañetan et a Urdi ainen *oker*. (XIII, 198; G-nav, AN-ulz-egüés-ilzarbolza, L, B, BN, R). “Tuerto”.
- Begibisten yon** (Lizgb) (ikus **biste/a**)
- Begiezkel, -a** (Etx) *izond.* Ezkel, betoker. (Ikus *ezkel*). “Bizco”.
- Begigorri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Izaera gaiztoko pertsonari esaten zaio, jeno biziarekin begi ak gorrituko balitzaizkio bezala. *Begigorri* (IV, 435; AN, L, Sal, S, R). *Beti berdin zaillek, begigorriyoi!* (Beti b erdin zabilek, begi gorri hori!). “Cascarrabias”.
- Begiluze, -ie/-ia** (orok) *izond.* Begiluze, ahal baino gehi ago hart zen duena. *Begiluze* (V-gip; IV, 449). *Ez ayela izen begiluzie!* (Ez hadi izan begiluzea!). “Avaricioso”.
- Begimakur, -rre/-rra** (Sak) *izond.* Ezkel, begi-ezkel. *Begi-makur* (G-nav, Sal, R; IV, 439). (Izag. 55; *begimakurra* ‘el bizco’). “Bizco”.
- Beginabar, -rra** (Etx) *izond.* Begiak kolore urdi n edo gris antzekoak dituenari esaten zaio. “Dicese al que tiene los ojos de color azul o grisáceo”.
- Beginini, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Betseina, begininia. (Izag. 55; *begininiya*). *Aundituik dakazu begininiye!* (Handiturik daukazu begi ninia!). “Pupila”.
- Begitako ñarra** (Urd) (ikus **negartinte**)
- Begitil** (Alts) (ikus **betil**)
- Begizui, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Konfidantza gut xiko pert sona, lanari atzekitzen ez zai ona. (B B, 113; *begizuri*). “Persona de poca confianza, ‘maltrabaja’”.
1. **Bei** (Sak-erd) *adond.* Bai. “Sí, adverbio de afirmación”.
- BEI BA!*: *esam.* Bai, bada! Jaki na baietz! “Expresión de afirmación o confirmación”.
- BEI ZIA!*: *esam.* Bai zera! “Expresión de desacuerdo”.
2. **Bei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Behia. Burundan *bai* (Izag., 55; *bi bai*). *Morike zizkiyok guu bei obenai!* (‘Morika’ zai zkiok gure behi hoberenari!). “Vaca”.
- Beidetu** (Lak) (ikus **beiretu**)
- Beiki, -ye/-ya** (orok) *iz.* Behikia, behiaren haragia. *Axurkiye beño, neyoo yet beikiye!* (Axurikia baino, nahiago diat behikia!). “Carne de vaca”.
- Beiko** (Ir, Un, Do) (ikus **bigentxa**)
- Beimena** (orok) *iz.* Baimena, eskatu beharrekoa, ezen em aten dena ‘*beyeskue*’ baita. (BB, 106; *baimena*). Burundan et a Li zarragabengoan diptongoaren i txierarik gabe: *baimena*. *Ezin yeiz sartu oin larrien beimenipee!* (Ezin haiz sart u hori en larrean baimenik gabe!). “Permiso”.
- Bein** (orok) *adond.* Behin. *Behin* (gral; IV, 496). *Bein bakarrik esanko dubet!* (Behin bakarrik esango di al!). “Una vez”.
- BEINGOS*: behi ngoz. Urdiainen *beingoz*. “Por una vez”.
- BEINGUEN*: behingoan. “De una vez, ya”.
- BEIN BEÑO GEYOTAN*: behin baino gehiagotan. Urdi ainen *bein baindo geiotan*. “Más de una vez”.
- BEIN BETES*: behin batez. “Una vez, en cierta ocasión”.
- BEIN BETIEN*: behin bat ean. Urdiainen *bein batien*. “Una vez”.

- BEIN BIARE:** behin berare. “Al menos una vez”.
- BEIN DA BEIX:** behin et a berri z. Urdiainen *bein da berriz*. “Una y otra vez”.
- BEIÑEE:** *adond*. Behin ere, sekul a, inoiz. *Enon an yondu beiñee!* (Ez naun han egon behi n ere!). “Al guna vez. Normalmente en oración negativa o i nterrogativa con el significado de ‘jamás’, ‘nunca’”.
- Beinke** (Urd) (ikus **bienke**)
- Beiretu** (Sak-erd) *ad*. Begiratu, zai ndu. *Beiretu* (AN-ulz; IV, 464). Lizarragabengoan eta Arbi zun *beittu*. Lakuntzan *beidetu*. Olaztin *bairatu*. Urdiainen *beiratu*. *Beire yok kazulai dendaa faten neizen biyertien!* (Begiraiok kazolari dendara joaten naizen bitartean!). “Mirar, cuidar”.
- BEIRE:** *adond*. Begira. *Leyoti beire yondu zarie*. (Leihotik begi ra egon zarete). “Mirando, escudriñando”.
- Beiretze, -ie/-ia** (Sak) *iz*. Begiratze, begirada. Li zarragabengoan *beitzera*. Urdiainen *beiratze*. *A, ze beiretzie bota zioan!* (A, zer begiratzea bota zioan!). “Mirada”.
- Beita** (Sak-erd) *junt*. Baita. Gehienetan ‘ere’ hitza eskat zen du. B urundan *baita*. “También”.
- BEITADEE:** bai ta ere. Urdiainen *baitare*. “También”.
- Beitiko** (Lak) (ikus **kakei**)
- Beittiko leño** (Uh) (ikus **erleño**)
- Beitte** (Sak-erd) *iz*. –gan kasu morfemaren ordainean erabiltzen da eta determinatzen duen hi tzak edute genitiboaren kasu-marka darama. *Ori denon beitten zioak bier bezela eittie!* (Hori denon bai tan zegok behar bezala eg itea!). “Se u tiliza en caso inesibo, referi do a personas, en (quien), para (quien)”.
- Beittu 1.** (Etx) *ad*. Isuna jarri, denuntziatu. “Poner denunci a”. 2. (Lizgb, Arb) (ikus **beiretu**)
- Beitzera** (Lizgb) (ikus **beiretze**)
- Beix(e)** (Sak-erd) *adond*. 1. Berriz (ere). *Bees* (V, 29; AN-larr). *Atzia beix!* (Atzera berriz!), Arruazun ordena aldatzen dute: *Beix atzia!* Irañetan eta Burundan *berriz*. “De nuevo, ot ra vez”. 2. Ostera, ordea. *Berris* (V, 31; AN-mer). *Nai, beix, eztakit olakoik sekule gertatu!* (Niri, ordea, ez zait sekula horrelakorik gert atu!). “Si n embargo, en cambio”.
- Beixi** (Lizgb) *ad*. Bereizi, m ultzo b atetik atera. *Egur bustiya beix tak eta barratuik uz tak ongi sekatzeko*. (Egur bustia bereiz ezak eta barraturik utz ezak ongi sekatzeko). “Separar”.
- Beizei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz*. Behizain, unai. *Behizein* (BN-arb; IV, 524). *Ameiketaa fan zien euskaldun asko ta asko artzei ta beizei ibil zien!* (Ameriketara joan zi ren euskal dun asko eta asko artzain eta behizain ibili ziren!). “Vaquero”.
- Bekain** (Alts) (ikus **bekein**)
- Bekatu, -be/-b(u)a** (orok) *iz*. Bekatu. *Bekatu* (V-gip, G, AN-egüés-ilzarb-olza-ulz, Sal, R, L, B N, S; IV, 537). Lizarragabengoan *pekatu*. “Pecado”.
- Be(e)kaus** (Etx, Lizgb, Arb) *adond*. Bere kabuz. ‘Kabuz’ posposi zioa da berez, baina dagoeneko l exikalizatua dugu aditzondo moduan Etxarriko hizkeran. *Be(e)kaus atia zikiyok odola!* (Bere kabuz atera zaio odola!). Urdiainen *be kabuz*. “Por su cuenta, por sí mismo”.
- Bekein, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz*. Bekain. *Bekain* (V-gip, G, AN-araq-egüés-ulz-gip, L, B, B N-lab-baig, Ae; IV, 525). (Izag. 55; *bekaina* ‘la frente’). Begi gaineko ertz iletsu a. *Bekeñek bat eiñik zizkok Joxek!* (Bekainak bat eginik zeuzkak Joxek!). “Ceja”.
- Bekeinbeltz, -a** (Etx) *izond*. B etondoa zimurtua duen pert sona. Pertsona serioa, irribarrerik ia egiten ez duena. “Persona seria, con el ceño fruncido”.
- Bekela** (Liz, Alts, Ol, Urd) (ikus **bezela**)

- Bekobaso, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Beheko basoa, Aralar eta Gipuzku aldera, iparraldean, dagoen basoa. Hegoaldeko-ari *Barga* esaten zaio. (BB, 113; *bekobasoa*). Urdi ainen *gainbekobaso*. “Monte de abajo, el que está al norte”.
- 1.Bela** (Sak-erd) *adond.* Berehala. *Bela* (V, G, AN-m er, B ; IV, 747). Urdiainen *bereala*. *Bela etorko die!* (Berehala etorriko dira!). “En seguida”.
- BELA-BELAKUEN*: berehal a- berehalakoan. *Eztau bela-belakuen yosi!* (Ez du berehala-berehalakoan erosi!). “Inmediatamente”.
- 2.Bela** (Bur) (ikus *bele*)
- Belabe, -ie** (Etx) *izond.* Aldakor, erraz aldatzen dena. “Vol uble, vari able, veleta”.
- Belar, -rra** (orok) *iz.* Belar. (IV, 562; V-gip, G, AN, L, Ae, Sal, R). (Izag. 55; *bearra*). *Belarra besteik ezikonau aurten!* (Belarra besterik ez zeukanagu aurten!). “Hierba”.
- BELARBELTZ*: b elar m ota. (BB, 113; *escrofularia nudosa*). “Ti po de hierba, morela negra”.
- BELARTXURI*: b elar m ota, esneduna. *Ekartzen yet besapien belartxuri moltsuat txerriyaandako!* (Ekartzen di at besapean belartxuri multzo bat txerriarentzat!). “Tipo de hierba, de leche”.
- BELARMIN*: b elar m ota, *mingorratxa*-ren modukoa. (BB, 113; *belarmiña*). “Tipo de hierba, parecida a la ‘acedera””.
- Belarri, -ye/-ya** (orok) *iz.* Belarri. (IV, 575; V, G, AN-larr-5vill-araq-ulz). *Belarriyen koxkaat ein ber zikiyok txerriyai!* (Belarrian koska bat egi n behar zaiok txerriari!). “Oreja”.
- Belarriaundi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Belarrihandia. *Auskaldunek belarriaundiye gettuk!* (Euskaldunak belarrihandiak gaituk!). “Orejudo, de orejas grandes”.
- Belarrimotx, -a** (orok) *izond.* Erdaldun. Beti erdaraz hitz egiteko joera duenari esaten zai o. Karl istadetan halako estribiloa kantatzen zen: *Eta tiro, eta tiro, eta tiro beltzari, eta tiro, eta tiro, belarrimotxari*. Fermín Gabi rondo iturmendiarrak ondo adi erazten du bere esanahia (SAT, 72): “... aik zian belarri-motxak, eta aien familiak beti erderaz”. (IV, 583); “Castellanoparlante”.
- Belarriondo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Belarri atzekaldea. (IV, 585; V, G, AN ap. A). *Kriston golpie artu yet belarrionduen!* (Kristoren kol pea hartu diat bel arriondoa!). “Part e trasera de la oreja”.
- Belarritxabal, -a** (Sak) *izond.* Belarritzabala. Belarriak, handiak izan gabe ere, burut ik al dentzen di renak. *Ze belarritxabala dan zuen neskato gaztie, belarriyek beño eguek dazkala ematen din!* (Zer belarritzabala den zuen neskato gaztea, belarriak baino hegoak dauzkal a em aten di n!). “De orejas desplegadas”.
- Belarrondoko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Belarria eta atzekaldean em andako kolpea. (IV, 585; V, G, AN). *Aittek , belarrondokoon bat o beste aparte, ez ziek sekule jo!* (Aitak, belarrondokoren bat edo beste aparte, ez zi dak sekul a jo!). “Golpe tras la oreja”.
- Belartako, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Belarritako. Urdi ainen *zinzirrin*. (Izag., 55; *belarritakuk*). *Gaurko egunien neskaturek aña jartzen ye belartakue mutikuek!* (Gaurko egunean neskatoek adina jartzen diate belarritakoa mutikoe!). “Pendiente”.
- Belaun, -e/-a** (orok) *iz.* Belaun. (IV, 590; V, G, AN, Ae, Sal). *Eztizkonet belaunek bier bezela!* (Ez zeuzkanat belaunak behar bezala!). “Rodilla”.

- Belauniketu** (orok) *ad.* Belaunikatu. (IV, 596; V, G, AN, L). *Elizen sartu bezin laxter belauniketzen dek jendie!* (Elizan sartu bezain laster belaunikatzen duk jendea!). “Arrodi -llarse”.
- Belauniko** (orok) *adond.* Belauniko. (IV, 599; V, G, AN, L). *Mextrubek bi ordu belauniko uzten zubaan iguel!* (Maisuak bi ordu belaunikaturik uzten zian igual!). “De rodillas”.
- Belaunkozkor, -rra** (Sak-erd) *iz.* Belaunaren m uturra. *Belaun-kozko* (IV, 594). *Bizikeletati bota ta belaunkozkorra autsi ñet!* (Bizikletatik bota eta bel aukozkorra haut si di nat!). “Rótula”.
- Belaxe** (Urd) (ikus **bele(i)xe(ko)**)
- Bele, -ie/-ia** (orok) *iz.* Bele. (IV, 626; G, AN, BN, S). B urundan *bela.* (Izag. 56; *bi bela*). *Zozuek beliei ipurbeltz!* (Zozoak bel eari ipurbeltz!). “Cuervo”.
- Bele(i)xe(ko)** (Sak-erd) *adond.* Berehalaxe. *Belaxe* (IV, 751; V-gip). Urdiainen *belaxe.* *Ez apuretu, emen gaude belexeko ta! Egoaizie asi beño len, beleixeko quartzen giñen!* (Ez apuratu, hem en gaude berehalaxeko eta! Hego-haizea hasi baino lehen, berehalaxeko ohartzen gi nen!). “En seguida, al instante”.
- Belorri, -ya** (Do) *iz.* Moko gorri a et a motza duen txori m ota. Belea eta “txoa”ren art ekoa. Harrapari a da eta lehenik begiak jatera jotzen omen du. “Pájaro de pico rojo y corto, parecido al cuervo”.
- Beltz, -a** (orok) *izond.* 1. Beltz. *Azkenontan dena beltza ikusten dezubie!* (Azken honetan dena beltza ikusten duzue!). “Negro”. 2. Ardo beltza. “Vino tinto”.
- Belzkarro, -ue** (Etx) *izond.* Beltz antzekoa, bel tzkera. *Txakur belzkarruat sortu debie goiko baserrikuek!* (Txakur beltzkera bat sortu dut e goi ko baserrikoak!). “Negruzco”.
- Be(e)ndatu** (Naf) *ad.* Askaria egin. Irañetan *merendatu.* *Aspaldiko partes iruitzen baatik bendatu einko yau!* (Aspaldiko partez iruditzen bazaik merendatu egi ngo diagu!). “Merendar”.
- Be(e)ndu, -be/-b(u)a** (Naf) *iz.* Askari. *Bendu* (XII, 270; G-nav). (Ond. 6; *bendu*: ... la -e- debe de ser larga). (Izag. 56; *benduba*). “Merienda”.
- Be(e)nduafai, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Afari-merienda. “Merien-dacena”.
- Benetan** (orok) *adond.* Benetan. (IV, 660; V, G). “De verdad, en serio”.
- Bentzai, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Orantza, legamia. *Bentzagi* (IV, 694; G-nav). Irañetan *lantza.* Lizarragabengoan eta Urdiainen *mentzai.* (Izag., 74; *mentzai*). (Ond. 14; *mentzagi*). “Levadura”.
- Beño** (Sak-erd) *part.* Baino, part ikula konparatzilea. B urundan *baindo.* *Yoziñek zikik aik beño geyoo!* (Edozeinek zekik hai ek bai no gehiago!). “Que (comparativo)”.
- Beoki** (Urd) (ikus **bioki**)
- 1.Bera, bia** (Sak-erd) *adlg.* Behera. (IV, 390). (Ond. 6; *berantz*: bajada, cuesta abajo). Bi m odutan ent zun dai teke Etxarri-Aranatzen: I ehena adl atiboan, eta bigarrena posposizio moduan. *Fan ari bera! Goitti bia abiyetu ttuk!* (Joan hadi b ehera! Go itik b ehera ab iatu dituk!). Urdi ainen *gainbia.* “(Hacia) abajo”.
- 2.Bera, bia** (Sak-erd) *izord.* Bera, izenordain i ntentsiboa. B i m odutan entzun daiteke. “El (mismo)”.
- Beraaindu** (Lizgb) *ad.* Bereizi. Etxarrin *begeind(d)u.* *Ez ayela beraaintzen ibilli kazulortan, artu urren-urren aragiya!* (Ez h adila b eraintzen ibili kazula horret an, hart u hurren-hurren haragia!). “Seleccionar, separar”.
- Berantetsi** (Lak) (ikus **luziitzi**)

- Berayes** (Etx, Li zgb) *adond.* Nahita, apropos, berari az. *Berariez* (IV, 694; B ap. A). *Gauzoik ez ttuk nei bee atiatzen, berayes eitten zittuk!* (Gauza horiek ez di tuk nahi gabe ateratzen, berari az egiten dizkik!). “A propósito, expresamente, adrede”.
- Berbera** (orok) *izord.* Berbera, hura bera. “El mismo, intensivo”.
- Berde, -ie/-ia** (Sak-erd) *izond.* Berdea, orlegia. (BB, 119). “Color verde”.
-BERDEKERA: berde antzekoa, berdexka. “Verdoso”.
- Berdegune, -ie** (Etx) *iz.* Berdegune. Belar tokiari esat en zai o horrela, edonon dagoela ere, basoan edo m endian esateraka. *Mendiya fagadei beteko berdeguniati en ikus zittubet zuen ardiyek.* (Mendian fagadegi bat eko berdegune bat ean i kusi dizkiat zuen ardiak). “Lugar verde”.
- Berdin, -ñe/-ña** (orok) *adond.* Berdin. (IV, 726; G, L, AN, B N, R). B ere indargarria absolutiboan erabiltzen da, errepikaturik: *berdin-berdiñe.* Burundan palatalizatu gabe. “Igual”.
- Berdin(d)du** (Sak) *ad. 1.* Berdindu. Burundan pal atalizatu gabe. *Jose santube, zaindari aundiye, berdintzen ttu gaube ta egune!* (Jose sant ua, zaindari handi a, berdi ntzen di tu gaua eta eguna!) (Jose Mari Razkin zenari Eusebio bere semeak hartua Etxarrin, martxoko egun horret ako gaua et a egunaren i raupen berdina adierazteko). (IV, 732; G, L, BN). “Igualar, em patar”. 2. Lautu. *Berdindu zazkizubie lur montonok!* (Berdin ezazkizue lur m ontoi horiek!) “Alisar”.
- Berdingarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Berdindu egiten duena. (IV, 736). *Kafie, bazkai onaan dijigarri, eta bazkai txarraan berdingarri!* (Kafea, bazkari onaren dijigarri eta bazkari txarraren berdi ngarri!, Periko Lizarraga l izarragabengoa-rrari hartua). “Igualador, reparador”.
- Berdinge** (Etx) *iz.* Egur zati lehertu gabea, makil m ehea bai no zerbai t lodiagoa, txondorra egiteko erabiltzen dena. Egur zatiak pi latzen di renean, neurri desberdinetakoak erabi ltzen di ra, eta hauek, *berdingek*, maila ertainetakoak ditugu, *aaki* (agaki, m eheenak) eta egur zati lehertuen artekoak. (IV, 735; B). “Porción de leña, ram a algo más gruesa que un simple palo”.
- Beres** (Naf) *adlg.* Berez. (IV, 780). *Etxiortakuek beres ttuk ain ixillek!* (Etxe horret akoak berez di tuk hain isilak!). “De por sí, natural”.
- Beriketü** (Sak-erd) *ad.* Bedeinkatu. *Bediketü* (AN-olza; IV, 351). Urdiainen *bedeinkatu.* *U(t)s beriketube beño, ardo madariketube neyoo!* (Ur bedei nkatua bai no, ardo madarikatua nahiago!). “Bendecir”.
- Bernazaki, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Hankezur. M itxelenak (IV, 804) “pantorrilla” bezala jaso zuen, baina Etxarrin hankezurari esaten zaio, belaun azpiko aurre al deko hanka zatia. (BB, 120; *berna-zagiye*). *Golpe geyenak bernazakiyen artzen zittunaat!* (Kolpe gehi enak bernazakian hartzen dizkinat). “Espinilla”.
- Bero, -ue/-ua** (orok) 1. *iz.* Bero. Bain a *biotu* (berot u): *Bero aundiye zio!* *Geyei biotzen dik!* (Bero handi a zagok! Gehi egi berot zen dik!). “Calor”. 2. *izond.* Bero. *Oso bero atia niek kafesnie!* (Oso bero at era di dak kafesnea!). “Caliente”.
- Beroki** (Urd) (ikus **txoki**)
- Berori** (Urd) (ikus **biorri**)
- Berri, -ye/-ya** (orok) 1. *izond.* Berri. “Nuevo”. 2. *iz.* Berria, albistea, zantzua. *Aspaldi ezikonau arren berriik!* (Aspaldi ez zeukanagu haren berririk!). “Not icia, novedad”. 3. *posp.* Berri. Ad itz partizipioaren

- ondoren jartzen da beti: *ein berri, jeyo berri, ... Etxie ein berri zikonau!* (Etxea egi n berri zeukanagu!). “Recien(te)”.
- Berriketa** (orok) *iz.* Berriketa, tx antxa, tontakeria, hizketaldi arina edo ez serioa. (V, 17; G, L, AN). (Irib. Iruña-Mendialdea). *Zorriyan afaiko eztakata alako berriketak!* Zorriaren afarirako ez dauka eta halako berriketak!, Et xarriko esaera). “Tontería, habl aduría, cosa de poca importancia”.
- Berriketauntzi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Hitzontzi, i nozo, tentel. *Berriketontzi* (V, 19). Urdiainen *berriketontzi*. “Que hace tonterías, cotilla, persona de poco fuste”.
- Berrittu** (Sak) *ad.* Berritu. (V, 26; G, AN, BN ap. A). B urundan pal atalizatu gabe. *Telletuboi ezpezubie belexe berritzen aurtengo neguben gorriyek ikusko ttuzubie!* (Teilatu h ori ez baduzue berehal axe berritzen aurtengo neguan gorri ak i kusiko dituzue!). “Renovar”.
- Berriz** (Ir, Bur) (ikus **beix(e)**)
- Berriz berria** (Urd) (ikus **atzia (beix)**)
- Berrizu** (Sak-erd) *izond.* Berritsu, ganora gabeko. (V, 25). *Ago ixilik beingos, berrizu alenoi!* (Hago isilik behingoz, berritsu hal aren hori !). “Si n fundamento, hablador”.
- Berrogei** (orok) *zenb.* Berrogei. (V, 38; V, G, AN, B, Ae, Sal, R, S). “Cuarenta”.
- Bersu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Bertso. (V, 52). *Afaiye tabernan eitten deen aldiro botatzen zittuk bersubek!* (Afaria tabernan egiten duen al diero botatzen dizkik bertsoak!). “Verso”.
- Bersulai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Bertsolaria. “Persona que cant a versos, versificador”.
- Berta** (orok) *iz.* Aipatzen den tokia bera. “Lugar mismo que se menciona”.
- BERTAN:** *adond.* Aipatzen den tokian. Etxarrin, non dagoen zerbait edo
- norbait galdetu eta jakin edo erantzun nahi ez izanez gero *fandalabertan* (“llegando allí mismo”) esaten da. “Allí mismo”.
- BERTAA:** *adond.* Aipatzen den tokira. “(A) allí mismo”.
- BERTAKO:** *iz.* Aipatzen den tokikoa den pertsona. (B B, 121). “Del (mismo) lugar, autóctono”.
- Besalei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Uztarrarian doazen a-bereak bata bestearen aurka bultzatuz dabilzanean. *Besalai* (V, 70; G-nav ap. Iz). (Ond. 6; *besolai:* pelea de dos buey es unci dos, echándose el cuerpo uno encima del otro, y apartando las patas). (Izag. 56; *besaleiya kentzeko ganaubeiri. Besaleiya da alkarretzi-ten dia, alkarrooola, bulkau alkar da ézin zan ailau, bota iten zian*). “Ac-ción de empujar un animal de yunta al otro”.
- Besape, -ie/-ia** (orok) *iz.* Galtzarbe. (V, 70; V-gip, AN, B, Ae, Sal, R, S). (Irib. *Peshapes* Lizarraldea-Iruñerria; ‘harriak bot atzeko modua’). Urdiainen *galtzarpe azpia*. (Izag. 63, *galtzarpe guziya* ‘todo el sobaco’). *Besapes oso aungi botatzen zittuk arriyek!* (Besapez oso ongi botatzen dizkik harriak!). “Axila”.
- Besarka** (Sak) *iz.* Besokada. *Besarkaat egur bier yau!* (Besokada bat egur behar diagu!). “Brazada”.
- Besarkada** (orok) *iz.* 1. Besarkada. “Abrazo”. 2. Besokada. *Besokada* (V, G, AN, V, 70). “Brazada, cantidad de una cosa que se coge con los brazos”.
- Beso, -ue/-ua** (orok) *iz.* Beso. *Indder aundiye zikonaan besotan!* (Indar handia zeukanan besoetan!). “Brazo”.
- Besokoxkor** (Lizgb, Arb) (ikus **okolondo**)
- Besolai** (Bak) (ikus **besalei**)
- Besomotx, -a** (Sak) *izond.* Besomotz. *Xebastian besomotx* (Etxarriar baten izengoitia). “Manco”.
- Besotako, -ue/-ua** (orok) *izond.* Besotako. (V, 84; G-nav). (Ond. 6). (Izag. 56;

- besotaku*). *Noon besotakue da Mattin?* (Noren besot akoa da Mattin?). “Ahijado”.
- Beste, -ie/-ia** (orok) *izond.* Beste. *Besteen miñen begiyek lo!* (Besteren m inean begiak lo!). “Otro”.
-BESTE GEÑAKUEN: (Sak-erd) *junt.* Beste gai nerakoan. *Bestiañakuen eta bestiañieko* erabiltzen dute Lizarragabengoan. *Atzo etor giñubaa biandu etxia, beste geñakuen laster erretietzen gettuk!* (Atzo etorri genian berandu et xera, beste gainerakoan laster erretiratzen gaituk!). “Por lo demás”.
- Bestela(s)** (Sak) *part.* Bestela. Askotan, bukaerant xistukari gurzkaria daramala erabiltzen da. (B B, 122). *Garaiz etorri, bestelas eztezubie ezee arrapatuko!* (Garaiz etorri, bestela ez duzue ezer ere harrapatuko!). “Si no, de otro modo”.
- Bestengusu, -be** (Etx) *iz.* Lehengusu propioa ez dena, maila txikiagoko lehengusua. (V, 112; V-gip, G-azp, AN-5vill-gip). “Primo segundo, ...”.
- Beta** (orok) *iz.* Beta, asti. (V, 114; G-bet-azp, AN-gip). *Ez(t)ikonet betaik ezee eitteko!* (Ez zeukanat betarik ezer ere egiteko!). “Tiempo, ocasión”.
- Bete** (orok) *1. ad.* Bete. *Bete zak bier bezela paperoi!* (Bete ezak behar bezala paper hori!). “Llenar”. *2. ad.* Bete, osatu, agintutakoa edo urteak esaterako. *Lau urte bete zittun lanien!* (Lau urte bete dizkin lanetan!). “Cumplir (la palabra o los años)”. *3. -ie/-ia izond.* Betea. *Bete-betie yondu auben atzo zinie!* (Bete-betea egon zuan atzo zinea!). “Lleno”.
- Betekada** (orok) *iz.* Asealdi. (V, 143; V, G). *Alako betekadak artuta, nola nei dek estemaube aungi uraitzie!* (Halako betekadak hartuta, nola nahi duk estomagoa ongi edukitzea!). “Hartazgo”.
- Betegarri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Txondorrera botatzen den egur xehetua, barruko suak pizturik iraun dezan. Tximiniatik *suete*-ra botatzen da eta, ondoren, *sataga*-rekin nahastena da. (V, 141). (Irib. *betagarri* Artaza-Ameskoa). “Leña para mantener la carbonera encendida”.
- Beti** (orok) *adond.* Beti. *Ezin yau beti berdin segittu!* (Ezin diagu beti berdin segitu!). “Siempre”.
-BETIKOS: *adond.* Betiko(tz). “Para siempre”.
- Betil, -lle/-lla** (Sak-erd) *iz.* Betila. (Izag., 55; *begitilat* ‘una pestaña ... una ceja’). “Pestaña”.
- Betire** (Sak) *part.* Beti ere. *Betide*, hortzetako herskariduna, ere entzun daiteke. “De todas formas, después de todo”.
- Bettor, -rra** (Etx, Li zgb, Arb, Lak) *iz.* Begi bitorria. *Bettor* (V, 166; Sal). (Irib. *petorra* Erroibar). Etxarriko kopla zahar bat ean horrela agertzen da: *Esku makurra, / bikayuen txakurra. / Nei ez debienak ematen, / eliza aiñeko bettorra! / Bettorra! Bettorra! / Armai yuen xagube, / kontrayue katube, / etxiontako limosnaaki, / eztaiu beteko zakube.* “Orzuelo”.
- Beye/a** (Sak-erd) *junt.* Bain a. *Beya* Dorrao, Unanu, Arbi zu eta Arruazun. Burundan *baya*, Urdiainen *bea*. *Esan, esan zeen, beye ezeen ezee ein!* (Esan, esan zuen, baina ez zuen ezer ere egin!). “Pero”.
- Beyetz** (Sak-erd) *part.* Baietz. Urdiainen *baretz*. *Beyetz zu beño lenuo allaatu!* (Baietz zu bai no lehenago ailegatu!). “(A) que sí”.
- Beyesko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Baiezkoa, eskatutakoari erantzuna. Urdiainen *barezko*. *Beimena eskatu yau, beye guaño eyau jaso beyeskue!* (Baimena eskatu diagu, bai na orai no ez diagu

- jaso baiezkoa!). “El sí , el perm iso concedido”.
- Bezain** (Urd) (ikus **beziñ**)
- Bezeiñ** (Uh, Lizgb) (ikus **beziñ**)
- Bezela** (Sak-erd) *junt.* Bezala. (V, 174; V-gip, G, AN-gip-larr-ulz-olza, B). (Izag., 56; *berdan bekela*). Altsasu n (SAT, 76: *maiz fina bekela*), Lakuntzan, Urdiainen eta Li zarragan *bekela*, Olaztin *bekala*. *Nik bezela ein dezakezu zuk!* (Nik bezala egin dezakezu zuk!). “Como”.
- Bezelo, -ue/-ua** (Sak-erd) *izlg.* Bezalako. Burundan eta Lizarragan *bezelako*. *Zelle da zu aneye bezelako pillotaiye opatzie!* (Zaila da zure anaia bezalako pilotaria topatzea!). “Como”.
- Bezelexe** (Sak-erd) *junt.* Bezalaxe. Urdiainen bi modutan: *bezelaxe* eta *bekelaxe*. *Arrek bezelexe ein giñuben guk!* (Hark bezalaxe egin genuen guk!). “Como”.
- Beziñ** (Sak-erd) *junt.* Bezain. (V, 169; V-gip, G, AN-gip-larr-5vill-ulz, Ae, Sal). Urdiainen *bezain*. Uhartan eta Lizarragabangoan *bezeiñ*. *Zuek beziñ aungi, eztek emen iyore bizi!* (Zuek bezain ongi, ez duk hem en inor ere bizi!). “Tan”.
- Bezpera** (orok) *iz.* Aurreko eguna, bezpera(k). (V, 187; V-gip, G, AN-mer-5vill, S). *San Juan bezperan bezpetaa fan giñen!* (San Juan bezperan bez-peratara joan ginen!). “Víspera, vísperas”.
- Beztitu** (Etx, Ir) *ad.* Jantzi, ‘b eztitu’. *Illiyu beztitu berkuezubie!* (Hila beztitu beharko duzue!). “Vestir”.
- Beztu** (orok) *ad.* Belztu, bel tzarandu. *Iyotetan gazteiek aurpeye beztu eitten ziyabien!* (Ihaueteetan gazteek aurpegia belztu egiten ziaten!). “Ennegreecer, ponerse moreno”.
- Bi** (orok) *zenb.* Bi zenbaki a. *Bi ta bi ez ttun beti lau izeten!* (Bi eta bi ez ditun beti lau izaten!). “Dos”.
- Bia** (Sak) *izord. I.* Bera. Ez du dardarkaria galtzen dekl inabideko kasu gehienetan: *berai* (Arbizun *biarri*), *beraaki* (Arbizun *biarreki*), *beraandako* (*biarrendako*), *beraangana* (*biarrengana*), ... *Bia izendu dek gezurre esan deena!* (Bera izandu duk gezurra esan duena!). “El / ella (mismo / a)”. 2. (ik. **bera**).
- Biamun, -e/-a** (Sak-erd) *iz.* Biharamuna. *Biamun* (V, 208; L, BN, S). Arbizun eta Li zarragabangoan *biyamun*, Dorraon *biyamun* (SAT, 61: ... *etxe guziak barna arrontzak biltzen ta geo biyamunien faten zian taberneta* ...). (Izag. 58; *diemunin* ‘en el dí a siguiente’). “Día siguiente, aje”.
- Biandu** (Sak) *adond.* Berandu. *Biandu zailtzie, aspaldiyontan!* (Berandu zabilzate, aspaldi honetan!). “Tarde”.
- Bianta** (Etx, Li zgb, Arb) *izond.* Berandu ateratzen den labore edo landarea. “Tardío”.
- Biare** (Sak-erd) *part.* Bederen, behintzat. *Berarik* (IV, 697; AN; LE [Urt] 88). Arruazun *beade*. *Zuk biare eitten al dezu! Kaka eitteko biare, yon ari ixilik!* (Zuk bederen egiten ahal duzu! Kaka egi teko bederen, egon hadi isilik!). “Por lo menos, al menos”.
- Bia(z)tu** (Sak) *ad.* Beratu, bigundu. Izotza ere bai. (BB, 112; *beandu*). (Ond. 6; *beatu*: m acerar, m anir). *Jar zazkik biatzen alubiyok!* (Jar itzak beratzen babarrun hori ek!). “Abl andar, deshelar”.
- Biatz, -a** (Sak) *I.* Beratza, bi guna. (BB, 112; *beatza, biatza*). Olaztin *biyatza*. “Blando”. 2. Sentibera, bi hozbera. *Oso biatza dek Frantxiko enkargatutako!* (Oso berat za duk Frantxiko enkargat utzat!). “Compasivo”.
- Biazkillo, -ue** (Etx) *izond.* Pert sona oso sentibera, berehala koki ltzen dena, negarti. *Ez tik baliyo, biazkillo xamarra dek!* (Ez dik balio, sentibera

- samarra duk!). “B landengue, referi do a personas, llorón”.
- Biaz(t)un, -e/-a** (Sak-erd) *iz.* B erazuna, lurrak hezetasun gehiegi duenean, soroko 1 anak ozt opatzen di tuelarik. **Biazun** (AN-araq; IV, 348). Lizarragabengoan *biaztun*. Urdiainen horrela esaten zaio izotzak urtzen direneko gi roari. *Biazune zio! guaño ezertan asteko!* (Behazuna zagok oraino ezertan hasteko!). “Dem asiada humidad, lodazal”.
- Bibero** (Arr) (ikus **biboro**)
- Biboro, -ue/-ua** (Etx, Li zgb, Arb, Lak, Bak, Urd) *izond.* Biki, batera jaiotako umeak. (V, 215; G, AN-ulz). (Ond. 6; *biboru*: m ellizo). (Izag., 56; *bikiyak, irukiyak, laukiyak* ‘mellizos, trillizo s, cuatrillizos’). *Oik biyek biboruek ttuk!* (Horiek biak bi kiak di tuk!). Arbi zun *bixki* eta Arruazun et a Lakunt zan *bibero*. “Gemelo”.
- Bide, -ie/-ia** (orok) *iz.* Bide. *Bidioi erosuo dek bestie beño!* (Bide hori erosuago duk beste hori baino!). “Camino”.
- Erriau, -be** (Etx) *iz.* Erregu. Bolumen neurria, aleak neurtzeko ontzia. (VII, 145; G-nav). Arbi zun *errou*, Burundan, Li zarragabengoan eta Irañetan *errau* eta Urritzolan *erregu*. (Ond. 8; *errau*). “Robo, medida de grano equivalente a media fanega”. *-ERRIAU ERDIYE:* erregu erdia. Arbuzun *errou erdiya* eta Burundan, Liarragabengoan eta Irañetan *errau erdiye/ya*. “Medio robo”.
- Erribeteko, -ue** (Etx) *iz.* Adiskide, itxura eta izaera bereko pertsona. “Compadre, compinche, comeliton”.
- Erritar, -rra** (orok) *iz.* Herritar. “Convecino”.
- Erritxoi** (Un) (ikus *galartxori*)
- Erro, -ue/-ua** (orok) *iz. 1.* Erro. “Raiz”. *2.* Zuhaitzaren, haritza gehien bat, adar lodi eta luzea. “Rama gruesa y larga del árbol”. *3.* Titi, bular. (VII, 228; V, G, AN, L). (Izag., 60; *erru* ‘la teta’ <hablando de los animales>). “Pechos, tetas”.
- Erron** (Sak) (ikus *errun*)
- Errosa** (Urd) (ikus *arrosa*)
- Erroसार, -rra** (Etx, Li zgb, Arb) *iz.* Txerriaren errapearen hasiera. (VII, 239; BN-baig; ‘ubre’). Seguru aski, ‘erro’ eta ‘sarrera’-tik eratorria. “Comienzo de la ubre de la cerda”.
- Errosayo, ue/-ua** (Sak) *iz.* Arrosarioa. *Errosayue eskuten zakala il yeen!*

- (Arrosarioa eskuetan zeukal a hil huen!). “Rosario”.
- Errota** (orok) *iz.* Errota. (VII, 240; V, G, AN, B, L, S, Sal, R-is-uzt). “Molino”.
- Errotai** (Uh) (ikus **errotazei**)
- Errotaina** (Urd) (ikus **azeki**)
- Errotarri, -ye/-ya** (orok) *iz.* Errotarri. (VII, 241; V, G, AN). “Piedra de molino, muela”.
- Errotazei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Errotazain. *Errotazai* (VII, 242; G-nav). Uhartena *errotai*. (Ond. 8; *errotazai*). (Izag., 60; *errotzai*). “Moliner”.
- Errou** (Arb) (ikus **erriau**)
- Errozpe, -ia/-ie** (Lizgb, Lak) *iz.* Teilatu hegalarren azpialdea. *Aritzaaki berritu yau itxeko errozpe guzia!* Haritzarekin berritu diagu etxeko errozpe guztia!). “Alero del tejado”.
- Erruki** (Urd) (ikus **kupide**)
- Errun** (orok) *ad.* Errun. *Erron* ere entzun daiteke. Oiloak arraultzak jarri. (VII, 251; G-bet, AN-gip-5vill, B, BN, S). “Poner huevos la gallina”.
- Ertesi** (Ir) (ikus **ertitz** eta **zorna**)
- Ertitz, -e** (Etx) *iz.* Behatzetan egin ndakozauria, gaiztotua. (VII, 257; ‘panadizo AN-araq’). Artolastoak kentzekoan egiten zirenen gehienbat. Irañetan *ertesie*. “Herida infectada de los dedos”
- Ertoki** *iz.* 1. **-ye** (Etx) Oiloak ikuiluan arraultzak jartzeko tokia. Erruteko tokia izango genuke, beraz. Lakuntzan *estokiye*. “Lugar del establo donde las gallinas ponen los huevos”. 2. **-ya** (Lizgb) Beheko sukot habetxoentarte. (VII, 257; G; ‘depósito to en el que se curan los quesos’). *Patetoi ertokiya beño sekuo ziok!* (Patata hori ertokia bainosekoago zagok!). “Lugar del fuego bajo, para secar o ahumar alimentos”.
- Ertxa** (Etx) *iz.* Txanpon batekin jolasteko joko. “Juego con una moneda”.
- Ertxi** (Uh) (ikus **itxi**)
- Ertz, -a** (orok) *iz.* Ertza. (VII, 265; V, G, AN-gip). “Esquina, borde, filo”.
- Eru, -(b)e/-(b)a** (Sak) *iz.* Erua. (VII, 267; V-arr-gip, G-nav, AN). Irañetan *erue*. (Ond. 8). (Irib. *erua* Iruñerria-Odieta ibarra). “Yero, girón”.
- Esan** (orok) *ad.* Esan. (VII, 272; V, G, AN-araq-olza-larr-gip-ulz-5vill). Uhartena Irañetan *san*, burutzapena aferesiduna. Timoteo Beraza irañetarrak ziurtatu dit lehenago J. M. Satrustegi euskaltzainak esan zidana, hau da, Ihabarren *erran* burutzapena erabiltzen zutela bertako eskalaz hitzunez joan den mendeanean. Satrustegik di gunez, bere gaztaroan, Ihabarko ‘danbol indero’ bat aritzen zen Arruazuko eta Lakuntzako jai egunetan gutxienez, eta *Erran* izengoitiaz ezagutzen zuten beraz, bitxia egiten baitzitzaien adit honen erabilera hari entzundakoan. *Aungi esanak aungi artu, ta txarki esanak barkatu!* (Esaera zaharra). “Decir”.
- Esanbier, -rra** (Sak-erd) *iz.* Kexa, esanbier. Urdi ainen *esanbier*. *Esanbierren bat baakak oo konforme ago!* (Esanbierren bat badaukak ala konforme hago!). “Queja, alegación”.
- Esatebatiako** (Urd) (ikus **esatiatego**)
- Esateko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Destaina, esateko. (VII, 284; V, G, AN). *Gauzek ola izendu badie eztauk esatekoik!* (Gauzak horrela izan badira ez daukagu esatekoik!). “Reproche, crítica”.
- Esatiatego** (Etx) *part.* Esate bat erako, adibidez. Urdiainen *esatebatiako*. *Zuek, esatiatego, eztezubie sekule onttoik jan!* (Zuek, esate baterako, ez duzue sekula onddorik jan!). “Por ejemplo, verbigracia”.
- Esayera** (Sak) *iz.* Esaera, erretra. *Esanera* ere entzun daiteke. *Esanera* (VII, 268). Urdi ainen, Arbi zun eta Lizarragabangoan *esaera*. *Esayera*

- pillaat bildu yau iztegiyoneki batia!* (Esaera pila bat bi ldu di agu hi ztegi honekin batera!). “Dicho, refrán”.
- Eseki, -ye/-ya** (Sak-erd) *1. iz.* Zikirioaz egindako soka m odukoa, gari bal ak lotzeko. Unanun *segatia*. (Ond. 9; *etsaki*: tram ojo para atar haces. *Zikiriuksua da*). (Izag. 61; *etseikiya* ‘el vencejo (de centeno) para atar trigo’). “Atadura hecha con centeno”. *2. ad.* Eskegi, zintzilikatu. (VII, 284-5; AN, G). “Colgar”.
- Esenatu** (Bur) (ikus **esnatu**)
- Esene** (Bur, Liz, Lak, Arr, Ir, Urritz) (ikus **esne**)
- Esenulso** (Urd) (ikus **esnezize**)
- Esi, -ye/-ya** (orok) *iz.* Hesi. *Hesi* (VII, 288; V, G, AN, L, B, S). Toponimian ere agertzen da hitz konposatuetan: *biortesiye, itxesi, ...* “Seto, cerca, valla”.
- Eskalanpoi, -ye** (Lak) *iz.* Zurezko oinetakoa, lokatzetan erabiltzen dena. “Zueco, calzado de madera para el barro”.
- Eskale, -ie/-ia** (orok) *iz.* Eskale. (VII, 298). “Pordiosero, mendigo”.
- Eskapatu** (Sak) *ad.* Ihes egin, alde egin, eskapo egin. (VII, 302; AN-mer, BN-baig). *Gaztetan, soldadoskati eskapatu eta urte seil bet eman zittubaan Ameiketan!* (Gaztetan soldaduzkatik eskapatu eta urte sail bat eman zituan Am eriketan!). “Escapar(se)”.
- Eskapera** (Etx) *iz.* Ihes egi teko m odua edo aukera. “Forma o modo de escapar”.
- Eskapo** (Sak) *1. adond.* Ihes eginez, iheska. (Irib. Iruñerria). *Eskapo daalle azkenontan!* (Eskapo dabi l azken honetan!). “Escapándose, evitando”. *2. iz.* Ihesa, ihesaldia. (VII, 303). *Bein zuluarta sartuta ez tikobe eskapoik!* (Behin zulo hartara sartuta ez zeukatek eskaporik!). “Escapatoria”.
- Eskarmentu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Eskarmentua, abisua, ikasbidea. (VII, 305; V-gip, G-azp-goi, AN-gip-5vill-larr, B). *Orrek eskarmentu aundiye zikok!* (Horrek eskarmentu handi a zeukak!). “Escarmiento, experiencia”.
- Eskarpin, -ñe** (Etx) *iz.* Po lainak baino txikiagoko gal tzerdi modukoak. *Eskarpina* (VII, 306; V-ger) “Escarpiñ, polaina pequeña”.
- Eskartxera** (Etx) *iz.* Bizkar-zorroa, bizkarretik zintzilik eramatekoa gorputzaren alde bat ean, boltsa. *Eskartzela* (VII, 307; B; ‘especi e de morral’). Urdiainen *muxila* esaten diote. “Bolsa en bandolera”.
- Eskatu** (orok) *iz.* Eskatu. “Pedir”.
- Eskax** (Sak-erd) *1. adond.* Urri, gabe. *Eskas* (VII, 307; V-gip, B N-lab). “Escaso, pobre, falta de”. *2. -a izond.* Urria, gabea, iristen ez dena. “Limitado, que no da la talla”.
- Eskazale, -ie/-ia** (orok) *izond.* Eskazale. (VII, 314). “Pedigüeño”.
- Eske, -ie(n)** (Sak) *1. iz.* Eskea(n). (VII, 315; V, G, AN-l arr-erro, B). “La acción de pedir, pidiendo”. *2. posp.* Zerbaiten bila. (B B, 158). (Ond. 8; *Orbel eske*: por hoja seca). *Ordek ogiye eske!* (Hor duk (joan hadi) ogia eske!). “(A) por, en busca de”.
- Eskei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Aukera. *Eskai(d)a* (VII, 291; ‘oportunidad, ocasión’). *Nolako eskeye galduebien!* (Nolako eskari a gal du duten!). “Oportunidad, ofrecimiento”.
- Eskeñi** (orok) *ad.* Eskaini. *Eskeini* (VII, 293; V-gip, G, AN, B N-ciz, S). Olaztin *eskin*. Burundan pal atalazatu gabe. “Ofrecer”.
- Eskellera** (Sak-erd) *iz.* Eskailera, mailadi. (VII, 292; G-azp). (Ond. 8: *eskila*). Urdiainen *eskilara*. “Escalera”.
- Eskelpe, -ie** (Etx) *iz.* Eskilarape. Urdiainen *eskilazpi*. “Hueco bajo la escalera”.

- Esker, -rra** (orok) *I. iz.* Eskerra. “Agradecimiento”.
-ESKERROO LIKEK!: *esam.* Eskerrago likek! Zerbait gertatzea edo egia izatea espero dugula adierazteko esamoldea. “¡Ojalá!, ¡Ya podía!”.
 2. *posp.* Esker, datiboko morfemadun burutzapena eskatzen du. *Berai esker allaatu gaa!* (Berari esker ailegatu gara!). “Gracias a, por”.
 3. **-tu ad.** Eskertu. “Agradecer”.
- Eskergeiztoko, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond.* Eskergeiztoko, eskertzarrekoa. *Esker gaiztoko* (VII, 322). Urdiainen *eskertzarreko*. “Ingrato”.
- Eskerrak** (Sak) *esam.* Beharrik, gaitzerdi. (VII, 320). *Eskerrak ez zuugubiela zigarrue ikusi!* (Eskerrak ez zigutela zigarroa ikusi!). “Menos mal, gracias a dios”.
- Eskerrikasko** (orok) *esam.* Eskerrik asko. (VII, 325; V, G, AN, B, Ae). “Gracias, muchas gracias”.
- Eskertzar, -rra** (orok) *iz.* Eskertzarra. (VII, 325). “Ingratitud”.
- Eskertzarreko** (Urd) (ikus **eskergeiztoko**)
- Eskiera** (Etx) *iz.* Eskaera. “Petición”.
- Eskila(ra)** (Bak, Urd) (ikus **eskellera**)
- Eskilazpi** (Urd) (ikus **eskelpe**)
- Eskin** (Ol) (ikus **eskeiñi**)
- Eskola** (orok) *iz.* Eskola. “Escuela”.
- Eskola eskapo** (Urd) (ikus **pipar**)
- Eskribitu** (Sak) *ad.* Idatzi. *Eskribitu* (VII, 342; V-gi p, G-azp, AN-m er). Burundan pal atalizatu gabe. *Leitzie beño askos ee zeilloo eitten zikiel eskribitzie!* (Irakurtzea baino askoz ere zailago egiten zaidak idaztea!). “Escribir”.
- Esku, -be/-b(u)a** (orok) *iz.* Eskua. “Mano”.
-ESKU AZPIYE/A: *iz.* Esku azpi a. “Reverso de la mano”.
-ESKU GEIÑE/A: *iz.* Esku gai na. “Anverso de la mano”.
- Eskualdun** (Alts, Urd) (ikus **auskaldun**)
- Eskuaz** (Urd) (ikus **auskias, euskias**)
- Eskubere/a** (Bur, Li z, Do, Arb) (ikus **eskuere**)
- Eskubi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Eskuina. (VII, 371; V-arr, G). “Derecha, diestro”.
- Eskubide, -ie/-ia** (orok) *iz.* Eskubi dea. (VII, 366; V, G, AN). (B B, 160; ‘permiso, autorización’). “Derecho, permiso, licencia”.
- Eskuere, -ie/-ia** (orok) *iz.* Eskuarea. *Eskuare* (VII, 365). Lizarragan, Dorraon eta Arbi zun *eskubere*. Irañetan eta Hiriberrin *zarrie*. *Aritto-a* baino handi ago, normalean egurrezkoa. (B B, 160; *escuara, escubara*). (Izag., 61; *eskubera*). Urdiainen *eskubera*. (Irib. *escuara* Ameskoa). “Rastrillo”.
- Eskuitxi** (Urd) (ikus **zimur**)
- Eskukada** (orok) *iz.* Eskukada. (VII, 375; V-gip, G-goi-azp, AN-gi p). *Eskutera* ere erabiltzen da Etxarrin eta Lizarragabengoan. “Cantidad que cabe en la mano”.
- Eskumotz, -a** (Sak) *izond.* Eskua fal ta duen pertsona. (VII, 381; V, B, L). (BB, 160). “Curro, manco”.
- Eskumutur** (Lizgb, Arb, Arr, Uh) (ikus **eskutur**)
- Eskusare, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Ibai eta erreketan eskuz arrant zan egi teko sarea. Sare txikia arrantzarako. “Red pequeña para pescar”.
- Eskusau, -be** (Etx) *iz.* Komuna. “Excusado, water”.
- Eskutaazi** (Etx) *ad.* Eskura arazi, erakarri. *Eskutaratu* (VII, 388; ‘hacerse con, conseguir, dom ar’). *Eskutaazi zak neskatuoi!* (Eskurarazi ezak neskato hori!). “Atraer, hacer migas”.
- Eskute, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Eskukada. (VII, 388; AN-gip). (Irib. b. Añorbe). Urdiainen *eskukada*. “Cantidad que cabe en la mano, manjo”.
- Eskuteko oyel, -a** (Etx) *iz.* Esku oi hala. *Eskuetako oihal* (VII, 354; AN-larr;

- ‘sudario’). Eskuak, aurpegia eta abar garbitzeko oihala. “Toalla, servilleta”.
- Eskutera** (Etx, Li zgb) *iz.* Eskutada, eskukada. *Eskayok aldemennai eskuteraat gatz!* (Eska iezaioak aldamenari eskutada bat gatz!). “Cantidad que cabe en una mano”.
- Eskutetu** (Etx) *ad.* Eskutaratu, eskura etorri, harrapatu. (BB, 160; *eskutatu*). “Venirle a la mano, atrapar, echar el guante”.
- Eskutrapu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Dafaila, otorduetan erabiltzen den oihala. Esku eta ezpai netarako oihala. (VII, 359; V-gip, G-azp-bet). Urdi ainen kontsonante epentetikorik gabe. “Servilleta”.
- Eskutur, -rre/-rra** (Sak) *iz.* Eskumuturra. (VII, 390; V-pl e-ger-m-gip, G-nav, AN-olza). Lizarragabengoan, Arbizon, Arruazun eta Uhartan *eskumutur*. (Ond. 8). (Izag., 61). Hitz sinkopatua dugu. “Muñeca”.
- Eskuturreko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Eskumuturrekoa. (VII, 391). Lizarragabengoan eta Arbizun *eskumuturreko*. “Pulsera”.
- Eskuzabal, -a** (Urd) *izond.* Eskuzabal. (VII, 391; V, AN, L, B, N, S). “Bondadoso, dadivoso”.
- Esnatu** (orok) *ad.* Esnatu. Unanun, Lakuntzan, Uhartan eta Irañetan *itzerri* eta Urritzolan *yatzarri*. (Izag. 60; *esenatu*). “Despertar”.
- Esne, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Esne. (VII, 397; V, G, AN-sept-erro, L, BN, Ae, Sal). Lizarragan, Arruazun, Lakuntzan, Irañetan eta Urritzolan (EAEL II, 198) *esene*. (Ond. 8; *esene*). (Izag. 60; *esene gutxi*). “Leche”.
- Esnebelar, -rra** (Etx) *iz.* Esnearen antzeko likidoa duen belarra, txerriek jaten dutena. (VII, 398; G, AN-izarb, R). “Lechetrezna”.
- Esnezeze** (Etx) *iz.* Esne-perretxiko. Esnearen antzeko likidoa duen ziza, ‘Lactarius’ motakoa. Urdiainen *esenesulso*. “Seta con licoide parecido a la leche”.
- Esnoi, -ye** (Etx) *iz.* Esnori. *Esnori* (VII, 401; AN-l arr-olza). Perrexiren antzeko landarea. “Planta parecida al perejil”.
- Esola** (Etx, Lak, Urd) *iz.* Oholez egindako itxia edo paretara (Horrela esan digu Karmelo Goñi eta xarriarrak). (VII, 401; G-to, AN-gip, B, BN-ciz). ‘(H)esi + (oh)ol’ izan daitezke bere osagaiak. *Oltza* ere erabiltzen da Etxarrin. “Cerrado o pared de tablas”.
- Espal, -a** (Sak) *I. iz.* Gari multzoa. Lau espalek bala egiten dute, hamar balak karga, eta hamar kargak gurdiara. Unanun *ormena*. (VII, 404; G, AN-gip, L, B, BN-ciz, R). (Izag., 62; *ezpal* ‘una gavilla de trigo’). “Gavilla, manojos, haz”. 2. **-du** *ad.* ‘Espalak’ egin. Horrela jaso zuten Irañetan (EAEL II, 169): “*Illaran bota, gero sardiez espaldu, ta in, e zerak, espalak esaten giñun ta geo, ... alien lotu, ...*”. “Hacer gavillas”.
- Espedera** (Etx) *iz.* Ontzi edo lapikoan gaineko gai neko estalki edo tapa. (VII, 410; ‘batería de cocina’). “Tapa de las cazuelas”.
- Esperobeko, -ue** (Etx) *izond.* Pazientziarik gabea. “Impaciente”.
- Espiatu** (Sak) *ad.* Itxaron, egon, esperatu. *Esperatu* (VII, 412; AN-mer). *San Kirikok esan dau elduen urtiaño, ta San Adriñek esan doo espiazak guaño!* (San Kirikok esan du hel du den urteraino, eta San Adrianek esan dio esperazak oraino!; Etxarriko esatera). “Esperar”.
- Espilu** (Urd) (ikus **expillu**)
- Esporta** (Sak) *iz.* Zare, saski. (VII, 420; AN-larr-ulz-gulina). “Cesto”.
- Esposatu** (Urritz) (ikus **ezkondu**)
- Estaasi** (Lizgb) (ikus **istaasa**)
- Estaldu** (Alts) (ikus **estali**)

- Estali** (orok) *ad.* Estali. (VII, 428; V-gip, G, AN-larr-egüés-olza, L, B, BN, Ae, S, R). (Izag., 61; *estald* ‘cubrir(se)’). Lakuntzan *estald*. *Txokolatie estal bierra uraitzen yau!* (Txokolatea estali beharra eduki tzen di agu!). “Esconder, cubrir”.
- Estalka, estalketan** (Etx) *adond.* Estalian ibili edo jolastu. (VII, 432; V-gip, G-nav; ‘juego de niños que consiste en ocultar entre varios al objeto que le traspasan de mano en mano, mientras uno lo busca’). “A escondidas, al escondite”.
- Estalka-mestalka** (Etx) *adond.* Norbaitengandik ihesi ibili. “Rehuyendo”.
- Estalope, -ie** (Etx) *iz.* Aterpe, l ehorpe, estalpe. *Estal + ohol + -pe* i zango lirateke bere osagaiak. Udaletxeko arkupe edo estalpeari esaten zai o, eta oholez egi na du sabai a. Gerardo López de Guereñuk Agurainen, San Juan plazan, *olbea* jaso zuen, “arcos o cubierto en paseo público” dela esanez. Seguru aski, ‘ohol + behe’-tik eratorria dugu. “Pórtico del Ayuntamiento, soportal”.
- Estalpe, -ie/-ia** (orok) *iz.* Estalpe, estalgune. (VII, 434; V, G, AN-larr-ulz-erro, L, BN, S). (Irib. Alkoz-Odieta ibarra, *istalpe* Iruña). “Cobertizo”.
- Estarbi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Ikuilu. *Ganados beteik zikobau estarbiye* (Ganaduz bet erik zeukaguk ikuilua). *Estrabil(a)* (VII, 452-453; AN). (Izag., 69; *bi okoluko jaiskiya*). Arruazun, Uhart en eta Irañetan *estrabi*. Urritzolan *okullo*. “Cuadra”.
- Estarteko, -ue** (Etx) *iz.* Hesteen artean dagoen gantz gaia. *Hestarteko* (VII, V-m, G-azp-nav). (BB, 161). “Materia grasa que hay entre los intestinos”.
- Este, -ie/-ia** (orok) *iz.* Heste. *Heste* (VII, 439; V, G, AN). “Intestino”.
- ESTEGORRI:** (VII, 441; V, G, AN). zintzurretik urdailera doan hestea. (BB, 161). “Esófago”.
- ESTE AUNDI:** heste lodia. (VII, 440). “Intestino grueso”.
- ESTEMIE:** heste m ehea, tripakiak egiteko. (VII, 441). (Irib. *ercemines* Iruña-Iruñerria, *estemin* Iruña, *estremiñes* Iruñerria). “Intestino delgado”.
- Estemau, -be** (Sak) *iz.* Urdaila. *Estemago* (VII, 451; AN-olza). “Estómago”.
- ESTEMAUKO ZULO:** urdai leko zuloa. *Estemauko zulu en jo ziek!* (Estemagoko zuloan jo zidak!). “Boca del estómago”.
- Esti** (Sak) *part.* Atzera! Ganadoei, behi edo idiei bereziki, atzera egiteko esaten zaien interjekzioa. (VII, 445; G, AN, L-ain, B). (Irib. Girgilano-Lizarraldea). *Esti Morika, esti!* “Voz que se dice al ganado, indicando que vaya para atrás”.
- Estillerri, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Lizarraldea, ‘Estellerria’. “Tierra Estella”.
- Estimatu** (Sak-erd) *ad.* Estimatu, eskertu. *Estimatu* (VII, 446; V-arr-gip, G-azp, AN-gip, B, S). *Asko estimatu diau zuek ori esatie!* (Asko estimatu dugu zuek hori esatea!). “Apreciar, estimar”.
- Estoki** (Lak) (ikus **ertoki**)
- Estosi** (Lak) (ikus **istaasa**)
- Estrabi** (Arr, Uh, Ir) (ikus **estarbi**)
- Estrasi** (Arr, Uh, Ir) (ikus **istaasa**)
- Estreiñes** (Etx, Li zgb) *adond.* Estreinu, lehen aldia. *Estraino* (VII, 455; G-azp). *Goizien, aurtengo estreñes itzoo nok mendie!* (Goizean, aurtengo estreinuz igo nauk m endira!). “Primera vez, estreno”.
- ESTREÑEKO ALDIS:** *esam.* Lehen aldiz. “Por primera vez”.
- Estrematu** (Etx) *ad.* Garbitu. “Limpiar”.
- Estu, -be/-ba** (orok) *izond.* 1. Estu. (VII, 458; V, G, AN-5vill). “Apretado”. 2.

- Larri, urduri. (VII, 460; Vc, G, AN-5vill). *Ori dek galtzarrotxa beño extuboo!* (Hori duk galtzorratza baino estuagoa!)- “Apurado”
- Estualdi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Estutasun. (VII, 463; V, G, AN-5vill). (Izag. 61; *estutasun arrekin* ‘con aquel apuro’). *A, ze estualdiye eman ziuobau!* (Ah, zer estualdia eman zioagu!). “Apuro, aprieto”.
- Estutu** (orok) *ad.* 1. Estutu. (VII, 467; V-gip, AN-ulz). “Apretar”. 2. Larritu. (VII, 468; V-gip-arr, AN-5vill). “Apurar”.
- Et-et-et** (Etx) *esam.* Ez-adostasuna adierazteko erabiltzen da, entzundako zer baiten aurrean. (VII, 470). *Et-et-et, ori eztek ola!* (Et-et-et, hori ez duk horrela!). “Expresión de desacuerdo”.
- Eta** (orok) *junt.* Eta. Gehienetan burutzapen aferesiduna erabiltzen da, hau da, hasierako bokal a gal tzen du: *ta. Etorri ta beleixe asi yauben partidue!* (Etorri eta berehal axe hasi huen partidua!). “Y, conjunci ón copulativa”.
- Etorkizun, -e/-a** (orok) *iz.* Etorkizuna, geroa. (VII, 487; V, G, AN, L, BN-lab-*arb*). *Pillotan, bintzet, ezta kak batee etorkizunik!* (Pilotan, behintzat, ez daukak bat ere etorkizunik!). “Porvenir, futuro”.
- Etorrera** *iz.* (orok) Etorrera. (VII, 490; V, G, L). “Llegada”.
- Etorri** (orok) *ad.* Etorri. (VII, 491; V, G, AN, L, Ae, B N-ad). Lakunt zatik ekialdera burutzapen aferesiduna, *torri* (VII, 491; AN-gip-5vill-*araq-ulz-erro-olza-gulina*, B), erabiltzen da. Sarritan galtzen du aspektu burutuaren -i marka: *Etor yeiz azkeniako!* (Etorri haiz azkenerako!). “Venir”.
- Etorri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Etorria, hitz egiteko erraztasuna, erretolika. (VII, 497; V, G, AN). *A, ze etorriye dakan! Asten dek izketan da eztek ixiltzen!* (A, zer etorria daukan! Hast en duk hizketan eta ez duk isiltzen!). “Facilidad de palabra, inspiración”.
- Etro, -ue/-ua** (Etx, Li zgb, Arb) *izond.* Gehiegikeriatan erortzen den pertsona, janari arekin gehi en bat. (VII, 500; AN-larr: *Etro ari du*, llueve torrencialmente). “Persona que hace excesos, com ilón, desordenado en el comer, acaparador”.
- Etsei, -ye/ -ya** (Sak) *izond.* Etsai. *Etsai* (VII, 500; V-gip, G, AN, L, B N, S, R). (Izag. 67, *ifernuko etsaiya*). Burundan diptongoko bokal erdi a irekirik: *etsai. Infernuko etseye piztukuezubie!* (Infernuko et saia piztuko duzue!). “Enemigo”.
- Etseiki** (Alts) (ikus **eseki**)
- Etsi** (orok) *ad.* Et si. (VII, 508-9; V-m-gip, G, AN-5 vill-gip, BN). “Resignarse”.
-*ETSI-ETSIYEN: adond.* Etsi-etsian. (VII, 510). *Guazen etsi-etsien da gio ikusko yau!* (Goazen etsi-etsian eta gero i kusiko dugu!). “Decididamente”.
- Ettegutxi** (Uh) (ikus **aitejunteko**)
- Etxarte** (Urd) (ikus **zerka**)
- Etxe, -ie/-ia** (orok) *iz.* Etxe. Lizarragabengoan, Arbi zun, Lakuntzan, Ergoi enan, Uhart en, Irañetan eta Hiriberrin *itxe* (VII, 520; V-gip, G-azp, AN-gip-5vill-*araq-ulz-olza-gulina*). “Casa”.
- Etxeaundi, -ye** (Etx) *iz.* Udaletxe. *Etxandi* (VII, 518; ‘pal acio’). (B B, 167). “Ayuntamiento”.
- Etxekalte, -ie/-ia** (Sak) *izond.* Hondatzaile. (VII, 532; V-gip). “Derrochador, pierdecasas, pródigo”.
- Etxeko, -ue/-ua** (orok) *iz.* Etxeko ki dea. (VII, 532). “Miembro de la familia, de casa”.
- Etxekoandre, -ie/-ia** (orok) *iz.* Etxekoandre. (VII, 535; V-gip, G). “Ama de casa”.

- Etxekonause, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Etxeko nagusia. (VII, 534). Urdiainen *etxeko nagusi*. “Amo de la casa”.
- Etxezulo, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond.* Etxekoi, et xean denbora asko pasatzen duen pertsona. (VII, 543; V-ger-m-gip, G-azp). “Persona casera”.
- Etzi** (orok) *adond.* Etzi. “Pasado mañana”.
- Etzidamu** (orok) *adond.* Etzidam u. (VII, 550; V-gip, G-azp-nav, AN-gi p-ulz-erro, L, B, BN, S). Irañetan *etziama* eta Urdiainen eta Ergoienan *etziamu*. “El día siguiente a pasado mañana”.
- Etzin** (Sak) *ad.* Et zan. (VII, 546; V-gip, G, AN-larr-erro, B, R-uzt). Horrela ageri da jasoa Urdiainen: “*Fan zien sorua ta ama ta aita soruan lanian da bestia majo etzinda, etzinda majo itzalen*” (SAT, 84). *Egun ososue etzinda pasatu dik!* (Egun oso-osoa etzanda pasatu dik!). “Tumbar(se)”.
- Eultzi** (Urritz) (ikus **auntzi**)
- Eun** (Urd) (ikus **aun**)
- Euntsi** (Arb) (ikus **yauntsi**)
- Eup** (orok) *esam.* Agurtzeko esam oldea. (VII, 559; V-gi p). *Eup esaten debienak, poltsan diru gutxi!* (Eup esaten dutenek, ...!). “Expresión de saludo”.
- Euskias** (Sak-erd) *adlg.* Euskaraz. *Auskias* ere entzun daiteke. Urdiainen *eskuaz*. “En euskara”.
- Eutsi** (It) (ikus **auskin**)
- Exexe, -ie** (Etx, Urd) *izond.* Heze-hezea, samur. “Tierno, blandito, recién hecho”.
- Exkabuxo, -ue** (Etx) *iz.* ‘Garrulus glandarius’ hegazt ia. *Eskilaso* (VII, 331). (B B, 158; *eskauxo*). (Ond. 8; *eskuxo*: gal lo de m onte). (Izag., 62; *ezkiluso*). Lizarragabengoan *exkuxo*. *Garrulus glandarius*. “Arrendajo”.
- Exkax** (Sak-erd) *adond.* Eskas. *Eskas* (VII, 307; V-gip, BN-lab). (Irib. *escas Iruña-Iruñerria-Baztan*). “Pobre, falto de, escaso”.
- Experrau, -be/-ba** (Sak) *iz.* Zainzuria. *Erriberan experrau bikeñek uraitzen zittubiek!* (Erriberan esperrau bikainak ed ukitzen ditiztek!). “Espárrago”.
- Expillu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Ispilua. (BB, 210; *ispillube*). Urdiainen palatalizatu gabe: *espilu*. “Espejo”.
- Ez** (orok) *1. adond.* Ez. “No”. **2. -a** (orok) *iz.* Ezezkoa, utzitakoa. (B B, 168). “Negativa, ‘deje’ en el juego del mus”.
- Ezatu** (Etx) (ikus **ezetu**)
- Ezaun, -e/-a** *1.* (orok) *izond.* Ezagun. (VII, 596). “C onocido”. **2. izen** (Etx) *ad.per.* Begibistakoa i zan, ezagun izan. *Ezaun dau ez dakazubiela batea gogoik mendie fateko!* (Ezagun du ez duzuela batere gogori k m endira joateko!). “Ser evidente, notorio. Notar(se)”.
- Ezautu** (orok) *ad.* Ezagutu. (VII, 601; V, AN-egüés-ilzarb). Lakunt zan *zautu* burutzapen aferesiduna. “Conocer”.
- Ezayen(-ezayen)** (Sak) *adond.* Ezarian, geldi-geldi, lasai. *Ezarian* (VII, 611; V, G, AN, L-ain, B, BN). (Izag. 61; *ezáiyen-ezáiyen* ‘poco a poco’). “Espacio, tranquilam ente, com o el que no quiere la cosa”.
- Eze, -ie/-ia** (orok) *1. izond.* Heze. *Heze* (VII, 629; V, G, AN, L, B N, R, S). *Oso ezie dek txokoi bertan lo eitteko!* (Oso hezea duk txoko hori bertan lo egiteko!). “Húm edo”. **2. -tu** *ad.* Busti, um eldu. *Ezatu* entzuten da gehiago Et xarrin. (B B, 168). “Humedecer, empapar(se)”.
- Eze(e)(re)** (Sak-erd) *izord.* Ezer (ere). *Ezer* (VII, 633; V, G, AN). Uhart en, Irañetan et a Urri tzolan *daus(ee)*. *Jakinduezubie eze(r)e?* (Jakin duzue ezer ere?). “Algo”.
- Ezeez** (Sak-erd) *izord.* Ezer ere ez. *Ezeez* (VII, 643). Uhart en, Irañet an eta Urritzolan *dauseez*. “Nada”.

- Ezeitteko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Ezegitekoa, ezbeharra, astakeria. Norbaitek bere buruaz beste egitea, esate baterako. *Ez-egiteko* (VII, 630; G-azp). *Orrek eiñen dik ezeittekoon bat!* (Horrek eginen dik ezegitekoren bat!). “Acción nefasta, barbaridad”.
- Ezetasun, -e/-a** (orok) *iz.* Hezetasun. “Humedad”.
- Ezetz** (orok) *1. adond.* Ezetz. “Que no”. *2. -a iz.* Ezezko erantzuna, ezezkoa. “Respuesta negativa”.
- Ezeze** (Sak-erd) *part.* Ez eze. (VII, 588; V-arr-gip, AN-larr). *Nik ezeze, zuek ee ardo uberi yan ziñubien San Adriñen!* (Nik ez eze, zuek ere ardo ugari edan zenuten San Adrianen!). “No sólo ... sino, además de”.
- Ezezko, -ue/-ua** (orok) *iz.* ‘Ezetz’-ren sinonimoa. (VII, 653; V-ple-arr-m-gip, G-azp-go). “Respuesta negativa, el no”.
- Ezi** (orok) *1. ad.* Hezi. *Hezi* (VII, 657; V, G, AN, L, BN, Sal, S, R). “Dom ar”. *2. -ye/-ya izond.* Hezia. “Domado”.
- Ezin (izen)** (orok) *1. ad.* Ezin (izan). *Ezin izenduebie zueki!* (Ezin izan dute zuekin!). “No poder”. *2. -ñe/-ña iz.* Ezina. “Imposible”.
- Ezinyon, -a** (Etx, Li zgb) *iz.* Larritasunen batek edo sort zen duen egoera urduria, pazientzia eza. “Impaciencia”.
- Eziñeman, -a** (Etx, Lizgb) *iz.* Bekaizkeria, inbidia. *Oriek, ori, eziñemana dakakena, utziyok bakien beingos!* (Hori duk, hori, ezinemana daukaana, utz iezaioke bakean behingoz!). “Envidia”.
- Eziñen** (Sak-erd) *adond.* Ezinean, ezinik. *Eziñen zailtzie azkeontan!* (Ezinean zabiltzate azken honet an!). “No pudiendo, a duras penas”.
- Eziñesko, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond.* Ezinezkoa. *Ezinezko* (VII, 675; V-arr-gip, G-azp-nav, AN-g ip-5vill, BN-arb, S). “Imposible”.
- Eziñikusi, -ye/-ya** (Etx, Li zgb) *iz.* Etsaitasuna, herra bizia. *Ezinikusiyesteik eztek sortu ber ola segitzen beek!* (Ezinikusia best erik ez duk sortu behar horrel a segi tzen baduk!). “Mania”.
- Ezkaatz, -a** (Sak) *iz.* At alondo. Kal eko atetik sukaldera bi-tarteko gunea etxean. *Ezkatze* (VII, 690; Ae). (Izag., 62). Irañet an *ezkatzie*. “Vestíbulo, entrada de la casa”.
- Ezkabi, -ye/-ya** (Etx, Li zgb, Arb) *iz.* Ezkabia. (VII, 688; V, G, AN-l arr, B, L-ain, Ae, Sal, h-S). *Inbiye ezkabiye balitz, makiñaat balooke.* (Inbidia ezkabia balitz, makina bat balegoke). “Tiña, sarna”.
- Ezkalu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Ezkailu, ibaiko arrain t xikia. (VII, 689; G, AN). (Ond. 9). *Ezkalubek besteik eziek ibeiye!* (Ezkaluak besterik ez zeudek ibaian!). “Bermejuela”.
- Ezkel, -a** (Etx, Un) *1. izond.* Ezkel. (VII, 692; V, G, L-ain, BN-baig). *Eztikiñet zein dan, beye semiat begi ezkela zikone!* (Ez zekinat zein den, baina seme bat begi ezkel a zeukat en!). “Bisojo”. *2. -du ad.* Begiak okertu u begiratzean. “Bizquear, torcer los ojos”.
- Ezkeñu, -be** (Etx) *iz.* Et xeko sarreran, *ezkaatzan,* egoten den aul kia. “Escaño”-tik agian. “Banco de la entrada de la casa”.
- Ezker, -rra** (orok) *iz.* *1.* Ezker. (VII, 692; V, G-to-nav, AN-ulz, R-is). “Izquierda”. *2. izond.* Ezkerti. (VII, 694; V, G, AN). *Exkerra*-ren etxea dago Etxarri-Aranatzen. “Zurdo”.
- Ezker-eskubi** (Sak) *adond.* Ezker-eskuin. (Izag. 48; ... *patu ezkerreskubi bi fila ...*). *Eta an asi yauben ezker-eskubi mutur joka.* (Eta han hasi huen ezker-eskubi mutur joka). “A di estro y siniestro”.
- Ezki, -ye/-ya** (orok) *iz.* Ezki. *Galizialdien aña ezki eyet iyun ikusi!* (Galizia

- aldean adina ezki ez di at inon ikusi!).
“Tilo”.
- Ezkil, -lle/-lla** (orok) *iz.* Ezkil. (VII, 702: AN-larr-ulz, B). Burundan palatalizatu gabe. *Garai betien Arruazun yoten ittuben ezkiljole obeenak!* (Garai batean Arruan egoten hituen ezki ljole hoberenak!). “Campana”.
- AMEZKILLE**: (Etx) errosarioaren ondoren jot zen zen ezkil doinua. “Toque de cam panas después del rosario”.
- ARGI-EZKILLE** **KEDA**: (Etx) goizeko bost etan jot zen zen ezkil doinua. Arruazun *argiezkilla* egunero sakristauak argi sentian jot zen zuen, sei eta erdiak edo zazpiak aldera. “Toque de cam panas de las cinco de la mañana”.
- ILL-EZKILLE**: (Sak) norbait hil dela gaztigatzeko jotzen den ezkil doinua. “Toque de cam panas de avi so de defunción”.
- OSTIEL-EZKILLE**: (Etx) o stiralero arratsaldeko hiruretan jotzen zen ezkil doinua. “Toque de cam panas de los viernes a las tres de la tarde”.
- SUEZKILLE**: (Sak) sua dela gaztigatzeko jotzen den ezkil doinua. “Toque de cam panas de avi so de fuego”.
- ILLUNEZKILLA**: (Arr) arratsean jotzen zen, zortziak edo bederatzia aldera. “Toque de cam panas del anochecer”.
- Ezkildorre, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Ezkila egoten den tokia, dorrea gehi enetan. (VII, 703; AN-ulz, B). “Campanario”.
- Ezkiljole, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Ezkila jotzen duena. *Ezkila-jole* (VII, 703). “Campanero”.
- Ezkilkada** (Sak-erd) *iz.* Danbada, ezki la kolpea. Urdi ainen *dan*. *Etxarriko elizeko erlejubek ordu osuek ematekuen lau ezkilkada desberdin ematen zittuk aurreti, laurdenak emateko ezkilkada bakarra, erdiyek ematekuen bi ezkilkada eta, laurden gutxitekotan, iru ezkilkada.* (Etxarriko el izako erl ojuak ordu osoak em aterakoan lau ezkilkada desberdin ematen ditik au rretik, laurdenak emateko ezkilkada bakarra, erdiak em aterakoan bi ezkilkada eta, laurden gut xietakotan, hiru ezkilkada). “Campanada”.
- Ezkiluso** (Alts) (ikus **exkabuxo**)
- Ezkonberri, -ye/-ya** (orok) *izond.* Ezkonberria. (VII, 705; G, AN, L, BN). “Recién casado”.
- Ezkondur** (orok) *ad.* Ezkondur. Urri tzolan *esposatu*. “Casar”.
- Ezkontza** (orok) *iz.* Ezkontza. (VII, 711; V). Urdi ainen *ezaia*. *Elduen launbetien ezkontza zikonau!* (Heldu den l arunbatean ezkontza zeukanagu!). “Boda”.
- Ezkur, -rre/-rra** (orok) *iz.* Ezkur. (VII, 717; V, G, AN, B N, Ae, Sal, S, R). *Ezkurreneko* etxea dago Etxarri-Aranatzen. “Bellota”.
- EZKURRE IIN**: (Lizgb) *ad.per.* Ezkurra egin, di rua egi n, negozi oa ongi atera. “Sal ir bi en un negoci o, hacer dinero”.
- Ezpal, -a** (orok) *iz.* Aizkoraz m oztutako egurraren zatia. (VII, 731; G, AN, L, BN, S, R). “Astilla”.
- EZPAL SARTUBE/BA**: Zuhaitza nora bot a erabaki tzen duen koska, aizkoraz zein m otozerraz egina. “Corte que se realiza en el árbol para determinar la dirección de caída”.
- Ezpartin, -ñe/-ña** (Sak) *iz.* Esp artin. *Ezpartin* (VII, 408; G-nav). (Izag., 62). Burundan palatalizatu gabe. (Irib. *Espartina* Aezkoa). “Alpargata”.
- Ezpartu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Espartzu, gari balak lotzeko soka, espart uzkoa. *Espartu* (VII, 409; Lcc). “Espart o, soga de esparto”.
- Ezpatata** (orok) *iz.* Ezpatata, eta baita gurdiari, gehi ago zam atzeko, aurretik

- edo atzetik jartzen zaion eranskina. *Ezpata beño zuzenoo dek ori!* (Ezpata baino zuzenagoa duk hori!). “Espada, añadido ant erior o pst erior de los carros para poder llevar más carga”.
- Ezpatabelar, -rra** (Etx) *iz.* Belar luzea. (VII, 733; G, AN, L). (BB, 171). “Hierba alargada”.
- Ezpein, -ñe/-ña** (orok) *iz.* Ezpain. (VII, 730; Ae, R). *Gaurko egunien yozñek izeten zittuk ezpein lodiye!* (Gaurko egunean edozeinek izaten dizkik ezpain lodiak!). “Labio”.
- Ezpeinto** (Etx) *izond.* Ezpain l odiak dituen pert sona. “Persona de labios gruesos”.
- Ezpel, -a** (orok) *iz.* Ezpel. “Boj”.
- Ezponda** (Sak) *iz.* Soro edo bi dearen ertza, gehienetan m aila ezbedinean dagoena. (VII, 736; G-nav, AN-ul z, B, Sal, S, R). “Talud”.
- Ezpora, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* 1. Ezpara. Eulia bai no handi agoko intsektua. Ganadu eta gizakiei ziztada egin eta hazi egiten zaie. *Ezpara* (VII, 732; V, G, AN-gip). Arruazun eta Lakuntzan *azpora*. Lizarragabengoan *aizpora*. “Tábano”. 2. Pertsona gogai karria. “Pelma”. 3. Bibotea, era ez formalean. “Bigote, jocosamente”.
- Eztai** (Do, Urd) (ikus **eztei, ezkontza**)
- Eztarri, -ye/-ya** (orok) *iz.* Eztarri. (VII, 742; V, G, AN, R). *Belexe izurrekuakik eztarriye alako garraxiyeki!* Berehalaxe izorratukozaik ezt arria halako garrasiekin!). “Garganta”.
- Eztarriko min, -ñe/-ña** (orok) *iz.* Eztarriko mina. (VII, 743; V-gi p, G-goi-azp-nav, AN-g ip). “Faringitis, dolor de garganta”.
- Eztarrizulo, -ua** (Lizgb) *iz.* Eztarriko zuloa, trakea. *Eztarrizuluaño sartu nittubaan bietzak tripekuak botatzeko!* Eztarri zuloraino sartu nitian behatzak tripakoak botatzeko!). “Tráquea”.
- Eztei, -ye** (Etx) *iz.* Eztei, gertakaria. (VII, 744; G, AN, L, B N, R, S).
- Egunerokoa ez den gertaera orori esaten zai o horrel a, ezkontza barne delarik. Dorraon et a Urdi ainen diptongoaren i rekiera gert atzen da: *eztaiya*. “Acontecimiento en general, boda incluida”.
- Ezten, -a** (Lizgb) *iz.* Punta zorrotza. *Txista* ere esaten zaio. “Punta afilada de algo”.
- Eztera** (Etx) *iz.* Geztera. Zorrozteko harria. (VIII, 561; V, AN-gip-erro, B, L-ain, BN-baig, S). Urdi ainen *deztera*. “Piedra de afilar”.
- Ezti, -ye/-ya** (orok) *iz.* Ezti. *Txikiten eztiye ogiyen beendtzen giñubaan!* (Txikitan eztiya ogi an m erientatzen genian!). “Miel”.
- Eztul, -e/-a** (orok) *iz.* Eztul. *Kasueitten al dek eztuloi, bestela ...* (Kasu egiten ahal duk eztul hori, bestela ...). “Tos”. -TXAKUR EZTULE/A: (Sak) *iz.* Korronka, eztul indartsua. “Tos fuerte y profunda”. -AIZE-EZTULE/A: *iz.* Eztul ah ula. *Eztul-haize* (VII, 757; V-m ‘t os nerviosa’). *Emaniazak zerbeit, aize-etzule zikobaat ta!* (Eman iezadak zerbait, haize-etzula zeukaat eta!). “Tos floja”.
- Eztulketan** (Sak) *adond.* Eztulka. *Gaubezuzie pasatuik eztulketan!* (Gaua osoa pastu dik eztulka!). “Tosiendo”.
- Ezur, -rre/-rra** (orok) *iz.* Hezur. (VII, 759; L, B N, S). *Golpatuik zizkonet ezur guziek!* (Kolpaturik zeuzkanat hezur guztiak!). “Hueso”.
- Ezurmuin, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Muin. (VII, 762; B). *Bei eruen geitze ezurmuñetan emen zio!* (Behi eroen gaitza hezur munitan omen zegok!). (Izag., 70; *kimuki* ‘el tu étano de los huesos’, *kimuka guziya*). Urdi ainen *mimuka*. “Tuétano”

F

Faaxi (Ir) (ikus **fagatxi**)

Fafara (Arb) (ikus **kalda**)

Fagai, -ye/-ya (Sak-erd) *iz.* Pagadi .
Fagadei ere ent zun dai teke.
Lakuntzan *paoteiye*. (Izag., 79;
pagadi). B urundan *pa(ga)di*.
“Hayedo”.

Fagatxi, -ye/-ya (Sak-erd) *iz.* Pagatxi.
‘Fago’ eta ‘(h)azi’ dira bere osagaiak.
Irañetan *faaxiye*. Arruazu eta
Lakuntzan *paatxi*. Urdi ainen *patxi*.
(Ond. 15; *paxi*). (Izag., 79; *pagaxi*
bikor). “Hayuco”.

Fago, -ue/-ua (Sak-erd) *iz.* Pago.
Arruazun *pago*. B urundan *pago*.
“Haya”.

Falaka (Lizgb) *iz.* Arropa zabala, askea,
lausoa. “Ropa ancha, suelta”.

Falderinge (Etx) *iz.* Joare o so tx ikia.
“Cencerro muy pequeño”.

Fale, -ie/-ia (Sak-erd) *iz.* Joare. Urdiainen
fara. (Izag. 62, *bi fara*). (Ond. 9;
fara). “Cencerro”.

-FALE OTSAK AITTU: ad. per. Joare
hotsak aditu, zurrumuruak, jendearen
esanak aditu. *Ezee bee geldittu emen*

ttuk! Guk, bintzet, fale otsak aittu
zittubau! (Ezer gabe gel ditu om en
dituk! Guk, behi ntzat, joare hotsak
aditu dizkiagu!). “Oir rumores, hablar
de oídas”.

-FALETXIKIYE/YA: iz. joare tx ikia.
“Cencerro pequeño”.

-FALEKALASKA: iz. Joare berezia,
soinu bitxia ateratzen duena. *Kalaxka*
(X, 341; G-to, AN-5vill). (BB, 223).
“Cencerro con sonido especial”.

-KONTESTAFALIE: iz. Joare handia.
“Cencerro grande”.

-FALE DINGE: iz. Joare oso handi a,
abereekin ibiltzen direnen artean
handiena. “Cencerro de muy gran
tamaño”.

Falekada (Etx) *iz.* Joarean sartzen dena.
Batzuk horrela eskatzen dut e ardoa
tabernan: *Atia zak falekadaat ardo!*
(Atera ezak joarekada bat ardo!).
“Cantidad que cabe en un cencerro”.

Falemi, -ye/-ya (Sak-erd) *iz.* Joarearen
mihia. (Izag. 62, *faramiya* ‘el badajo
del cencerro’). (Ond. 9; *fara-mi*).
“Badajo del cencerro”.

- Falfal, -a** (Etx) *izond.* Harroa eta ero samarra, eroska. *Farfail(a)* (VII, 786; B, L, B N-baig; ‘vano, soberbio, presuntuoso’). *Oriek, ori, andre falfala!* (Hori duk, hori, andre falfala!). “Desinhibido, locuelo”.
- Falsikei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Faltseria, faltsukeria. *Faltseria* (VII, 778). *Erriyortan falsikeye besteik eztiok!* (Herri horretan faltsukeria besterik ez zegok!). “Falsedad”.
- Falso, -ue/-ua** (Sak) *izond.* 1. Fi dagaitz, gezurti. (VII, 779; AN-i lzarb-olza-egüés). “No fi able, fal so”. 2. Faltsu, alfer. “Falso, vago”.
- Falsongarri, -ye** (Etx) *izond.* Oso alferra. *Eyeiz, ez, i asiko bestiek beño len, falsongarrioi!* (Ez haiz, ez, hi hasiko besteak baino leen, falsongarri hori!). “Muy vago, redomado”.
- Faltai, -ye** (Etx) *iz.* Falta dena, faltari. *Ardi musu gorriye dek faltaye!* (Ardi musu gorria duk faltaria!). “Ausente”.
- Faltatu** (Sak) *ad.* Faltatu, irain egin. (VII, 777; V-gi p, AN-m er). “Faltar, injuriar”.
- Faltsiye/a** (Sak-erd) *iz.* Alferkeria, faltsukeria. “Vagancia”.
-*FALTSIYAI EMAN: ad.* Alferkeriari jo. *Faltsiyai emanik zilllek azkenontan!* (Faltseriari emanik zebilek azken honetan!). “Darse a la vagancia”.
- Fameli, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Familia, sendia. (VII, 782; V-ger-gip). Urdiainen *famili*. “Familia”.
- Fan** (Sak) *ad.* Joan. Irañetan eta Hiriberrin *juan*. (Izag., 63; *frailiik faten emen zian ..., eta faten zait etxea ta ...*). “Ir”.
-*FAN/JUAN DA OPAZAK/N:* (Etx, Lak) *esam.* Joan eta aurki ezak/n. Zerbait erab akitzeko zailtasu na adierazten du esam olde honek. “Agárralo, pillalo”.
- Fanelo, -ue** (Etx) *izond.* Noranahi joateko beti prest dagoenari esat en zai o horrela. “Persona que siempre está dispuesta a viajar, que le gusta viajar”.
- Fan-etorri, -ye/-ya** (Etx, Urd) *iz.* Ibilerak, gorabeherak. *Etxarriko Ilarion fan-etorriyek kontatuko duuzkizubiet!* (Etxarriko Hilarioren joan-etorriak kontatuko dizkizuet!). “Andanzas, vicisitudes”.
- Far, -rra** (Sak-erd) *iz.* Barre. *Farra* (VII, 789; G, AN). Ergoi enan, Uhartan eta Irañetan *irri*. Urdiainen *barre*. (Izag., 55; *aik barriek eta aik ...*). “Risa”.
-*FARRES LERTU: ad.per.* Barrez lehertu. *Farres lertuik yondu giñuban!* (Barrez leherturik egon ginduan!). “Partirse de risa”.
-*PUR-PUR-PUR FARRES: adond.* Barrez etenik gabe aritu. “Reirse de forma compulsiva, sin parar”.
- Fara** (Bur) (ikus **fale**)
- Fara-fara** (Bak) (ikus **mara-mara**)
- Fardel, -a** (Sak) *izond.* Nolanahi jant zita dabilenari esaten zaio. *Fardala* (VII, 785; ‘holgazán’). (BB, 172). “El que viste a su aire, desaliñado”.
- Farra ein** (Sak-erd) *ad.* Barre egin. (VII, 790). “Reir”.
- Farragarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Barregarri. Barre eragiten duena. (VII, 792). Burundan *barregarri*. “Que produce risa”.
- Farraldi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Barre saioa, barre al dia. (VII, 792). Burundan *barrealdi*. “Risotada, momento de risa”.
- Farrantzien** (Sak-erd) *adond.* Ia barrez. *Farre-antz* (VII, 790). Urdi ainen *barreantzien*. *Farrantzien elduek!* (Far antzean heldu duk!). “Medio de risa, sonriente”.
- Farrantzi, -ye** (Etx) *izond.* Barreontzia, bare ugari egiten duen pertsona. (VII, 794). “R isueño, persona que se ríe mucho”.
- Fatu, -be** (Etx) *iz.* Irakatsi edo aholkuak emateko obsesioa, ohitura errepikatua, kontrolatu ezineko

- jarduera. Pat ua. *Ori ek, ori, fatube, beti zerbeitt esan bierra!* (Hori duk, hori, patua, beti zerbait esan beharra!). “Obsesión, generalmente se refiere a quien está siempre enseñando o dando consejos”.
- Fear, -rra** (Lizgb) *iz.* Pegarra, lurrezko ontzi handia. “Tinaja”.
- Fede, -ie/-ia** (orok) *iz.* Fede. (VIII, 1; V-gip, G, AN-ulz, S). (Izag., 63; *fede guziya* ‘toda la fé’). “Fé”.
- Fededun, -e/-a** (orok) *iz.* Fededun. (VIII, 3). “Creyente”.
- Fei** (Arb, Lizgb, Urd) (ikus **feri**)
- Feri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Feria, festa. Ganaduaarena bereziki. *Feria* (VIII, 6; V-ger-gip, G-goi -to-nav, AN-ulz-araq-larr-5vill-olza). Etxarri-Aranazkoak urriaren lehen asteburuan eta Altsasukoak hiru rugarrenean. Arbizun, Lizarragabengoan eta Urdiainen *feiya*. “Feria”.
- Ferra** (orok) *1. iz.* Ferra. (VIII, 8; AN, L, BN, S). “Herradura”. *2. -tu ad.* Ferratu. (VIII, 9; B). *Guañiken eniezu laugarren ankati ferratu!* (Oraindik ez didazu laugarren hankatik ferratu!). “Herrar”.
- Ferratoki, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Ferratokia, ganadua ferratzeko lekua. (VIII, 9; V-gip, AN-gip-larr). (IHM 17, 31). “Herradura”.
- Ferrazale, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Ferratzaile. (VIII, 9; AN-ulz, S). Urdiainen *ferratzaile*. (Izag. 63; *ferrazale bat* ‘un herrador’). “Herrador, herrero”.
- Ferretei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Burdindegia. “Ferretería”.
- Festa** (orok) *iz.* Festa. (VIII, 10; V-gip, G-azp, Ae, BN-baig). Arruazun *pesta*. “Fiesta”.
- Fiagarri** (Urd) (ikus **fiyegarri**)
- Fiakaitz** (Urd) (ikus **fiyegeitz**)
- Fiatu** (Urd) (ikus **fiyetu**)
- Fierrabuu, -be** (Etx) *iz.* Beheko suan ‘laratza’ zintzilikatzeko katearen punta. “Punta de la cadena de donde se cuelga el llar”.
- Filats, -a** (Etx) *iz.* Hari hariztatua. *Filara* (VIII, 19; V-gip; ‘hilo torcido ya para coser’). “Hilo deshilachado”.
- FILATSA JARIYO:** arropa erabat hariztaturik eduki. *Filatsa dayola or doo!* (Filatsa dari ola hor dago!). “Tener la ropa totalmente deshilachada, a flecos”.
- Filatsatu** (Etx) *ad.* Hariztatu. *Jersioi filatsatuik dakak erabat!* (Jertse hori filatsaturik dauka erabat!). “Deshilachar”.
- Fin, -ñe/-ña** (Sak) *izond. 1.* Lerdin, leun. (VIII, 22; R-uzt). *Fin-fiñe geldittuek meye!* (Fin-fina gelditu duk mahaial). “Fino, suave”. *2.* Zintzoa, langilea. (VIII, 23V-arr-gip, G). *Ori bei dala mutiko fiñe, beti prest zioke zerbeitt eitteko!* (Hori bai delamutiko fina, beti prest zegoke zerbait egitekoko!). “Formal, trabajador”.
- Fiñementu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz. 1.* Ganora, pulamentua. Lizarragabengoan *fiñimendu*. Urdiainen *fundamentu*. *A, ze fiñementube, eztezubie gauz bet bier bezela eitten!* (A, zer fiñementua, ez duzue gauza bat behar bezala egiten!). “Fundamento”. *2.* Etorkezuna, ondorioa, amaiera. *Finamendu* (VIII, 24; BN-erb). *Fiñementu txarra urai biezubie!* *Au fiñementube espia dakigu!* (Finamendutxarra eduki behar duzue! Hau fiñementua espero zaigu!). “Fin, futuro”.
- Firi-fara** (Etx) *adond. 1.* Alde batetik bestera, norabiderik gabe. (VIII, 29; V-gip). *Aize egue ibiltzen dek firi-fara!* (Haize hegoa ibiltzen duk firi-fara!). “De un lado para otro, sin rumbo”. *2.* (Urd) (ikus **mara-mara**)
- Firi-firi** (Etx) *1. adond.* Haizearen ibilera, leun-leuna denean. (VIII, 29-30; V-gip; ‘airecillo’). (Ond. 9; *fili-fala ... Aizeak fili-fala ibili:* ser agitado por el

- viento). “Viento suave”. 2. **-ye** iz. Zuhaitz mota. Urdi ainen *fili-filia*. (Ond. 9; *fili-fili: basatxipu*). “Alamo temblón”.
- Firiken** (Etx) *adond.* Haizea bezala, firifiri. *Firirikaka* (VIII, 30; BN-baig; ‘moviéndose en rotación’). *Bakeikuarra, firiken, zierrak aurria!* (Bakaikuarra, firikan, zeharrak aurrera!, Etxarriko esaera). “Como el viento, ligeramente”.
- Firrei, -ye** (Etx) iz. Kakalarria, berakoa. (Ond. 9; *ferri* se usa en *kakaferrri*). *Firria* eta *kakafirri* ere erabiltzen da, baita Urdiainen ere. “Diarrea”.
- Firriñekan** (Lizgb) (ikus **pirriñekan**)
- Fistu** (Bur) (ikus **pixtu**)
- Fits, -e/-a** (Sak) iz. Elur maluta txikia. (VIII, 35; B, L-côte, BN). Urdiainen *amukel. Asi ttuk elur fitsaatzuk!* (Hasi dituk elur fits batzuk!). “Copo, partícula de nieve”.
- Fitsetu** (Etx) *ad.* Arroparen hariak hautsi eta agerian geratzen direnean. “Deshilachar, hacer trizas”.
- Fixtu** (Ir, Bur) (ikus **pixtu**)
- Fiyegarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Fidagarri. Urdi ainen *fiagarri*. “Fiable”.
- Fiyegaitz, -e/-a** (Sak-erd) *izond.* Fidagaitz. *Fiakaitz* (VIII, 14; G-azp-to). Urdiainen *fiakaitz*. “No fiable, desconfiado”.
- Fiyetu** (Sak-erd) *ad.* Fidatu. *Fiatu* (VIII, 15; V-m-gip, G-azp, AN-g ip-5vill). Urdiainen *fiatu. Fiyeri ta ago!* (Fida hadi eta hago!). “Fiarse”.
- Flatera** (Sak-erd) iz. Plater. Arbizun bereziki horrela. Etxarri-Aranatzen *platera* ere entzuten da. Urdiainen *pate*. “Plato”.
- Floka** (Etx) iz. Hauts pilota. Zokoet an hautsa biltzerakoan sortzen den pilota horietakoa. (VIII, 40; BN-baig, S; ‘ramo de flores, de frutos, de hojas, natural o artificial’). “Pelotilla de polvo que se produce en rincones o bajos de muebles”.
- Flore, -ie/-ia** (Sak) iz. Lorea, lilia. Irañetan horrela jaso zuten (EAEL II, 169): “... *flore lilaat atatzten zuen ta aunditzen zuen ...*”. Urdi ainen *pitxilita*. (Izag., 82; *udaberriko lorak* ‘las flores de primavera’). “Flor”.
- Forra** (Sak-erd) 1. iz. Jorra. *Jorra* (X, 272; V, G, B). “Escarda”.
-*FORRAN: adond.* *Jorran. Jorran* (X, 272; V, AN-ulz). “Escardando”.
2. **-tu** *ad.* Jorra(tu). Burundan, Arbizun eta Irañetan *jorratu. Potro forran pasatuek goiz guzie!* (Potro jorran pasatu duk goiz guztia!). “Escarda, escardar”.
- Forrei, ye/-ya** (Sak-erd) iz. Jorrai, aitzur txikia, baratzean erabiltzen dena. *Jorrai* (X, 272; V, G-azp-goi-to, AN-5vill, L, B, BN-ad -baig, Sal, S). Burundan eta Arbizun *jorrei/ai* eta Irañetan *eltzur txikiye*. (Izag. 70, *jorraitxo*). “Escardillo, azada pequeña”.
- Forru, -be/-ba** (Sak) iz. Zenbait jantzi edo tresnari, barnetik gehi enbat, jartzen zaien estalki edo babesak. *Yos deten gabardinek forru goixuat zikok barneti!* (Erosi dudana gabardinak forro gozo bat zeukak barnetik!). “Forro”.
- Fraile, -ie/-ia** (Sak) iz. Fraidea. (VIII, 50; V-gip, G-nav). (Izag., 63; *frailik faten men zian ...*). “Fraile”.
- Frakalaso, -ue** (Etx) *izond.* Arropa motu desegokian daramana, oso lasto adibidez. “Desgarbado”.
- Franko** (orok) *zenb.* Asko, ugari. (VIII, 54; V-gip, G-nav, AN, L, B, BN-arb-lab, S). “Mucho, abundante”.
- Franzesontto, -ue/-ua** (Sak-erd) iz. Biltzen ez den onddoa. “Hongo que no se recolecta”.
- Freskatu** (Sak) *ad.* Freskatu. (VIII, 61; V-gip, G-azp, S). “Refreshar(se)”.

- Freskure/a** (Sak) *iz.* Freskura. (VIII, 63; V-gip, S). “M omento de frescor, frescura”.
- Frexxixe** (Etx) *iz.* Presarik edo apurori k eza, lasaitasuna. *Frexxixe ederra dakazubie!* (Freskisa ederra daukazue!) . “C alma, que no hay apuro”.
- Frijittu** (Sak) *ad.* Frijitu, koi petan egosi. Lizarragabengoan *frekittu. Gosaltzeko obeena arrontz frijittubek ttuk!* (Gosaltzeko hoberena arrautza frijituak dituk!). “Freir”.
- Frikolin, -ñe** (Etx) *iz.* Pistilorik handiena, gehien ageri dena. *Prokoliñe* ere erabiltzen da, baina hau azalorearen burua t xikia denean. *Atiarik zikok frikoliñe!* (Aterarik zeukak frikolina!). “Pistilo”.
- Frintz** (Lizgb) (ikus **printz**)
- Frontal, -a** (Sak) *iz.* Eraikuntza bat eko gapirio nagusia. (V III, 69; G-nav, AN-olza). (Ond. 9; frontal). Pertsonai egokitua ere erabiltzen da esaera moduan: *Amabost urte besteik ez, eta i yeiz dauneko etxeko frontala!* (Hamabost urte besterik ez, eta hi haiz dagoeneko etxeko front ala!). “Vi ga central de la casa, sostén”.
- Fronton, -a** (Sak) *iz.* Pilotalekua. (VIII, 70; AN). *Pillotajoku* eta *pillotaleku* ere entzun daitezke. “Frontón”.
- Frute** (Un) (ikus **arrano**)
- Frutu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Fruitua. (VIII, 70; V-gi p, AN-egüés, Ae, Sal, R). “Fruto”.
- Fuako, -ue** (Etx) *iz.* Jenio t xarraren ondorioz bot atzen di ren hasperenak. Onomatopeikoa da. *A, ze fuakuek botatzen ttuben asarratzen danien!* (A, zer fuakoak botatzen dituen haserretzen denean!). “R esoplido producido por el mal genio”.
- Fudre, -ie** (Etx) *iz.* 1. Zahagi. “Odre”. 2. Asko edat en duen pertsona, mozkor. “Bebedor empedernido”.
- Fu ein** (Sak) *ad.* Fu egin, putz egin. *Fu egin* (VIII, 73). Janariak hozteko edo erretzen garenean erabiltzen da. *Zopa bero xamar baldin badoo, ein yok fu!* (Zopa bero samar baldin badago, egin iezaio k fu!). “Soplar para tem plar el alimento que está d emasiado caliente o para aliviar una quemadura”.
- Fuerte, -ie/-ia** (Sak) *izond.* Indartsu, fuerte. (VIII, 73; V-ple-och-gip, Ggoi-to-bet-nav, AN-g ip-5vill-araq-ulz). “Fuerte”.
- Fuesa** (Etx) *iz.* Garai batean elizan hildakoak lurperatzen ziren tokia. (Irib. M endialdea). *Ogiye* ere esaten zitzaion, eta dirudienez bertan ogia banatzen zen senideen artean. “Lugar de en terramiento en el interior de la iglesia”.
- Fuki-fuki (ibilli)** (Etx) *ad.* Zerbait ed o norbaiten atzetik ib ili. *Or dailtzie fuki-fuki mutikuen atzeti!* (Hor dabilta fuki -fuki m utikoen atzetik!). “Andar detrás de al go o al guien, olfatear”.
- Fulu** (Sak) (ikus **julu**)
- Fundamentu** (Urd) (ikus **fiñementu**)
- Funziyo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Jendaurrekoa saioa, funtzioa, emankizuna. Elizakoa normalean. Lakuntzan *juntziyo. Gaur atziatu ein zittubiek funziyuek!* (Gaur atzeratu eg in d itiztek fu ntzioak!). “Función, sobre todo religiosa”.
- Furra-furra (lo)** (Sak) *adond.* Purrapurra, gustura, gozo-gozo lotan egon. “Que está durmiendo a pierna suelta”.
- Furrustako, -ue/-ua** (Etx, Urd) *iz.* Furrustada, bapat eko haserreal dia. Espero ez dugunean norbaitek zakarki erantzuten digunean esaterako. (Irib. *furrusta* Iruña-Iruñerria-Iparmendebaldea). “Arrebato repentino, respuesta airada”.
- Furrut (ein)** (Sak-erd) 1. *ad.* Zurrut. *Ik ze nei dek, zopak eta furrut?* (Hik zer nahi duk, zopat et a zurrut?). “Sorbo,

trago, sorber”. 2. **-e** *iz.* Zurrutada.
“Sorbo”.

Furrutekan (Sak) *adond.* Zurrutadaka.
Burundan asimilaziorik gabe. (Ond. 9;
furrutakan yan). “A sorbos”.

Furruxta (Etx) *iz.* 1. Zurrutada tx ikia.
“Sorbito”. 2. Kuluxka. Loareki n ere
erabiltzen da: *Lo furruxtaat besteik
eyet ein!* (Lo furruxta bat besterik ez
dut egin!). “Cabezadita”.

G

- Gaagar, -rra** (Sak-erd) *iz.* Garagarra. *Garagar* (VIII, 334). (BB, 177; *garagarra, gaagarra* (A)). B urundan bokal berdi nen art eko dardarkari a mantentzen del arik. (Izag., 64; *garagarra*). “Cebada”.
- Ga(r)agarzaro, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Garagartzarora, garagarri la, ekai na. (VIII, 336; AN-ul z-arce, BN-baig, Ae, Sal, R). (B B, 177; *garagarrille, gararzue*). Uhartan *Sanjuanille* erebai, eta Arbizun *azilla* (Olasagarre 1990). B urundan *garagarri*. (Ond. 19; *garagarri*). “Junio”.
- Gaasti, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Garestia. *Garesti* (VIII, 375; G, AN, B). Urdiainen *gasti*. (Izag., 64; *garesti zonen* ‘estaba caro’). “Caro”.
- Gabi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Zurezko m ailu handia, l ihoa jo eta hariztatzeko. (VIII, 108; V, G, AN). (BB, 173; *gabiya* (-e)). (IHM 18, 30). “Mazo de madera para gol pear el l ino y deshilarlo”.
- Gail(d)ur** (Alts, Urd) (ikus **kaldor**)
- Gain** (Bur) (ikus **gein**)
- Gainbia** (Urd) (ikus **geinbera**)
- Gainez(ka) in** (Urd) (ikus **geñes ein**)
- Gainia** (Urd) (ikus **geña(a)**)
- Gaiyo** (Bur) (ikus **geyo(o)**)
- Gaizime/a** (Sak-erd) *iz.* Garizuma. *Garizima* (VIII, 384; V-m , G-nav, AN-gip-larr, B, S). Urdi ainen *garizuma*. “Cuaresma”.
- Gaizkitxo** (Urd) (ikus **ge(i)xxike**)
- Gaiztatu** (Urd) (ikus **geiztotu, zornatu**)
- Gala(a)zi** (Sak) *ad.* Galarazi, eragotzi. (VIII, 247; AN-ul z, B). *Apustube galaazi neyen zailtziek!* (Apustua galarazi nahian zabiltzak!). “Hacer perder, impedir”.
- Galalde** (Bak) (ikus **garialde**)
- Galanperna** (Lak) (ikus **a(l)parneka**)
- Galanta** (Sak) *izond.* Handi a, ugari a. (VIII, 245; V, G-azp-t o-nav). (BB, 174; *galan*). *Gezur galantak botatzen zittuk!* (Gezur galantak botatzen dizkik!). “Enorm e, grande, abundante”.
- Galaorde** (Arb) (ikus **galduborde**)
- Galar, -rra** (Etx, Lak, Urd) *iz.* Zuhaitzen adar lehorrak, ihartuak, barrua

- usteldua izaten dute gehienetan. (VIII, 247; AN-erro, BN ap. A; ... *VocBN* → Dv. <B ranche m orte d' un arbre, dont on fait des fagots> H). (BB, 174; *galarra*). *Galartxa* (< *galartza*) dugu Etxarrin etxe baten izena. “Rama seca de árbol”.
- Galarbele, -ie** (Etx) *iz.* Hegaztia. Galarretan ib iltzen d en b ele m ota. “Picatronicos negro”.
- Galartxori, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Gari soroetan egoten den t xoria. Arruazun *galtxoi*, Lakuntzan *galarreko txoi*, Unanun *erritxoiya*, Urdiainen *erliztxoi* eta Irañetan, Li zarragabengoan eta Arbizun *paatetxoiye/ya*. “Gorrión”.
- Galba(i)yo** (Bur) (ikus **kalbayo**)
- Galbana** (Sak) *iz.* Alferkeria, nagieria. (VIII, 252; V-arr-gip). “Pereza, galbana”.
- Galbandu** (Sak) *ad.* Alferkeria sartu. “Tener pereza”.
- Galbizer, -rra** (Etx) *iz.* Galbizar. Gari bizarrak. *Galbizar* (VIII, 254; G-t o). (Irib. *calpizar* Agoitz-Iruñerria-Erroibar, *cazpizarre* Lerga, *galpizar* Aiesa – Sad a - Gallipentzu-Eslaba-Urraul Goi en). (B B, 176; ‘t rigo de barbas largas’). “Barbas de la espiga del trigo”.
- Galburu, -be/-ba** (orok) *iz.* Galburua, gariaren burua, hitz konposaketan suertatzen den r/ l t xandaketa jasan duenari. (VIII, 254; V, G, AN). (BB, 176). “Espiga de trigo”.
- Galdegorde** (Lak) (ikus **galduborde**)
- Galdein** (Sak) *ad.* Galdegin. (VIII, 264; B, BN-erb, Ae; 266, AN-uz-erro, B, Ae). “Preguntar”.
- Galdeinzale, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Galdera egiten duena. (B B, 176; *galdintzale*). “El que pregunta, interrogador, preguntón”.
- Galdemodu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Galdera. (VIII, 268; AN-5vill, B). “Pregunta”
- Galdera** (orok) *iz.* Galdera. (VIII, 268; V-gip, G-azp , AN-g ip-5vill). “Pregunta”.
- Galdeska** (Sak-erd) *adond.* Galdezka, galdez, gal degiten. (VIII, 272; AN-gip). “Preguntando”.
- Galdetu** (orok) *ad.* Galdetu, ih ardetsi. (VIII, 270; G, AN-sept , L-côt e, B, BN-erb, Sal). “Preguntar”.
- Galdu** (orok) *ad.* 1. Galdu. (Izag, 63; ‘extraviarse’). “Perder”. 2. Ahuldu. *Geitzek oso galduik utzi zeen!* (Gaitzak oso gal durik ut zi zuen!). “Desmejorar, debilitar”.
- Galduborde, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* 1. Ganora, fundam entua. *Galdu-gorde* (VIII, 283-4; AN-l arr; ‘pérdi das y ganancias’). Lakuntzan *galdegorde*. Lizarragabengoan *galdoorde*. *Eztikobiek oik batee galdubordeik!* (Ez zeukatek hori ek bat ere galduborderik!). *Galdugorde* ere entzun daiteke eta Arbizun *galaordia*. “Fundamento”. 2. Gogoa, zori a. *Galduborde txarra!* “Gana, ventura”.
- Galdubordebeko, -ue** (Etx) *izond.* Ganorarik ez duena, ganora gabeko. Arruazun *galdugordegabia*, Lakuntzan *galdegordeibeiko*. “Sin fundamento”.
- Galeper** (Arb) (ikus **eper**)
- Galga** (Etx, Lak) 1. *iz.* Galga, balazta, gurdia. (VIII, 291; V-gi p, AN-larr, B). (Irib. Erribera). “Freno del carro”. 2. **-tu** *ad.* Galgatu, balaztatu. “Frenar”.
- Galgarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Hondatzaile, barra-barra gastatzen duena. (VIII, 292; ‘pernicioso para’, ‘vicio’). “Derrochador”.
- Galigurei, -ye** (Etx) *iz.* Galondoetako zaintzailea. (B B, 176; *galirugei*). “Guarda de las rastrojeras”.
- Galmotz, -a** (Etx) *iz.* Izpi edo bi zarririk gabeko gal burua, *gari + motz* direlarik bere osagaiak. (VIII, 381; V-

- gip, AN, G). “Espiga de trigo sin barbas”.
- Galtierro, -ue** (Etx) *izond.* Etxekolanak edo, besterik gabe, egin beharrik ahazturik, beti taberna zuloan dagoenari esatzen zaioten. Etzekalte. *Galtiar* (VIII, 300; <L, perdant, qui est en perte>). *Guai dee or ago taberna zuluena sartuik, galtierro lazkarriyo!* (Orain ere hor hago taberna zuloan sarturik, galtierro nazkagarri hori!). “Perdedor, “pierdecasas”, persona dada a la vagancia”.
- Galtzarrotx, -a** (Sak-erd) *iz.* Orratz luzea, punta egiteko. (VIII, 310; BN-baig). Lizarragabangoan *galtzarrotx*. Metatesiduna dugu burutzapena, *galtz* eta *orratz* baititugu osagaiak. Urdiainen *galtzarrotz*. “Aguja larga para hacer punto”.
- Galtxoi** (Arr) (ikus **galartxori**)
- Galtz, -a** (Etx) *iz.* Galtzerdia. (VIII, 301; G, L, BN, S). (BB, 176; ‘medias’). “Caletín, media”.
- Galtzada** (orok) *iz.* Galtzada, bide nagusia. (VIII, G-nav, L, BN). (Ond. 9). “Calzada”.
- Galtzagorri** (Etx, Urd) *iz.* Izen nagusia. Garai batean haurrak izutu eta gauez kalean ez ibiltzeko erabiltzen zuten pertsonaiaren izena. Haurrak bahitu, hiletan gantzak edo ‘mantekak’ kentzen omen zizkien. (VIII, 304; Gbet, L, BN). (BB, 176; ‘duendes, diablos’). (Ond. 9; *galtzagorri*: hierba de tallo rojo). “Persona que se retirara a casa al anochecer”.
- Galtzaluze, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Galtzaluzea, prakamotza. (VIII, 303). “Pantalón largo”.
- Galtzamotx, -a** (Sak) *iz.* Galtzamotza, prakamotza. (VIII, 303). (Irib. *galtzamoch* Zaraitzu). *Mutikoa! Guaño galtzamotxetan ibiltzen yeiz?* (Mutikoa! Oraino galtzamotzetan ibiltzen haiz?). “Pantalón corto”.
- Galtzarpe** (Alts, Urd) (ikus **besape**)
- Galtzasoki, -ye** (Etx) *iz.* Galtzaria. Dorraon *galtzasoka*. “Liga”.
- Galtzaundi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Gibelandi, larritzen ez dena. (VIII, 307). “Calzonazos”.
- Galtzeiru, -be** (Sak) *iz.* Altzairu. *Galtzairu* (I, 837; V-otx, G, AN, L). Uhartean *eltzeru*. Burundan *galtzairu*. *Ekar zazkik galtzeirusko iltziek!* (Ekar ezazkik altzairuzko iltzeak!). “Acero”.
- Galtzetin, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Galtzerdia. (VIII, 309; V-gip, Gbet). “Caletín”.
- Galtzin, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Karea, galtzina. (VIII, 309; AN-araq-egüés-iltzarb-olza). Burundan *kare*. “Cal”.
- Galtzinlabe, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Basoan garai batean galtzina egiteko labe tokiak, toponimian izan dute. (VIII, 310; G-nav). Burundan *karelabe*. “Calera en el monte, horno de cal”.
- Galtzarrotz** (Urd) (ikus **galtzarrotx**)
- Galuze, -ie** (Etx) *iz.* Izpi edo bi zardun galburua, gari arruntaren bidez burutzapenak entzun daitezke zenbaiten ahotan: *gal-luze*. *Galmotzez* bereizteko erabiltzen da. “Espiga de trigo común, con barbas”.
- Ganado, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Ganadua. (VIII, 312; AN-iltzarb). Urdiainen *ganau*. “Ganado”.
- Ganbaatxo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Ganbara, lastategia. *Ganbaratxoa* (VIII, 317; AN-araq). Arbi zun goiko ganbarari esaten zaio horrela. Urdiainen *ganbatxiki* eta *tximuganbara*. “Pajar, desván”.
- Ganbara** (Sak-erd) *iz.* Etxearen lehen solairua. “Primera planta de la casa”.
- Ganbatxiki** (Urd) (ikus **ganbaatxo**)
- Ganbazelei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Ganbara, etxearen lehen solairuko zelaita, logeletara ematen duena. Bertan

- kutxak egot en di ra et a artaporkak zintzilikaturik. Burundan *ganbazelai*. (Ond. 9; *ganbazelai*: parte no ocupada con habitaciones en una casa). (Irib. *gambara* Leitza-Larraun-Erdialdea-Erronkari). “Rellano y pasillo del primer piso de las casas, que da a las alcobas, distribuidor”.
- Ganbela** (Sak) *iz.* 1. Ganbela, an ima-liei iluiluan janaria b o-tatzen to kia, gehienetan zurezkoa. (VIII, 317; V, G, AN-larr-egüés-erro, B, Ae). (Irib. *gambella* Erreka-Yerri-Erdialdea – Otsagi – Aibar - Erribera). (Izag. 63). “Pe-sebre”. 2. Aska, ani maliak ura edateko t okia, gehi enetan harri zkoa edo zementozkoa. (B B, 176). “Abrevadero”.
- Ganbiyetu** (Sak-erd) *ad.* Kanbiatu, aldatu. *Ganbiatu* (X, 372; V-gip). “Cambiar”.
- Ganbiyo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Ganbioa. *Ganbio* (X, 373; V-gip). “Cambio”.
- Ganboiko, -ue/-ua** (Etx, Li zgb, Lak) *iz.* Lastategi, ganbara. (VIII, 318; AN-araq). Etxeetako teilatu azpiko solairua. ‘Ganbara’ + ‘goiko’-tik dator. Urdiainen *goikoganbara*. (Ond. 10; *goiko-ganbara*). (Izag., 80; *safai* ‘el lo cal m ás alto de la casa’). Ergoienan *pastarda* esaten diote, eta Arbizun *ganbaatxo*. Uhartan eta Irañetan, berri z, *safai*, eta Urritzolan *safai*. “Desván”.
- Gandor** (Urd) (ikus **kaldor**)
- Ganga** (Etx) *iz.* Est eban M undiñano etxarriarrak di onez, ai zkoraren begi a izango litzateke. (VIII, 320; ‘filo de instrumento cortante’). “Agujero del hacha para enmangar”.
- Gantxo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Garatxa. *Garitxa* (VIII, 383; V-m, AN-erro, Ae, Sal). Seguru aski, *garau* + *-txo* dira bere osagai ak. Arruazun *karetxa* eta Lakuntzan *krantxo*. Hasierako herskari ahoskabedunarekin ere entzuten da: *kantxo*. Burundan *garitxo*. (Izag., 64; *garitxo*). “Verruga”.
- Gantz, -a** (orok) *iz.* Gantza, ganaduaren ‘manteka’. (VIII, 326; V-ger-m -gip, G, AN-larr-araq-erro-ulz-egüés-ilzarb-olza, B, BN, Sal, S). “Grasa animal, manteca en rama”.
- Gar, -rra** (orok) *iz.* Garra. (VIII, 331; V, G-azp-nav, AN-ulz-ilzarb-olza, B, BN, Ae, Sal, S, R). (Izag., 64; *gar gutxi* ‘poca llama’). “Llama”.
- Garagarril** (Bur) (ikus **ga(r)agarzaro**)
- Garba** (Sak-erd) 1. *iz.* Lihoa jo eta leuntzeko ohol iltzeduna. (VIII, 355-6; G, AN-larr-erro, L-ain, B, BN, S). (BB, 177; *garbaza*). “Tabla con púas para domar y ablandar (majar) el lino, agramadera”. 2. *ad. -tu ad.* Lihoa jo eta leundu. (VIII, 358; V). “Domar y ablandar el lino”.
- Garbi, -ye/-ya** (orok) 1. *izond.* Garbi. “Limpio”. 2. *adond.* Argi, begi bistan. (VIII, 361; V-gip, G-azp-goi). “Claro, limpiamente”.
-*ARGI TA GARBI*: *esam.* Argi, oso garbi. “Claramente”.
- Garbieratu** (Etx) *ad.* Erotu, zoratu, burua nahastu, galderak eginez esaterako. *Garbieratuik ziillek azkenontan!* (Garbieraturik zebilek azken honetan!). “Enloquecer, andar revuelto, enredar”.
- Garbittu** (Sak) *ad.* 1. Garbitu. Burundan palatalizatu gabe. “Limpiar”. 2. Hil. (VIII, 370-1; V, G, AN-gip, L, B). “Matar”.
- Garbizale, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Garbitzailea. “Limpiador, lavador”.
- Garei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Garaia, ordua. *Garai* (VIII, 340; V-gip, G, AN-gip-larr-5vill-ulz-erro, B). Burundan diptongoko bokal erdi a irekirik. *Noiznei dee, badek gareye etortzeko!* (Noiznahi ere, baduk garai a etortzeko!). “Tiempo, hora de”.
- Gareis** (Sak-erd) *adond.* Garaiz. *Ez pazarie gareis etortzen, meipeti pixtu*

- einko duuzubiegu!* (Ez bazarete garaiz etortzen, m ahaipek t xistu egi ngo dizuegu!). “A tiempo”
- Gareisenti** (Arr) (ikus **argisenti**)
- Gari, -ye/-ya** (orok) *iz.* Garia. (VIII, 378; V, G, AN-larr-egüés-erro-ilzarb-olza, L-côte, Ae, Sal, R). “Trigo”.
-**GARI-MONTON**: *iz.* Gari-meta. *Gari montonan geñen doon txoriyaan penik ez tik sekule urai ber!* (Gari montonaren gainean dagoen txoriaren penarik ez di k sekul a eduki behar!). “Montón de trigo”.
- Garialde, -ie** (Etx) *iz.* Gari soroak dauden eremua. Urdiainen *garisoro*. (Ond. 9; *galalde*: el conjunto de campos donde se ha sembrado trigo y cereal es. Se o pone a *artalde*). “Lugar de trigales”.
- Gariforrei, -ye** (Etx) *iz.* Garia jorratzeko aitzur txikia, kirten luzeduna. “Apero para escardar el trigo”.
- Garikolore, -ie** (Etx) *izond.* Kolore marroi horixka, ani ma-liak deskri batzeko erabiltzen dena. “C olor pardo am arillento u tilizado en la d escripción d el ganado”.
- Garikunde, -ie** (Etx) *iz.* Inauterietako eguna, hirugarren ost eguna, gazt eek borrokatzeko eguna. (B B, 177). “Dí a de carnaval”.
- Garil, -lle/-lla** (Sak) *iz.* Garila, uztaila. (VIII, 383; V-gi p, G-nav, AN-ol za-egüés, Ae, Sal, R). Arbizun *jorrailla, uztaila* (Olasagarre 1990). (Ond. 19; *garil*). “Julio”.
- Garisoro** (Urd) (ikus **garialde**)
- Garitxo** (Bur) (ikus **gantxo**).
- Garitza** (Etx) *iz.* Garitza, gari soroa. *Garitza* (VIII, 384; V, G, AN). “Trigal”.
- Garraskeru, -be** (Etx) *iz.* Janaria lapikoan itsastearen ondori oa. ‘Garrat z-keru’a, errekerua. “Sabor a quemado”.
- Garraspera** (Etx) *iz.* Eztarrian traba sentitzen denean. *Garraspera* (VIII, 401). “Carraspera”.
- Garrastu** (Etx) *ad.* Garrastu, janaria lapikoan edo zart aginean i tsasi eta erre usaina hart u. “C oger l a com ida sabor a quemado”.
- Garraton, -a** (Sak-erd) *iz.* Ohearen bi aldeetako egur luzea. Arbizun *karratona*. “Tab las laterales d e la cama”.
- Garraxi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Garrasi. (VIII, 395; V-gip, G-nav). B urundan palatalizatu gabe: *garrasi*. “Grito”.
- Garretu, -be** (Lak) *iz.* Lapikoan i tsatsita geratzen den janaria, erre egin delako. “Comida que se ha quem ado y se ha quedado pegada en la cazuela”.
- Gartsu** (Urd) (ikus **garzu**)
- Gartzel, -a** (orok) *iz.* Kartzela, espetxea. (X, 481). Irañetan *karzela*. “Cárcel”.
- Garzu, -be/-ba** (Sak-erd) *izond.* Gartsu. Urdiainen *gartsu*. “Fuego de grandes llamas”.
- Gastatu** (orok) *ad.* Gastatu. (VIII, 411). “Gastar”.
- Gastu, -be/-ba** (orok) *iz.* Gastua. (VIII, 412; V-gip, G-azp). “Gasto”.
- Gate/a** (Bur) (ikus **kate**)
- Gatzakoi** (Ir) (ikus **gatzai**)
- Gatz, -a** (orok) *iz.* Gatza. “Sal”.
-**GATZ-LARRI**: *iz.* gatz lodia. (VIII, 418; V-gi p, G-azp, AN-gi p). (BB, 180; *gatzalariye*). “Sal gorda”.
-**GATZA EMAN**: *ad.* Gatza em an. (VIII, 418; V-arr, G-azp-nav, AN-5vill, BN-arb). (Izag., 64). “Salar”.
- Gatzai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Gatzagia, esnea gatzatzekoa. (VIII, 419; V-gip, G-nav). Unanun *gatzikoya*. Irañetan *gatzakoye*. Urdi ainen *gatzoki*. (Ond. 9; *gatzagi ... Axuiak esenia yan ta dijitu ondorien, gatzagiya. Onekin gatzaya ta iten dia*). (Izag. 64, *gatzaiya*). “Cuajo”.
- Gatzi** (Urd) (ikus **gazi**)
- Gatzikoi** (Un) (ikus **gatzai**)
- Gatzoki** (Urd) (ikus **gatzai**)
- Gatzontzi, -ye/-ya** (orok) *iz.* Gatzontzia. (VIII, 421). (Izag. 64). “Salero”.

- Gau, -be/-ba** (orok) *iz.* Gau. *Ataunen eta Zegaman, egunes ikusi ta gaubes yaman!* Arbizun *gouba*. “Noche”.
-GAUBERO: *adond.* Gauero. (VIII, 433; V-arr-arri g, G-goi -to, AN-araq-erro, L-sar). “Cada noche, t odas l as noches”.
- Gauatza** (Urd) (ikus **gaubetze**)
- Gaubeinare** (Bak) (ikus **iñerexagu**)
- Gaubeko iñere** (Un) (ikus **iñerexagu**)
- Gaubetze, -ie** (Etx) *iz.* Iluntzeko ordua. Urdiainen *gauatza*. *Au dek gaubetzie doona!* (Hau duk gauetzea dagoena!). “Punto de oscuro”.
- Gaubon (pasa)** (Sak) *esam.* Gau on!. (Izag., 64). *Gaubon pasa!* –*Igualmente!* “Buenas noches”.
- Gauerd, -ye/-ya** (orok) *iz.* Gaueko hamabiak inguruko momentua. (VIII, 431; V, G, AN, L, B N, Ae). “Medianoche”.
- Gauetzi, -ye, (gauezitxes)** (Etx) *iz.* Ganadua gauez basoko hesi ra botatzearen ekintza, soroetan sar ez dadin. *Gauesi* (VIII, 433; G-goi ; ‘Recinto en el que a falta de cobertizo pernocta el ganado’. ‘Cercado de setos más extenso que *eskortea* y que sirve ordi nariamente para proteger el rebaño durante la noche de l os lobos, raposos y otras fieras peligrosas’). “Acción de echar el ganado al cerrado del monte de noche”.
- Gauinara** (Urd) (ikus **iñerexagu**)
- Gauñere** (Arr) (ikus **iñerexagu**)
- Gaup** (Urd) (ikus **epats**)
- Gaur** (orok) *adond.* Gaur. (VIII, 434; V, G, AN, L, BN-lab-baig, R). Arbizun *gour* (Olasagarre, 1990). “Hoy”.
-GAURKO: *izlg.* Garaian garai koa. *Gaurko egunien eziñeskue dek ik esaten dekena!* (Gaurko egunean ezinezkoa duk hi k esaten duana!). “Actual”.
- Gautxori, -ye/-ya** (Sak) *I. iz.* Hegaztia. (VIII, 442). *Caprimulgus europeus*. “Chotacabras”. *2. izond.* Gauez
- ibiltzea gustatzen zaionari esaten zaio. “Noctámbulo”.
- Gauxirrin** (Ir) (ikus **iñerexagu**)
- Gauz, -e/-a** (Sak-erd) *iz.* Gauza. Urdiainen –a berezkoduna dut e burutzapena: *gauza, -ia*. *Azkeneko astiontan ezta ezertaako gauze!* (Azkeneko aste honetan ez da ezertarako gauza!). “Cosa”.
- Gauze/a izen** (Sak) *ad.* Zerbeitetarako balio izan, gai izan. (VIII, 444; V-m-gip, G, AN, B, L, BN-baig). (Ond. 9; *gauza izan*). “Servir para, ser capaz de”.
- Gazi, -ye/-ya** (orok) *I. izond.* Gazia. Urdiainen t xistukaria afrikaturik: *gatz*. *Oso gaziye atia zikiek eltzekue!* (Oso gazia atera zaidak eltzekoa!). “Salado”. *2. ad. -ttu* (Sak-erd) *ad.* Gazitu. *Lenoo pernillek eta brazueluek bañeran jartzen ittuben gazitzen!* (Lehenago pernilak eta brazueloak baineran jartzen hituen gazitzen!). “Salar”.
- Gazmor, -rra** (Etx) *izond.* Gatzun, oso gazia, gauza gaziak botatzen duten ura. ‘Salmuera’-tik seguru aski. *Gazmorra* (VIII, 451; R-uzt ; ‘m uy salado’). Urdi ainen *salmor*. (Irib. *salmorra, salmuerra* Erribera-Iruña-Iruñeria-Lizarralde). “Salm uera, muy salado”.
- Gazta** (orok) *iz.* Ardi, ahunt z edo behi esneaz egiten den janaria. (VIII, 451; G, AN, Sal, R). B urundan *gaztai*. “Queso”.
- Gaztai** (Bur) (ikus **gazta**)
- Gaztai beatu** (Bur) (ikus **gaztazar**)
- Gaztainaldi** (Bak) (ikus **gazteindei**)
- Gaztanbera** (Sak) Gaztanbera, m amia. (VIII, 456; V, G, AN-larr-5vill-ulz-erro, B, BN, Ae, Sal). (Irib. Erreka). (Izag. 64). “Cuajada”.
- Gaztazar, -rra** (Sak-erd) *iz.* Gazta zaharra edo m ina. *Gazta zahar* (VIII, 452; AN-ulz). (B B, 180). Bakaikun eta Urdiainen *gaztai beatuba*. *Gaztazar*

- ardune izeten dek obena!* (Gaztazahar harduna i zaten duk hoberena!). “Queso viejo”.
- Gazte, -ie/-ia** (orok) *1. izond.* Gazte. *Gazte jendiek eztikik ze nei deen gaur egunien!* (Gazte jendeak ez zekik zer nahi duen gaur egunean!). “Joven”. 2. *-tu ad.* Gaztetu. “Rejuvenecer”.
- Gaztein, -ñe/-ña** (orok) *iz.* Gaztaina, gaztainondoa. *Gazteina* (VIII, 452; L-arcang, BN-mix, S). Urdi ainen *gaztina*. (Izag., 64; *gaztain*). *Gazteñek obekiina zartanien eitten die!* (Gaztainak hobekiena zartzazean egiten dira!). “Castaña, castaño”.
- Gazteindei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Gaztaindegia. *Gaztendei* (VIII, 456). Toponimian bi zirrik di tugu oraindik Etxarri-Aranatzen: *Mateoon gazteindeye*. Urdiainen *gaztinaldi*. (Ond. 9; *gaztainaldi*). “Castañal”.
- Gaztela** (Sak) *iz.* Araba aldetik jotzen duen haizea. *Gaztela-haize* (VIII, 461). *Gaztelaize* ere esaten zaio. (BB, 180). Urdi ainen *gatzala*. (Ond. 10; *gatzelaize: arabaize*). (Irib. *gatzelaice* Baztan). *Aizie aldatu dik, guai gatzelak jotzen dik!* (Haizea aldatu dik, orain gatzelak jotzen dik!). “Viento castellano”.
- Gaztelu, -be/-ba** (orok) *iz.* Gaztelua. (BB, 180). “Castillo”.
- Gazteñondo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Gaztainondoa, zuhai tza. *Gaztainondo* (VIII, 455; V, G, AN, L). *Lau gazteñondo eder zizkobau etxe atzekaldien!* (Lau gazt ainondo eder zeuzkaguk etxe atzealdean!). “Castaño”.
- Gaztetasun, -e/a** (orok) *iz.* Gaztetasuna. (VIII, 464; V, G, AN, L). “Juventud”.
- Gaztietu** (Etx, Un) *ad.* Abisatu, gaztigatu. (VIII, 466; B). *Beste auzokuek ezittunau gatzietu guaño!* (Beste hauzokoak ez ditinagu gatzigatu oraino!). “Abisar, notificar, hacer saber”.
- Gaztina** (Urd) (ikus **gaztein**)
- Gaztinaldi** (Urd) (ikus **gazteindei**)
- Gazure/a** (Sak) *iz.* Gazura. (VIII, 468; AN-olza). (Irib. Iruñerria). (Izag. 64). “Suero de la leche”.
- Geen, -a** (Sak-erd) *izond.* Geure. *Geren* (VIII, 508; G-t o, B). Burundan *giaure*. *Geen kotxien fan bier izendu yau!* (Geure kotxean joan behar izan diagu!). “La nuestra (misma)”.
- Gei, -ye** (Etx) *iz.* Gaia, zerb ait eg iteko materia. (VIII, 114; V-arc; ‘gei es variante que se encuentra en autores suletinos y, a veces, vizcaínos y bajonavarros’). (B B, 180; ‘cantidad, materia’). *Erreza dek ori eittie, geye urai eskios!* (Erraza duk hori egitea, gaia eduki z gero!). “M ateria, material”.
- Gein, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Gaina. (VIII, 127; BN-lab). Burundan *gain*. “Cima, parte alta”.
-*GEÑE/A ARTU*: *ad.per.* Gaina hartu, pasatu, m enderatu. “Pasar (en una competición), superar”.
-*GEÑAA ITZOO*: *ad.* Gainera igo. Urdiainen *gainia iyo*. “Subir(se)”.
-*GEÑAA ETORRI*: *ad.* Gainera etorri. Urdiainen *gainia etorri*. “Venir(se) encima, caer(le) encima”.
- Geinbera** (Sak-erd) *iz.* Gainbehera. *Gainbera* (VIII, 155; V-gi p). Urdiainen *gainbia*. *Emendi aurria dena geinbera dek!* (Hemendik aurrera dena gai nbehera duk!). “Cuesta abajo”.
- Geitz, -el/-a** (Sak-erd) *iz.* Gaixotasuna, mina. *Gaitz* (VIII, 177). Burundan *gaitz*. *Esnionek ezin duuk geitzik ein!* (Esne honek ezi n di k gaitzik egin!). *Artzei guziek yaten debie gazeure!* (Artzain guztiek edaten dute gazura!). “Daño, mal, enfermedad”.
- Geitzai** (Arb) (ikus **geitzau**)
- Geitzau, -be/-ba** (Sak) *iz.* Bo lumen neurria, *amute* eta *erriau*-aren artekoa. *Gaitzeru* (VIII, 191; G-goi-

- to-bet-nav, AN-ulz, L, BN). Lau *amute-k* osatzen dute *geitzau-a*. Arbizun *geitzai*. Dorraon *geitzeruba*. (BB, 181). “Unidad de volúmen”.
- Geitzeru** (Do) (ikus **geitzau**)
- Ge(i)xxkixe/a** (Etx, Li zgb, Lak) *adond*. Ederki, pri meran, oso era egokian. Berezko esanahi aren kontrakoa ematen zaio: *gaizki* + *-xe*. *Gaizkixe* (VIII, 223; ‘t an ricamente <con sentido i rónico>). Urdiainen *gaizkitxo*. *Ge(i)xxkixe ai zarie pasatzen ude!* (Gaizkixe ari zarete pasatzen uda!). “B ien, fenom enalmente, t an ricamente (con sentido irónico)”.
- Geixo, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond*. Gizarajo. Burundan *gaixo*. (VIII, 200). “Pobrecillo, infeliz, desdichado”.
- Ge(i)zki** (Sak-erd) *I. adond*. Gaizki. (VIII, 208; V-gip). Burundan *gaizki*. *Geizki yoteko obe etxien gelditzie!* (Gaizki egoteko hobe etxean gelditzea!). Irañetan beti *gezki*. “Mal”.
- GEIZKI ESAN*: *ad*. zurrum urruka, marmarka aritu. (BB, 174; *gaizkiesan*, *geizkiesan*). (Izag., 63; *gaizki esana* ‘la maledicencia’). “Murmurar”.
- GEIZKIAZIYE/A*: *izond*. Gaizki hazia. (Izag., 63; *gaizki aziya* ‘el mal educado’). Urdi ainen *gaizkizia*. “Maleducado”.
- GEIZKIANTZIEN*: *adond*. Gaixo antzean. *Gaixo-antz* (VIII, 203; ‘aspecto de enfermo’). “Con la salud a medias, medio enfermo”.
2. *-ye/-ya izond*. Gaixo. “Enfermo”.
- Ge(i)zkittu** (Sak-erd) *ad*. Gaizkitu, gaisotu. *Gaizkitu* (VIII, 222; G, AN-gip). B urundan pal atalizatu gabe. “Enfermar”.
- Geitzenkei, -ye** (Etx) *iz*. Gaiztokeria. *Gaiztankei* (VIII, 227; G-nav). (BB, 181; *geiztankeiririk* ‘demencial’). Urdiainen *gaiztankei*. *Ezakela ein geitzenkei geyoo!* (Ez ezak(ela) egin gaiztankeia gehi ago!). “Maldad, acción mala”.
- Geizto, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond*. Gaizto. (VIII, 230; V-ger-ple-arr-oro-gip). (BB, 181). Burundan *gaizto*. “Malo”.
- Geiztokei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz*. Gaiztokeria. *Gaiztokeria* (VIII, 227; V, S). (BB, 181). “Maldad, trastada”.
- Geiztotu** (Sak-erd) *ad. 1.* Gaiztotu, gaizto bihurtu. *Gaiztatu* (VIII, 229; G-to, AN-gip-5vill, L-sar, BN-b aig). Urdiainen *gaiztatu*. “Hacerse m alo, empeorar”. *2.* Zauri bat ek okerrera joten duenean, infektatu. “Infectar una herida”.
- Geldi** (orok) *adond*. Geldi. (VIII, 493; V, G, AN, L, BN). *Lanortan geldi ibilleskios geyoo enanzatzen dek!* (Lan h orretan g eldi ib iliz gero gehiago enanzatzen duk!). “Despacio”.
- Geldiazi** (Sak-erd) *ad*. Geldiarazi. (VIII, 496; G-azp). *Eskerrak etxien geldiazi ziebabien, bestela ni dee gartzelan nengoban!* (Eskerrak etxean geldiarazi zidaaten, bestela ni ere gartzelan nengoan!). “Hacer parar”.
- Geldittu** (Sak-erd) *ad*. Gelditu. *Gelditu* (VIII, 499; V, G, AN, B, L, BN). *Geldiri lenbeilen!* (Geldi hadi l ehen bailehen!). “Parar, estarse quieto”.
- Geldur** (Bak) (ikus **kaldor**)
- Gendu** (Etx) (ikus **jendu**)
- Geña(a)** (Sak-erd) *junt*. Gainera. Hauxe izan da bere bi lakabidea: *gainera* > *gaiñera* > *geiñera* > *geñera* > *geñea* > *geña* > *geña(a)*. Urdiainen *gainia*. *Ik eztek diruik jarri, geña!* (Hik ez duk dirurik jarri, gai nera!). “Además”.
- Geñako, -ue/-ua** (Sak-erd) *izlg*. Gainerakoa. *Gainerako* (VIII, 165; V-gip, AN-egüés-i lzarb, B N,). Urdiainen *gainekua*. *Au neetako, ta geñaako guzie zuendako!* Hau niretako, et a gainerako guztia zuendako!). “Lo demás”.
- GEÑAKUEN*: *part*. Gainerakoan. “Por lo demás”.

- Geñartu** (Etx) *ad.* Gaina hartu. *Gaiñartu* (VIII, 144; G, BN-baig, R). Urdiainen *gainartu*. “Dominar, someter”.
- Geñeko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* 1. Gaineko, esnegaina. “Nata de la leche”. 2. Nagusia, goikoa. *Gaineko* (VIII, 146; V-gip). *Oik guu geñekuek ttuk!* (Horiek gure gai nekoak di tuk!). “Superior, que está por encima”.
- Geñes ein** (Sak-erd) *ad.* Gainezka egin. *Gainez egin* (VIII, 152). Urdiainen *gainez(ka) in. Gaur esniek geñes ein dau!* (Gaur esneak gainez egin du!). “Desbordar(se)”.
- Geñu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Keinua. *Keinu* (X, 535; AN-erro, L, B N). Burundan *keinu*. “Seña, mueca, amago”.
- Gernubelar, -rra** (Etx) *iz.* Gernuko mina sendatzeko bel arra. (VIII, 518; AN-larr). (Irib. Larraun). “Hierba para curar la afección de próstata”.
- Gernujariyo, -ue** (Etx) *iz.* Txixa jarioa. *Gernu-jario* (VIII, 518; ‘pol yurie’). “Incontinencia”.
- Gernumin, -ñe** (Etx) *iz.* Prostatako mina. “Afección de próstata”.
- Gero** (orok) *adond.* Gero, beranduago. *Gio* ere erabiltzen da. (BB, 181; *gero, geo, gio*). “Después”.
-*GERO TA ... -OO: part.* Gero eta ... -ago. *Gio ta ...* ere erabiltzen da. “Después y más/menos ...”.
-*GERUEN DA ... -OO: part.* Geroan eta ... -ago. *Geruen da gutxiyoo agertzen zarie soziedadien!* (Geroan eta gutxiago agertzen zarete soziedadean!). “Cada vez y más/menos...”.
- Geros** (Sak-erd) *adond.* Geroz, ondoren, handik aurrera. *Eyet ezee jakin beegandi geros!* (Ez diat ezer ere jakin beregandi k geroz!). “Con posterioridad, después, a partir de”.
- Gerra** (orok) *iz.* Gerra, gerla. (VIII, 535; V-gip, G-azp). “Guerra”.
- Gerri, -ye/-ya** (orok) *iz.* Gerri. (VIII, 539; V-ger-ple-och-m-gip, G, AN-m er, L, BN, S). “Cintura”.
- Gerribeko, -ue** (Etx) *izond.* Pertsona txikia, ia ezer ez dena. “Persona pequeña, poca cosa”.
- Gerrietu** (Sak-erd) 1. *ad.* Lurra m ugitu maldan behera. *Gerriratu* (VIII, 542; ‘arregazar, azitu, magalak gerriratu’). (Ond. 11; *irrietu*). “Desprender-se la tierra”. 2. -**be/-ba** *iz.* Lur m ugitua. (Izag., 73; *lur narratuba* ‘el corrimiento de la tierra’). “Corrimiento de tierra”.
- Gerrijario** (Etx) *izond.* Arropak nolnani heramaten dituen pertsona. *Gerrijario baldarrio!* “Desastrado en el vestir, que lleva la camisa por fuera”.
- Gerrikomín, -ñe/-ña** (Sak) *iz.* Gerriko mina. (VIII, 540; V-gip). “Lumbago”.
- Gerriku** (Alts) (ikus **ubela**)
- Gertau** (Alts) (ikus **gertatu**)
- Gertatu** (orok) *ad.* Gertatu, jazo. (VIII, 548; V-gip, G, AN, B, Sal, R). (Izag., 64; *gertau*). “Suceder”.
- Gertu** (orok) *adond.* Hurbil. (VIII, 551; V-gip, G; ‘*gertúbo báloó ... Iz Als*’). “Cerca”.
- Gertuetu** (Etx, Urd) *ad.* Gerturatu, hurbildu. *Gerturatu* (VIII, 553; G). Urdiainen *gertuatu*. “Acercar(se)”.
- Geruo** (Sak) *adond.* Geroago. *Geroago* (VIII, 521; V-ger-arr-gi p, G-azp-goi, AN-gip). “Más tarde”.
- Gesal, -a** (Sak) *iz.* Elurra beratzen hasten denean, ia urtua. (VIII, 554; AN-larr-erro, B, L-ai n, B N, R). (BB, 181; ‘*aguanieve, carne que em pieza a descomponerse, terreno resbaladizo*’). “Nieve rebl andecida, m edio derretida”.
- Gesaldu** (Sak) *ad.* Elurra beratzen hasi. (VIII, 554; G, AN, L, BN). (BB, 181; ‘*ablandarse*’). “Reblandecer la nieve”.
- Geyau** (Erg) (ikus **geyoo**)
- Geyei** (Sak) *zenb.* Gehiegi. *Gehiegi* (VIII, 476; V, G, AN). “Demasiado”.

- GEYEIKUE/A*: *izlg.* Gehiegizkoa. “Demasiado”.
- Geyeitzi** (Etx) *ad.* Gehiegi iritzi, txunditu. *Geyeitzik nakazubie aspaldiyen!* (Gehiegi iritzirik n aukazue aspaldian!). “Abrum ar, parecer demasiado”.
- Geyen, -a** (Sak) *1. zenb.* Gehiena. “El que más”. *2. adond.* Gehien. *Gehien* (VIII, 479; G-azp, AN-gip-5vill, BN-arb). “La m ayor parte”. *3. izlg.* Gehien. (VIII, 480; V-arr, G-goi-azp, AN-gip-5vill, BN-arb). “La mayoría de”.
- GEYENBAT*: *adond.* Batez ere, batik bat. *Jendie bein edadiatia allaatuskios, geyenbat kuzkurtu eitten dek!* (Jendea behin edade batera ailegatuz gero, gehi enbat uzkurtu egiten duk!). “M ayormente, por l o general”.
- GEYENBATIEN*: *adond.* Ia bet i, gehienetan, gehienbatean. “Casi siempre, mayoritariamente”.
- Geyentziyes** (Etx) *adond.* Ugari, gehi egi. *Geyentziyes zizkobet janda!* (Gehientziaz zeuzkaat janda!). “En demasia, en exceso”.
- Geyo(o)** (Sak-erd) *adond.* Gehiago. *Gehigo* (VIII, 470; G-to-nav, AN-larr-5vill-ulz, BN-b ard-ad, -ii- AN-araq). Ergoienan *geyau* eta Burundan *gaiyo*. “Más”.
- Geyokobe(e)** (Sak-erd) *part.* Gehiagoko gabe. Ergoi enan *geyokobai* eta Urdiainen *gaiyokoipe*. “Sin más”.
- Geza** (Alts, Lak) (ikus **motel**)
- Gezka** (Etx) (ikus **kezka**)
- Gezki** (Ir) (ikus **geizki**)
- Gezur, -rre/-rra** (orok) *iz.* Gezurra. (VIII, 561; G, AN, L, BN, S, R). *Orrek gezurre egiyaan kolorien botatzen dik!* (Horrek gezurra egiaren kolorean botatzen dik!). “Mentira”.
- GEZURRE ESAN (BOTA)*: *ad.* Gezurra esan (bota). “Mentir”.
- GEZURRITTURRI*: (Etx) *izond.* Oso gezurtia den pertsonari esaten zaio.
- Gezurriturriya* (VIII, 563; ‘el manantial que brota en día de lluvia y luego se seca’). Garai bat eko etxarriar baten goitizena. “Mentiroso por antonomasia”.
- GEZURZULO*: (Etx) *izond.* Aurrekoaren ant zekoa. (VIII, 566). “Mentiroso, embustero”.
- GEZURRE ZUTI*: (Etx) *esam.* Norbaitek gezurra oso agerian botatzen duenean erabiltzen den esamoldea. “Ex presión utilizada cuando se miente descaradamente”.
- GEZURRE EGIYAAN KOLORIEN BOTA*: (Etx) *esam.* Gezurra egiaren kolorean bot a! Gezurra nabarm ena izanik ere, zenbaitek, lasai asko, egi balitz bezala esaten duenean erabiltzen da esaera hauxe. Gezurti porrokatuak egiten di tu horrel akoak. “Mentir descaradamente”
- Gezurti, -ye/-ya** (orok) *izond.* Gezurria. (VIII, 568; G, AN, L, BN, S, R). “Mentiroso”.
- Giauk** (Bur) (ikus **giok**)
- Giaure** (Bur) (ikus **geen**)
- 1.Gibel, -a** (orok) *iz.* *1.* Gibela. “Hígado”. *2.* (Arr) *adond.* Soroak makinatzerakoan l urra dena batean ateratzen denean esaten zaio Arruazun. “Al trabajar la tierra, cuando sale ésta compacta”.
- 2.Gibel, -a** (Etx, Bak, It) *iz.* Atzeko aldea. (VIII, 571; AN, L, BN, S). Ez da hizkera arruntan erabiltzen, soilik toponimian: *Ezkibel* toponimoa dago Etxarrin eta *Aizkibel* Bakaiku eta Iturmendin, gutxienez. Bestalde Jesus Razkin etxarriarrak esan digunez Etxarriko Jeingeneko etxeko Bautistari ea haren ardiak ikusi zituen Urbasa aldean galdetu zionean, honek erantzun hauxe eman zion: *Bei gizona! Atzo atsaldien Santa Marinako gein gibelién zieban zuen ardiyek!* (Bai gizona! Atzo arratsaldean Santa Marinako gain

- giblean zeudean zuen ardiak!).
 “Atrás, la parte de atrás (solamente se utiliza en toponimia)”.
- Gibelaundi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Pertsona oso lasaia. *Gibel-handi* (VIII, 575; V-gip, G, AN). “Persona tan tranquila en exceso”.
- Gibelgorri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Perretxiko mota, ‘Russula’. (VIII, 578; *Russula integra* ‘udazkenien ateratzen da’). “Seta de la familia ‘Russula’”
- Gibelurdin, -ñe/-ña** (Sak) *iz.* Aurreko perretxikoaren antzekoak, bai na oso onak jateko: *Russula virescens*, *Russula cyanoxantha*. (VIII, 579; V-gip, G, AN, B). Burundan palatalizatu gabe. “Setas muy apreciadas de la familia ‘Russula’”.
- Gider, -rra** (Sak-erd) *iz.* Gider, ki rten. (VIII, AN, L, BN, Ae, S). Dorraon eta Unanun *kiderra*. Urdiainen *girtena*. “Mango”.
- Gilda** (Alts, Lizgb, Arb) (ikus **gildde/a**)
- Gildde/a** (Sak-erd) *iz.* Gerezia, gereziandoa. *Gilda* (VIII, 584). Irañetan *gerezie*, Arbi zun eta Lizarragabengoan *gilda*, Unanun *gilla*, Bakaikun *kaixa* eta Olaztin *kirisia*. Urdiainen *ginda* eta *keixa* bereizten dute. (Irib. *gilla* Nabarte). (Izag., 64, *bi gilda*). “Cereza, cerezo”.
- Giliki, -ia** (Urd) *iz.* Txahal haragia. “Carne de ternera”.
- Gilla** (Un) (ikus **gildde**)
- Giltza** (Bur) (ikus **iltze**)
- Giltze/-a** (orok) *iz.* Giltza. (VIII, 585; V-ple-arr-oroz-och, G, AN-ulz-olza). (Izag., 64; *giltzi* 1 ‘la llave’ 2 ‘el clavo’). “Llave”.
- Giltzepien** (Sak-erd) *adond.* Giltzapean. *Giltzape* (VIII, 587; V-gip). (BB, 182; *giltzapian*). “Encerrado, apresado, bajo llave”.
- Giltzezulo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Giltza zuloa. *Giltza-zulo* (VIII, 587; V-gip, G-nav). (Izag., 64; *giltzazulu* ‘el cerrojo’).
- Urdiainen *sarrail*. “Cerrojo, cerradura”.
- Giltzurri** (Lizgb, Arb, Arr, Uh, Ir) (ikus **giltzurri**)
- Ginda** (Urd) (ikus **gildde/a**)
- Gingil, -lle** (Lak) *iz.* Zintzilik dagoen edozer, aho barietako ‘ezkil’txoa esate baterako. “Cualquier colgante, la campanilla de la garganta, por ejemplo”.
- Gingirrin- ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Beheko suan haragi a erretzeko burdinezko tresna. *Ze goixue dan antxumie gingirriñen einda!* (Zer gozoa den antxumea gingirrinean eginda!). Horrela jasotzen dute Migel Agirre lizarragatarrari (SAT, 54): “... *da beste batek jaskerdi bat arraultzak biltzeko ta beste bat burnia, gingirriña esaten dakiou, ...*”. “Parrilla”.
- GINGIRRIÑETAN (YON, JARRI):** (Sak-erd) *ad.* Oso haserre egon, jarri. Suak harturik egon, jarri. *Ague zabaltzieki batia, gingirriñetan jartzen ziek!* (Ahoa zabaltzearekin batera, gingirriñetan jartzen zidak!). “Enfadar(se) mucho, estar a punto de saltar”.
- Gio** (Sak) *adond.* Gero. (Ikus ‘gero’). *Gio etorko gettuk!* (Gero etorriko gaituk!). “Luego, después”.
- (E)S KIOS:** *part.* -(e)z gero(z). *Ikusis kios, esan ein berdik!* (Ikusiz geroz, esan egin behar ditek!). “Después de, si, puesto que”.
- Giok** (Sak-erd) *izord.* Geuk, gerok. (VIII, 533; G-nav). Burundan *giak*. *Giok izendu gettuk!* (Gerok izan(du) gaituk!). “Nosotros mismos”.
- Gios** (Etx, Lizgb) *part.* Beraz, gero, hortaz. *Geroz* (VIII, 530; AN-5vill, L; ‘por consiguiente’). *Ezarie etorko, gios!* (Ez zarete etorriko, gero!). “Pues, por lo tanto”.
- Gioti de(e)** (Etx) *part.* Geroztik ere. Urdiainen *gio re. Gioti de, etezubie*

- ezee ekarri!* (Geroztik ere, ez duzue ezer ekarri!). “Después de todo”.
- Gir-gir-gir** (Etx) *adond.* 1. Olioak zartaginean berotzerakoan ateratzen duen soinuaren onomatopeia. Urak *bol-bol-bol* egiten du. “Onom atopeya del sonido del acei te hi rviendo”. 2. Onetik aterata, oso haserre. “A(I) cien, fuera de sus casillas”.
- Girli, -ya** (Lizgb) *iz.* Behiei, susara daudenean, alutik dari en i surkia. *Garbi zioz beya susai doola, een guzia girlia dayola yondu beita!* (Garbi zagok behi a susara dagoel a, egun guztia girlia dariola egon baita!). “Flujo de las vacas cuando están en celo”.
- Giro, -ue/-ua** (orok) *iz.* Giro, bai jaietarako nola l anerako. (VIII, 598; V-gip-G-goi-nav, AN-ul z). *Giro ederra zioz artue ereittekoi!* (Giro ederra zegok art oa erei teko!). “Ambiente, tempero”.
- Girten, -a** (Sak) *iz.* Gider, kirten. (X, 595; V-ple, G-nav). Uhartent *kirtent* eta Irañetan *kinderra*. (Izag. 65, *girtent*). “Mango”.
- Gisako** (Urd) (ikus **kiseko**)
- Gixetxar, -rra** (Etx) *izond.* Jenio txarrekoa, beti urduri dabi lena. *Gizatxar* (VIII, 616; V, G, AN, S). (BB, 183; *gizetxar*). Lizarragabengoan *gizatxar*. “Persona de mal genio, ruin, malvado”.
- Gixon, -a** (Etx) *izond.* ‘Gizon’-aren txikigarria. (VIII, 621). Gazt etxoak nagusi bihurtzeko irrikitan daudenean esaten zaie gehienbat, eta baita izengoiti m oduan ere. “Hom brecillo, se aplica a los adolescentes deseosos de hacerse m ayores; tam bién com o mote”.
- Giyer, -rra** (Sak) *izond.* Giharra, gantzarik gabeko haragi a. *Gier* (VIII, 569; G-nav). Bakaikun *txigar*. Urdiainen asi milaziorik gabe: *giyar*. (Izag. 65, *giyer gutxi, gierra gutxi* ‘poca magra’). “Magro, sin grasa”.
- Gizajo, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Gizarajoa. (VIII, 608; V, G-bet-nav, AN-larr). *Gixajo* ere entzun dai teke. (Izag., 64; *gizajo-gizajua*). *An fan dek, gizajure, ezee esan bee!* (Han joan duk, gizarajo hura, ezer ere esan gabe!). “Pobre, desgraciado”.
- Gizekarakol, -a** (Sak-erd) *iz.* Marraskilo handia. (Ond. 11; *iza-karakol*: caracoles grandes y negruzcos). Urdiainen *kakol gizakia*. “Caracol de gran tamaño”.
- Gizeki, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Gizaki. *Gizaki* (VIII, V-ger-arr-och, AN-larr-ulz, B, Ae, Sal, R). Gi zona bai no orokorragea da. Urdi ainen asimilatu gabe: *gizaki*. “Hombre, genero masculino”.
- Gizekunde, -ie** (Etx) *iz.* Inauteri eguna baino l ehenagako ost eguna, gizonen afari eguna. *Gizakunde* (VIII, 611; B, R). “Uno de los jueves anteriores a carnaval”.
- Gizen, -a** (orok) *izond.* 1. Potoloa. (BB, 183). “Gordo, obeso”. -*GIZENAK JANIK YON: ad.per.* Gizenak jani k egon, puzt urik, hazirik egon. *Gizenak janik zioz yanangati!* (Gizenak jani k zagok edanagatik!). “Estar hinchado, inflado”. 2. *izond.* Koipetsua. “Graso”. 3. -**du** *ad.* Gi zendu, pot olo bihurtu. “Engordar”.
- Gizenki, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Haragiaren zati koipetsua, gizona. (VIII, 619; G-nav, AN-ulz-egiés-ilzarb-olza). (Izag. 65, *gizenkiya* ‘la parte no magra de la carne’). “Grasa, gordura de la carne”.
- Gizon, -a** (orok) *iz.* Gizon. (VIII, 620). “Hombre”.
- Gizonkei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Gizonkeria, zentzu pei oratiboa i zaten du. *Gizonkeria* (VIII, 624; V, G, R). “Machada, hom brada, con sentido peyorativo”.

- Glorie/a** (Sak-erd) *iz.* Gloria. (VIII, 628; V-gip). *Zer da glorie? Pobriek abiatsangandi ezin lortutako laborie!* (Zer da gloria? Pobreek aberatsengandik ezin lortutako laboreak!). “Gloria, placer”.
- Gobe** (Arb) (ikus **gaube**)
- Gobernatu** (Sak) *ad.* Azienda zai ndu. (VIII, 634). Ganaduari janaria eman eta azpiak egin. *Ezin nok fan, azienda gobernatu bierra zikobet eta!* (Ezin nauk joan, azi enda gobernatu behara zeukaat eta!). “Cuidar del ganado, y por extensión de lo que es de uno”.
- Gobernu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Gobernu. (VIII, 635; V-gip). “Gobierno”.
- Gogo, -ue/-ua** (orok) *iz.* Gogo, nahi a. (VIII, 646). “Gana, ánimo”.
-**GOGUE/A URA/IRUI:** (Etx, Arb) *ad.* Gogo izan. *Gogo izan* (VIII, 650; L, BN, S). “Querer, desear”.
- Gogoti(k)** (Urd) (ikus **gooti**)
- Goguetu** (Sak) *ad.* Gogoratu. *Guatu* (VIII, 663). “Recordar”.
- Goguazi** (Sak) *ad.* Gogorarazi. *Gogoratu azi* (VIII, 664). “Hacer recordar”.
- Goguen artu** (Etx, Urd) *ad.* Gogoan hartu, gogoratu. *Gogoan hartu* (VIII, 647; V-gip, B N-arb). *Arzak goguen urrengurako!* (Har ezak gogoan hurrengurako!). “Tomar en cuenta, recordar”.
- Goi, -ye/-ya** (orok) *iz.* Goi. (VIII, 669; V, G, AN). “(La parte de) arriba”.
-**GOIKO BUUBE/A:** Soro edo lur eremu baten goiko burua. “Cabecera de un terreno”.
-**GOIKOPEKUEK:** g oitik b eherakok, indarrez ari denean euria, esaterako. *Goikopekuek ai ttuk!* (Goiko-behekoak ari dituk!). “De arriba abajo, con fuerza”.
-**GOITTIBIA esam.** Goitik b ehara. (BB, 184; *goittik bia*). B urundan palatalizatu gabe. (Izag. 65, *goitibeasten gaá gurdiyakín, ...*). “(Hacia) abajo”.
- Goikoganbara** (Bak, Urd) (ikus **ganboiko**)
- Goinatu** (Bur) (ikus **goñedo**)
- Goitibera** (Sak) *iz.* Goitibera, j olasteko gurditxo. *Goitibera* (VIII, 690; G-azp-bet-nav). (Ond. 10). Burundan palatalizatu gabe. “C arro pequeño para lanzarse pendiente abajo”.
- Go(i)xo, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Gozo. (VIII, 824). *Detteken goixonetakue den gaztoi!* (Daitekeen gozonenet akoa dun gazta hori!). “Rico, agradable al paladar”.
- Goiz, -e/-a** (orok) *1. iz.* Goiza. (VIII, 694). “Mañana”. *2. adond.* Goiz, g arazi. “Temprano”.
- Goizero** (orok) *adond.* Goizero. (VIII, 702; V-gip, G). Urdi ainen *goizio*. “Todas las mañanas”.
- Goizter** (Sak) *1. adond.* Goizter. *Goiztarkie* (VIII, 703; L-ain). (Ond. 10; *goiztar*). “Temprano”. *2. -rra izond.* Goiz atera edo jaiotzen den labore edo landarea, goiztiar. *Goiztar* (VIII, 702; V, G, AN, Sal, R). (Izag. 66, *goiztarra* ‘el tempranero’). “Labor temprana”.
- Golda** (Sak) *iz.* Golda. (VIII, 705; V-gerarr-m-gip, G-nav). (Irib. Iruñerria - Erroibar - Aezkoa - Baztan - Erreka). (BB, 184). (Izag. 66). *Golda billen da golda bizkerrien!* (Golda bila eta golda bizkarrean!). “Arado”.
-**GOLDAURDIAÑO SARTU:** (Etx) *ad.* Zerbait sartu erabat, hondoa ikutzeraino. Normalean, sexu konnotazioa izaten du. (BB, 184; *goldaurdie* ‘pene, miembro genital masculino’). “Introducir totalmente, hasta el fondo (generalmente tiene connotación sexual)”.
- 2. -tu ad.* Goldatu. (VIII, 705; V, G). (Izag., 66; *goldau*). “Arar”.
- Golda-erren, -a** (Etx) *iz.* Soroetako belar txarra, sustrai luzeak dituena. *Goldarrain* (VIII, 705; R-uzt; ‘cardo lanceolado’). I. C aminok horrela jasotzen du (Hego-nafarreraren egituraz, 33):

- golderren* ‘itzulgioetan i zaten den belar zakar eta gaiztoa’. “Hierba perjudicial de los sem brados, con raíces largas”.
- Goldanburu, -be** (Hir) *iz.* Soroetan ildoak egiteko tresna. “Apero para hacer surcos en el campo”.
- Golpatu** (Sak-erd) *ad.* Kolpatu, kol peak eman edo hart u. (X, 656). *Erabat golpatuik yaman ziyabien etxia!* (Erabat kolpaturik eram an ziaten etxera!). “Golpear, herir”.
- Golpe, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Kolpe. (X, 657; V-ger-gip, AN-5vill). “Golpe”.
-**GOLPIEN:** *adond.* Kolpean. *Kolpean* (X, 659). “De golpe, repentidamente”.
- Gona** (orok) *iz.* Gona. (VIII, 716; V, G, AN, B, L-sar). (B B, 184; ‘say a, falda’). (Izag. 66). “Falda”.
- Gonbiatu** (Sak-erd) *ad.* Gonbidatu. *Gonbidatu* (VIII, 718; V-gip, G-azp, AN-gip). Urdi ainen asimilaziorik gabe: *gonbiatu*. “Convidar, invitar”.
- Gonddere, -ie** (Etx) *iz.* Jai oberriei haur-oihalen gainean jazten zaien soinekoa. *Goi eta menddere* dira, seguraski, bere osagai ak. Dorraon *gonyuberia*. “Camisón, m antón o fal dón con el que se cubre a los recién nacidos”.
- Goneskios** (Etx) *part.* Honezkero. Urdiainen herskari bel are ahost unik gabe hasi eran eta t xistukaririk gabe bukarean: *oneskio. Emen yon ber ittuben, goneskios!* (Hemen egon behar hituen, honezkero!). “Para ahora, ya”.
- Gonyubere** (Do) (ikus **gonddere**)
- Goñedo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Koinatu. *Goñetu* (X, 635; AN-olza). (BB, 184; *goñetue*). B urundan *goinatu*. (Ond. 10; *goinatu*). (Izag. 65, *goinatuba*). “Cuñado”.
- Goñeta** (Sak) *iz.* Koinata. (X, 634; AN-olza). (BB, 184). (Ond. 10; *goinata*). (Izag. 65, *iru goinata*). “Cuñada”.
- Gooldiyo** (Lak) (ikus **oldiyo**)
- Go(o)r, -rra** (Sak-erd) *1. izond.* Gogorra. *Gogor* (VIII, 659). Urdi ainen bokal berdinen arteko herskaria galdu gabe. “Duro”. *2. -tu ad.* Gogortu. Urdiainen *gogortu*. “Endurecer”.
- Gooti** (Etx) *adond.* Gogotik. *Gogotik* (VIII, 651). Urdiainen *gogoti(k)*. *Gooti ein dezu lana egunoten!* (Gogotik egi n duzu l ana egun hauean!). “De gana, abundantemente”.
-**JO GOOTI!:** *esam.* Jo gogot ik!
“¡Da(d)le duro!”.
- Gora** (Sak) Bi eratara entzun daiteke Sakana osoan: lehena adlatibo kasuan, eta bi garrena posposi zio m oduan. *1. adond.* Gora. (VIII, 722). *Guazen gora!* (Goazen gora!). “Arriba”. *2. Gua prosp.* Gora, eta laguntzen duen hita ab latiboan. *Azpitti gua fan die!* (Azpitik g ora j oan dira!). “(Hacia) arriba”.
- Gorabera** (Sak) *iz.* Gorabehera. (VIII, 730). (B B, 184). *Aurten eyau gorabera aundiik uraittu!* (Aurten ez diagu gorabehera handi rik eduki !). “Altibajo”.
- Goragale, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Botagura. (VIII, 733; G, B, L). Tripakoak botatzeko gogo. Urdiainen *errendaketako goguek. Ardo pixkaat yatiako goragalie sortzen zikiek!* (Ardo piska bat edaterako goragalea sortzen zaidak!). “Ganas de vomitar”.
- Gorakada** (Sak-erd) *iz.* Botagura, ondoezak sortutakoa. *Gorakadak dazka zuen mutikuorrek!* (Gorakadak dauzka zuen m utiko horrek!). “Náusea, ganas de vomitar”.
- Goratu** (Etx) *ad.* Ogia labean sartu eta jaso edo hazi egiten denean. (VIII, 741). (Izag. 66; *ogiya guatu* ‘levantarse el pan’). B urundan *guatu*. “Hincharse el pan en el horno, hacerse el pan”.
- Gorde(tu)** (orok) *ad.* Gorde. (VIII, 746). (BB, 184). *Gorde zak aungi kutxoi,*

- bestela norbeittek ya-manko duuk!* (Gorde ezak ongi kutxa hori, bestela norbaitek eramango dik!). “Guardar”.
- Gordin, -ñe/-ña** (orok) *izond.* Gordin. (VIII, 753). *Ardikiyau erdi gordiñik zio!* (Ardiki hau erdi gordi nik zegok!). “Crudo”.
- Gorentzi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Goraintzi, eskumina. *Goraintzi* (VIII, 734; V-ger-arr-m-gip, AN-5vill-ulz-erro, B, L, B N, S, R). (B B, 184). *Urdiainen guenzia, -ek. Eman yozkiyok gorentziyek aneyai!* (Eman iezaizkiok goraintziak anaiari!). “Recuerdos”.
- Gori, -ye/-ya** (orok) *izond.* Goria. (VIII, 760; V, G, AN-ul z). (B B, 184; *goriya*). (Izag. 66, *goriya*). *Orrek auskingo likek beita burni goriye dee!* (Horrek eutsiko l ikek bai ta burdi n goria ere!). “Rusiente, candente”.
- Gorolde** (Ir) (ikus **oldiyo**)
- Gorputz, -e/-a** (orok) *iz.* Gorputz. (VIII, 768; V, G, AN, L, B N, Ae). “Cuerpo”.
- Gorrei, -ye** (Lak) *iz.* Elgorria. Hurrek izaten dute gehienbat gaisotasun hau. “Saranpión”.
- Gorri, -ye/-ya** (orok) *izond.* Gorria. (VIII, 778). “Rojo”.
- GORRIKERA:** *iz.* Gorri antzeko kolorea. “Rojizo”.
- GORRIYEK IKUSI:** (orok) *ad.* Gorriak ikusi, oso gai zki pasat u. *Gorriak ikusi* VIII, 781; V-m-gip, G-azp-goi, AN-gi p-araq). (B B, 185). *Gorriyek ikusitakue dek emakomioi!* (Gorriak i kusitakoa duk em akume hori!). “Pasar(las) canutas”.
- Gorrigarri, -ye** (Etx) *izond.* Labe atarian jartzen di en egurrak, ogi ak kol ore a har dezan. “Astillas que se ponen a la entrada del horno para que el pan coja color”.
- Gorringo, -ue/-ua** (orok) *iz.* I. Arraultzaren erdia, gorri ngoa. (VIII, V, G, AN, L, BN, Sal, R-uzt). “Yema”. 2. Amotoa, ‘am anita caesarea’ ziza. (VIII, 784; AN-5vill-araq, L-sar, B, BN). (Irib. M endialdea). “Seta, am anita de los césares”.
- Gorrittu** (Sak) *ad.* Gorritu. (VIII, 785). (BB, 185). B urundan pal atalazatu gabe. *Aurten beleixe gorritukoik mendiye, auriik geyoo ezpaau eitten!* (Aurten berehalaxe gorri tuko di k mendia, euririk gehi ago ez badu egiten!). “Enrojecer”.
- Gorrotin, -ñe** (Etx, Lak) *iz.* Gorrotoa, ezin eramana. *Gorroto* (VIII, 788; V, G, AN-gip-larr-erro, B). (BB, 186; *gorrotiñe, gorrotue*). *Ibillari kontus, gorrotiñe galanta artu duuk ta!* (Ibil hadi kontuz, gorroto galanta hartu dik eta!). “Odio”.
- Gosai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Hamarretako, hamaiketako. *Gosari* (VIII, 796; V, G, AN, L). (Izag. 66, *gosaiya*). “Almuerzo”.
- Gosaldu** (Sak) *ad.* Hamarretakoa eg in. (VIII, 796; V, G, AN, L, B). “Almorzar”.
- Gose, -ie/-ia** (orok) 1. *iz.* Gosea. (VIII, 797). *Txerri gosiek, ezkurre amets!* (Txerri goseak, ezkurra am ets!). “Hambre”. 2. -**tu** *ad.* Gose izan, gosetu. (Izag., 66; *gosetzen zanin ‘cuando se poni a con ham bre’*). *Neskatua, ez muittu aunbeste, bestela, jana akaatu beño len, atzia beix gosetu einko zaa!* (Neskatoa, ez mugitu hai nbeste, best ela, jana akabatu baino lehen, atzera berriz gosetu egi ngo zara!). “Ponerse de hambre, tener hambre”.
- Gosebera** (Etx) *izond.* Gosebera. (VIII, 804). *Erabat gosebera allatu ittuben!* (Erabat g osebera aileg atu hituen!). “Hambriento”.
- Gostata** (Sak) *adond.* Nekez, kost ata. *Kostata* (XI, 51; V-gip). *Mendi puntaa gostata allatu nittubaan!* (Mendi punt ara kost ata ailegatu

- nituan!). “A duras penas, con gran esfuerzo”.
- Gostatu** (Sak) *ad.* Kostatu, balio izan. (XI, 4 9; AN-5 vill, BN-arb). *Zenbat gostatuakik kotxe berriye?* (Zenbat kostatu zaik kotxe berria?). “Costar”.
- Gou** (Arb) (ikus **gau**)
- Gour** (Arb) (ikus **gaur**)
- Goyenbarna** (Etx) *iz.* Soroa makinarekin lantzerakoan, erabat mugaraino i ritsi gabe geratzen diren bitarteko zatiak. *Atzeaurrie* ere esaten zaio. “Partes del lindero de la finca que quedan sin trabajar con el ‘bravante’ y que hay que realizar al final de modo perpendicular”.
- Gozakeiztu** (Etx) *ad.* Eginbeharren bat egiteko orduan, soroko lanetan gehienbat, nahiz eta dena behar bezala egiten saiatu, ez lortu edo asmatu. Soroko lurra egoera txarrean dagoela hasita lantzen ez zenean labore egoki rik lortzen, ‘gozakeiztu’ egiten zelako. *Goza(tu) + gaitz + -tu* izango lirateke bere osagaiak. *Gozagaiztu* (VIII, 816; AN?). “Revenir, destemplanar, no salir las cosas de la forma debida”.
- Gozamen, -a** (orok) *iz.* Gozamen. (VIII, 817). *Ze gozamenak ein giñuzkiyan!* (Zer gozamenak egin genizkian!). “Gozo, disfrute, placer”.
- Gozatu** (orok) *ad.* Gozatu. (VIII, 820). *Gozatzie nei beek leku lasei betia fan bieiz!* (Gozatzea nahi baduk leku lasai batera joan behar haiz!). “Disfrutar”.
- Gozo, -ue/-ua** (Sak) 1. *izond.* Pertsona atsegina. “Agradable”. 2. *zenb.* Asko. *Gozue jokatzen dik mutikorrek!* (Gozoa jokatzen dik mutiko horrek!). “Mucho”.
-*GOZUE/A YON: ad.* Gozoa egon, haserre izan. *Gozuek ziek zuen etxekuek!* (Gozoak zeudek zuen etxekoak!). “Estar bueno, enfadado”.
-*GOZO-GOZO: adond.* Gustura, ederki, atseginez. Txistukaria bustirik ere entzun dai teke: *goxo-goxo*. “Placenteramente, a gusto”.
- Gozoso, -ue/-ua** (Sak-erd) *izond.* Pertsona oso atsegina. (VIII, 830). (BB, 186; *gozozue*). *Oso seme-alaba gozosuek dazkazu!* (Oso seme-alaba gozosoak dauzkazu!). “Agradable”.
- Gramabelar, -rra** (Etx) *iz.* Belardi edo pentzeetako belar txarra. “Mala hierba de los prados”.
- Grazi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Grazia. (VIII, 836). *Jangoikuen graziye!* (Jainkoaren grazia!). “Gracia”.
- Gu** (orok) *izord.* Gu. (VIII, 848). “Nosotros”.
- Gua** (Sak) 1. *iz.* Oha. Kani ketan jolasteko zulo txoa. Urdiainen *goa*. (Irib. Iruña). “Agujero en el juego de las canicas”. 2. *posp.* (ikus **gora**).
- Guai(xe)** (Sak) *adond.* Orain(xe). (XIII, 469; G-nav). Olaztin *orai*, Dorraon eta Unanun *orei*, Irañetan *ooin* eta Urritzolan *oain*. (Ond. 10; *guai*). (Izag. 66, *guai*). “Ahora”.
- Guaindo** (Bur) (ikus **guañi(ken)**)
- Guait(t)i** (Sak) *adond.* Oraindik (hasi ta), gaurtik. Burundian palatalizatu gabe. (Izag., 66; *guaita bakizu Aldasoroniin, tabernoyetan ta ...*). “Desde ahora (mismo), desde ya”.
- Guaixkide** (Urd) (ikus **guexkide**)
- Lasatu** (Sak) *ad.* Askatu, aske utzi. (Ikus *laskatu*). (BB, 242). (Izag. 71; *lasatu* ‘aflojar’). “Liberar, soltar, aflojar”.
- Lasei** (Sak) *adond.* Lasai. (XI, 319). Irañetan *lasai* eta *trankil*. Burundan *lasai*. “Tranquilo”.
- Laseittu** (Sak-erd) *ad.* Lasaitu. *Lasaitu* (XI, 324; G, AN). Burundan *lasaitu*. “Tranquilizarse”.
- Laseitesun, -e** (Sak-erd) *iz.* Lasaitasuna. “Tranquilidad”.
- Laskatu** (Sak-erd) *ad.* Askatu, aske utzi. *Lasatu* ere entzun daiteke. (BB, 242). Urdiainen *askatu* eta *jarain*. “Liberar, soltar”
- Laso, -ue/-ua** (Sak) *adond./izond.* Askaturik, aske utzi zirik. (Izag. 71). “Suelto, flojo”.
- Lastatei** (Alts) (ikus **agoztei**)
- 1.Lasteil, -lle/-lla** (Sak-erd) *iz.* 1. Koltxoia, arto host oez bet erikoa. *Lastailla* (XI, 327; AN-erro). (Ond. 13; *lastai*: colchón). Urdiainen *lastai*. “Colchón”.
- 2.Lasteil, -lle/-lla** (Sak) *iz.* Urria, hamargarren hilabetea. (XI, 326; Gnav, AN-olza). (Ond. 19; *lastail*). Urdiainen *lastail*. “Octubre”.
- Laster** (orok) *adond.* Laster, berehal a. (XI, 328). “Pronto, enseguida”.
- Laster ein** (Etx) *ad.* Korrika egin. (XI, 334). “Correr”.
- Lasterka(n)** (Sak-erd) *adond.* Korrika. (XI, 337; G, B, BN, S). “Corriendo”.
- Lasterkai, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Korrikalaria. *Lasterkari* (XI, 339; G, AN, L, BN, S). (Irib. *lasterkari* Mendialdea). “Corredor de a pie”.
- Lastima** (Sak-erd) 1. *iz.* Pena, lastim a. *Lastima dek ori ez akatzie!* (Lastima duk hori ez bukatzea!). “Lástima, pena”. 2. *interj.* Ezezko esaldietan erabiltzen da zerbait gertatzea nahidenean. ‘Ahal’ en erabilera pleonastikoaren parekoa i zango genuke. *Lastima ez dek buube bertan austen! Buube bertan austen al dek!* (Lastima ez duk burua bertan hausten! Burua bertan haust en ahal duk!). “¡Ojalá!, ¡no te ...-rás!”.
- Lasto, -ue/-ua** (orok) *iz.* Artoaren hostoak eta baita baba eta babarrunen hondakinak. (XI, 344; V-ger-ple-arrm-gip, G, B, Ae, S, R). “Residuos del maíz, habas y alubias”.
- Lata** (Etx, Lizgb, Urd) *iz.* Teilatuan, teilen azpian, jartzen diren oholak. (XI, 349; V, G, AN, L, BN, S). “Tablas del tejado”.
- Latz, -a** (orok) *izond.* 1. Leunaren antonimoa, l atza. (XI, 355). (Izag., 71). “Aspero”. 2. Handia, gal anta. *Gezur latzak esaten zittuk!* “Grande, inmenso”. 3. Txarra, gaitza, desegokia. (XI, 356). *Altza, sugille*

- latza!* (Haltza, su eg ile latza!).
“Malo, deficiente”.
-*LATZA IZEN*: *ad.* Gogorra i zan edo suertatu. (XI, 356). (B B, 243).
“Resultar duro, fuerte”.
- Lau** (orok) *zenb.* Lau zenbakia. (XI, 359).
“Cuatro”.
- Laugerna** (Sak-erd) *zenb.* Laugarren ordinala. “Cuarto”.
- Lauko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* 1. Bost zentimoko txanpona, zortzikoaren erdia. (XI, 380; V, G-nav, AN-araq-ulz). *Laukoipe gelditu gettuk!* Laukorik gabe gelditu gai tuk!). “Moneda de cinco céntimos”. 2. Kartetako jokoan lau zenbakiduna. (XI, 380; V, G, L). “El cuatro de la baraja”.
1. **Laun, -e/-a** (Sak) *iz.* Laguna, ki dea. *Lagun* (XI, 182). “Amigo”.
2. **Laun, -e/-a izond.** 1. (Sak-erd) Laua, zelaitsua. (XI, 368; V-pl e-arr-oro-gip). “Li so, l lano, pl ano”. 2. (Sak) Leuna, atsegina. *Leun* (XI, 560; V, G, L, B, BN-baig). *Itzek launek ta putzek miñek!* (Hitzak leunak eta putzak minak!). (Izag. 72, *leguna*). Urdiainen *leun*. “Suave, agradable”.
- Launbeta** (Sak-erd) *iz.* Larunbata, zapatua. *Launbet* (XI, 318; G-nav, AN-larr-5vill-ulz, B). Irañetan *larunbeta*. (Ond. 13; *lanbat*). “Sábado”.
1. **Laundu** (Sak) *ad.* Lagundu. (XI, 193). “Ayudar”.
2. **Laundu** (Sak-erd) *ad.* 1. Lautu, zelaitsu bihurtu. “Alisar, allanar”. 2. Leundu. Urdiainen *leundu*. “Suavizar”.
- Laune/a** (Sak) *adond.* Launa. (XI, 382; V-ger-arrig-m-gip, AN-erro-olza). (BB, 243). “Empate a cuatro, cuatro cada uno”.
- Laungarri, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Lagungarri, laguntzeko moduan dagoena. *Laugarri* (XI, 195; V-ple-arr-m-gip, G-nav). “Que está en disposición de ayudar”.
- Launtze/a** (Sak) *iz.* Laguntza. *Laguntze* (XI, 199; G, AN, L, BN). (BB, 237). “Ayuda”.
- Launzale, -ie/-ia** (Sak) *izond.* Laguntzailea. *Laguntzaile* (XI, 201; V, G, AN-gip, B, BN-erb). (BB, 237; *laguntzalle* ‘sociable, de buena disposición’). “Ayudante, que es dado a ayudar”.
- Lauortzeko, -ue/-ua** (Etx, Lizgb) *iz.* Lau hortz m akurrez osatutako sardea, nekazaritzako tresna. (XI, 384; V-gip). “Horca de cuatro dientes curvos”.
- Laurden, -a** (orok) *iz.* Lautik bat, laurdena. (XI, 385; V-arr-m-gip, G, L, AN, BN, S, R). “Cuarta parte, cuarto”.
- Laurogei** (orok) *zenb.* Laurogei zenbakia. Uharten *lautanogei*. (XI, 389; V-arrig-oro-g, G-nav, AN-5vill-arce, Sal, R). “Ochenta”.
- Laurre, -ie** (Hir) *iz.* Lagotza bitzeko eskuara. *Laur* zenbaki zaharretik seguru asko, lau hortz izan baitezakeen hasieran. “Rastrillo para recoger la paja”.
- Laurri, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Neurria. (BB, 244). (Ond. 13). Altsasun, Urdiainen eta Irañetan *laurri*. (Izag., 75; *laurriya*). “Medida”.
- Laurritu** (Sak) *ad.* Neurtu. (B B, 244). Altsasun, Urdiainen eta Irañetan *laurritu*. “Medir”.
- Lauso, -ue/-ua** (Etx, Lizgb) *iz.* Euri lanbroaren modukoa, bai nagutxiago. Egin dezakeen gutxieneko euria. (XI, 395; G-goi). Txistukaria palatalizaturik ere entzun dauteke: *lauxo*. “Lluvia mínima, menos que el sirimiri. Llovizna”.
- Lautanogei** (Uh) (ikus **laurogei**)
- Lautenaun** (Sak) *zenb.* Laurehun zenbakia. *Lauten eun* (XI, 368; AN-araq-ulz-olza). “Cuatrocientos”.
- Lazaro egun, -e** (Etx) *iz.* Erramu hurrengo igandea. (XI, 407; ‘Elorrion

- ta Arronan t a Ol aetan *Lazaro-eguna* dau i zena Pasi noko Domekeak'). *Erramu beruek itto, ta Lazaro otzak il!* (Etxarriko esaera zaharra). "Domingo de Resurrección".
- Lazka** (Sak-erd) *1. iz.* Nazka, iguina. (BB, 244). B urundan, Hi riberrin et a Irañetan *nazka*. Urdainen *oka* ere bai. "Asco, repugnancia". *2. -tu ad.* Nazkatu, i guindu. (Ond. 13). "Asquear(se), sentir asco, repugnar".
- Lazka(man)garri** (Lak) (ikus **lazkarri**)
- Lazkante** (Etx) (ikus **lazkarri**)
- Lazkarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *izond.* Nazkagarria, iguingarria. *Lazkante* ere erabiltzen da. (B B, 244; *lazkagarri*). Lakuntzan *lazka(man)garri*. Burundan et a Irañet an *nazkagarri*. "Asqueroso, repugnante".
- Lazkarrieki, ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Nazkagarrieki-ria. "R epugnancia, asco, asquerosidad".
- Laztan, -a** (Etx) *izond.* Kut una, m aitea. (XI, 412; V). (B B, 245; 'abrazo'). "Querido, gozoso".
- Leen, -a** (Lizgb) *iz.* Legena, larruazaleko gaixotasuna. "Enfermedad de la piel".
- Legate, -ie** (Etx) *iz.* Babarrunak, babak edo belarra bi ltzeko m aindireen l au puntetan dauden sokak. Gari balak lotzeko ere erabi l tzen di ra. Unanun *ligertza*. *Ligeta* (XI, 582; S ap. Lrq). "Cuerda al ext remo de una sábana para recoger alubias, habas, hierba, ... También para atar gavillas de trigo".
- Lege, -ie/-ia** (orok) *iz.* Legea. "Ley".
-Ø(-EN) *LEGIA: posp.* Bezala, modura. Horrel a dat or B Sn: "*Langa jarri ta ola, txondar legia jarri, ta erdiyen uekue, gero sube autza botatzeko*". (Langa jarri eta horrela, txondar l egera jarri , eta erdian huekoa, gero sua harunt za botatzeko). "Como, a modo de".
- Legun** (Alts) (ikus **laun**)
- Leittu** (Sak) *ad.* Irakurri. (XI, 481; V-arr-gip, G-nav, AN-m er). (BB, 246). (Izag. 72, *leitu niyan*). B urundan palatalizatu gabe. *Leittuek Sarrionaindian azkeneko libuube?* (Leitu duk Sarrionaindiaren azkeneko liburua?). "Leer".
- L(e)ixtu** (Do, Uh) (ikus **txu**)
- Leka** (orok) *1. iz.* Leka. (XI, 484). (Izag., 72). (Irib. M endialdea - Erdialdea). "Vaina". *2. -tu ad.* Lekak di tuzten landareak ontzea. "Madurar aquellas plantas que tienen vainas".
- Leku, -be/-ba** (orok) *iz.* Lekua, tokia. (XI, 494). "Sitio. Lugar".
- Lemiziko** (Urritz) (ikus **lenbiziko**)
- Len** (Sak) *1. -a zenb.* Lehena. (XI, 422; Sal, R-u zt). "Prim ero". *2. adond.* Lehen, antzina. (XI, 421; V, G, AN). (Izag., 72). "Antes".
- Lenbeilen** (Sak) *adond.* Lehen bai lehen. *Len-bai-len* (XI, 432; V, G, AN-ulz, B). Irañetan eta Hiriberrin *lenbelen*. Urdiainen *lenbailen*. "Cuanto antes".
- Lenbizi** (Sak) *part.* Lehendabizi(an). (XI, 432; G, B). *Lendazi* ere entzun daiteke. "Pri meramente, en primer lugar".
- Lenbiziko, -ue/-ua** (Sak) *zenb.* Lehen(da)bizikoa. *Lendaziko* ere erabiltzen da. Uharten *lenbisko*. (Izag., 72; *lepiziko*). Urdi ainen *lenbiziko*. Urritzolan *lemiziko* (EAEI II, 198). "Primero".
- Lendai, -ye** (Etx) *iz.* Lehendaria, aurean doana. (BB, 246). "Guía".
- Lenda(bi)zi** (Etx, Urd) (ikus **lenbizi**)
- Lendaziko** (ikus **lenbiziko**)
- Lengo, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Lehengoa. (XI, 441; V, G). "Anterior".
-LENGUARRENES: (Etx, Li zgb) *esam.* Lehengo harenez, lehengo haren modura. "Como decía aquel, al modo de".
- Lenguen** (Sak) *adond.* Lehengoan. "La otra vez, anteriormente".
-LENGUEN *BEZELA: adond.* Lehengoan bezala. "Como la otra vez, como la vez anterior".

- LENGUEN URES:** *esam.* Norbaiti edo zerbaiti erreferentzia eginez erabiltzen da. “Com o decía (o hacía) aquel ...”.
- Lengusu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Lehengusua. (XI, 443; V, G, AN, B, Ae). Arbizun, Arruazun, Uhart eta Irañetan *lenguse.* (Izag., 72). “Primo”.
- LENGUSU PROPIYUE/A:** Lehen mailako lehengusua. *Lehengusu propio* (XI, 443; G-azp). “Primo carnal”.
- LENGUSU TXIKIYE/A:** B igarren mailako lehengusua. (XI, 443; V-arr-gip, G). “Primo segundo”.
- Len(u)oko, -ue/-ua** (Sak) *izlg.* Lehenagokoa. *Lehenagoko* (XI, 429; G-azp, BN-ciz, S). “Anterior”.
- Len(u)oo** (Sak) *adond.* Lehenago. *Leno* (XI, 428; G-bet). Et xarrin bi eratara erabiltzen da: *lenoo/lenuoo*. “Antes”.
- LENTXOO:** *adond.* Lehentxoago, intentsiboa. *Lentxago* (XI, 431; AN-ulz). Arbizun *aaztiyen* erabiltzen dute. “Hace un momento, hace poco”.
- Leño, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* 1. Lainoa. *Leño* (XI, 209; AN-olza). (Ond. 13; *laino*: nube. No se usa *odei*). Urdiainen *laino*. *Marsuben leñue nuaño, apiibillen elurre autzeño!* (Martxoan lainoa norai no, apirilaren elurra harunt zaino!, Lizarragako esaera). “Niebla”.
- BEITTIKO LEÑUE:** (Uh) *iz.* Behelaino. Et xarrin *erleñue*. “Niebla (baja)”.
2. Hodeia. “Nube”.
- Leñotu** (Sak-erd) *ad.* Lainotu, zerua hodeiez estali. *Laiñotu* (XI, 214; V-arr-gip, G-azp). Burundan *lainotu*. “Nublarse”.
- Lepa(e)zur, -rre** (Etx, Urd) *iz.* Bizkarraren hasierako ornoa. (XI, 537). “Vértebra cervical que marca el inicio de la espalda”.
- LEPAEZURRE AUTSI:** *ad.* Garondoa hautsi. Urdiainen *lepazurra ausi*. “Desnucar”.
- LEPAEZURRIAÑO URAI/IRUI:** (ETX, Lizgb, Arb) *ad.per.* Lepahezurreraino eduki, nazka-nazka eginda eduki. “Asquear, tener hasta la coronilla a alguien”.
- Lepafago, -ue** (Etx) *iz.* Punta moztua edo hautsia duen fagoa. (B B, 246; ‘Aik Epele botaziyen, dena lehengusu uen ...’). Urdiainen *pago tximua*. “Haya trasmochada”.
- Lepagein, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Garondoa. Lepo gaina, buruaren atzetik zekaldea, lepoa eta burua elkartzen diren gunea. *Lepagain* (XI, 528; L). Urdiainen *zorriñabela* eta *lepogain*. “Nuca”.
- Lepageñeko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Lepo gainean emandako kolpea. Lizarragabengoan *lepazeñekua*. “Golpe en la nuca o en la parte superior trasera del cuello”.
- Lepagorri** (Ir) (ikus **txontxolongorri**)
- Lepaluze, -ie/-ia** (Sak-erd) *izond.* Lepo luzea duena. (XI, 529; V-gip). “Cuellilargo”.
- Lepame, -ie/-ia** (Sak-erd) *izond.* Lepo mehea duena. Izengoiti bezala ere erabiltzen da. “De cuello delgado”.
- Leparrei, -ye** (Etx) *iz.* Lepapea, kokotspea, gorigila. *Leparaia* (XI, 529; G-nav). “Papada”.
- Lepatu** (Sak) *ad.* Bururik gabe utzi, moztu. (XI, 529; V, G-t o-nav). (B B, 246). (Ond. 13; podar). *Ekaiztioneki artue lepatuik ziok!* (Ekaitz honeki nartoa lepatuik zegok!). “Trasmochar, descabezar, podar”.
- Lepatxikiko, -ue** (Etx) *iz.* Lepo atzealdean ematen den kolpea. “Colleja, golpe en la parte posterior del cuello”.
- Lepazein, -ñe** (Etx, Urd) *iz.* Lepo atzealdeko gihar handia. *Lepazaki* (XI, 530; AN-ul z-egüés-olza, L, B, BN, S, R). Urdiainen *lepazaina*.

- “Tendón de la parte trasera del cuello”.
- Lepazeñeko** (Lizgb) (ikus **lepageñeko**)
- Lepazpi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Paparra, papoa. (B B, 247; *lepuazpikue*). “Papo”.
- Lepazui, -ye** (Etx) *iz.* Emagaldua, prostituta. *Atzo ibildu giñuban lepazuiten!* (Atzo ibili gintuan lepazurietan!). “Prostituta, puta”.
- Lepiziko** (Alts) (ikus **lenbiziko**)
- Lepo, -ue/-ua** (orok) *iz.* 1. Lepoa. (XI, 531; V-ger-gip, G, AN, L, B N, Ae, Sal, S, R). “Cuello”. *Zorra zor, lepue lodi!* (Zorra zor, lepoa lodi!, etxarriko esaera). 2. Toponimian asko ageri da Etxarriko basoan, pasabidea adierazten duen. (XI, 533; V-gip, AN-ulz, B, BN, S). “Acceso a un lugar en toponimia”.
- Lepolodi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Lepo lodia duena. Izengoiti bezala erabiltzen da. “De cuello grueso o robusto”.
- Lepondo, -ue/-ua** (Etx, Urd) *iz.* Lepoaren goiko muturra. (XI, 538; V-oroz, L-ain, Sal, R, BN-baig, S). Gaixotasuna ere bai. “Parte superior del cuello, bocio”.
- Lepozain** (Urd) (ikus **tireil**)
- Lera** (Etx, Lizgb, Arb, Urd) *iz.* Gurpilik gabeko gurdiaren modukoa. (XI, 539; V-gip, G-goi-to, AN-5vill-araq-ulz, L, B, Sal). “Trineo, especie de carro de arrastre”.
- Leran** (Lak) *adond.* Eginahaletan. *Ardiyek abaro leran subiat kusi giñuben.* (Ardiak abarolaran suge bat ikusi genuen). “En pleno, de lleno”.
- Lerde** (Urd) (ikus **erde**)
- Lerrein** (Etx, Urd) *ad.* 1. Leher egin, nekatu. *Ler egin* (XI, 448; G-azp-goi, AN-gip-larr-ulz, B). *Lerreinik akaatu ye karrera!* (Leher eginik akabatu diate karrera!). “Agotar, cansar”. 2. Amorrarazi. “Hacer de rabiar”.
- Lerreitten yon** (Sak) *ad.* Oso urduri egon, jasan ezin, leher egiten egon.
- Burundan palatalizatu gabe. “Estar nerviosísimo, no poder aguantar, estar impaciente, comerse las tripas”.
- Lerro-lerro** (Etx) *adond.* Lasai (egon), ‘gozo-gozo’-ren sinonimoa izango genuke. *Or zion lerro-lerro!* (Hor zegoen lerro-lerro!). “Tranquilamente, estar con gran pachada”.
- Lertu** (Sak) *ad.* Lehertu. (XI, 450; V, G, AN-ulz-egüés-ilzarb-olza, R -uzt). (BB, 247). *Guu meye mei ondratu, lenoo lertu ze sobratu!* (Gure mahaia mahaia onratu, lehenago lehertu zer sobratu! Etxarriko esaera zaharra). “Reventar, explotar, tanto en sentido propio como figurado”.
- LER IÑ ARTIO:** (Arr) *adond.* Leher egin arte. Horrela jasotzute (SAT, 30): “*Udan beix arkakusoak ler in artio*”. Urdiainen *lerrein arte*. “A tope, hasta reventar”.
- LERTU ARTIO:** *adond.* Lehertu arte, ahal den guztia. Urdiainen *lertu arte*. “Hasta reventar”.
- LERTU EZ LERTU:** *adond.* Lehertu ez lehertu. Aurrekoaren sinonimoa. “A tope, hasta reventar”.
- LERTUKO BAA DE!:** (Etx) *esam.* Lehertuko bada ere! Nahiz eta lehertu! *Lertuko baa de, illundu beño len allaatuko gettuk bordaa!* (lehertuko bada ere, illundu bai no lehen ai legatuko gai tuk bordara!). “¡Sea como sea!”.
- LERTZIE URAI (IRUI, IDUI, UDUI, ...):** (Sak-erd) *ad.per.* Lehertzea eduki! *Lertzie zikok! Eziobau geyo ezee ekarriko!* (Lehertzea zeukak! Ez zioagu gehiago ezer ere ekarriko!). “Fastidiarse, joderse”.
- Lertxun, -e/-a** (orok) *iz.* Zuhaitz mota, *firi-firi* ere esaten zai o. (XI, 552; V, G, AN-5vill). “Populus tremula, árbol”.
- Lesna** (Etx) *iz.* 1. Punta zorrotzeko tresna. “Herramienta de punta afilada”. 2. Erantzun txarra eman nahi dugunean

- erabiltzen da. Zakarkeria. *Badoo zerbeitt jateko? Bei, lesnak salsan!* (Badago zerb ait j ateko? Bai, lesn ak saltsan!). “C uando se qui ere dar un desplante, ‘hostias’ en vinagre”.
- Letxu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Letxuga, uraza. *Ori eztek ii baatzeko letxube!* (Hori ez duk hire baratzeko letxuga! Etxarriko esaera). “Lechuga”
- LETXUBINEK!**: (Etx) *esam.* Erantzun tx arra. Zak arkeria hitz egiterakoan, ez adostasuna adierazteko. “Expresi ón de desacuerdo, desplante”.
- Leun** (Urd) (ikus **laun**)
- Ley/a** (Sak-erd) *I. iz.* Laia, nekazaritzako tresna. *Laia* (XI, 203; V-gip, AN-ulz-erro). Urdiainen *laya*. “Laya, apero de labranza”. *2. -tu ad.* Laiatu. *Laiatu* (XI, 204; V, G, AN, L, R). Urdiainen *layatu*. “Layar”.
- Leyel, -a** (Etx) *izond.* Leiala, esanekoa. *Leial* (XI, 472). (B B, 246; *leiyela*). Urdiainen *leial*. “Obediente, leal”.
- Leyen aai** (Lizgb) *ad.per.* Lehian ari, norgeiagoka ari. “Disputar, competir”.
- Leyo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Leihoa. *Laio* (XI, 479; G-nav, AN-olza). (Izag., 71; *laiyo*). Urdiainen *laio*. “Ventana”.
- Leze, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Leizea, lurrean bertikalean sartzen den zuloa. (XI, 482; V-ger-pl e-arr-oroz-m-gip, G, AN, L, B, BN-ciz-ad-baig-lab, Ae, S). “Sima”.
- Libretu** (Sak-erd) *ad. I.* Erditu. (XI, 573; AN-gulina). Horrela dakar Gastesiren sermoiak (FLV 49, 62): “... *quenducitien libratciéc cecarquien trabaju guztiac, eta arrequin libratucen seme eder bates*”. “Parir, dar a luz”. *2.* Askatu, zerb ait egin behar ez izana. “Librar(se)”.
- GORPUTZES LIBRETU:** *ad.per.* Gorputzez libratu, kaka egin. *Aste guzie daabiyet gorputzes ezin libretu!* (Aste guztia zerabilat gorputzez ezin libratu!). “Hacer de cuerpo, cagar”.
- Libuu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Liburua. *Libru* (XI, 577; AN-egüés, R, S). Lizarragabengoan eta Arbizun *libruu*. Urdiainen *libua*. “Libro”.
- Ligertza** (Un) (ikus **legate**)
- Lijito, -ue/-ua** (Etx, Li zgb, Arb, Urd) *izond.* Zuzenbidearen arabera, legitimoa. *Lejito* (XI, 484; V-arr). ‘Licitum’ izango genuke bere jatorrian. *Oik jito lijituek ttuk!* (Horiek ijito leg itimoak d ituk!). “Legítimo, auténtico”.
- Like, -ie/-ia** (Etx, Arr, Urd) *izond.* Itsaskorra. *Lika* (XI, 583; V-pl-e-gip, Gc, AN-gip, L-ain). Badirudi ‘liga’tik datorrela. Urdiainen *likia*. “Pegajoso”.
- Lilei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Lihoa orrazt eko tresna, orraziaren modukoa. *Lilai* (XI, 586; G-nav). (Ond. 13; *lilai*: rueca). Urdiainen et a Iturmendin *lilaia*. “Peine para cardar el lino, rueca”.
- Liluittu** (Etx, Lizgb) *ad.* Begiei egokitzen zaie, haien ditzira azaltzen duelarik, nekeagatik edo edanagatik. ‘Liluratu’tik, seguru asko. “Hace referencia al b rillo d e l o s ojos, bien por cansancio, bien por la bebida”.
- Limezti** (Do) (ikus **miztu**)
- Limitti, -ye** (Etx) *izond.* Gozozalea. *Limiti* (XI, 594; Izet a *Bhizt.*). “Lam inero, goloso”.
- Limixtetu** (Etx, Li zgb) *ad.* Miazkatu, limikatu, bai na gehi enbat zentzu figuratuan. *Limixkatu* (XI, 593; AN-araq). (Irib. *lamiscar* Artika, *lamisquear* Iruñerria). “Lamer el culo, hacer la rosca”.
- Limixtezale, -ie/-ia** (Etx, Li zgb) *izond.* Zurikerietan i biltzen den pert sona. *Ipurloxintxero* ere bai. “Lam eculos, pelota”.
- Limon, -a** (Sak) *iz.* Limoia. *Aur txikiyai ezikiyobiek gustetzen limona!* (Haur txikiei ez zitzaiek gustatzen limoia!). “Limón”.
- Linpio** (Etx) *adond.* Erabat. Batez ere janariekin erabiltzen da, ondarri kez

- dela utzi adierazteko. *Afai geyei jarri ote zeen, beye azkeniako lincpio ein ziyabien!* (Afari gehiegi jarri ote zuen, baina azkenerako lincpio egin ziaten!). “Totalmente, del todo, sin sobras”.
- Lincpietu** (Etx) *ad.* 1. Erabat jan, guzt ia jan. *Dena lincpietu ye! Ez ziegubiek ezee utzi!* (Dena lincpiatu diate! Ez zigutek ezer ere utzi!). “No dejar sobras en l a com ida, com erlo todo”. 2. Hil, g arbitu. *Lincpietu einko zittubiek, deskuidetzen badie!* (Lincpiatu egingo ditiztek, deskuidatzen badira!). “Matar”.
- Lior, -rra** (Sak) 1. *izond.* Lehorra, idorra. (XI, 519; V). *Guu mutikue errekat i goitti bia bustiik etor dek, piru liorripee!* (Gure m utikoa errekat ik goitik behera bustirik etorri duk, piru lehorrik gabe!). “Seco”. 2. *iz.* Estalpe. “Cobertizo”. 2. **-tu** (Sak) *ad.* Lehortu, idortu. (XI, 526; V). “Secar”.
- Liper, -rra** (Etx) *iz.* Erbatz, pizkia, gauza oso txikia. (XI, 603; V-gi p, G-t o). Eultzia egiterakoan erabiltzen zen haizeari egokitzen zitzaioarik: *Eztiillek liperrrik aizeik!* (Ez zabilek liparrrik haizerrik!). “Brizna”.
- Lirdiketu** (Etx) *ad.* 1. Lauskitu, zehatu. Patata egosiak, esaterako, sardeskaz ‘lirdikatzen’ dira. *Lirdikatu* (XI, 605; R, ‘aplastar, se dice hablando p.ej. de frutas’). Dorraon *txirdiketu*. “Estrujar, machacar”. 2. Likidoa askatu, l erdea bota. (XI, 606; AN-larr). ‘Lerde’tik etor daiteke. “Babear, apelmazar”.
- Lirein, -ñe/-ña** (orok) *izond.* Lerdena, liraina, argala, ari na. (XI, 605; V). (BB, 249). Burundan *lirain*. “Esbelto, delgado, ágil”.
- L(e)istu** (Uh, Do) (ikus **txu**)
- Lixiba** (Bur) (ikus **lixu**)
- Lixiberri** (Bur) (ikus **lixuarri**)
- Lixto** (Sak) *adond.* Agudo, l aister, ari n. *Ordek lixto etxia, bestela ikuskuek!* (Hor duk l isto etxera, bestela ikusiko duk!). “Pronto, rápido, enseguida”.
- Lixtor** (Ir) (ikus **ixtor**)
- Lixu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Lixiba, arropa garbiketa. (XI, 617; AN-araq-larr-ulz-erro-burg, B, Ae, Sal). (B B, 249; *lixua*). (Ond. 13; *lixiba*). (Izag., 73; *zortzi lixiba ero ber zituben zuritzeko matazak*). “Colada”.
- Lixuarri, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Lixiba egiteko erabiltzen zen harri zulatua. (BB, 249). (Ond. 13; *lixiberri*: v asija en que se hace la colada, era de piedra). (Izag., 73; *lixiberri bat* ‘una cuba de piedra para hacer la colada’). “Piedra ahuecada para hacer la colada, lavadero”.
- Lixube/a ein** (Sak) *iz.* Lixiba jo, arropa garbitu. (XI, 616). Urdi ainen *lixubia in*. Horrela kontatu di gu M^a C armen Goñi Insausti et xarriarrak egiten zutela ‘lixube’: *Sukautsaki garbitzen zan. Arrisko txorro geñen jartzen zan oyela laune, zulo estukue, eta arren geñen, zaku betien, sukautse, eta onen geñeti botatzen zan uts berue, beko suben, laatzien txintxiliketuteko pertzien biotube*. (Ond. 13; *lixiba in*). “Hacer la colada”.
- Liyo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Lihoa. (XI, 601; G-nav, An-araq-ul z). Hari a egi teko erabiltzen den l andarea. (Ond. 13; *liyu*). “Lino”.
- LIYUEK AIÑE ARTU: *ad.per.* Lihoak adi na hart u, ji poia jaso. “Recibir una paliza”.
- LIYUAI AIÑA EMAN: (Lizgb) *esam.* Lihoari adina em an, jipoia em an. “Dar una paliza”.
- Liyuazi, -ye/-ya** (Etx, Li zgb, Urd) *iz.* Lihoaren hazi a. *Linazi* (XI, 599). Urdiainen *liyoazi*. “Simiente del lino”.
- Lizer, -rra** (Sak-erd) *iz.* Lizarra, zuhaitz mota. (XI, 618; G-azp-nav, AN-araq-ulz-erro-olza, B). Burundan asimilatu gabe. “Fresno”.
- Lizte/a** (Sak) *iz.* Haria, arrunt a bai no indartsuagoa. (XI, 610; G-nav, AN-

- gip-larr). (Ond. 13; *lizta*). “Hilo fuerte”.
- Lizundu** (Alts, Urd) (ikus **luzinddu**)
- Lo, -ue/-ua** (orok) *iz.* Loa. (XI, 625). *Luek ein ber zittunau guaño, guatzeti muiñziako!*. (Loak egi n behar dizkinagu orai ndik, ohetik mugitzerako!). (Izag., 73; *lubak artu nau* ‘me he dormido’). “Sueño”.
-*LO EIN: ad.* Lo egin. “Dormir”.
-*LO BARRATUIK: adond.* Loak menderaturik. “R endido por el sueño”.
-*LO ZURRUNGE: iz.* Zurrunga. “Ronquido”.
- LUEK JO:** (Etx) *ad.per.* Logura izan, sartu. “Tener sueño”.
- LO YON:** (Etx) *ad.per.* Ez konturatu, ez egon adi. *Yonari lo ta jankuek me!* (Egon hadi lo eta jango duk m ehe! Etxarriko esaera). “Estar despistado, no darse cuenta”.
- Loaldi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Loaldia, laburra nola luzea. (XI, 640). (BB, 252; *lotaldi*). “Ti empo que se ha está durmiendo, cabezada”.
- Lodi, -ye/-ya** (orok) *1. izond.* Lodia, gizona, potoloa. (XI, 642). “Gordo”.
2. -ttu ad. Loditu, gizendu. (XI, 647). (BB, 251). “Engordar”.
- Lodiera** (orok) *iz.* Lodiera. (XI, 646; V, G). (BB, 251). “Grosor”.
- Logane, -ie/-ia** (Etx, Li zgb, Arb) *1. iz.* Logura, lo egi teko gogoa. (XI, 649; AN-olza). B urundan *loguria*. “Sueño”.
-*LOGANIEK ARTU: ad.* Logurak hartu. (B B, 251; *loganie artu*). “Amodorrarse”.
-*LOGANIEK ERRETZEN YON:* (Lizgb) *esam.* Logaleak erretzen egon, logura handi a i zan. “Tener mucho sueño”.
2. -tu ad. Logaletu, logura izan. *Logaletu* (XI, 651; AN-gip, B, BN-arb, S). “Venirle a uno las ganas de dormir”.
- Logure/a** (Bur) (ikus **logane**)
- Loi, ye/-ya** (Sak-erd, Urd) *1. iz.* Lohia, lokatza. (XI, 654). (B B, 251). (Izag., 73; *lokatzakin zikindu nitzan* ‘me manché con barro’). *Orrek ze ustiik, ataiko loye gaala?* (Horrek zer uste dik, at ariko lohia garela?, Etxarriko esaera). “Barro”. *2. -ttu ad.* Lohitu, lokatzez bete. (XI, 662; V, G, AN-larr-5vill-araq-ulz, Sal). (BB, 251). “Embarrar, mancharse de barro”.
- Loigeizto, -ue** (Etx) *iz.* Lohi i tsaskorra, buztinaren m odukoa. Toponimian agertzen da asko. “Lodazal, barrizal”.
- Loine/a** (Etx, Li zgb, Arb, Urd) *iz.* Ibaietako arraina, am uarraina baino txikiagoa. (XI, 660; V, G, Ae). (Irib. *loña* Lizarra). “Madrilla”.
- Loka** (orok) *adond.* Arraultzak zaindu eta txitoak egi teko garai an dagoen olloa. (XI, 664; V, G, AN-araq-erro, L, S, R-uzt). *Ollo loka beño arruo!* (Oilo loka bai no harroago!, Etxarriko esaera). “Clueca”.
- Lokartu** (Sak) *ad.* Loak hartu. (XI, 669; V-arr, G-azp-goi-nav, AN, B, L-sar, BN, Sal, S). Laguntzaile iragangaitzarekin erabiltzen da: *Lokartu neiz!* Irañetan *loak artu*. “Dormirse”.
- Lokatx** (Alts) (ikus **loi**)
- Lokes** (Sak) *adond.* Behintzat, gutxienez, bederen. Gaztelaniako ‘lo que es’-etik dator. *Nik, lokes, eyet ezee esan!* (Nik, lokees, ez diat ezer ere esan!). “Al menos, por lo menos, desde luego”.
- Lokimur, -rre** (Lak) *iz.* Lo arina. “Sueño ligero”.
- Lokure/a** (Etx, Li zgb, Arb) *iz.* Hestebete zatia, sokaz banatua. *Lokura* (XI, 729; G-to, AN-gip-araq, B). “Tramo de embutido entre atados”.
- Lope** (Urd) (ikus **txope**)
- Lor, -rra** (Sak) *iz.* Zuhaitzak herrestan ateratzeko lanabesa. (XI, 677; V, G, AN-araq). (B B, 252). (Ond. 13; tronco delgado y largo). “Uten silio o técnica para sacar árboles arrastras”.

- Lora** (Alts, Urd) (ikus **flore**)
- Lorail** (Arb) (ikus **meyetza**)
- Lore** (ikus **flore**).
- Loretu** (orok) *ad.* Loratu, loreak atera. (XI, 680; AN-ul z). B urundan asimilatu g abe. *Loretuik dakazubie gildondue!* (Lorat urik daukazue gereziondoa!). “Florecer”.
- Lorkate, -ia** (Arr) *iz.* Egurra biltzeko kate lodi eta luzea. “Cadena gruesa y larga para acarrear leña”.
- Lorrien** (Sak) *adond.* Basoko l anetan, zuhaitzak herrestan eramatea. *Lorrean* (XI, 679; V-gi p, G-nav). Lant egiak ateratzeko si stema. B asoko l anetan, toki zailenetatik, zu haitzak h errestan atera. (Ond., 13; *lorrien ekarri* ‘acarrear arrast rando troncos’). “Llevar los troncos arrastras”.
- Lortu** (orok) *ad.* Lortu, erdietsi. (XI, 690; V-ger-m). “Conseguir”.
- Losaja** (Urd) (ikus **loxintxe**)
- Loti, -ye/-ya** (orok) *izond.* Lotia, lo egitea atsegin duena. (XI, 694). “Dormilón”.
- Lotoki** (Urd) (ikus **lue**)
- Lotsa** (orok) *I. iz.* Lotsa. (XI, 695; V, G, AN-sept, B). “Vergüenza”. 2. **-tu** *ad.* Lotsatu. “Avergonzar(se)”.
- Lotsabai** (Lizgb, Arb) (ikus **lotsabeko**)
- Lotsabeiko** (Urd) (ikus **lotsabeko**)
- Lotsabeko, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Lotsagabea. *Lotsagabeko* (XI, 704). Arbizon *lotsabaia*. “Sinvergüenza”.
- Lotsagarri, -ye/-ya** (orok) *izond.* Lotsagarria. (XI, 706; V, g). Lakuntzan *lotsamangarri*, ‘lotsa’ + ‘(e)man’ + ‘-garri’, bigarren osagarria aferesiduna duelarik. “Vergonzante”.
- Lotsamangarri** (Lak) (ikus **lotsagarri**)
- Lotsati, -ye/-ya** (orok) *izond.* Lotsati, herabe. (XI, 712; V, G). “Vergonzoso, tímido”.
- Lotu** (orok) *ad.* Lotu. (XI, 715; V, G, AN, Sal). (BB, 252). “Atar”.
- Loxintxe** (Etx) *iz.* 1. Laztana, fereka, losina. (XI, 691). *Txakurrai eztikiyok loxintxaik ein ber!* (Txakurrari ez zaiok losintxarik egin behar!). “Caricia”. 2. Lausengua. Urdi ainen *losaja*. “Lisonja, zalamería”.
- Loxintxero, -ue** (Etx) *iz.* Lausengari a. Ikus *ipurloxintxero*. “Pelotillero”.
- Lue/a** (Et x, Li zgb, Arb) *iz.* Lokia. Urdiainen *lotoki*. *Kontus ibil ber dik luen artutako golpieki!* (Kontuz ibili behar dik l okian hart utako kolpeekin!). “Sien”.
- Lu(i)tto, -ue** (Etx) *iz.* Soroetako urak bideratzeko egi ten den ildoia. ‘Luteus’-etik seguru aski . B akaikun *urzuin*. (Ond., 18). *Makiñaat luitto atia zittubau soruoiten!* (Makina bat luito atera d itiaгу soro horietan!). “Drenaje del campo”.
- Lukaika** (Urd) (ikus **txistorra**)
- Luma(tu)** (Alts, Urd) (ikus **plume(tu)**)
- Lumea** (Etx) *iz.* Lumera, k riseiluak pizteko ol io m oduko arrai n gantza, baleena dirudienez. *Lumera* (XI, 744; G, AN-egüés-ilzarb, B). *Ipurdiye lumeas einda!* (Ipurdia lum eaz eginda!, Etxarriko esamoldea, ‘con el rabo entre l as pi ernas’-en parekoa). “Grasa o acei te de pescado (bal lena) para los candiles”.
- Lumeautzi, -ye** (Etx) *iz.* Kriseilua. “Candil”.
- Lumei, -ye** (Etx) *iz.* Hegaztiek lu mak aldatzen dituztenean, oiloek batez ere. *Lumeri* (XI, 744; V-arr, L-ai n). (Ond. 13; *lumaia*tu: p elechar las g allinas, etc.). “Muda del plumaje”.
- Lur, -rre/-rra** (orok) *iz.* Lurra. (XI, 747). “Tierra”.
-**LURRESKO AUNTZIYE/A:** lurrezko ontzia, inongo bainurik gabe. *Onttuek lurresko auntziyen prestatzen ttuk, obekiina, tomatieki!* (Onddoak lurrezko ontzian prest atzen di tuk, hobekiena, t omatearekin!). “Recipiente de barro, sin bañar”.
-**LUR JO:** *ad.* Hondatu, porrot egi n. “Arruinarse, quedarse hecho polvo”.

- LUR NARRATU:** *iz.* (Alts) (ikus **gerrietu**)
- LURZUBE/A:** *izond.* Lurtsua, lur asko duena. “Ti erra frondosa, capa grande de tierra”.
- LURRA BEÑO FALTSUOO:** (Lizgb) *esam.* Lurra bai no fltsuago. “Persona muy vaga”.
- Lurmen, -a** (Etx) *iz.* Elurra urtzen hasten denean, agerian geratzen den lur zatia. Elurra *gesaltzearen* ondori oa. “Por ciones o espacios de tierra que quedan a la vista al empezar a derretirse la nieve”.
- Lurpiatu** (Etx, Urd) *ad.* Lurperatu, lurra eman. *Lurperatu* (XI, 764). (BB, 253; *lurpeatu*). Uhartzen *lurpien sartu*. “Enterrar”.
- Lurpien sartu** (Uh) (ikus **lurpiatu**)
- Lurri, -ya** (Arr) *iz.* Herriko kaleen zorua, asfaltatu baino lehen. “Material de las calles del puebl o, antes de ser asfaltadas”.
- Lurrin, -ñe/-ña** (Sak-erd) *I. iz.* Lurruna. (XI, 768; G). B urundan *lurrin*. “Vapor”. *2. -du ad.* Lurrundu. *Kristelak lurrinduik zie!* (Kristalak lurrundurik zaudek!). “Empañar”
- Lurrin** (Bur) (ikus **lurrin**)
- Lur txo(r)i, -ye/-a** (Etx, Urd) *iz.* Erreka bazterretan eta soroetan, lurlean, habia egi ten duen t xori txikia. (XI, 759; AN-gulina; ‘abubilla’). “Pájaro pequeño que anida en regatas y terrenos cultivados, en la tierra”.
- Luxintxe/a** (Sak-erd) *iz.* Intsusa, zuhaitza. (Ond. 11; *intsusi*). Urdi ainen *intrusa*. “Sauco”.
- Luzamendu** (Lak) (ikus **luzegarriyek eman**)
- Luzaruen** (Etx) *adond.* Luzaroan. *Luzaruen ikuskuek zer dan!* (Luzaroan ikusiko duk zer den!). “Con el tiempo, a la larga”
- Luze, -ie/-ia** (orok) *I. izond.* Luzea. (XI, 784). ... *Abenduko gau luzetan / gu geixuok, oñutsetan!* (... Abenduko gau luzeetan / gu gaixuok, oinutsetan!, ‘Urte berri’ kantako zatia). “Largo”. *2. -tu ad.* Luzatu. (XI, 781; V-gip). “Alargar”.
- Luzegarriyek eman** (Etx) *ad.* Luzamendutan ibilli, espero den erantzuna eman gabe. Ondorengo istorioa kontatu di gute Et xarrin: “Aiton bat aspert urik zegoen bere iloba inguruan ikusteaz denbora guztian, eta horrela esan om en zion honi: *Fanari aldemeneko etxia, ta esan yok luzegarriye emateko!* (Joan hadi al dameneko et xera, eta esaiok luzegarria em ateko!). Aldameneko etxeko aitonak denbora nahiko luzean izan zuen sukaldetan bere aurrean eserita mutikoa eta, halako batean: *A, txikito, emen engon! Azuik nengobaan! Ik eskatuekena bestiatek yaman ziyen, ta guaño ez tik bueltatu!* (A, mutiko, hem en hengoan! Ahazturik nengoan! Hik eskatu duana beste batek eraman zian, eta oraino ez dik bueltatu!). Etx era itzuli zen apuraturik esakatutakoa ez zuelako lortu, eta aitonak zer esan eta: *Ez apuretu! Billetzen deenien ekarkoik!* (Ez apuratu! Bilatzen duenean ekarriko dik!). Guztira ordu bat pasa behar izan zuen ilobak agindu betetzeko”. Lakuntzan *luzamendubek*. “Dar largas”.
- Luzera** (orok) *iz.* Luzera. (XI, 790; V). “Largura”.
- Luziitzi** (Etx) *ad.* Berandu dela pentatu edo iritzi. ‘Lu ze’ eta ‘iritzi’ izan daitezke bere osagaiak. *Luziitzik gaudek!* (Lu ze iritzi g audek!). “Estar tardado, pensar que es tarde para algo”.
- Luzin, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Lizuna, urdina. (XI, 620). Urdi ainen *lizun*. “Moho”.

Luzinddu (Sak) *ad.* Lizundu, urdi ndu.
(XI, 621; G-nav, AN-araq). (Ond. 13).
(Izag., 73; *lizundu*). Unanun *urdindu*
ere bai . Urdi ainen *lizundu*. “Canucir,
enmohecer”.

M

- Ma(a)le, -ie** (Etx, Urd) *iz.* Magal, altzo .
Magal (XI, 818; V, G, AN-ulz, R).
Aurre, beti maalien zikon! (Haurra,
beti magalean zeukan!). “Regazo”.
- Maatil, -lle/-lla** (Sak-erd) *iz.* Maratila,
ateak ixteko ziri edo t xingeta. (XII,
105; B N-baig). (B B, 254). Dorraon
matella. “Taravilla, p asador para
cerrar las puertas”.
- Maadi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Txanpon
baten i zena, denborareki n ‘txanpon’
beraren adi erazle m oduan gerat u
dena. *Marabedi* (XII, 103).
‘Maravedi’-tik dator. *Lau maadi dee
eztikone!* (Lau m arabedi ere ez
zeukaten!). “Moneda, cuarto, dinero”.
- Madariketua, -be/-ba** (Sak) *izond.*
Madarikatua. *Madarikatu* (XI, 812;
V, G, L, B, BN). Burundan asimilatu
gabe. *Uts beriketube beño, ardo
madariketube neyoo!* (Ur bedein katua
baino, ardo m adarikatua nahiago!).
“Maldito, maldecido”.
- Magra** (Sak) *iz.* Urdaiazpikoa. *Gosairik
obeena, magra arrontza ta tomatieki
dek!* (Gosaririk hoberena, m agra
arraultza eta tom atearekin duk!).
“Jamón”.
- Mai** (Bur) (ikus **mei**)
- Maietza** (Urd) (ikus **meyetza**)
- Maiku** (Alts) (ikus **meiku**)
- Mailu** (Urd) (ikus **mellu**)
- Maisu** (Urd) (ikus **mextru**)
- Maitte, -ie/-ia** (Sak) *I. izond.* Maitea. (XI,
860). (B B, 256; *maitia*). B urundan
palatalizatu gabe. *Paxtonoi aittunek
maitte-maittie dik!* (Bastoi h ori
aitonak maite-maitea di k!). “Querido,
amado”. 2. **-tu ad.** Maitatu, m aite
egin. (XII, 858). (BB, 256; *maitatu*
‘amar, acariciar’). “Amar, querer”.
- 1.Maiz** (Arb, Alts, Urd) (ikus **arto**)
- 2.Maiz** (Urd) (ikus **meiz**)
- Maizporka** (Arb, Alts, Urd) (ikus
artaporka)
- Majo** (Sak) *adond.* Ederki, primeran. (XI,
874; V-gip, G-azp, AN-ul z). (B B,
257). *Majo zailtzie!* (Majo
zabiltzate!). “Fenomenal, de primera”.
- Makal, -a** (Sak) *I. izond.* Ahul, gai xoa.
(XII, 1; V, G, AN). (BB, 257). *Ez eiz,
ez, makala!* (Ez haiz, ez, m akala!).

- Honela jaso dut e Iturmendin (SAT, 73): “... *ni makala naiz euskeraz* ...). Arruazun *mattal* ere erabiltzen dute. “Débil, enferm o, torpe”. 2. **-du ad.** Ahuldu, gai xotu. (XII, 4; V, G, AN). (BB, 257). “Debilitar(se), enfermar”.
- Makar** (Alts, Urd, Lak) (ikus **malkar**)
- Maketo, -ue/-ua** (orok) *izond.* 1. Euskara erabiltzen ez duen pertsona, kanpotarra. (XII, 7). (BB, 257). “Persona que no sabe euskara, foráneo”. 2. Moldagaitza, trebetasun gutxiko pertsona. “Torpe”.
- Maki** (Sak) 1. *adond.* Herren, m aingu. (XI, 843; G-nav). (B B, 257). (Izag. 73; *maki dee* ‘están cojos’, *ganau gaixuk askotan fera galdu eta makituik*). Arbizun eta Uharten *meiki*, Irañetan *maiki*. “Cojo”. 2. **-tu ad.** Herrendu., herren bi hurtu. Burundan palatalizatu gabe. (B B, 257). “Quedarse cojo”.
- Maki ein** (Sak) *ad.* Herren egin, herrenka egin, m aingu egi n. *Maki eitten det opue urretuik dakatelako*. (Maingu egiten dut opoa urrat urik daukadalako). “Cojear”.
- Makiken** (Etx) *adond.* Herrenka. *Elizen sano sartu ta makiken atia yauben!* (Elizan sano sartu eta makika atera huen!). “Cojeando”.
- Makil, -lle/-lla** (Sak) *iz.* Makila. (XII, V-gip, AN-araq-ul z-egüés-ilzarb-olza, BN-arb-baig-lab, S). Burundan palatalizatu gabe. *Astuek pensuipet pasatukoik, beye ez makillipee!* (Astoak pent surik gabe pasat uko dik, baina ez makilarik gabe!). “Palo”.
- Makillezo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Makilaz emandako kolpea. *Makilazo* (XII, 14). *Makilkazo* ere ent zun dai teke. Burundan palatalizatu eta asimilatu gabe: *makilazo, -ua*. “Golpe dado con el palo”.
- Makiltire** (Etx) *iz.* Jokoa, bi pertsona lurrean eserita eta makila batetik tiraka. (B B, 257). “Juego de dos personas sentadas tirando de un palo”.
- Makine/a** (Sak) 1. *iz.* ‘Bravant’, soroak lantzeko tresna edo makina. (XII, 16; V-arr-gip, G-nav, AN-ulz). “Bravant”. 2. **-tu ad.** Makinatu, ‘bravant’-a soroan pasatu. (XII, 17; V-arr-gip). Burundan asi milatu gabe. (Irib. *maquinear* Iruñerria – Erronkari -Erribera-Aibar). “M aquinar, trabajar la tierra con el bravant”.
- Makiñaat** (Sak) *zenb.* Makina bat, ugari. (XII, 14; V, G, AN). (B B, 257). Burundan palatalizatu gabe eta Urdiainen *makinatxo* ere bai. *Makiñaat jende etortzen dek feritaa!* (Makina bat jende et ortzen duk ferietara!). “B astante, unos cuantos ...”.
- Makoi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Alua. *Toxa* ere esaten zai o Et xarrin. Lakunt zan *makoxa*. Etxeberriko (Araki I) ai tona batek horrela esaten omen zuen: “Del culo a la *makoxa* no va el canto de un duro”. “Vulva, aparat o geni tal femenino”.
- Makoye punte** (Etx) *iz.* Aluaren beheko punta. Art zainek ebaki egi ten di ete ardiei, zenbait gai xotasun osatzeko. “Extremo inferior de la vulva”.
- Makur, -rre/-rra** (Sak) *izond.* Oker. (XII, 20; V-m, AN-gip-larr-5vill, L-ain, B). (BB, 257). *Anka makurre, bikayuen txakurre* ... (Hanka makurra, bikarioaren txakurra ..., horrela hasten da Et xarriko kopl a zahar bat). “Torcido”.
- Makurtu** (Sak) *ad.* 1. Okertu. (XII, 28). (Izag., 74). “Torcer”. 2. Uzkurtu. “Agacharse, doblarse”.
- Malamente** (Etx, Urd) *adond.* Alferrik, ezer egiterik ez dagoela adierazteko. (XII, 32). *Esan da esan, da malamente!* (Esan eta esan, eta malamente!). “En vano”.
- Malaprenda** (Etx, Arb) *izond.* Jarrera gaizto edo okerreko pertsona.

- Gehienbat em akumeei zuzendua. A, ze *malaprenda agon eiñik!* (A, zer malaprenda hagoen eginik!). “Persona casquivana, de m al comportamiento. Generalmente dirigido a mujeres”.
- Malda** (orok) *iz.* Aldapa, al datsa, m alda. (XII, 34; V-gip, G, AN, L, BN). (BB, 258). *An fan dek, malda bia, pirriñekan!* (Han joan duk, m alda behera, pirrinka!). “Cuesta”.
- Maldaan** (Arb) (ikus **aran**)
- Maldade, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Gaiztakeria. (Izag. 49, 74; ... *jende asko doon lekuban maldadí. Ori ez tek maldadie eitteko gauze.* (Hori ez duk maldadea egiteko gauza). “Maldad, fechoria”.
- Maldagarrota** (Etx) *iz.* Egurra gurdi an estutu eta lotzeko erabiltzen den tresna, makila l odia. Dorraon *marguleta.* “Palo grueso que se utiliza para apretar y sujetar la carga de leña en el carro, torniquete”.
- Maldasega** (Etx) *iz.* Sasiak haut si edo ebakitzeko tresna. “Uten silio para cortar o romper matas”.
- Maldur, -rre** (Etx) *izond.* Sendoa, mardula, osasuntsua eta ederra. *Mardul* (XII, 109; V-m -gip, G). Metatesia burut u da hitz honetan. (Izag. 74; *mardula* ‘lo lozano’). “Fuerte, robusto”.
- Malenpleo** (Etx) *esam.* Egin edo esandako zerbaiten damua agertzeko erabiltzen da gazt elaniatik hartutako esamolde hau. ‘Jakín izan banu!’ren parekoa izango genuke. *Malenpleo artu ttugun lan guziek, gio au gertatzeko!* (Malenpleo hartu ditugun lan guztiak, gero hau gert atzeko!). “Expresión de desacuerdo o pesar por haber hecho o dicho al go y no recoger sus frutos. Equivale al castellano ‘Para rato ...’”.
- Malfin ein** (Sak-erd) *ad.per.* Gaizki egin edo bukatu. *Mal-fin* (XII, 39; G-nav). *Orrek malfin ein ber dik, ola segitzen bau!* (Horrek malfin egin behar dik, horrela segitzen badu!). “Echar(se) a perder, acabar mal”.
- Malgobierno ibilli** (Etx) *ad.per.* Era ez egokian bi zi. *Malgobierno aalle aspaldiyontan da malfin einkuek, azkenien!* (Malgobierno habil aspaldi honetan et am alfin egingo duk, azkenean!). “Vivir de forma no adecuada”.
- Malizi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Kalte egiteko joera edo gaitasuna, malizia. (XII, 41; AN-gip-5vill, B). “Malicia, maldad, zorreria”.
- Malkar, -rra** (Sak) *iz.* 1. Bekar, betirina, begi ertzean geratzen den lo ondorengo zinkeria. (XII, 5; AN-araq). (Izag., 73; *makar*). Lakuntzan eta Urdiainen *makar.* “Legaña”. 2. Baba eta beste zenbait laboreen lastoak edo ondarrak. (XII, 44; AN-araq, Sal, R). (Irib. Iruña-Iruñerria-Erdialdea). “Paja o residuo de algunos cereales y legumbres”.
- Malkirrot ein** (Etx) *ad.* Porrot egin, negozioak bereziki. Pi kutara joan zerbait. “Quebrar un negocio, ir(se) algo a pique”.
- Malkor, -rra** 1. (Sak) *iz.* Haitz, arkaitz. (XII, 43; AN-larr-araq-ulz). “Peña, roca”. 2. **-tu** (Sak-erd) *ad.* Malkorretatik bota, amildu, malkortu. (XII, 44; AN). “Despeñarse”.
- Malkorpeko, -ue** (Etx) *izond.* Bihozgabe, bihotz gogorra duen pertsona. Aurpegiari ere erantzen zaio, lotsagabekoaren esanahia ematen zaiolarik. *Aurpei malkorpekue dakak, gio!* (Aurpegi malkorpekoa daukak, gero!). “De corazón o carácter duro”.
- Malmaexku, -be** (Etx) *iz.* Landarea, seguru asko ‘malvavisco’. *Malbaisku* (XII, 34). “Planta (seguramente ‘malvavisco’)”.
- Malo** (Sak) *interj.* Señal txarra. Zerbait txarraren adierazlea. (XII, 47; V-gip). *Garais ez bazarie etortzen, malo!*

- (Garaiz ez bazarete etortzen, malo!).
“Mala seña!”.
- Malosea** (Sak) *esam*. Horrela izango ahal da, fál ta zi tzaiguna, horrel akorik ez izatea. Zerbait horrela dela ziurtatzeko erabiltzen den esam oldea. *Malosea ez badiau biyer partidue irazten!* (Malosea ez badugu bihar partidua irabazten!). “¡Faltaría más!, ¡Por supuesto!”.
- Malota** (Sak-erd) *iz.* Elurrez egi ndako pilota. (XII, 5 1). Batak b esteari botatzeko egiten dituzte gazteek. Arbizun *maleta* eta Irañetan *elur pillota*. (B B, 258). “Bola de ni eve que se lanzan los jóvenes”.
- Maltzarkin, -ñe** (Etx) *izond.* Gustu gutxiko pertsona, edozein jardueratan ere. “Persona de escaso gusto en cualquier actividad”.
- Malubi** (Ir) (ikus **marrubi**)
- Mama** (Sak) *iz.* Ura, haur hizkuntzan. (XII, 5 2; V, G, AN-5vill, B, BN). “Agua, en lenguaje infantil”.
- Mamayu** (Etx) *iz.* Izengoitia, eta ondorioz irain moduan geratuta, inozoren sinonimotzat. (B B, 258; ‘mote’). *Yonari ixilik, mamayu alenoi!* (Egon hadi isilik, mamayu halaren hori!). “Mote que ha derivado en insulto, tonto”.
- Mami, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Mamia, ogiarena batez ere. (XII, 53; V-oro, G, AN, L, BN, S, R). “Miga”.
- Mamizu, -be/-ba** (Sak-erd) *izond.* Mamitsua. *Mamitsu* (XII, 55; G, AN, L, B N). “Sust ancioso, con mucha miga, carnoso”.
- Mamuxarro, -ue/-ua** (Un) *iz.* Unanuko ihauterietako pertsonaia. Li zarragan *moxorro*. Urdiainen *momoxarro*. “Personaje del carnaval de Unanua”.
- Mamuxo, -ue** (Etx) *iz.* Aitona-amonek horrela esaten diote haien gustuko edariari, pattarrari esaterako, iloben aurrean. ‘Mamagoxo’-tik dator, ziur aski. *Mamoxo* ere entzun daiteke.
- “Nombre que dan los abuelos a su bebida preferida ante los nietos”.
- Man** (Arr, Uh, Ir) (ikus **eman**)
- Manatu** (Un, Lak) (ikus **ainddu**)
- Mandabelar, -rra** (Etx, Urd) *iz.* Behorrei hilaurra eragiten dien belarra. (XII, 67; L, B N). (B B, 258; ‘cártamo silvestre, el éboro, abortivo para las yeguas’). “Hierba que hace abortar a las yeguas”.
- Mandamotx, -a** (Etx) *iz.* Belar mota, ‘eleboro’. (B B, 258). “Cierta hierba, eléboro”.
- Mandar, -rra** (Etx) *iz.* Mantala. (XII, 68; G-nav, AN-larr-ulz, B, Ae, R-is-uzt). Hainbat lanbidetan, gorputzaren aurreko aldean jartzen den babesa. (Irib. Iruña –Erreka -Baztan-Lizarraldea-Erribera). *Mantal* ere entzun daiteke eta *demantal* ere bai. “Delantal”.
- Mandatalai, -ye/-a** (Etx, Urd) *iz.* Salerosketan biltzen den pertsona. *Mandatalari* (XII, 69; G-nav). Urdiainen *mandatulai, -a*. *Ankan gariye ta bidien mandatalaye!* (Hankan garia eta bidean mandataria!, Etxarriko esaera). “Recadista, comerciante”.
- Mandatu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Errekadu, enkargu, mandatu. (XII, 70). Lakuntzan *manatube*. (SAT, 76, Altsasu). *Mandatubek eittia fan bierra zikobet!* (Mandatuak egitera joan beharra zeukaat!). “Recado”.
- Mandauli, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Euli handia, abereen inguruan dabilena. (XII, 72; AN-olza). (Irib. *manduli* Baztan). Unanun *abelauliya* eta Urdiainen *mandayauli*. (Izag, 68, *itauliya* ‘la mosca que es el terror de las vacas’). “Mosca de gran tamaño”.
- Mandayauli** (Urd) (ikus **mandauli**)
- Mandazei, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Mandazaina, mandoak zaintzen dituen. *Mandazai* (XII, 71; G, AN, Sal, R). Urdiainen

- diptongoko bokal i rekiá i txi gabe: *mandazai*. “Mulero, arriero”.
- Mandere** (Uh, Lak) (ikus **menddere**)
- Mandibaba** (Etx) *iz.* Tamaina handi ko baba. “Haba de gran tamaño”.
- Mando, -ue/-ua** (orok) *iz.* Mandoa. (XII, 73). (BB, 259). “Mulo”.
- Manejatu** (Sak-erd) *ad.* Erabili, maneiatu, konpondu. (XII, 80; V-gi p, G-azp). *Guaño eyeiz bier bezela manejatzen kotxieki!* (Oraino ez haiz behar bezala maneiatzen kot xeare-kin!). “Arreglar(se)(las), manejar-(se)”.
- Mangulu, -be/-ba** (Sak) *iz.* Makulua. *Makulu* (XII, 20; V-arr, G-azp-to, AN-larr). (BB, 259). “Muleta”.
- Mankustan** (urd) (ikus **maukutsetan**)
- Mantal, -a** (Sak-erd) *iz.* Mantala, arropak ez zikintzeko jutzen dena. (XII, 89; G, AN). “Delantal”.
- Manteka** (Sak) *iz.* Abereen gantza, manteka. (XII, 90; AN-gip-larr-egüés-ilzarb-olza, Sal). “Manteca”.
- Mantelin, -ñe/-ña** (Etx, Li zgb) *iz.* Emakumeek mezetara joateko janzten zuten zapi fina, gehienetan beltza edo kolore ilunekoa. “Mantilla que usaban las mujeres para ir a misa”.
- Mantendu** (orok) *ad.* Animaliak, bereziki, elikatu, baina baita lurra ere. (XII, 91; V-gip, AN-l arr). (BB, 259). “Mantener algo alimentándolo, dar de comer (a los animales sobre todo)”.
- Mantenu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Jatekoa, elikadura, mantenua. (XII, 92; V-gip, G-bet, B). *Lana mantenuban truke einko yau!* (Lana m antenuaren truke egingo diagu!). “Sustento”.
- Manzelin, -ñe** (Etx) *iz.* Kamamila. Erdal hitzetik dator, m etatesia b uruturik. Urdiainen erdal burutzapena darabilte. “Manzanilla”.
- Mañela** (Etx) *iz.* Etxe-izena, *Mariñelarena* abizena dute. *Mariñel* (XII, 119; V, G, AN). ‘M arinel’etik dator, seguru asko. “Nombre de casa en Etxarri”.
- Marai** (Lizgb) (ikus **maadi**)
- Mara-mara** (orok) *adond.* Eurrez, ugari. (XII, 104; V, G, AN). Eguraldiaren zenbait gertaerarekin, elurra eta euria, erabiltzen da gehi en bat, baina baita negarrarekin ere, esaterako. Urdiainen *firi-fara*. (Ond. 9; *fara-fara... Elurra gustora ta asko ari*). *Elurre mara-mara ai da!* (Etxarriko esaera). “Copiosam ente, en abundancia (tanto fenómeno enos meteorológicos como el lorar, por ejemplo)”.
- Mardul, -e/-a** (orok) *izond.* Indartsua, sendoa. (XII, 109; V-m -gip, G). *Maldur*, burutzapen m etatesiduna, ere erabiltzen da. (BB, 260). (Izag., 74; ‘lo lozano’). “Fuerte, robusto”.
- Marguleta** (Do) (ikus **maldagarrota**)
- Marigorri** (Urd) (ikus **kattalingorri**)
- Marimatraka** (Etx, Li zgb, Urd) *izond.* Gauza guztietan m uturra sartzea eta egoerak nahastea gust atzen zai on emakumea. “Metomentodo”.
- Marimutiko, -ue/-ua** (orok) *izond.* Mutikoen ohiturak edo izaera duen neskari esaten zaio. *Marimutlki* (XII, 118). (BB, 260). “Marichico”.
- Maritxogorritxo** (Alts) (ikus **kattalingorri**)
- Marizikin, -ñe/-ña** (orok) *izond.* Neska zikina, ajol a gut xi duena. *Marixkin* (XII, 120). (BB, 260). Burundan palatalizatu gabe. “Suci a, descuidada”.
- Marmar, -rra** (orok) *iz.* Murmurazio, murmurioa. (XII, 126; V-arr-oro, Gc, AN). Ahopeka edo ent zun ezin dela esaten dena. (BB, 260; ‘cuchicheo, protesta’). “M urmullo, refunfuño, comentario casi inaudible”.
- MARMARRIEN:** *adond.* Marmarreen, ahopeka. *Marmarreen* (XII, 127; G-azp-goi). “Refunfuñando, por lo bajo”.
- MARMARRES:** *adond.* Maramarka, marmarreen. “Refunfuñando”.

- Marmaatil, -lle** (Etx) *iz.* Landarea, ‘Viburnum lantana’. (B B, 260). “Planta”.
- Marraka** (Sak-erd) *iz.* Ahuntz eta ardi ek egiten duten soinua, beeka. (XII, 134; G-to-bet, An, L-ain, B, BN, Ae, Sal, S, R). “Balido de cabras y ovejas”.
- Marraskan** (Sak) *adond.* Hortzikatuz, gastatuz. *Marraska* (XII, 138; V-m, G-to-bet). (B B, 260; *marrasca*). “Royendo”.
- Marraskatu** (orok) *ad.* Hortzikatu, gastatu. (XII, 138; V-m, G). “Roer, rallar”.
- Marrauken** (Etx, Lizgb) *adond.* Marruka, katuaren soinu. *Marrauka* (XII, 145). (B B, 260; ‘gruñendo’). *Zuen katube marrauken yoonduek gaube guzien!* (Zuen katua m arrauka egon duk gau guztian!). “Mauillando”.
- Marraxko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Zurginek erabiltzen duten tresna, arrabota. (BB, 260). (Ond. 13; garlopín). “Cepillo de carpintero”.
- Marrius-marrius** (Etx) *adond.* Behiak hausnarrean, hitz onomatopeikoa da. Pertsonak jaten ari direnean ere erabiltzen da, murtzikatzearen ekintza adieraziz. “Rumiando, masticando”.
- Marrío** (Etx) *iz.* Haur jokoa. *Marro* (XII, 142). (B B, 260; *marrioka*). “Juego infantil”.
- Marro, -ue** (Etx) *iz.* Iruzurra, tranpa. (XII, 142; V-m, B, Sal). *Marro ein dik!* (Marro egin dik!). “Trampa”.
- Marrubi, -ye/-ya** (orok) *iz.* Marrubia. (XII, 144; G, AN-l arr-araq-erro). (Ond. 5; *aulubi*). (Izag. 53; *aulubiyak* ‘las fresas’; *bi aulobi*). Lizarragabengoan eta Arbi zun *marruiya*. Urdiainen *ailubi, -a*. Olaztin *albitxogorriya*. Irañetan *malubiye*. (Irib. *amalubia* Aragoiko Petila, *maguriya* Bertizarana, *malubia* Yerri-Odieta ibarra-Zaraitzu, *marauri* Arakil, *marrogui* Artaza). “Fresa”.
- Marrujo, -ue** (Etx) *izond.* Amarruke-riatan dabilen pertsona, m altzurra. “Persona que no es de fiar, maligno, malicioso, tranposo”.
- Marrujokei, -ye** (Etx) *iz.* Amarrukeria. *Ik marrujokei galantak ein ttuk!* (Hik marrujokeria galantak egin dituk!). “Zorrería, malignidad”.
- Maruxo, -ue** (Etx) *izond.* Emakume itxura edo plentak dituen gizonezkoa, ‘maritxu’-a. *Marixa* (XII, 120). “Afeminado”.
- Nuaño** (Sak-erd) *gald.* Noraino, adl atibo bukatuzko kasuko gal detzailea. *Noraino* (XII, 900; V, G, AN, L). Urdianen *nuaindo*. “¿Hasta dónde?”.
- Nun** (Sak) *gald.* Non, i nesibo kasuko galdetzailea. (XII, 868; V-ger-oro-zoch-m-gip, G, L-côte-ar-cang, BN, S, R-is). “¿Dónde?”.
- Nunbaitien** (Urd) (ikus **nunbeitte(r)e**)
- Nunbeitt** (Sak) 1. *adond.* Nonbait, lekuzko adi tzondoa. *Nunbait* (XII, 875; V, S). Urdianen *nunbait*. “En algún sitio”. 2. *part.* Dirudienez. *Nunbait* (XII, V, G-go). *Argi eztiok, beye nunbeitt etxarriarren bat arrapatu ye Franzien!* (Argi ez zagok, baina nonbait t et xarriarren bat harrapatu diate Frant zian!). “Por l o visto”.
- Nunbeitte(r)e** (Sak-erd) *adond.* Nonbait ere. Urdianen *nunbaitien*. “En algún sitio”.
- Nundi** (Sak) *gald.* Nondik, abl atibo kasuko galdetzailea. (XII, 880; V-m). “¿De dónde?”.
- NUNDI NUA:** *esam.* Nondik nora, zerbait ezinezkoa dela adierazteko. *Nundi nua esaen ttuk olako gauzek?* (Nondik nora esat en di tuk horrelako gauzak?). “De qué, imposi-ble”.
- Nundibeitte(r)e** (Etx) *adond.* Nonbaitetik. *Nundik-bait* (XII, 885). Lizarragabengoan *nunbeitteiti*. “De algún sitio”.
- Nundinei** (Etx, Li zgb) *adond.* Nonahitik. *Nundinai* (XII, 885). *Nundineitti* ere bai. “Por donde quiera”.
- Nunean** (Etx) *adond.* Nonahi, edozei n tokitan. ‘Non + ere + han’ izan daitezke bere osagaiak. *Alako gauzek nunean ikusten ttuk!* (Halako gauzak nonahi i kusten di tuk!). “En cual quier lugar”.
- Nunei** (Sak) *adond.* Nonahi, edozei n tokitan, *nunean*. *Nunai* (XII, 888; V-gip). B urundan *nunai*. (Izag. 77; *nunaire zuzen ibíli ber* ‘en t odas partes hay que andar derecho’). *Etxarritti Donostie, nuneitti fan*

etteke! (Etxarritik Donostiara,
nonahitik joan haiteke!). “En
cualquier lugar”.

Ñ

Ñabar, -rra (Etx, Lak, Urd) *izond.* Arre kolorea. (XII, 921; G-goi-to-nav, AN, L, BN-lab-arb, Ae, Sal, S, R). Behi izen nagusia. “Color pardo”.

Ñar (Urd) (ikus **negar**)

Ñarro, -ue (Lak) *izond.* Nano, oso txikia. Etxarrin *geribeko.* “Enano, pequeñísimo”.

Ñaskar (Do) (ikus **zapoziyela**)

Ñibirri-ñabarra (Etx) *izond.* Nolanahikoa, erraz m ozten ez den pert sona. (XII, 924; AN-larr). (BB, 125; *biyirri-ñabarra*). “Persona que no se corta, revoltoso”.

Ñiki-ñaka (ibilli) (Sak) *adond.* Beti haserre edo eztabaidaka. (XII, 924; L, B, BN, S). “(Andar) siem pre discutiendo, en desacuerdo permanente”.

Ño (Etx, Urd) *esam.* Harridura adierazteko erabiltzen da. *Bikeñe zioban, ño!* (Bikaina zegoan, ño!). “Expresión de asombro”.

Ñoño, -ue/-ua (Sak) *iz.* Logura, logalea haur hi zkuntzan. (XII, 926; R). “Sueño en lenguaje infantil”.

O

Oain (Urritz) (ikus **guai(xe)**)

Obaldu (Etx) *ad.* Sabeldu. Apal a edo gapirioa m akurtzea. *Ganboikoko zorube aldatu berko yau, ol guziek obalduik ziek erabat ta!* (Ganbara goikoko zorua al datu beharko diagu, ohol guztiak obal durik zeudek et a!). “Abombar, flectar, ceder una viga”.

Obatu (Etx) *ad.* Puztu, urez ase. *Ein ttuben auriyeki, ontto guziek obatuik ziek!* (Egin di tuen euri ekin, onddo guztiak hobaturik zeudek!). “Henchir, empapar”.

Obe, -ie/-ia (orok) *I. izond.* Hobe. (XIII, 16). *Obiek ez eittie!* (Hobe duk ez egitea!). “Mejor”.

-**OBIEK UTSE:** *esam.* Hobe duk hutsa! Urdi ainen *obe dok utsa.* “Expresión de aviso o amenaza, que significa: ¡Más te vale ...!”.

-**OBIO:** (Sak-erd, Urd) Hobeago. “(Aún) Mejor”.

2. **-tu** *ad.* Hobetu. (XIII, 39). “Mejorar”.

Obe(d)ittu (Sak) *ad.* Obeditu, esaten dena egin. (XIII, 23; V-arr, G-azp, AN-gip,

BN-lab-ciz-arb, S). Burundan palatalizatu gabe. *Aittai ta amai beti obeittu ber zikiyok!* (Aitari eta am ari beti obedi tu behar zai ok!). “Obedecer”.

Obe(e)n, -a (Sak) *izlag.* Hoberen(a). (XIII, 35; G-nav, AN-5vill-araq-ulz-erro, L, B, BN, Sal, S). *Lenbeilen fatie izenkuek obeena!* (Lehenbailehen joatea i zango duk hoberena!). *Ekar zazubie ardue, beye obeena!* (Ekar ezazue ardoa, baina hoberena!). “(El/la/lo) m ejor, lo que es mejor”.

-**OBEENES OBEN:** (Sak-erd) *adond.* Hoberenez hoberen, hoberenak hautatuz. *Gu mutikuau lanien obeenes oben daille beti!* (Gure m utiko hau lanean hoberenez hoberen dabil beti!). “De bueno en m ejor, el igiendo l o mejor cada vez”.

Obe(e)nien (Sak) *adond.* Beharbada, agian, hoberenean. *Asmuorreki abiyetu ttuk, beye obeenien ettuk allaatuko!* (Asmo horreki n abi atu

- dituk, bai na hoberenean ez dituk ailegatuko!). “A lo mejor, tal vez”.
- Obe izen** (Sak) *ad.per.* Hobe izan. *Hobe izan* (XIII, 19; V-arr-m -gip, G-azp, AN-gip-5vill, BN-lab-ciz-arb, S, R-is). “Ser mejor, valer más”.
- Obeki** (Sak-erd) *l. adond.* Hobeto, hobeki. Burundan *obeto*. (XIII, 25; V-gip, G-nav, L, B, BN, R-is, S). *Obeki einkuezubie etxia garais faten bazarie!* (Hobeki egingo duzue etxera garaiz joaten bazarete!). “Mejor, de modo mejor”.
- OBEKIYO(O): adond.* Hobetoago, hobekiago. *Hobekiago* (XIII, 25; AN-5vill, BN-arb). Urd iainen, h ala ere, *obekiyo*. (Izag., 78; *obetogo*). “Mejor, de modo mejor”.
2. *posp.* Asko, ugari, best erik ez. Posposizio m oduan erabiltzen da, aurreko hitza absolutibo singularrean daramalarik. *Jendie obeki zioban frontonien!* (Jendea hobeki zegoan frontoian!). “Gran cantidad de, mucho, abundante”.
- Obesai, -ye** (Etx) *iz.* Zerbait trukatzen denean, egon daiteke diferentzia, beste zerbait edo diruz konpontzen dena. *Hobesari* izan daiteke. “Saldo, diferencia en una compraventa”.
- Obeto** (Bur) (ikus **obeki**)
- Obi** (ikus **ogi**).
- Obia** (Un) (ikus **alta**)
- Obligetu** (Sak-erd) *ad.* Behartu, obligatu. *Ez obligetu jendiei gu egieki bizitzia. Yakus ber zikiyok gu gezurreki ez bizitzia!* (Ez obligatu jendeari gure egiekin bizitzera. Erakutsi behar zaiok gure gezurrekin ez bizitzera!). (Esaldi hauek Eusebio Markotegi etxarriarak Zezilia Razkin bera amari jasoak dira). “Obligar”.
- Obratu** (Sak) *ad.* Obra egin, etxe edo eraikuntza bat berri edo moldatu. (XIII, 48). Horrela jaso diote Javier Goikoetxea urdi aindarrari (SAT, 79): “*Andi soro bat eosi, beste bati eosi, beste etxe zar bat eosi, obratu, lan oiek danak ein ta alaxen ...*”. “Obrar, arreglar, rehabilitar”.
- Odoi, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Ekaitza, aurretik ikusten denean. *Odai* (XIII, 52; G-nav: “*También se dice de la tormenta que pasa con la nube*”). Urdiainen eta Unanun *odei*. (Izag., 77; *odaiya* ‘la tormenta’). Irañetan *ortots erauntsiye. Odoye zio, laster asikoik auriye!* (Hodoia zegok, laster hasi ko du k euria!). “Previsión de tormenta”.
- Odol, -a** (orok) *iz.* Odola. (XIII, 56). “Sangre”.
- ODOLBERUE/A: izond.* Odolbero. (XIII, 59; G-azp, AN-5vill-gip). “Impulsivo, de sangre caliente”.
- ODOL BELARRA:* (Etx, Urd) *iz.* Tentsioa hobetzeko belarra. (XIII, 59; L, BN-ciz, Sal, S, R-vid). “Hierba que se utiliza para la tensión”.
- ODOLETAN FAN:* (Etx, Urd) *ad.* Odol-hustu. *Aizkoraki izterpie ebai, ta odoletan fan yauben, basuen bakarrik!* (Aizkorarekin izterpie ebai, eta odol etan joan zen, basoan bakarrik!). “Desangrarse”.
- ODOLA IRIKITTEN (JARRI/URAI): ad.per.* Odola irakiten (jarri/eduki). “Hervir la sangre, encender(se) la sangre”.
- ODOLA BURUE ITZOO: ad.per.* Odola burura irango. “Al terarse, enervarse”.
- ODOLA UTS BIYURTU: ad.per.* Odola ur bihurtu, atzera egin, beldurtu. “Asustarse, echarse atrás”.
- ODOLA BIOTU: ad.per.* Odola berotu. “Calentarse la sangre”.
- Odolbeko, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Odolik gabekoa, kol darra. “Cobarde, que no tiene sangre”.
- Odoldi** (Urd) (ikus **oldiyo**)
- Odoldu** (orok) *ad.* Odola atera. *Axuyoi eztezubie bier bezela odoldu!* (Axuri hori ez duzue behar bezala odoldu!). “Sangrar”.

- Odol(d)ui, -ye/-ya** (Etx, Li zgb) *iz.* 1. Haragi kolpatuan geratzen den marka edo orbana. (XIII, 69; S). Urdiainen *urduindua*. “Moradura, cardenal”. 2. Odolbatua. “Coágulo”.
- Odoljariyo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Odol jariora. *Odol-jario* (XIII, 63; V-gip, G). “Hemorragia”.
- Odolki** (Alts, Urd) (ikus **tripota**)
- Odor** (Arr) (ikus **rafe**)
- Oea** (Alts) (ikus **guatze**)
- Ogatze** (Hir) (ikus **guatze**)
- Ogei** (orok) *zenb.* Hogeiz zenbatzailea. (XIII, 80; V, G, AN, B, BN-m ix, Ae, Sal, S, R). “Veinte”.
- Ogi, -ye** *iz.* 1. (orok) Ogia. (XIII, 90). “Pan”.
 -*OGI BERIKETUBE/A:* *iz.* Ogi bedekintua. “Pan bendecido”.
 -*OGI APURRE/A:* *iz.* Ogi apurra. (XIII, 94; V-gip, G-goi). *Ogiapurran ixuye galanta utziek sukeldien!* (Ogi apurren i suria gal anta ut zi duk sukaldean!). “Migaja de pan”.
 -*OGI PUSKE/A:* *iz.* Ogi puska edo zatia. “Mendrujo de pan”.
 2. (Etx, Li z) El izan, erresponsoak egiteko, familia bakoitzak duen tokia. Badirudi ‘obi’ beharko zuel a i zan, baina ‘ogi’-tik ere erator daiteke, ogia eramaten baitzen joaten zirenen artean banatzeko. Li zarragako Migel Agi rre Ezkerrari horrela jaso diote (SAT, 56): “*Deka sepulture, oiye esaten giñun guk, dana markatuta etrotze zian e, bakotxa bere koadrotxoia elizan, e ...*”. “Lugar de responsos de una familia en la iglesia”.
- Ogiazal, -a** (Sak) *iz.* Ogi azala. (XIII, 95; V-gip, G-goi, S). “Corteza del pan”.
- Ogikozkor, -rra** (Sak) *iz.* Ogi zatia, soberan geratu dena. (XIII, 98; V, G, AN, B, BN, S). “Mendrujo de pan”.
- Ogimami, -ye/-ya** (orok) *iz.* Ogi ma mia, barruko zat i bi gun et a t xuria. (XIII, 99; L, S). “Miga de pan”.
- 1.Oi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Hortzak eta haginak i nguratzen di tuen arrosa koloreko haragia. (XIII, 107; V-arr-och-m-gip, G, AN-ul z, Ae, Sal). Arbizun, *oya* jaso dut eta, dirudienez, Etxarrin ere erabiltzen zen. *Oyek odola daayola dazka!* (Oiak odol a dariola dauzka!). “Encía”.
- 2.Oi** (Bur) (ikus **guatze**)
- Oik** (Sak-erd) *erak.* Hauek, horiek. “Estos, esos”.
- Oilakafi** (Urd) (ikus **ollokafi**)
- Oilaki** (Urd) (ikus **ollooragi**)
- Oilanda** (Bur) (ikus **ollenda**)
- Oilo** (Bur) (ikus **ollo**)
- Oilojale** (Urd) (ikus **ollojanzale**)
- Oinaztura** (Alts, Urd) (ikus **iñezture**)
- Ointo** (Bur) (ikus **ontto**)
- Oittu** (Sak) *ad.* Ohi(tu). (XIII, 177).
 Burundan pal atalizatu gabe.
Txakurroi eziok oittuik ardiyeki ibiltzia! (Txakur hori ez zegok ohiturik ard iekin ibiltzera!). “Acostumbrar(se)”.
- Oitture/a** (Sak) *iz.* Ohitura. *Ihitura* (XIII, 180; V, G, AN). *Oittuera* ere entzun daiteke. B adirudi i zen honek norbanakoenak ad ieraziko lituzkeela eta *usaayo*-k, al diz, orokorrak. Burundan pal atalizatu gabe. “Costumbre”.
- Oixe** (Sak) 1. *erak.* Horixe, erakusl e indartua. (XIII, 574). “Ese mismo”. 2. *adond.* Jakina, noski. “Por supuest o, claro que sí, ya lo creo”.
- Oka** (Urd) (ikus **lazka**)
- Oka(a)n, -a** (Sak) *iz.* Arana, okarana. (XIII, 193; V-gip, G-nav). (Ond. 15). (Izag., 77). “Ciruela”.
- Okagarri, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Oka eragiten duena. (XIII, 193; G-nav). (Ond., 15). “Asqueroso, nauseabundo”.
- Okakan** (Sak) *adond.* Okaka, gehiegi jan edo edanda. *Okaketan* ere entzun daiteke. *Okaka* (XIII, 193; L-ai n, B, Sal, R). “Con náuseas, empachado”.

- Okasiyo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Aukera. *Okasio* (XIII, 194). “Oport unidad, ocasión”.
- Okatu** (orok) *ad.* Oka egin, janari edo edariz ase, gai nezka egin. (XIII, 195; V, G, L, B N). (Ond. 15). Arruazun *okittu*. “Hartarse, ahitarse, empacharse”.
- Okela** (Sak) *iz.* Haragia, baina gehienetan pertsona edo ani malia lodiei egokitzen zaie, gizenegi daudela adieraziz. (XIII, 197). (BB, 280; ‘animal de mucha carne, también para las personas i ndicando fuerza’). (Izag., 77; *ze okelak dukatzien* ‘¡qué carnes!’). *Okelak ezin jasos zio!* (Okelak ezi n jasoz zegok!). “Carne (fofa), i ndicando que alguien está muy gordo”.
- Oker, -rra** (orok) *izond.* 1. Okerra, makurra. (XIII, 197; V, G, AN, BN, Sal, S). “Torci do”. 2. (Ir, Urd) (ikus **begibakar**).
- Oker (ibilli/yon)** (orok) *ad.* Tronpatu, oker ibili/egon. *Oker egon* (XIII, 202; V, G, S). *Oker abil, uste ezpeek dee!* (Oker habi l, ust e ez baduk ere!). “Estar equivocado”.
- Okerro(o)** (Etx, Urd) *izond.* Okerrago. (XIII, 202). “Peor”.
- Okittu** (Arr) (ikus **okatu**)
- Okolondo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Ukondoa. (Izag., 83; *ukolondo*). Lizarragabengoan et a Arbi zun *besokoxkorra*. Olaztin *okalondua*. “Codo”.
-*OKOLONDOKUE/A*: *iz.* ukondokoa. “Codazo”.
- Okolu** (Alts) (ikus **estarki**)
- Okolle** (Etx) *iz.* Ardiek izaten duten gibleko mina edo gai sotasuna. Lepo aldeko hazidurei esker antzem aten omen da. “Mal de hígado”.
- Okotz, -a** (Sak) *iz.* Kokotsa. (X, 645; V, G-azp, AN-olza). (B B, 280). Hiriberrin *kokotza*. “Mentón”.
- Okotzaundi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Kokots handia duen pert sona. *Kokots-handi* (X, 646). “Persona con el m entón saliente”.
- Okullo** (Urritz) (ikus **estarki**)
- Okulu** (Urd) (ikus **estarki**)
- Okurrenzi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Burutazioa. *Okurrentzia* (XIII, 213). *Oik ttuk, oik, okurrenziyek dazkake-nak!* (Hori ek di tuk, hori ek, okurren-tziak dauzkaanak!). “Ocurrencia”.
- Okurrittu** (Sak) *ad.* Bururatu, pentsatu. Burundan pal atalizatu gabe. Horrela jaso dute Arruazun (SAT, 27): “*Eta ezta okurrittu gu amai re guardatzea, ta igual etzuen ateako re!*”. “Ocurrir-(se), pensar”.
- Ol, -a** (Sak) *iz.* Ohola. (XIII, 438; V, G, AN, Ae, Sal, R). “Tabla”.
- 1.Ola** (Sak) *adond.* Honela, horrela. *Hola* (XIII, 214; V-gip, G, AN-ul z, L, BN, S). “Así, de esta m anera, de esa manera”.
- 2.Ola** (Sak) *iz.* Burdin lantegia. Etxarriko toponimian oso em ankorra dugu: *Goikola, Bekola, Olano*. (XIII, 213; V, G, AN, B, BN, S). “Ferrería”.
- Olabai, -ye** (Etx) *iz.* Erabat egurrezkoa den bahea, sarea eta guzti ‘esporta’-k egiten diren moduan egina. Gehienbat babak bahet zeko erabi ltzen zen. (XIII, 218; Sal ; ...<*Cribo muy cerrado que llaman pasadera*>). (BB, 281; *olabaya* ‘criba de agujero grande para al ubias; t ambién si gnifica que uno tiene manga ancha’). “C edazo de madera en su totalidad”.
- Olako, -ue/-ua** (Sak) *izlg.* 1. Horrelako, honelako. *Olako gauze zakarrak esaten ttuk ik!* (Horrelako gauza zakarrak esaten dituk hik!). “... com o esa(s), algo si como, tal”.
-*GUAÑO OLAKOIK*: *esam.* Oraino horrelakorik! Ez da posi ble!
Urdiainen *guaindo olakoik!* “¡No es posible!, ¡abrás visto!”.

2. Pertsona bat i buruz hi tzegiterakoa, haren izena esan gabe. *Alakorekin batera erabiltzen da.* (XIII, 217; G-bet, AN, Lc, BNc, S). *Olakok ein dik ori!* (Holakok egi n di k hori!). “Mengano”.
- Olamai** (Bak) (ikus **oremai**)
- Olarreta** (Sak-erd) *iz.* Elurretan ibiltzeko tresnak, oholez egi nak. Oi netakoan azpian l otzen zi ren hankak elurretan ez hondoratzeko. Urdiainen *ubarreta*. “Raquetas para la nieve hechas con tablas”.
- Olaxe** (Urd) (ikus **olexe(n)**)
- Olazti** (Sak) *iz.* Olazti herria. “Localidad de Olazagutia”.
- Oldiyo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Goroldioa. *Oroldio* (VIII, 764; AN-5vill, B, BN). (BB, 282). Lakuntzan *gooldiyue*. Irañetan *goroldie*. Urdiainen *odoldi*. (Irib. *goroldia* Bertizarana, *oroldio* Odieta ib arra, *oroldi* Artaza). “Musgo”.
- Olexe(n)** (Etx) *adond.* Honelaxe, horrelaxe. *Holaxe* (XIII, 223; AN, L, BN, S). Urdiainen *olaxe*. “Así mismo, forma intensiva de ‘honel a’ y ‘horrela’”.
- Olgan ibilli** (Arr) (ikus **jolastu**)
- Olgatu** (Uh, Lak) (ikus **jolastu**)
- Oliaziyo** (Alts) (ikus **oliyodure**)
- Oliyo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Olioa. *Olio* (XIII, 238; G, AN, L, B, BN, Ae, Sal, S). “Aceite”.
- Oliyoargizai, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Olioa, argizaria eta sahats hostoz egindako txaplata, zauriak osatzeko erabiltzen zena. (BB, 282). “Em plasto de aceite, cera y hojas de saúco que se poní a sobre las heridas”.
- Oliyo(d)ure** (Etx, Lak) *iz.* Oleazioa. *Oliodura* (XIII, 236; L, B). *Oliyeziyo* ere entzun dai teke. (BB, 282). Lakuntzan *oliyoure*. (Izag 77, *oliyoyu eman* ‘dar la extremaunción’). “Extremaunción”.
- Oliyozopa** (Etx) *iz.* Norbait gai xo ohean geratzen zenean ematen zitzaion zopa, *ollosalda*-ren parekoa. *Olio-zopa* (XIII, 240; AN, L, BN, S). (BB, 282; ‘sopa de ajo’). “Sopa que se daba a los enfermos encamados”.
- Olo, -ue/-ua** (orok) *iz.* Laborea, oloa. (XIII, 242). (BB, 282). (Izag., 77). (Irib. Zaraitzu-Erreka). “Avena”.
- Ollagor, -rra** (orok) *iz.* Oilagorra. *Ollaor* (XIII, 128; AN-araq). *Scolopas rusticola*. (BB, 282). Burundan palatalizatu gabe: *oilagor*. *Ollagorretaa fan da, basurdie atia zikieguk!* (Oilagorretara joan eta, basurdea atera zaiguk!). “Becada”.
- Ollatasi** (Ir) (ikus **ollotasi**)
- Ollenda** (Sak-erd) *iz.* Oilanda, arrautzak jartzen hasi den oiloa. *Oilanda* (XIII, 129; V, G, AN, L, B, BN, Ae, Sal). *Aittune kaskazui, ollenda jalie!* (Aitona kaskazuri, oilo landa jalea!). Irañetan *ollanda*. Burundan palatalizatu gabe. (Izag., 77; *oilanda gutxi* ‘pocas pollas’). “Gallina que ha empezado a poner huevos”.
- Oller, -rra** (Sak-erd) *iz.* 1. Oilarra. *Oilarra* (XIII, 130). Irañetan *ollarra*. Burundan palatalizatu gabe. “Gal lo”. 2. Beheko suan, haragia erretzeko erabiltzen den tresnaren zatia, ‘gingirrin’-arena. Honen punta sartu eta maila desberdi netan kokatuz zeko erabiltzen den burdi nezko tresnari esaten zaio. “Uten silio de hierro que se utiliza en el fuego bajo para asar carne y colocarla a diferentes alturas”.
- Ollesko, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Oilaskoa. *Oillesko* (XIII, 133; G-nav), (BB, 282). Burundan asi milatu eta palatalizatu gabe: *oilasko*. “Pollo”.
- Olo, ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Oiloa. (XIII, 136). Burundan palatalizatu gabe. “Gallina”.
- Oloaragi, -ye/-ya** (Etx, Li zgb) *iz.* Oilo haragia. Urdiainen *oilaki*. “Carne de gallina”.

- Ollogantza** (Etx) *iz.* Landare m ota, zumaren antzekoa. (XIII, 139; V-gip). *Frangula alnus*. “Planta parecida al mimbre”.
- Ollojanzale, -ie/-ia** (Etx, Li zgb) *izond.* Miruari esaten zaio: *Ttitemeru ollojanzale, alkatie atzeti! Oilojanzaille* (XIII, 139; AN-ulz). Urdiainen *oilojale*. “Comegallinas”.
- Ollokafi, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Oiloaren habia, arraultzak jartzen dituen lekua. Urdiainen *oilakafi*. “Nido de la gallina”.
- Ollokaka** (Sak-erd) *1. iz.* Oiloaren kaka. *Oilo-kaka* (XIII, 139; L, BN, S, R-uzt). Urdi ainen *kakaxin, -a*. “Excremento de gallina”. *2.* Balio gutxiko gauza. (BB, 282). (Iri b. *ollacaca* Zaraitzu). *Ori eztek gio ollokaka, e?* (Hori ez duk gero ollokaka, eh?). “Cosa de poco valor”.
- Ollokaketan (yon/ibilli)** (Etx) *ad.* Neskak eta mutilak elk arrekiko harremanetan hasteari esaten zaio. “Iniciar relaciones entre chicos y chicas”.
- Olloloka** (Sak-erd) *iz.* Oilo loka. *Oiloloka* (XIII, 129; V, G, AN-ulz, Sal, S, R). Urdiainen *oilaloka*. “Gallina clueca”.
- Ollotasi, ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Oiloak ikuiluan egotokia. (XIII, 135; AN-ulz). (B B, 282). Irañetan *ollotasiye*. (Ond. 15; *oilatesi*). “Lugar de la cuadra donde están las gallinas”.
- Ollotei, -ye/-ya** (Sak-erd) *iz.* Oilategia. (XIII, 134; V-gip). (Ond. 15; *oilategi*). “Corral, granja de gallinas”.
- Ollozulo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Etxeko atea nagusiak, beheko aldean, izaten duen zuloa, bertatik oiloak edo katuak atera eta sartzeko. *Oilo-zulo* (XIII, 141). Urdiainen *atarzulo*. “Gatera”.
- Oltza** (Etx) *iz.* Oholtza, ohol ez egi ndako pareta. (XIII, 441). Urdi ainen *esola*. *Sasiyek begiyek, oltzak belarriyek! Jozak oltza, ta aize soorra!* (Sasiak begiak, oholtzak belarriak! Jozak oltza, eta aize soorra!, Etxarriko esakerak). “Pared hecha con tablas”.
- Omei, -ye/-ya** (Etx, Li zgb) *iz.* Ogia oratzeko mahaia. *Orahamai* (XIII, 489; V-m-gip, AN-araq, B, Sal, R). ‘Ore’ eta ‘mahai’ dira bere osagaiak. *Oremei* entzun dai teke gai nerako herrietan. (B B, 282). “Mesa artesana para amasar el pan”.
- Omen** (Bur) (ikus **emen**)
- On, -a** (orok) *izond.* Ona. (XIII, 248). “Bueno”.
-*ONES ONIEN: adond.* Onez onean. Modu onean. *Onez onean* (XIII, 269; V-gip, G, AN-gip-5vill, L, B, BN, R). *Ones onien, nei dezubiena, beye bestela ...!* (Onez onean, nahi duzuen, bai na bestela ...!). “A buenas, por las buenas”.
- On(a) (e)in** (Etx, Lizgb) *ad. 1.* On egin. (XIII, 262). (BB, 282). “Hacer provecho”. *2.* Zerbait gaitzekin. *Ona ein dek!* (¡Buena la has hecho!). “Hacerla buena”.
- Ona(tx)** (Etx, Li zgb, Urd) *esam.* Hona hemen. *Hona* (XIII, 277; V, G, Ae). “Mira, he aquí”.
- Onbeko, -ue/-ua** (Etx, Li zgb) *izond.* Gauza onik ez duen pertsona. ‘On’ eta ‘bageko’ dira bere osagaiak. Bakean uzten ez duena adierazteko ere erabiltzen da. (BB, 283). *Onbekuatzuk ttuk, beti ziiltziek inguukuek izurretzen!* (Onbageko batzuk dituk, beti zabilzak ingurukoak izorratzen!). “Malvado, enredador”.
- Ondalandu** (Etx) *ad.* Aitzurpi koarekin lurra landu, ondo landu. (XIII, 293). Zuhaitzak landatzeko zuloak egin aitzurrez. (B B, 283; ‘cavar con la azada’). “Cavar, hacer agujeros para plantar árboles”.
- Ondar, -rra** (orok) *iz.* Soberakinak, erabili gabe gertatzen dena. *Hondar* (XIII, 295). “Sobrante, residuo”.

- Ondarrien** (Lak) *adond.* Hondarrean, azken batean. “Al fin y al cabo, después de todo”.
- Ondatu** (Sak) *ad.* 1. Izorratu, matxuratu. *Hondatu* (XIII, 306; V, G, AN-5vill, L, B, BN, R). *Ondatu zikieguk kotxie!* (Hondatu zai guk kot xea!). “Fastidiar(se), averiar(se)”. 2. Galdu, alde egi n, desagertu. *Hondatu* (XIII, 309; AN-l arr). *Ondari emendi!* (Honda hadi hemendik!). “Perder(se), desaparecer”.
- Ondeste, -ie/-ia** (Etx, Urd) *iz.* Hausnarrean egiten duten abereen *ipurteste* edo heste lodia eta, era berean, berarekin egi ndako jaki a. (XIII, 312; G). (BB, 285). “Intestino grueso de l os rum iantes y , por extensión, embutido”.
- 1.Ondo, -ue/-ua** (orok) *iz.* 1. Landarea, zuhaitza. (XIII, 333). Konposaket an erabiltzen da gehi enbat: *gazteñondo, saarrondo, gilddondo, intxorrondo, ...* “Árbol”. 2. Zuhaitzen azpialdea, moztu ondoren basoan gerat zen dena. (XIII, 334). (Izag., 78; *ondo-ondoti, zaineti, ipurditi ataa*). “Tocón del árbol que queda en el monte una vez talado”.
-**ONDUE/A JO:** (Sak) Zuhaitza aizkoraz bot a. Egun guzi e y ondu gettuk ondo jotzen (Egun guztia egon gaituk ondo jot zen). “Tal ar un árbol con el hacha”.
3. Hondo. *Hondo* (XIII, 335; G-nav). *Ondo-onduaño sartu zioz labana!* (Hondo-hondoraino sart u zioz labana!). “Fondo”.
-**ONDOBEKO:** *izond.* Hondo gabekoa, i noiz bet etzen ez dena. *Hondogabeko* (XIII, 337; AN-l arr). *Ondobeko estemaube zikok!* (Hondo gabeko estomagoa zeukak!). “Si n fondo, que no se llena nunca. Tragón”.
4. Ek intza b atij arraitzen d iona: *bazkalondo, afalondo*. “Lo que sigue a (una acción)”.
- 2.Ondo** (Bur) (ikus **aungi**)
- Ondokoz** (Bur) (ikus **aungikos**)
- Ondorien** (Sak-erd) *adond.* Ondoren. *Ondorean* (XIII, 341; AN-mer). Urdiainen *onduen*. “Después”.
- Ondozulo, -ue** (Etx) *iz.* Txondorrek behelaldean di tuen zuloak airea hartzeko. “Agujeros i inferiores de l a carbonera para tomar aire”.
- Ondu** (Sak) *ad.* 1. Heldu, zori tu, um atu. (XIII, 357; V, G-nav, AN-araq-ulz, L, B, BN, Ae, R). (Izag., 78; *ondu dia* ‘han m adurado’). 2. Sendotu, osatu. (XIII, 359; V, G, AN, B, BN-arb). “Curar, sanar”.
- Onduatu** (Sak) *ad.* Ondoratu, hurbi ldu. *Ondoratu* (XIII, 340). (BB, 285). *Ixixille onduatzen bayakiyo, zerbeitt ikuskuek!* (Isil-isila ondorat zen bahakio, zerbai ti kusiko duk!). “Acercarse”.
- Onduen** (Sak) *adond.* 1. Ondoan, hurbil. “Cerca, junto a”. 2. Ondoren. *Ondoa* (XIII, 321). *Bazkalonduen etor ittuben*. (Bazkalondoan etorri hituen). “Después”.
- Onek** (orok) *erak.* Honek, ergatibo kasuko erakuslea. “Este”.
- Onesien** (Arb) *adond.* Onezean, onez, modu onean. “De buenas”.
- Ongarri, ye/-ya** (orok) 1. *iz.* Zimaorra, ongarria. (XIII, 386). (Izag., 78; *ongarriya zabaltzea* ‘a esparcir el estiércol’). “Abono, estiércol”. 2. *izond.* Ongarri. (XIII, 387). *Erai auztie ongarri dek orrendako!* (Haiei uztea ongarri duk horrendako!). “Provechoso”. 3. *iz.* Karta txarrak musean. “Tener poca cosa en el mus”.
- Ongarritei, -ye/-ya** (orok) *iz.* Ongarritegia. (XIII, 388; B, BN-bai g, Ae). (B B, 285). Urdiainen *ongarripila* eta *kozpiltza*. “Estercolero”.

- Ongarritu** (orok) *ad.* Ongarritu, zimaurrea bota. (XIII, 388; AN-ul z, B). Burundan palatalizatu gabe. (B B, 285). “Abonar”.
- Ongi** (Ir, Lizgb) (ikus **aungi**)
- Ongiez, -a** (Lizgb) *iz.* Ongieza. Gaizki dagoenaren egoera. “Malestar”.
- Onguramin** (Urd) (ikus **txirrinte**)
- Ontto, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Onddoa. (XIII, 310; G-bet, AN-gi p). (BB, 285). Urdi ainen *ointo*. (Ond. 15; *ointo*). “Hongo de la familia ‘boletus’.”
- Ontobeltx, -a** (Sak-erd) *iz.* Onddo beltza. *Onddo beltz* (XIII, 311; V-gi p, G, AN, L, S). Burundan *ointobeltz*. ‘Boletus aereus’.
- Ontz, -a** (orok) *iz.* Hontza. *Hontz* (XIII, 421; V, G, AN-larr-5vill-araq-ulz-olza). (BB, 285). “Lechuza”.
- Ontzi** (Alts, Urd) (ikus **auntzi**)
- Onutz, -e/-a** (Sak) *adond.* Hona, ‘honuntz’. *Ator onutz lenbeilen!* “Aquí”.
- Onuzkalde, ie** (Etx) *iz.* Hemengo aldea, honako aldea, inguru hau. Urdi ainen *onuzkaldia*. *Gustoro yoten ttuk onuzkaldoko jendieki!* (Gusturago egoten dituk ‘honuntz al deko’ jendearekin!). “Esta zona, el lado de aquí”.
- ONUZKALDIA:** *adond.* Hemengo aldera, ‘honunzko’ al dera. *Ator onuzkaldia!* (Hator ‘honunzko’ aldera!). “Hacia aquí”.
- Oñele, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Txixontzia. *Oñal* (XIII, 573; G-bet, AN-l arr). ‘Orinal’etik dator. (BB, 286). *Alsasun aunbeste auriye eitten dik, ze Sakanako oñelie esaten zibiek!* (Altsasun hainbeste euria egi ten dik, ze Sakanako orinala esaten ziotek!). “Orinal”.
- Oñes ibilli** (Sak-erd) *ad.* Oinez ibili. *Oñes* (XIII, 168; AN-ulz). Burundan *oinez ibili*. “Caminar, andar”.
- Oñetako, -ue/-ua** (orok) *iz.* Oinetakoa. *Oinetako* (XIII, 167; V, G, AN, B, Ae). Urdi ainen *ankatako*. (Izag., 50; *ankatakuk* ‘el calzado’). “Calzado”.
- Oñeze, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Oinazea, mina. (XIII, 156; AN-ol za). Burundan palatalizatu eta asimilatu gabe. *Eyet sekule urai alako oñezeik!* (Ez diat sekula eduki halako oinazerik!). “Dolor”.
- Oñiño, -ue** (Etx) *iz.* Animaliak emandako ostikada. *Iri ez tuuk, ez, ollueen oñiñuek ilko!* (Hiri ez dik, ez, oiloaren oñiñoak hilko!). “Coz”.
- Oñutsetan** (Sak-erd) *adond.* Oinutsik, ortozik. (XIII, 175; AN-araq-ulz). *Oñutsien* ere bai. Horrela ageri da ‘Urteberri’ kantan: ... *gu geixubok oñutsetan* ... (... gu gaixook oin hutsetan ...). Urdiainen *ankustan*. “Descalzo”.
- Oñutsien** (Sak) (ikus **oñutsetan**)
- Ooin** (Ir) (ikus **guai(xe)**)
- Oosi** (Arb, Do) (ikus **yosi, egosi**)
- Opari, -ye/-ya** (orok) *iz.* Oparia. (XIII, 454; V, G). “Regalo”.
- Oparo** (Etx, Li zgb) *adond.* Ugariro, franko, gogara. (XIII, 455; V, G). Gehienbat janari kontuetan erabiltzen da. “Satisfactoriam ente, abundantemente, opiparamente”.
- Opatu** (Sak-erd) *ad.* Aurkitu, topatu. *Egun guzien eyau ontuat ee opatu!* “Encontrar”.
- Opil, -lle/-lla** (Sak) *iz.* Ogi lau a, m ehea, taloaren modukoa. (XIII, 458; V, G, AN-gip-5vill-ulz, L, BN, Ae, Sal, S, R). (Izag., 78; *opilki bat* ‘un pan más delgado’). “Pan plano, torta”.
- Opilki** (Alts) (ikus **opil**)
- Opo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Orpoa. (XIII, 607; G-to-nav). (BB, 288). (Ond. 15; gozne). (Izag. 78; *opo guziya*). “Talón del pie”.
- OPOPOTAN:** (Etx, Li zgb) *adond.* Orpo-orpotan, ia gainean, orpoetan ia.

- Herodesen soldaduek opopotan zizkobabien!* (Herodesen sol daduak orpo-orpotan zeuzkatean!). “Pisan-do los talones”.
- Opor, -rra** (orok) *iz.* Jai egon, oporra. (XIII, 461; V-oro-z-gip, G-azp-to, AN-5vill, L, B). “De fiesta, vacación”.
- Or** (orok) *adond.* Hor. (XIII, 464). “Ahi”.
-OR *KONPON!*: *esam.* Hor konpon! “¡Allá cuidados!, ¡Tú (vosotros) verás (veréis)!, ¡Ahí te (las) arregles!”.
- Orai/orei** (Do, Un, Oi) (ikus **guai**)
- Orbel, -a** (orok) *iz.* Orbela, basoko hosto lehorrak. (XIII, 497; V, G, AN-gip-5vill, BN-baig). (Irib. Lizarralde-Ameskoa). (Izag. 78; *orbel gutxi*). “Hojarasca”.
- Orbiatu** (Etx) *ad.* Oinak mindurik eduki, handiturik eta guzti. ‘Agujetak’ izan. Gehienbat ardiekin erabiltzen da. *Orberatu* (XIII, 497; AN-I arr, S). Arbizun *borbeatu*. *Minbiatu*-ren sinonimoa dugu. *Ankazpiye erabat orbiatuik zikonaat aunbeste ibiltzes*. (Hanka azpia erabat orberaturik zeukanat hainbeste ibiltzeaz). “Tener los pies doloridos, recalentados, tener agujetas”.
- Orbo, -ue** (Etx) *iz.* Zuhaitz enborretako irtendurak. *Bordazeliko aritzek orbo aundiyeke uraitzen zittubiek!* (Bordazeleiko haritzek orbo handiak edukitzen ditizte!). “Abultamientos o prominencias en el tronco de los árboles”.
- Ordei** (Lizgb, Arb, Lak) (ikus **erdoi**)
- Ordein, -ñe/-ña** (Sak-erd) *iz.* Trukearen objektua. *Ordain* (XIII, 498; V, G, AN, BN, Ae). (Irib. *ordaña* Iruña-Iruñerria-Erdialdea, *ordaya* Añorbe-Erroibar-Mendialdea). *Noiz eman ber niezu ordeñe?* (Noiz eman behar didazu ordai na?). “Objeto del trueque”.
-ORDEÑES: *adond.* Ordainean, ordainez. (XIII, 501). *Emanko dunet ari piru bet ordeñes!* (Emango di nati hari piru bat ordainez!). “A cambio”.
- Ordeinddu** (Sak-erd) *ad.* Ordaindu. *Ordaindu* (XIII, 502; AN-I arr, Ae). “Pagar”.
- Ordek/n** (Sak-erd) *esam.* Joan hadi, seguru aski *Ordezu* eta *ordezubie* ere erabiltzen dira. ‘Hor duk (bi dea!)’ izango litzateke bere jatorria. “¡Vete!, ¡váyase!, ¡iros!”.
- Ordeko, -ue/-ua** (orok) *izond.* Ordea, beste bat en ordeztatu. (XIII, 511; V-gip, AN, B). Gurdietan, esate baterako, *gurtzii* (gurdiziri) bat gehiago eramaten zen, ‘ordeko’ moduan. “Sustituto, repuesto, adoptivo”.
- Ordie/a** (Sak) *junt.* Ordea. (XIII, 509; BN). (B B, 288; *ordia*). *Zuek, ordie, eztakazubie gauz onik!* (Zuek, ordea, ez daukazue gauza onik!). “En cambio, desde luego”.
- Ordik/n** (Urd) *esam.* Auskalo, jakintzak/n. “Véte a saber”.
- Ordoki, -ye** (Lak) *iz.* Eremita. *Albiti ataa bide bateti gora, gio borda batzutereño, Beloki ondoti pasa ta gio beste ordoki betien ta an dao Unako putzube.* (Albitik ateratzen bide batetik gora, gero borda bat zuetaraino, Beloki ondotik pasatu eta gero beste ordoki bat ean eta han dago Unako putzua). “Llanura”.
- Ordots, -a** (Sak) *iz.* Txerri arra, baina ez apotea. (XIII, 528; G-azp-goi -nav, AN-larr-5vill-egüés-erro-ilzarb-olza, B). (Izag., 78; *ordotsa* ‘el macho de cerdo’). “Cerdo macho, pero no el verraco”.
- Ordu, -be/-ba** (orok) *iz.* Ordua. (XIII, 529; Ae, Sal, S, R). “Hora”.
-ORDUBETA: (Sak-erd) *iz.* Ordu bata. “La una, de la tarde o de la madrugada”.
- Orduben** (Sak-erd) *adond.* Orduan. (XIII, 541). Urdaia kontsonante

- epentetikorik gabe: *orduen*.
“Entonces”.
- Ordubentxe(n)** (Sak-erd) *adond*.
Orduantxe. *Orduantxe* (XIII, 545).
Urdiainen *orduentxe*. “Entonces
mismo”.
- Orduko, -ue/-ua** (Sak) *adond*. Ordukoa.
(XIII, 547). “De entonces”.
- Orduskios** (Etx) (ikus **arreskios**)
- Oreitz, -e/-a** (Sak) *iz*. Oritza, esne
murgila, umea izan berri duen
behiaren esnea. (XIII, 574; V-gip, G-
azp-bet). (B B, 289). Urdiainen
oraitza. (Izag. 78, *oraitza*). “Ca-
lostro”.
- Ore, -ie/-ia** (orok) *iz*. Orea, ogia egiteko.
(XIII, 555; V, G, AN, L, B, BN, Ae,
S, R). (BB, 289; *orie*). “Masa de pan”.
- Oremei, -ye/-ya** (Sak) *iz*. Ore-mahaia.
Oramahai (XIII, 489; V-m-gip, AN-
araq, B, Sal, R). (Ond. 15; *olamai*).
(Izag. 78; *oremaiya* ‘la artesa’).
“Mesa para amasar el pan”.
- Oretu** (orok) *ad*. Ogia egiteko orea landu.
Oratu (XIII, 492; V-m-gip, G, AN-
araq, L, B, B N). (B B, 289).
“Amasar”.
- 1.Ori** (orok) *erak*. Hori. (XIII, 565; V, G,
AN, L, B, BN, S). “Ese”.
- 2.Ori, -ye/-ya** *izond*. Horia, kolorea. (XIII,
570). (BB, 289). “Amarillo”.
-**ORIKERA**: *izond*. Hori antzekoa.
Horikara (XIII, 573; L, B, BN).
“Amarillento”.
- Orieta** (Etx) *iz*. Belar mota, berdea,
ilarraren antzekoa. “Planta verde,
parecida al brezo”.
- Orixta** (Urd) (ikus **pikoxta**)
- Orkatz, -a** (Etx, Li zgb) *iz*. Orkatz,
basahuntz. (XIII, 577; AN, Sal, S, R).
*Orkazteiteko zuluena ziek zuen
ardiyek!* (Orkaztegietakozuloan
zeudek zuen ardiak!) Horrela hartu
genion Jose Luis Garmendia artzain
etxarriarrari beste artzain bat izan
ardien berri emanez. Urbasako
toponimoa dugu *orkazteite*, eta
- galdetu genionean Jose Luis ea zer
den ‘orkatza’, “*basahuntz beño
aundixookue*” (basahuntza baino
handixeagokoa) erantzun zigun.
“Corzo”.
- Ormen** (Un) (ikus **espal**)
- Ornu, -be/-ba** (Etx, Li zgb, Arb) *iz*.
Zaldien lepoko gaixotasuna, konkorra
egiten zaielarik. (XIII, 586; G-goi,
AN-larr). (BB, 290; ‘peste equina’).
“Enfermedad de los caballos en forma
de bulto en el cuello”.
- Orra(tx)** (Sak) *esam*. Horra hor. *Horra*
(XIII, 609; V, G, AN, L, BN, Ae, S).
Orratx, or dakazu! (Horra, hor
daukazu!). “Mira, he ahí”.
- Orratz, -a** (orok) *iz*. Orratza. (XIII, 614).
Orratz desberdiak bereizten dira:
*jostorratza, kaporratza, ... Dorrauko
orratx, Lizerrako jostorratx ta
Unenuko kaporratx!* (Sakanako esaera
zaharra, Ergoien enako herriaren
egokitua). (Izag., 78; ‘el alfiler’).
“Aguja”.
- Orrazi, ye/-ya** (orok) *iz*. 1. Orrazia. (XIII,
617). (Izag. 78; *orraziya*). “Peine”. 2.
Gurdiaren zatiak, aldeak
endaitzarekin elkartzen dituztenak.
(XIII, 617). (Ond. 15; *t ravesaña,
hablando de carros, arados, et c*).
“Piezas del carro que unen los
laterales con el timón”.
- Orraz(it)tu** (orok) *ad*. Orraztu. *Orraztu*
(XIII, 619; V, G-t o-bet, L, BN, S).
(BB, 290). (Izag. 78; *orrazteko diruba
... guaiko orraztik eta guaiko
berriketakin nesakiyak eztukai
gauzonik*). “Peinar”.
- Orren** (Sak) *part*. Horren, partikula
konparatzailea. (XIII, 623; V, G, AN,
L). *Orren aungi atia dakiguna!*
(Horren ongi atea zai gunak!). “Tan,
que (comparativo)”.
- Orri, ye/-ya** (orok) *iz*. Orria. (XIII, 628;
V, AN). Zuhaitzei dagokienez, *osto*
erabiltzen da, baina zenbait
landareren izenetan hauxe gorde da:

- ziyorri, iruorribelar.* Horrela, letxuga edo azarenak ere orriak dira. *Ensalada eitteko neiko zittubau letxu orri pariat, tomatie ta tipul pixkaat!* (Ensalada eg iteko n ahiko d itiagu letxuga orri pare bat , t omatea eta tipula piska bat!). (BB, 290). “Hoja de papel y de al gunas plantas como la lechuga y la berza”.
- Orro, -ue/-ua** (orok) *iz.* Marruma, orroea. (XIII, 632; G, AN, L, BN, S). (BB, 290). (Izag. 78; *orruz doo baiya* ‘está mugiendo la vaca’). “Rugido, mugido”.
- Orrues** (Sak) *adond.* Orroeka. *Orruaz* (XIII, 633; S). (BB, 291). Urdi ainen *orruetz.* (Izag. 78, *orruz doo baiya*). “Mugiendo”.
- Orrutz, -e/-a** (Sak-erd) *adond.* Horra, horrantz. “Ahí, hacia ahí”.
- Orruzkalde, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Horko aldea, horrako aldea. Urdi ainen *orruetzalde. Orruzkaldia fan dek!* (Horko aldera joan duk!). “El lado de ahí”.
- Ortondo, -ue/-ua** (Sak-erd) *iz.* Zare handia, saski handia. (XIII, 638). “Cesto grande, espuerta”.
- Ortots** (Uh, Ir) (ikus **ostots**)
- Ortots erauntsi** (Ir) (ikus **odoi**)
- Ortz, -a** (orok) *iz.* Hortza. *Hortz* (XIII, 642; V-gip, G, AN, L, BN, Ae, Sal, S, R). (Izag., 78; *orz*). “Diente”.
-*AGOTI ORTZIA!* (ikus *ago*).
-*ORTZAK AIDIEN (urái): esam.* Hortzak airen (eduki). Urdiainen *ozkia.* “(Tener) dentera”.
- Ortzaundi, -ye/-ya** (Sak) *izond.* Hortz handiak di tuen pertsona. *Hortzandi* (XIII, 648). “Dientes grandes, dentón”.
- Ortillere** (Ir) (ikus **ostiele**)
- Orube, -ie/-ia** (Etx, Li zgb, Urd) *iz.* Bi etxeren artea, tokia. (XIII, 655; V-germ-gip, G). Li zarragabengoan etxearen egon den edo egonen den lurreremua. “Hueco entre dos casas, solar”.
- Osaba** (orok) *iz.* Osaba, aita edo amaren anaia edo koinatua. (XIII, 656). “Tío”.
-*OSABA TXIKIYE:* (Etx) *iz.* Ama edo aitaren lehengusu propioa. “Tío segundo”.
- Osasun, -e/-a** (orok) *iz.* Osasuna, gorputzaren egoera. (XIII, 662; V, G, AN, L, B, BN-ciz-baig, Sal). “Salud”.
- Osatu** (Sak-erd) *ad.* Zikiratu, irerendu. (XIII, 672; G-nav, AN, L, BN, S, R). *Biyer goizien osatu ber zittubiek txerrikumiek!* (Bihar arratsaldean osatu behar ditiztek txerrikumeak!). “Castrar”.
- Osa(t)zale, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Zikiratzailea, irerentzailea. (XIII, 673). Horrela jasotzen Arbizon (SAT, 39): “*Ne atta zen osatzallia. Eta garai batien (...) iriyek, astuek, bueno astua ya etzen osatzen, mandue eta ... osatzen zien denok ...*”. “Castrador”.
- Oska** (Etx) *iz.* Koska, akatsa. Produktu batean zati bat kentzerakoan gelditzen den marka. Baita ganadoaren belarrarian egiten den marka ere. (XIII, 794; B). Urdiainen *koska.* (BB, 291). (Irib. Erdialdea–Mendialdea–Erronkari, *ozka* Aezkoa). *Aizkoroi oskas beteik zio!* (Aizkora hori koskaz beterik zegok!). “Muesca”.
- Oskolka** (Etx) *iz.* Gehiegikeria, ‘uts (ur) kolpe’-tik dator seguru asko. *Oskolka uberi eñik zizkok bei, orrek!* (Oskolka ugari eginik zeuzkak bai, horrek!). “Exceso”.
- Oso, -ue/-ua** (orok) *1. grad.* Oso, txitxiki. (XIII, 686). “Muy”. *2. izond.* Osoa, guztia. (XIII, 681). “Entero”.
- Ososo, -ue/-ua** (Sak) *izond.* Oso-osoa. (XIII, 690). “Entero, totalmente”.
- Ospa** (Sak) *esam.* Alde (hemendik)! Ihes (egin). (XIII, 697; V-gip, G-azp-go,

- AN-gip). (B B, 292). “¡Vét e!, escapada, fuga”.
- Ospa ein** (Sak) *ad.per.* Alde egin. (XIII, 697; V, AN-larr). *Gu quartziako ospa ein ziyabien!* (Gu ohart zerako ospa egin ziaten!). “Escapar, irse”.
- Ospel, -a** (Sak) *iz.* Ozpela, azkordi na. (XIII, 702; V, G). *Auspela* ere entzun daiteke. Irañetan *uspela*. “Sabañón”.
- Ostalai, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Ostalaria. (XIII, 706; G-nav). (Ond., 15). “Posadero”.
- Ostatu, -be/-ba** (orok) *iz.* Gaua pasatzeko etxea, ost atua. (XIII, 710). “Venta, posada”.
- Ostatu artu/eman** (orok) *ad.* Ostatuan gaua i garo. (XIII, 711), “Hospedar(se)”.
- Ostazui, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Zuhaitz m ota. *Ostatxuri* (XIII, 714; AN-ol za). Arbizun urki m ota bat i esat en zai o horrela (Ol asagarre, 1990; abedul *urkia, ostazuitta*). Urdi ainen *ostozui*. “Sorbus aria, árbol”.
- Ostegun, -e/-a** (orok) *iz.* Asteko laugarren eguna. (XIII, 719; V-gip, G, AN, BN, S, R). “Jueves”.
- Ostial** (Urd) (ikus **ostiele**)
- Ostiele, -ie/-ia** (Sak-erd) *iz.* Asteko bosgarren eguna. (XIII, 735; G-nav, AN-araq-ulz). Irañetan *ortzillerie*. (Ond. 15; *Ostiele Santua*). Urdi ainen *ostial*. “Viernes”.
- Ostiko, -ue/-ua** (Sak) *iz.* 1. Ostikada, hankaz em aten den kolpea. (XIII, 730; V-gip, G, AN-gip-5vill, B, BN, R-uzt). “Patada”. 2. Habea, zutikoa. (XIII, 731; V, G, L, B, BN, R). *Paatu yozubie ostikoon bat kapiyuorri, erdi ustelduik zioz ta!* (Paratu iezaiozue ostikoren bat kapi rio horri, erdi usteldurik zagok et a!). “Punt al, apoyo”.
- Ostikokan** (Sak) *adond.* Ostikadak emanez. (XIII, 733). *Ostikokan bieldu ye tabernati!* (Ostikadaka bidali ditek tabernatik!). “A patadas”.
- Osto, -ue/-ua** (orok) *iz.* Hostoa. (XIII, 736; G, AN, L, B N, Ae, Sal , S, R). “Hoja de los árboles”.
- Ostosketan** (Sak-erd) *adond.* Trumoika. (XIII, 740; G-nav, AN). Urdi ainen *jostaiketan*. (Ond. 12; *jostaiketan*). “Tronando”.
- Ostosleño, -ue/-ua** (Etx, Li zgb) *iz.* Ekaitza datorrela iragartzen duen laino edo hodeia. *Ostots-laino* (XIII, 741; G-nav). Urdi ainen *odei*. “Nube que vaticina tormenta”.
- Ostots, -a** (Sak-erd) *iz.* Trumoia, ort otsa. (XIII, 740; G-nav, AN-larr-araq-erro, B, S). Uharten eta Irañetan *ortots*. (Ond. 12; *jostai*). Urdi ainen *jostai*. (Izag., 77; *oineztura gaiztúek asi zian eta jostaíyék ...*). *Marsuko ostotsak berrogei egun negu!* (Martxoako ostotsak berrogei egun negu!, Etxarriko esaera). “Trueno”.
- Ostrilleka** (Etx, Lak) *iz.* Ostadarra, ortzadarra. *Ostilleka* (XIII, 734; G-to, AN-larr). Ikusten denez, lehenaren hasiera bera du, eta beste osagaiak ‘euri’ eta ‘l eka’ i zango geni tuzke, bigarren honek bare eta marraskiloez uzten dut en muki arrast oa adi erazten duelarik. Iñaki Uriz lakuntzarrak esan didanez Lakuntzan ere erabiltzen da. Horrela beraz, “euriak zeruan uzten duen arrast oa” adi eraziko l uke i zen honek. (SEE, 160). *Jangoikuen gerrikue* ere erabiltzen da. Urdiainen *Jangoikuen gerriko* eta *Erromako zuia*. “Arco iris”.
- Ostu** (Sak) *ad.* Ostu, lapurtu. (XIII, 742; V, G). (Izag., 78; ‘hurtar’). “Robar”.
- Osun, -a** (Alts) *iz.* Putzu sakona. (XIII, 674; G-nav). (Izag., 78; ‘el pozo profundo’). Urdiainen *putzutai, -a*. “Pozo profundo”.
- Ota/e** (orok) *iz.* Otea. (XIII, 749; V, G-nav). (Izag. 78; *ota gutxi* ‘poca argoma’). “Argoma”.
- Otaaji** (Lizgb, Arb) (ikus **otafaki**)

- Otafaki, -ye/-ya** (Sak) *iz.* Arbiak eta erremolatxak moztu edo txikitzeko laban handia edo aizkora modukoa. (XIII, 745; G-nav). *Otajaki* ere entzun daiteke. (BB, 293). (Ond. 15; *otafaki*: instrumento para desmenuzar ciertos alimentos (nabos, ortigas...), que se dan al ganado. Consta de un palo largo, que hace de mango, y un hierro cortante incrustado en él). Lizarragabengoan eta Arbizun *otaajiya*. “Cuchillo grande para cortar nabos”.
- Otamen, -a** (Lak) *iz.* Eguneko edozein ordutan egiten den otordua. “Refrigerio, comida a cualquier hora del día”.
- Otatza** (Etx) *iz.* Erein ondoren, sorotegien egiten diren ildok, euriak uzten duen ura bideratzeko. “Surcos en los campos sembrados para canalizar el agua de lluvia”.
- Ote** (orok) *ad.part.* Ote. (XIII, 748; G, AN, L, B, BN, S, R). *Baote? Ezote? Ez otiaka?* (Bai ote? Ez ote? Ez ote dauka?). (Izag., 78; ... *ta gu berriz danok an espea iya milagromat iten ote zeen* ...). “Partícula modal verbal que expresa duda”.
- Otol** (Alts) (ikus **endai**)
- Otordu, -be/-ba/-a** (Lak, Lizgb, Arb, Urd) *iz.* Otordua, jatordua. (XIII, 761; V, G, AN, L-sar, B, BN-baig, Sal, R). Horrela ageri da jasoa Lakuntzan (SAT, 24): “*Batzuk otordu bateki, beste batzuk otordu bat baño geyo, ta según zenbat denbora*”. Urdi ainen kontsonante epentetikorik gabe eta asimilatugabe: *otordua*. “Hora de comer, cualquiera de las comidas que se realizan durante el día”. (ikus **jatordu**)
- Ots, -a** (orok) *iz.* Hotsa, zarata. (XIII, 762). “Ruido”.
-(ZERBAITEN) *OTSA IZEN: ad.per.* (Zerbaiten hotsa izan. *Eztiau guai biyertie orren otsik izendu!* (Ez diagu orain bitartean horren hotsin izandu!). “Enterarse, tener noticia”).
- Otsail, -lle/-lla** (orok) *iz.* Bigarren hilabetea. (XIII, 768; V-gip, G, AN, L, B, BN, Ae, Sal, R). *Otsailko, otsailko, ibilko ttuk igati nee ardiyek salto ta brinko!* (Etxarriko esaera). “Febrero”.
- Otsarra** (Lak) (ikus **otserbi**)
- Otsaundi, -ye** (Etx) *izond.* Oihukaria, garraxia egiten duen pertsona. “Chillón, gritón”.
- Otsein** (Sak) *ad.* Deitu, hots egina. *Hots egin* (XIII, 765; V, G-azp-t-o-nav). Olaztin *otsin*. “Llamar”.
- Otserbi, -ye** (Etx) *iz.* Arrubioa, uhandrea. Lakuntzan *otsarra*. Lizarragabengoan eta Arbizun *otxarruiya*. (BB, 293; *otxerbiye*). Urdiainen *arrikopiko*. “Salamandra, tritón”.
- Otsin** (Ol) (ikus **otsein**)
- 1.Otso, -ue/-ua** (orok) *iz.* Otsoa. (XIII, 773). *Otsuek eztik bee aragiik jaten! Otsuek eztik belarrik jaten!* (Otsoak ez ditek bere haragiarik/belarrik jaten!, Etxarriko esaerak). “Lobo”.
- 2.Otso** (Urd) (ikus **no, to**)
- Otsobaba** (Etx) *iz.* Eremu harri tsuetan sortzen den landarea. (XIII, 774; G-nav, AN-5 vill-larr, S, Sal, R). Oso usaintzarra botatzen du. (BB, 293). “Planta de olor fétido que brota en lugares pedregosos”.
- Otsobelar, -rra** (Etx) *iz.* Sukaldaritzan erabiltzen den belarra, xarbotu, dugu, Jose Luis Garmendia artzain etxarriarraren esanetan. “Tomillo”.
- Otsokume, -ie/-ia** (Sak) *iz.* Otsoko. (XIII, 774; V, G, L, S, Sal). (BB, 293). Urdiainen *otsokuma*. (Izag., 79; *otsokuma* ‘lobato’). “Lobezno”.
- Otsuts, -e** (Etx) *izond.* Zarata edo iskanbila sortzen duen pertsona. *Hots eta huts* dira bere osagaiak, hots hutsa denari esaten zaio, beraz. *Ez ayela arrittu orrekin, otsutse dek eta!* (Ez

- hadi(la) harri tu horreki n, hot s hutsa duk eta!). “Bullosa, bulliciosa”.
- Otxarratu** (Etx, Li zgb, Arb) *ad.* Zaletu, grinaturik. (B B, 293; *otxarratuik ago*). “Aficionar(se), cebar(se)”.
- Otxarrui** (Arb) (ikus **otserbi**)
- Otxokuarto** (Etx) *part.* Harridura edo ez adostasuna agert zeko part ícula dugu. ‘Demontre’-ren parekoa. *Ze lana ta ze otxokuarto!* (Zer lana eta zer otxokuarto!). “Part ícula usada para expresar desacuerdo o sorpresa ante algo que se acaba de oír. Equivalente a ¡Qué diablos!, ¡Qué rayos!”
- Otz, -a** (orok) *iz.* Hotza. (XIII, 778). “Frio”.
- OTZAK GARBITZEN YON* (Sak) *ad. per.* Hotzak garbi tzen egon, erabat hoztuta. *Otzak garbitzen niok, dal-dal-dal!* (Hotzak garbi tzen nagok, dal-dal-dal!). “Estar aterido de frío”.
- OTZ AUNDIRIK EZ IZAN ZERBAITEK:* (Etx) *esam.* “Hotz” handirik ez izan zerbaitek. *Eztikok, ez, otz aundiik kontuboorrek!* (Ez zeukak, ez, hotz handirik kontu horrek!). Horrela jaso dio Etxarriko “Juani xio” etxeko Anttoni Mendiolar bere seme gazteenak eta honek esaten duenez, norbaitek zerbait behin eta berrituz errepikatzen duenean erabiltzen da esamolde hau, hainbestetan errepikatzean hozteko denborarik eman ez zaiola kontuari adieraziz, hots. “Ser cosa o di cho ‘requetesabido’, muy repetido”.
- OTZAK ATIA:* (Etx) *ad. per.* Hotzak atera. *Elurroiten ibillita, majo atiako zittubau otzak!* (Elur hauetan ibilita, ederki aterako ditugu hotzak!). “Quitar el frío”.
- Otzakila** (Urd) (ikus **ozkillo**)
- Otzikera** (orok) *iz.* Hotzikara. (XIII, 787). (BB, 294). Urdiainen asi milatu gabe. “Escalofrío”.
- Otzil, -lle** (Etx) *iz.* Uretan sartu aurretik, gorputza uraren tenperaturara egokitu nahian hartzen den bustialdia. (XIII, 788; G-goi-to, AN-gip-5vill). Bustialdia, gehi enbat sabel inguruan, kopetan eta kaskezurrean hartzen da. “Acción de mojar el cuerpo antes de empezar a nadar, preparación para practicar la natación”.
- Oya** (Bur) (ikus **guatze**)
- Oyel, -a** (Sak-erd) *iz.* Oihala. *Oihal* (XIII, 112; V, G, AN, L, B, BN, Ae, Sal, S, R). Oso emankorra da konposaketan: *eskuteko oyela, aurroyela, sangeioyela, autsoyela*. “Paño, trapo”. -*OYELJAZKIYE:* (Hir) *iz.* Oihaletarako saskia, garbitzerak eramateko. “Cesto de la ropa”.
- Oyu (ein)** (Sak-erd) *ad.* Oihu egin, agirika egin, demanda egin. (XIII, 186). Urdiainen *garrasi in*. “Echar la bronca, reñir”.
- Oyu, -be/-ba** (Sak-erd) *iz.* Aharra, kalapita. (XIII, 184; V, G-to, AN, L). Urdiainen *garrasi*. “Bronca, riña”.
- Ozka** (Sak) *1. iz.* Koska. *Hozka* (XIII, 794; G, AN, L, Ae). (B B, 294). “Mordisco”. *2. ein* (Sak-erd) *ad.* Koskegin, hagi naka egin. (XIII, 795; G, AN-larr-ulz-erro, B, Sal). Irañetan *ozka in*. (Izag., 79; *ozka in*). “Morder”.
- Ozkada** (Urd) (ikus **ozkazo**)
- Ozkakan** (Sak) *adond.* Haginka egin nez. (XIII, 796; B). “A mordiscos”.
- Ozkarratu** (Etx, Li zgb, Arb) *ad.* Hotzez kikildu, hotzak garbi tzen egon. *Ozkarritu* ere bai Etxarrin. (BB, 294; *ozkarratuik* ‘tembloroso, que tirit de frío’). “Aterir de frío”.
- Ozkazo, -ue/-ua** (Sak) *iz.* Koska. Urdiainen *ozkada*. “Mordisco”.
- Ozka** (Urd) *adond.* Hozzak aidean eduki. Hoztetako mina. *Hozki* (XIII, 797; G-to-bet, AN, L). Etxarrin *ortzak aidien urai*. “(Tener) dentera”.
- Ozkillo, -ue** (Sak) *izond.* Hozbera, hozkil. *Ozkilo* (XIII, 798; G-nav). Arbi zuna

ozkiya. (Ond. 15; *ozkilo*). Urdi ainen
otzakila. “Friolero”.

Ozpin, -ñe/-ña (orok) 1. *iz.* Ozpina.
(XIII, 801). “Vi nagre”. 2. **-du** *ad.*
Ozpindu. (XIII, 802). “Avinagar”.

Ozpiñerre, -ie (Etx) *iz.* Urdaila ozpintzen
denean, bi hotzerrea. Urdi ainen
kotrina. “Ardor de estómago”.

Oztu (orok) *ad.* Hoztu. (XIII, 806).
“Enfriar(se)”.

P

- Pa** (orok) *iz.* Musua, haur hi zkuntzan. (XIII, 809). *Emayozu pa aittunai!* (Emaiozu pa aitonari!). “Beso en lenguaje infantil”.
- Paamenta** (Etx) *iz.* Ordaintzearen ekintza, pagamenta, ordai nketa. *Pagamenta* (XIII, 812; AN-gi p). Urdi ainen *pagamendu*. “Pago”.
- Paate, -ie** (Sak-erd) *iz.* Horma, pareta. *Parete* (XIII, 861; R-uzt). Azken honen burut zapena da, metatesia eta guzti. “Pared”.
- Paatetxoi** (Ir, Lizgb, Arb) (ikus **galartxori**)
- 1.Pa(a)tu** (Sak) *ad. 1.* Ordaindu, pagatu. (XIII, 813). “Pagar”.
- 2.Pa(a)tu** (Sak) Kokatu, ezarri, paratu. (XIII, 852; G-nav, AN-gip-larr-5vill, B). (Ond. 15; *patu*). “Colocar, poner”.
-*PAATUBE/A: posp.* (Etx, Li zgb, Arb) Paratua, antza adierazteko erabiltzen den posposi zioa dugu, aurreko hitza absolutiboan eskatzen duelarik. *Zuen mutiko txikiina, aittune paatube dek!* (Zuen m utiko tx ikia, aitona paratua duk!). “Como el propio ... , ... pinto y parado. Posposición para expresar el parecido”.
- Pa(a)txi** (Arr, Lak, Urd) (ikus **fagatxi**)
- Pa(ga)di** (Bur) (ikus **fagai**)
- Pagamendu** (Urd) (ikus **paamenta**)
- Pagaxibikor** (Alts) (ikus **fagatxi**)
- Pago** (Bur) (ikus **fago**)
- Palastatu** (Etx) *ad.* Ontzian dagoen edozein l ikidoren mugimenduaren ekintza, likidoa ontzitik kanpora botatzeraino eram an dezakeena. Seguru aski , *pilisti-palasta* hitz onomatopeikotik eratorria. (XIII, 826; V, G, B). *Ekar zak esnie belexe, beye kontus ibilli, palastatu ta bota bee!* (Ekar ezak esnea berehalaxe, baina kontuz ibili, palastatu eta bota gabe!). “Balancear(se) un líquido en un recipiente”.
- Paltsa** (Sak) *iz.* Urmahel, i doi, urez beteriko gunea. *Palsa* (III, 816; S). “Balsa de agua”.
-*IZERDI PALTSETAN YON: ad.* Izerditan bl aiturik egon. *Izerdi paltsetan niok!* (Izardi baltsatan nagok!). “Estar empapado en sudor”.

- US PALTSA*: *iz.* Ur baltsa. Urdiainen *ur patsa*. “Balsa de agua”.
